

zarate
mikel

BIZKAIAKO
EVSKAL
IDAZLEAK

L.v/74

11.700



Euskal Biblioteka Labayru



1010732
LITERATURA / N. 24



BIZKAIKO EUSKAL - IDAZLEAK

Bizkaierazko literaturearen kondaira antzera

1580 - 1968

Idazlea: Zarate Mikel

Apaintzaileak: Mentxaka Rapel

Del Agua Lauro


Argitaratzailea:
Derioko Seminario - Ikastetxea

Inprimatzailea: Eguiluz Bilbao

Bear diran baimenakaz


Legezko depositua: BI - 2319 - 1970

itzaurrea



—«Maritxu, nora zoaz, eder galant ori?
—Iturrira, Bartolo, nai badozu etorri.
—Iturrian zer dago? —Ardautxu zuria,
biok edango dogu nai dogun guztia»





ITZAURREA

Iturrira noa... Baiña zein iturritara?

Mundu guztiko erririk geienetan, eta gurean bere bai, literatura-iturri bi dagoz: Aoz-aozko iturria ta liburuetao iturria.

Aoz-aozko iturria, erri-erriaren iturria da, ta erri-literatura deritxogu. Munduko erri guztietan dago iturri ori. Izan bere, ez dago munduan erririk, zelan edo alan, iturri ori sortu ez dauanik. Erri guztietan dago eskolabakoen kultura bat, erri-jakintza bat, aoz-aozko erri-literatura bat. Erri guztietan dago izkuntza bat eta aoz-ao erabilten dira leenagoko jazoerak edo ipuiñak edo kantak; aoz-ao erabilten dira oiturak, siñeskerak eta abar.

Gaur, jakintsuen artean, geroago ta inportantzia andiagooa emoten jako erri-literatura orreri, erri batek bere izakerea ortxe agertzen ei dau-ta iñon baiño obeto. «Erri-ipuiñak dira literaturaren aurrenengo kimuak, noski. Erri-ipuiñak izan diralako kulturadun izkuntzen literatura oiñarri. Sarri, ipuiñak aski dira erri baten sikolojiaren bereizkuntza egiteko. Beren aberastasu-netik neurtu ditzake erri-gogooa» (1).

Liburuetao iturria bere, erririk geienak sortu dabe. Baiña ez danak. Liburuetao iturria erri-literatura berbera da, baiña landuta, idatzita. Eta idazleen eragiñez sortzen da. Literatu idatziak erri-literaturea batu, osotu,

(1) San Martin Juan.

garbitu, indartu, zuzendu ta zaindu egiten dau. Eta bear-bearrezkoa da, erri bat kultura bideetara eroateko. «Idazleek eraman oi dute izkuntza bere umotasunera. Gauza goratuak aisa ta egoki adierazteko trebetasun ta antze ori, berek ematen baitiote izkuntzari» (2).

Gure euskal-literaturako iturri biak zelakoak dira?

Gure erri-literatura antxiñakoa, ugaria ta aberatsa da, beste edozein erritan dagoanaren antzekoa; gure erriaren iturria ona da, «ez baita gure erria uste bezin sasi» (3).

Idazleen iturria, oster, ez da orren ona; gure euskal-liburuetako iturria, gure literatura idatzia oraintsukoa eta urri samarra da, eta, zorixarrez, ez dau orren ur ona emoten. Zergaitik? Ofizialki latiña edo erdere, erabili izan diralako beti; ikastola barik, euskaldun geienok euskeraz analfabetoak garalako; euskaldun gitxi eta euskalki asko egon diralako... Eta abar eta abar.

Dana dala, zerbait ba daukagu. Beste erri batzuen parean kaskar geratu arren, («dauanean dauantxua, ene enetxua»), zerbait ba daukagu. Eta sarritan uste izaten dan baiño ugariagoa ta aberatsagoa da zerbait ori. Izan bere, arrituta gelditzen da bat ikusirik gure euskal-literatura idatzia «bere mear-murritzean ez dela guk uste genduan bezain urria, muga zabalagoak dituela bere ezerezean, eta iñoiz entzun ez genituen aberastasun izkutuak ere bai...; ba dira zenbait eliz-liburu eder, prosaz naiz itz neurtuz, eta, tarteka eta bakanka, eliz-liburuak ez diren irakurgai atsegiñak ere bai: larre-lore ikusgarriak nonnai bezain ugari, bestetan esan dudanez, eta usai oneko landuagoren bat edo beste» (4).

«Egundo iñungo eskoletan irakatsi ez deuskuen izkuntza zaar onek orrenbeste idazle sortzea, ez ete da arrigarria?» (5).

Iturrira noa... Baiña zein iturritara?

(2) Aita Villasante. «Eusko Gogoa», 1956.

(3) Orixe. «Euskaldunak», 23-garren orrialdean.

(4) Mitxelena Luis. «1545², Bernat Dechepare, olerkiak». Ediciones Edili. San Sebastián. 1968. Itzaurrean, 7-garren orrialdean.

5) Etxenagusia Karmelo. «Euskal Idazleen Lorategia», itzaurrean.

Liburuen iturrira noa, bizkaierazko idazleen iturrira; idazle zaarren iturrira, batez bere; bertanbera itxita daukagun iturri ori atondutera, sasiak ebagi, bidea egin ta iturria agirian ipiñirik, gura dauanak ur ederra edan dagian bertatik.

Bizkaierazko idazleak bakarrik? Bai. Peti «bagendu» ta «balitz» entzuten ia gogaituta nago eta beti egitekotan egonean egon barik, zer edo zer egin egiten alegindu naz (6). «Abiatu egin bear dogu andik edo emendik, iñorako baldin bagera, lehenbizi edo lehenbizikoaren urrengo zer datorren erabaki arte egonean egon gabe. Onena, beraz, lanean astea genduke zirt edo zart, norik bere deiari erantzunaz, geiegizko buru-austeetan ibilli gabe nola izan bear lukean ezarria balioen zerrenda zeatzak» (7).

Egin egin bear da. «Balitzko erroteak urunik ez». Eta iru-lauen lana ez da naiko. Guztiok egin bear dogu lan, batez bere ordu larri onetan. Gizon legez, euskaldun legez eta kristiñau legez, guztiok erantzun bear deusagu geure eginkizunai.

Abade edo fraile-ikastetxeetarako, Unibersidaderako, eta ikastetxe ta ikastolatarako egin dot, batez bere, liburu au. Moja-ikastetxeen baterako bere bai, bearbada.

«Onen txikia izan gure auzotxoa, eta, alan bere, zer ete dogu alkar ain gitxi ezagutzeko?» (8). Alkar ezagutzeko idatzi dot liburu au. Uste dot, liburu au leidu ondoren, gure auzotxoko idazleak ez doguzala ain ezezagunak izango.

Idazle zaarretatik artu dodazan txatalak, apur bat gaurkotu ta batu egin dodaz ortografia aldetik; bestelan, naaste ikaragarri bat egingo neban-eta (9).

(6) Bizkaikoak ez diran idazle batzuk bere sartu ditut, bizkaieraz idatzi dabelako.

(7) Mitxelena Luis. O. C. 10-garren orrialdean.

(8) Akesolo Lino, «Olerti», 1962, 122-garren orrialdean.

(9) Ortografia aldetik gaurkotzea ez da erreza gaur. Izan bere h dala ta ez dala, aspaldion, sortu dan eztabaideak ez dau azkenik.

Liburu au egin nebanean (orain urte bi inguru) ez egoan h-ren auzirik. Gaur, oster, dana da h bai, h ez. Eta idazleen artean sortu dan anarkia oso kaltegarria ta bildurgarria da.

Literatura-euskeraren batasunari buruz, ba dogu Euskaltzaindiaren agiri bat («Euskera», 1968). Baiña zertarako? Euskaltzaindiko akademikuak eurak bere bananduta dagoz...

Beste barik, bada, goazan gure bizkaierazko idazleen iturrira; idazle zaarren iturrira, batez bere. Aintzat artu bearreko iturria dogu, gure Euskalerrria, gure historia, gure euskera ta geure buruak ezagutzeko.


Artu eta edan.


On egin.

H-rik ez sartzeko, esan deuste batzuk, Bizkaiko idazleen artean sekula bere ez dala erabilli izan-eta; gaiñera, neure-neureak diran zatiak h-kin eta idazleen txatalak h-barik idaztea naaste ikaragarri bat izango litzakela ta abar. Erdi-bide batetik joateko, esan deuste beste batzuk, h batzuk sartzeko. Euren euskera batuan edo erderaz idazteko bere esan deuste banaka batzuk.

Zer egin anarkia onetan? Euskaltzaindiaren esanean ibilli nai dot; batasuna gura dot, batasuna, bai, batasuna. Baiña anarkiaren menpean bizi nazan artean, leengoa baiño obarik agertzen ez dan bitartean, leengoari jarraitzera noa, leenari begira geroari ekiteko. Etxe barri bat egiten diardugu, baiña zaarrean bizi gara oraindiño. Ez daigun, bada, etxe zaarra apurtu, bota, barria eta ohea egin baiño leen; bestelan, etxe barik gëlditu geintekoz.

**asierako
idazleak**





ASIERAKO IDAZKIAK

«Asieran Jaungoikoak zeru-lurrak egin ebazan» (1). Baiña noz eta zelan izan zan asiera ori? Batek ba daki!

Munduaren asierea, erri baten asierea, literatura baten asierea..., noz eta zelan izan zan? Batek ba daki!

Gure Euskalerrriaren eta gure euskeraren asierea noz, non eta zelan izan zan ziur jakitea bere, amaibako arazo neketsua da. Or dabilz ibilli jakitunok gure iturburu aurkitu nairik. Baiña ezin dabe aurkitu. Eta orrexegaitik esaten dogu guk: «Gu ez gara iñoizko» (2).

Gauza bat dago argi ta garbi: Gure euskera izkuntzetan zaarrenetarikoa da. «...lengua, que podemos considerar, sin ninguna exageración, como el resto único de un continente lingüístico de extensión desconocida, que fue sumergido por las olas de los invasores de lengua indo-europea, hace ya más de tres mil años... Monumento único para la historia de nuestra Península, y aun de todo el occidente de Europa» (3).

Bere senide guztiak il ondoren, bakar-bakarrik geratu da euskera, gizaldiz-gizaldi bere ondoan bizi izan diran izkuntza askoren berbakaz jantzita. Berbakaz, batez bere; baiña baita gramatika-arau edo lege batzukaz

(1) Gen. 1, 1.

(2) «Orixe», «Euskal-literaturaren atze edo edesti laburra». Euskal-Esnalea. 1927.

(3) Tovar A. «La lengua vasca», San Sebastián, 1954, 7-garren orrialdean.

bere. Beste edozein izkuntzak legez, euskerak bere, «lapurretan» egiñaz gorde dau bere bizia. Eta oso interesgarria da, orrexegaitik, izkuntzalari eta historilariantzat, dokumentu bizi-bizi bat da-ta.

Gure Euskalerrriaren eta gure euskeraren asiera noz, non eta zelan izan zan ez dakigu, ba. Ezta gure aoz-aozko literaturaren asiera bere. Eta gure literatura idatziaren asierea? Noz asi ziran idazten euskaldunak?

Gure libururik zaarrena 1545-garren urtekoa da: «Linguae vasconum primitiae», Detxepare Bernat Benaparroakoak egiña (4).

**«Heuskara!
Oraidano egon bahiz
inprimatu gaberik,
hi engoitik ebiliren
mundu guzietarik» (5).**

Bizkaierazko leenengo liburua edo, obeto esanda, liburuzka, 1580-garren urtekoa da: «Doctrina Christiana en Romance y Basquence, hecha por mandato de D. Pedro Maso, Obispo de Calahorra, y la Calzada, y del Consejo del Rey nuestro Señor, para las tierras Bascongadas de su Obispado, reducida por el Doctor Betolaza, a lenguaje más común, y más usado y que con más facilidad se entiende en todas ellas, para bien y utilidad de sus obejas de aquellas partes, que por largos años las apaciente, y gobierne, a gloria y honra de Dios nuestro Señor. Amén».

«Opusculito» eta «humildísima obrilla» «de muy poco interés» deritxo Azkuek Betolazaren dotriña orreri. Eta olantxe da, izan bere. Ona emen, adibidez, txatal bat:

**«Aita gurea,
zeruetan zagozana.
Santifikadua izan dila zure izena.**

(4) Ikusi: «1545. Bernat Detxepare. Olerkiak». Ediciones «Edili», San Sebastián, 1968.

(5) Ibidem, 128-garren orrialdean.

**Etorri bidi
gugana zure erreinua.
Egin bidi zure borondatea,
nolan zeruan, alan lurrean.
Emon egiguzu egunean
eguneango gure ogia
da parkatu
egiguzuz
gure pekatuak,
guk geure zordunai
parketan deusteguna legez,
da etxi ez eiguzu
jausten tentaziñoan,
baia libradu gaigizuz
gatx guztirik.
Amen Jesus.» (6)**

Bizkaierazko gure leenengo liburuzka orrek oso gitxi balio dau literatura aldetik. Askoz geiago balio dabe aldi aretako olerki txatal batzuek. Latiñezko eta erderazko liburuetan agertu dira. Eta oraintsu argitaratu dan liburu baten dagoz batuta geienak (7).

«Paper zaharrek gorde dutena, eta neroni saiatua naiz besteren ondotik ainbat zuzenen argitaratzen, iñoiz berdinduko ez dugun egarria bizteko da aski. Lerro bakan urri-puskatu oriek erakusten baitigute nolakoa izan zitekean, ez nolakoa zen, Erdi-aroko ao-poesia bizi eta sendo ura. Ainbes-tetan beztu oi dugun Ahaide Nagusien nagusitasunarekin —edo, naiago baduzute, nagusikeriarekin— batean joan zitzaigun, zenbait aztarren utsal eta illaun utzi gabe» (8).

(6) «Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País», 1955, 93-garren orrialdean.

(7) Luis Michelena. «Textos arcaicos vascos». Madrid, 1964.

(8) Mitxelena Luis, «1545. Bernat Detxepare. Olerkiak», San Sebastián, 1968. itzaurrean.

Ona emen, bada, gure bizkaierazko literaturaren asierako olerki txatal batzuk:

Illobi-itzak:

...al Martín Yuanes de Labiero mataron las Hermandades y encima de su sepultura pusieron este letrero en lengua vizcaína:

**«Martí Yuanes, Labieruko zalduna,
Bizkaiko konsejua ta zentzuna,
nor ete zan zuri losa igorrosi égizuna?» (9).**

Illeta-eresia:

**«Jaun Diaoz Arokoa,
zaldun andi Españakoa,
ezek ezer ezin egion,
egian Jaunak daroa».**

...esto cantaron a la muerte de Don Diego de Aro, porque queriendo saber qué era lo que cantaban en las endechas de Vizcaya, le respondieron que eran alabanzas y él dijo que al uso de Vizcaya le llanteasen» (10).

Maite-miña:

**«Zure begi ederrok,
ene laztana,
katibaturik nabe,
librea nintzana» (11).**

(9) «Textos arcáicos vascos», 74-garren orrialdean.

(10) Ibidem, 101-garren orrialdean.

(11) Ibidem, 23-garren orrialdean.

Gabon-kanta:

«Gau on santu onetan,
Jaunaren jaiotzean,
pozgatu gaitean
guztiok biotzean.

Aita Adan egin zan
lurraren gainean,
bekatu egin eta
jausi zan arean.

Linboan egoan
bost mila urtean.
Jauna, jatsi zaitetz
zeruetarean.

Negarren dago an
zeinbat urtean.
Jauna, jatsi zaitetz
zeruetarean.

Donzella eder batek
Belengo errian
Seiña Jesukristo
dauko sabelean.

Eguzki dibinala
gauerdi batean
Etorri zan lurrera
gizonen soñean.» (12)

(12) Ibidem, 138-garren orrialdean.

Iztegia:

Dila: Dedilla, daitela.
Bidi: Bedi.
Nolan: Zelan.
Parketan: Parkatzen.
Deusteguna: Deutsegun.
Pozgatu: Poztu.
Arean: Andik.
Zeruetarean: Zeruetatik.

GARIBAI ESTEBAN

1533 - 1599



Garibai Esteban Mondragoeko semea izan zan.

Gizon jakituna, historilari entzutetsua.

Egin barri egoan Oñatiko Ikastetxe Nagusian egin ebazan ikasketak. Eta España ta Portugaletik zear ibilli ondoren, historia-liburu asko ta sakonak idatzi ebazan.

Erregearen kronista egin eben 1592-garren urtean.

Garibaien idazlanak erderaz dagoz. Baiña, an or emen, sakabanatuta, euskerazko errefran txorta bi ta kanta zaar batzuk bere egiri dira bere liburuotan.

Errefran batzuk itzulpenak dirudie; beste batzuk errikoiak dira. Kanta zaarrak, oñaztarren eta ganboatarren burruka-denporakoak dira.

Bai errefran txorta biak, bai kanta zaarrak, euskera zaarra ezagutzeko balio andikoak doguz (1).

(1) Ikusi: «Textos arcaicos vascos», Julio de Urkijo eta «Los refranes de Garibay». San Sebastián. 1919.

Lora eder batzuk

Et Cee ete da andra etia en çawisa,
Sagar ezeu, eta aetio joneia
Mabaga, kontrazio da Nihia
Ayparr bea oca, garrion arua.

Et lastur era bea dogu Nihia
Ayta jaunac aetio dan etia.
Arna andra ac apayn gulan etia,
Ara bea dogu andra Nihia.

Et lausi da eera etia arua,
Auzguita dan lastur en toze baurua
Edegi dio almena ari etia
Lastur era bea dogu Nihia.

Et herua era andra Nihia lastur co
Dera Caroi ac equo deufu labato
Equo dan Andra, Mauna Anapla co
Ezua bequid bere ideo danco.

Errejon de Garibay

Eresia:

«Doña Sancha Ochoa de Ozaeta hizo gran llanto, muy usado en este siglo, por la desgraciada muerte de Martin Bañez, su marido, y soledad suya y de sus hijos, y cantó muchas endechas, que en vascuence se llaman **eresiak**, y entre ellas se conservan hoy día algunas en memoria de las gentes, en especial estas:

**Oiñetako lur au jabilt ikara,
lau aragiok bere an berala,
Martin Bañez Ibarretan il dala.
Artuko dot esku baten gezia,
bestean zuzi iraxegia,
erreko dot Aramaio guztia.**

Su significación es: «Que la tierra de los pies le temblaba y de la misma manera las carnes de sus cuatro cuartos, porque Martin Bañez era muerto en Ibarreta, había de tomar en la una mano el dardo, y en la otra una acha de palo encendida, y había de quemar a toda Aramaiona» (2).

Errefranak:

**«Etxera orduan basora»
«Ez jan eta ez lan»
«Eguzki eta euri, Marti eguraldi»
«San Simon eta San Juda, negua eldu da»
«Sareak urrago, arrainak estuago»
«Garean, gareana legez»
«Ez ur eta ez ardao»
«Etorkizuna, kontakizuna»
«Asko badok, asko bearko dot»
«Urte barri, itsuak bere igerri»**

(2) Textos arcaicos vascos, 91-garren orrialdean.

«Tresneak jabea dirudi»
«Bitxiok eder, berori ez»
«Katu zaarra esne gura»
«Axea nora, kapea ara»
«Asiak egina dirudi». (3)

Iztegia:

Berala: Bardin.

Gezia: Antxiñako arma bat. -

Iraxegia: Ixetua, biztua.

Eguraldi: Denpora.

(3) Julio de Urquijo, «Los Refranes de Garibay».

1596 - GARRENEKO ERREFRANAK

Berebizikoak dira errefranak erri baten izakerea eta, batez bere, erri baten jakituria ikusteko.

Bizitzeak berak sortu ditu errefranak: Zer ikusi, a ikasi; zaarren esae-rak, guztiak jazoerak. Eta bizitzearen leena, oraiña ta geroa, batera era-kusten deuskuez.

Erriaren jakituri ariña ta sakona, barregarria ta negargarria, orixe dira errefranak.

la laureun urte dira leenengo euskal-errefran liburua argitaratu zala. Ara zein dan:

«Refranes y sentencias comunes en vascuence, declaradas en romance con números sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas. Impreso con licencia en Pamplona por Pedro Porralis de Amberes. 1596.» (1)

Egillea nor dan ez dakigu. Baiña, dana dala, liburu ederra da, benetan.

Bosteun eta ogetaemeretzi errefran dakarz (2). Eta ondasuntegi bat dira izkuntzalari, historilari ta folklorelarientzat.

(1) Ikusi, oraintsu argitaratuta: «Refranero vasco». Editorial Auñamendi.

(2) Geiago ei dira. Ikusi: Textos arcaicos vascos, 174-garren orrialdean.

Lora eder batzuk

¹ Edo ² egui³az ⁴ nay ⁵ guzurraz
⁶ elicatuco ⁷ nayz.

¹ O ² con ³ ver⁴dad, ⁵ ó ⁶ con ⁷ men⁸tira
mantener me he.

¹ Ezcondu ² baño ³ efagü⁴cea ⁵ le-
[nago.

¹ Ca²seria ³ antes ⁴ que ⁵ ca⁶ser⁷te.

¹ Guzurrac ² buztana ³ labur.

¹ La ² men³tira, ⁴ la ⁵ cola ⁶ cor⁷ta.

¹ Gau²ü³cea ⁴ da ⁵ laguncena
⁶ ychadonaz ⁷ datorrena.

¹ Del ² com³pañero ⁴ es ⁵ la ⁶ cofa,
que ⁷ viene ⁸ con ⁹ agoar¹⁰dalla

¹ Guichia ² guichia ³ afo ⁴ eguin
[doa.

¹ Poco ² a ³ poco ⁴ se ⁵ ha⁶ze ⁷ mu⁸cho.

¹ Gabiaroz ² barriac ³ galbaeaz
[hna.

¹ El ² ma³çero ⁴ nu⁵cuo ⁶ a⁷gua ⁸ con ⁹ ar¹⁰nero.

¹ Gorhua ² garrian,
³ ta ⁴ gogoa ⁵ quirolan.

¹ La ² ru³eca ⁴ en ⁵ la ⁶ cin⁷ta,
y ⁸ el ⁹ pen¹⁰samiento ¹¹ en ¹² el ¹³ rego¹⁴zijo.

¹ Luqui ² cume ³ azeri.

¹ El ² hi³jo ⁴ del ⁵ rapo⁶so ⁷ zor⁸ro.

¹ Lena²engo ³ emaztea ⁴ yfufqui
⁵ bigarrena ⁶ andrandi.

¹ La ² pri³mer ⁴ mu⁵ger ⁶ e⁷scoba.
la ⁸ se⁹gunda ¹⁰ gran ¹¹ se¹²ñora.

¹ Lofau²gü³ecac ⁴ erriavere.

¹ El ² des³fu⁴ergo⁵çado, ⁶ la ⁷ pa⁸tria ⁹ es ¹⁰ fu¹¹ya.

«Barria eder egik»
«Abenduko lañoa, euria edo egoa»
«Laarrik ez onik»
«Andia da ene miña, esan nai ta esan eziña»
«Andra ederra, etxean gerra»
«Larrak gitxitara lekarke»
«Arrausi luzea, loa edo gosea»
«Direanak direanegiño»
«Ardura, enok ire gura»
«Argalok ideko eiten badira, aek indartsuen izango dira»
«Beluko ezkontza deunga, goizetikoa ez oba»
«Ez ardao bitzdunik, ez andra bizartsurik»
«Txiroak dirudi intxausti, guztiok arrika beti»
«Urak dakarrena urak daroa».

Iztegia:

Egoa: Egoia, ego-aizea.
Ene: Neure, nire.
Lekarke: Ekarki leike.
Ideko: Lagun, eretxi bateko.
Beluko: Beranduko.
Deunga: Txarra, gaiztoa.
Txiroak: Pobreak.
Intxausti: Intxaurrak?

KAPANAGA MARTIN

(?-1661)

Mañarin jaio zan Kapanaga.

Abadea izan zan. «Licenciado Martín Ochoa de Capanaga, Clérigo Presbítero beneficiado de la anteiglesia de Mañaria y maestro de gramática en la Villa de Tavira de Durango» (1).

Il bere, Mañarin il zan.

Kapanagaren dotriñea entzute andikoa da, izkuntzalarien artean, batez bere. Euskeraz eta erderaz eginda dago ta liburu irakurgarria da euskera zaarra ezagutzeko.

Euskera aldetik uts asko ditu. Bera bere konturatu zan eta orrexegaitik diño erderazko itzaurretxoan: «Suplico al lector prudente, reciba esta buena voluntad, no para censurarla, sino para aprovecharse, o enseñarla, no reparando en muchos verbos y nombrès, que como están en romance sin corromperse del latin, asi están del romance recluidos en el vascuence, de suerte que apenas se halle otro modo de decir sino por muchos rodeos y de la misma suerte juzgo hallará otras muchas faltas en el mismo vascuence...»

(1) Dotriñiaren itzurrean. Agortuta dago Kapanagaren dotriñea.

Lora eder batzuk

Errukizko ekintzak:

«Miserikordiazko obraak dira amalau; leenengo zazpirak dira espiritualak, beste zazpirak gorputzekoak dira.

Zazpi espiritualak dira oneek:

Leelengoa, irakatsi eztakianari.

Bigarrena, konseju ona emon bear dauenari.

Irugarrena, korrejidu erraturik dabilena.

Laugarrena, injuriak parkatu.

Bostgarrena, tristea konsoladu.

Seigarrena, sufridu pasienziagaz laguneen flakezaak.

Zazpigarrena, erregutu Jangoikoari ilak gaitik eta biziak gaitik.

Zazpi gorputzekoak dira oneek:

Leelengoa, bisiteetea gexoak.

Bigarrena, jaten emaita gose danari.

Irugarrena, edaten emaita egarri danari.

Laugarrena, katigu dagoana Mauru errian erraskateetea.

Bostgarrena, billozik dagoana jantzitea,

Seigarrena, pobre bidezkoai ostatua emaita.

Zazpigarrena, ilak beatutea» (2).

Iztegia:

Emaita: Emotea.

Beatutea: Lurperatzea, illai lurra emotea.

(2) 68-garren orrialdean.

MIKOLETA RAFAEL

1611-?

Bilbotarra izan zan Mikoleta, Bilboko andikien artekoa.

Euskal-gramatika laburtxo bat idatzi eban: «Modo breve de aprender la lengua vizcaína. Compuesto por el licenciado Rafael Micoleta, presbítero de la muy leal y noble villa de Bilbao. 1653». (1).

Sei zati ditu gramatika orrek:

- 1) Modo breve de saber declinar los nombres vascongados.
- 2) Conjugación de los verbos vascongados.
- 3) Diccionario breve de vocablos, los más usados en vascuence propio, puestos por orden alfabético.
- 4) Diálogo primero — Platika lelengoa.
- 5) Modo de contar.
- 6) Modo de la vizcaína poesía y sus versos.

Mikoletaren gramatika ez da orren balio andiko liburua. Baiña gure artean egin diranetatik antxiñakoena berori dogulako, aintzat artzekoa da ta irakurgarria. Irakurgarriak dira, batez bere, iztegia, alkar-izketa ta azkenengo olerki biak.

(1) 1653-an egin eta 1880-an argitaratu zan. Zergaitik? Dirurik ezagaitik? (Zorioneko dirua). Irakurlerik ezagaitik...? Ez dakigu. Baiña, dana dala, penagarria ta lotsagarria da. Beste euskal-liburu askogaz bere, zoritxarrez, orixe berberori egin da. Penagarria ta lotsagarria!

Lora eder batzuk

- D. P. Oyes mozo?
 A. Señor.
 D. P. Que hora es?
 A. Las cinco son dadas.
 D. P. Leuantate y abre aquella ventana, ver si es de día.
 A. Aun no es bien amanecido.
 D. P. Pues asno, como dixiste que ha dado las cinco?
 A. Señor las cinco yo las conte, pero el reloj y la mañana no andan a vna.
 D. P. O tu mientes, o el reloj miente, que el sol no puede mentir.
 A. Mas vale que miento yo que no el año.
 D. P. Que día haze?
 A. Señor, nublado.
 D. P. En los ojos deus tu de tener las nubes, que el cielo yo le veo claro.
 A. Pues no estoy ciego.
 D. P. Antes creo que estas dormiendo toda via.
 A. Sé que no soy elefante que tengo de dormir en pie.
 D. P. Haze frio?
 A. Un çerçeganillo entra por la ventana que corta las narizes.
 D. P. Dame de vestir que me quiero levantar.
- D. P. Bansue mutil?
 A. Xauna.
 D. P. Se ordu dá?
 A. Vostak jodaude.
 D. P. Saycora, yricasu araco ventana, ta eguna den ecussu.
 A. Aranguño estau ondo arguitu.
 D. P. Bada astoa, nolan esandou bostac xodaudela?
 A. Xauna nic vostac contaninçean, baya goxa ta herloxua estabilsas batera.
 D. P. Edo suc diñosu gusurra, edo bay herloxuak, seren egusquiak esin esan ley gusurric.
 A. Obeda, nic diñoda gusurra se es vrteac.
 D. P. Se egun dacarrí?
 A. Yluña, Xauna.
 D. P. Seuc edo daucas beguietan odeyac, serren nic dacust arguiric cerua.
 A. Bada es nago ytsuric.
 D. P. Lenago vstiot bete sagosala loo.
 A. Es nas bada ni elefantea oyñen ganean loo eteco.
 D. P. Osic bacarrí?
 A. Axechu ozbat sarsayten da ventanatic, ebaguitan daue-la surrac.
 D. P. Yndasu xasten, serren gura, dot xaygui.

Maiteminduen poz igarokorrak:

«Amoren kontentuak
eztaude irauten.

Kanpoan lorak legez
dira galsaiten.

Lar adi bazagozaz
fabore bateri,
etorriko xasu
gatxa bertati.

Ta aztuten badozu
ezto(z)u ondo eiten.

Kanpoan lorak legez
dira galsaiten.

Alkar on baderetxe
bertan zeloak
penaz betetan ditu
bien gogoak.

Onegaz amoreak
dau gogaituten.
Kanpoan lorak legez
dira galsaiten.

Aserengo gino
kontentu izanik,
ezta iñor xoango
amore ganik.

Urtan biza legez
dira xoaten.

Kanpoan lorak legez
dira galsaiten» (2)

Iztegia:

Eztaude: Eztabe.

Irauten: Segiduten.

Galsaiten: Galduten, galtzen.

Adi bazagozaz: Begira bazagoz.

Xaxu: Jatzu.

On baderetxe: Maite badira.

Aserengo gino: Azkeneraiño.

Xoango: Joango.

Amorea ganik: Amoreagandik.

Urtan biza: Uretan bitsa.

Xoaten: Joaten.

(2) Textos arcaicos vascos, 133-garren orrialdean.

BARRUTIA PEDRO

1682-1759

«Gabonetako Ikuskizuna (Acto para la Noche Buena)». (1).

Ona emen gure leenengo teatro lana, beste euskal-liburu askoren an-
tzera, oraintsurarte illunetan eta autsar-tean euki dogun teatro-pitxi ederra.

Nork egin eban? Ziur ez dakigu; baiña 1711-tik 1752-arte Mondragoeko
eskribaua izan zan Barrutia Pedrok egin ei eban (2). Aramaiokoa izan zan
Barrutia.

Zer da «Gabonetako Ikuskizuna»? Antxiñako «misterio» bat dirudi (3).

Zergaitik euki dogu baztartuta? Euskera mordoilloz txipristinduta da-
goan urregorria ikusi ez dogulako.

(1) Ikusi: «Teatro Zaarra». Auspoa Liburutegia. 1965.

(2) Ikusi: Aresti Gabriel, «Pedro I. de Barrutia Mondragoeko eskribauaren Gabone-
tako Ikuskizuna, euskeraz eskribidutako leenengo teatruzko lana», «Euskera» (1959), eta
«Primera aportación para el conocimiento de la vida y obra de Pedro Ignacio de Barrutia
y Basagoitia (1682-1759)», «Euskera», (1960).

(3) Asierako teatroak (Españan beintzat) eleizetan egiten ziran, eleizkizunen antzera,
salbaziñoko misterioak obeto ulertu egizan erriak. Teatro orrei «misterioak» eritxoan. Eta
Gabonetakoak eta Pasiñoakoak izan ziran entzutetsuenak.

Leenengotan abadeak eurak egiten ebezan. Gero, laikoak bere parte artzen asi ziran.
Eta urteak joan, urteak etorri, serioegiak ziralako edo, barregarrikeri batzuk erantsi eutse-
ezan. Eta, jakiña, kale-usaiña artu eben. Orregaitik, 1559-garren urtean, teatro orreik eleiz-
-barruan egitea galazo egin eban Eleizeak.

Arrezkero, eleizpean egiten ziran. Eta, azkenean, plazan edo beste leku egoki baten.
Barrutia edo dana dalakoaren «Gabonetako ikuskizuna» «misterio» bat dogu. Baiña
azkenaldiko misterioa, eleizatik kanpora egitekoa.

Egia da izan, uts asko ditu euskera aldetik. Uts asko ditu, bai. Baiña gai aldetik? Azalari bakarrik begiratu barik, mamiña bere ikusi daigun, idazlan bat azala eta mamiña, biak batera, da-ta. Euskerari bakarrik begira egonda ez dogu ezer egiten. Zenbat idazlan ganorabako daukaguzan «euskera ederrez» jantzita!

Euskeraz ez da sarri egin «Gabonetako ikuskizuna» lako teatro-lan ederrik. Axe da, benetan, euskaldunentzat euskaldun erara egindako misterioa! (4). Amazazpigarren gizaldiko euskaldunak ezagutzeko egoki-egokia.

Gaia Gabonetako gaia da: Jesusen jaiotza. Eta ederto josita dago itz neurtuz, dantza ta kanta ta guzti. Eta Gabonetako erlejiño-giro gozo ta liriku baten sartzen gaitu Gabonetako kanta ta erreguakaz:

**«Gaur dala gabon gaba,
gaur dala gabon,
gaur egiten jaku
Jangoikoa gizon» (5).**

**«Adanen pekatua kausa izanik,
denbora luzean gabilitza itxurik.
Desegindu beiz zeure argiak
gure biotzetako odei guztiak.
Pobrero jaio zara, Jesus dulzea,
ediro ezin arren ostatu ohea.
Portale ori itxita, zatoz geugana!
Bakizu gure biotzok zureak dirana» (6).**

Baiña erlejiño-giroaren seriotasuna astunegia izan ez dakigun, euskaldunen esaerak eta umorea agertzen dira aringarri:

(4) «Pasado y presente, sagrado y profano, Belén y Mondragón se entrecruzan y combinan mediante un artificio tan hábil como sencillo» (Mixelena Luis).

(5) «Teatro Zarra», 45-garren orrialdean.

(6) Idem, 41-garren orrialdea.



«Berkok eder aoan,
orapilloa kolkoan» (7).

«Zurekin beti gerran baño
obe dot zu baga bakea» (8).

«Auxe dala Zeledon,
artu bai ta ez emon» (9).

«Beti arran eginik,
naduka adikaturik.
Erri bateko kanpaetzat
eztau bere parerik» (10).

«Auxe dok, auxe, gure morroe,
alper kazadorea.
Kazara doean orduan beti
aldamenean botea.
Ak ari sarri emon oi jeutsak
apa gozo dultzea» (11).

«Gure mutil au izango jaku
santu guztiz andia,
alboan falta dakionian
kuartiloko ontzia.
Aritxabaltxo gurea,
zezen-toreadorea,
penitentzia egite ori
ez dok intxaur-saltsea» (12).

Ezizen eta anakronismu barregarriak bere ugari agiri dira.

-
- (7) Teatro zarra. 32-garren orrialdean.
(8) Idem, bardin.
(9) Idem, 31-garrenean.
(10) Idem, 24-garrenean.
(11) Idem, 30-garrenean.
(12) Idem, 35-garrenean.

Euskalerrian oraintsurarte indar andia euki dauan siñeskeri bat bere antxe agertzen da. Begira:

**«Adi, adi, adi, adi,
adi ezazuz berba bi:
Azkonarraren atzamartxo
ekarriko dot menditi,
begizkorik eztegiuzen
bulartxorean isegi» (13).**

Oso aberatsa da Gabonetako Ikuskizuna, bai gai aldetik, bai eusko-folklore aldetik eta bai teatro-lan aldetik bere.

Eta euskera aldetik? Len bere esan dogu. Uts asko ditu; erderazko joskera ta berbak nunnai aurkitzen doguz. Baiña, alan da guzti bere, zenbat esaera ta antxiñako aditz-jokera eder!

Lora eder batzuk

Gabon abesti barregarria:

**«Lian lan bere, lian lan bere,
gabaren alegerea!
Lian lan bere, gauza ona dok
buskantz ondo betea!
Lian lan bere, ementxen datoz
amar libra okela.
Lian lan bere, birao gura
etzala ene sabela!
Lian lan bere, bai nik ekarri
presentean neurekin,
guzurrik batere asmatu baga,
zazpi otxaba txakolin!
Afaritako etzala falta
arrain zabala salsatan;**

(13) Idem, 43-garrenean.

salsatako zeruak jakin
zeinbat intxaur jo ziran!
Lian lan bere, lian lan bere,
ondo nago kontuan,
salsa jaiten iru motrallu
pedazadu nituan.
Liari lan bere, iruntsi ditut
eun da ainbat gaztaña;
egia da ta artu zituen
lagun bik garau bana.
Sagarrak bere etziran falta,
mispil ustelak abondo;
Lian lan bere, edirotzen da
ene tripea gaur ondo.
Ogiak bere, ba ziran iru,
bakotxa lau librakoa;
Lian lan bere, etzegoala
geldirik orduan aoa.
Lian lan bere, etxetik nator
egiten paseadea,
lian lan bere, dijeritzeko
neure afari puskea.
Lian lan bere, lian lan bere...» (14).

Iztegia:

Denbora: Denpora (15).

Gabiltza: Gabiz.

Ediro: Idoro, aurkitu, topau.

Orapilloa: Korapilloa, morapilloa, troiñua.

Naduka: Nauka.

(14) Teatro zaarra, 28-garren orrialdean.

(15) Mondragoe Gipuzkoa da eta, orregaitik, noizpeinka gipuzkoera ikutuak ditu Gabonetako Ikuskizunak.

Adikaturik: Nekaturik.
Apa: Mosu, mun, laztan.
Ezazuz: Egizuz.
Bulartxorean: Bulartxotik.
Isegi: Esegi, eskegi.
Lian lan bere: Erderazko «lan laran lan lara»-ren antzekoa.
Alegerea: Pozgarria.
Birao: Maldeziñoa.
Otxaba: Ochavo (dirua?).
Jaiten: Egiten? joten?
Motrallu: Almariz, saltsea egitekoa.
Pedazadu: Apurtu, zatitu?
Mispil: Mizpira, mizpiru.
Abondo: Ugari?
Puskea: Apurra, pitia.

OLAETXEA BARTOLOME (?)

«Kristinauen Dotrinia, D. Bartolome Olaetxea, Bilboko hospitale santuko erretoriak, Laukarizko kura zanian, jai domeketan espliketan eban legez».

Ona emen, 1775-garren urtean leenengoz argitaratu zanik ona, amalau aldiz gitxienez argitaratu dan liburua, gure erriak gizaldiz-gizaldi, oraintsurarte, irakurri dauan eleiz-liburu entzutetsua.

Erriak izen barria ezarri eutsan: «Olatxea».

Literatura aldetik ez da balio andikoa, eta erderazko berbaz josita dago (1). Baiña balio dau zerbait, orraitino, bizkaiera zaarra ezagutzeko.

Adibidez, ikusi txatal au:

—«Murmuraziñoia zer da?

—Esatia deungaro projimua gaiti, bera aurrean eztagoala.

—Projimuari famia biortuteko obligaziñorik bago?

—Bai, Jauna, eta ainbaga ezin salba liteke.

—Iñor murmuretan dagoanean zer egin bear da?

(1) «Parece que a los ojos de los vascos de entonces sonaban como más selectos y distinguidos» (Villasante).

—Erakutsi albadedi, ezpabere beste konbersaziñoe bat atera, edo jua arik.

—Ze diferenzia dago murmuretan dabena ganik, gustoz entzuten dabena gana?

—Batak dauko Demoniñua miñian, eta besteak belarrian» (2).

Iztegia:

Deungaro: Gaizki, txarto.

Bago: Badago.

Ainbaga: Ainbarik, a egin barik, a barik.

Liteke: Leiteke.

Albadedi: Al bada, al baledi.

Jua arik: Jua andik.

(2)«Kristinauen Dotrinia», amabigarren argitaldia, 84-garren orrialdean.

BASTERRETXEIA AGUSTIN 1700-1761

Lekeition (edo Izpasterren) jaio zan. Eta 16 urtegez jesuita sartu zan. 34 urtegez egin zan jesuita. Eta, gero, Orduña ta Lekeitioko Ikastetxeiko Erretore izan zan. Misiolari bere izan genduan gaiñera.

Iru idazlan egin ebazan euskeraz:

1) «Jesukristo gure Jaunaren Pasinoia euskerazko bertsoetan». 61 bat bertso dira eta, oraintsurarte, ondo ezagutzen izan ditu gure erriak, Aste Santuan abestuten izan diralako. Bai bizkaieraz eta bai gipuzkoeraz, sarri askotan argitaratu dira.

2) «Gizonaren akabuko lau gauzak».

3) «Anima penitente baten negarrak».

Bai gai aldetik eta bai euskera aldetik, interesgarriak doguz aita Basterretxearen idazlanak; interesgarriak gure antxiñakoen erlejiño ta euskera ezagutzeko.

1

**«Jesukristori kendu ezkerro
pekatuagaz bizitza,
baldin ezpadot negar egiten,
arrizkoa dot biotza.**

Guztiok lagun
kantatu daigun
bere penazko eriotza.

2

Mundua baiño askoz lenago
señalauriko eguna
eldu izan zan obretarako
gizonaren osasuna.
Argia bera
alde batera,
besteti egun illuna.

3

Eguen santu, afal ondoan,
bere lagun zituzala
Jesusek iru diszipuluak,
berba egin eutsen onela:
Triste nago ta
lo ori bota,
egizue emen gaubela.

4

Getsemaniko ortu santuan
auzpez lurrean jarririk,
esketan eutsan, librau leiala,
Aitari, kaliza atarik.
Jesus penatzen,
odolez urtzen,
eta ez dot nik negarrik?

5

Izerdi otza arpegian ta
biotza penen artean.

Triste arimea, gorputza larri,
agoniako trantzean.
Baiña, alan bere,
egoan firme
Aitaren borondatean.

6

Judeguak Judas lagun arturik
etorri zirean itantzen:
«Nazarenu deritxon Jesus
emen ete da aurkitzen?»
Judas, orduan,
bake moduan,
doa mosua bat emoten.

7

O zeinbat dira Judasen legez
Kristoren adiskideak:
Kanpoti lastan, barruti saldu,
ausirik bere legeak!
Kristiñau faltso,
arima gesto,
pekatari traidoreak» (1).

Iztegia:

Baldin: Gipuzkoerazko itza. Bizkaieraz ez da erabilten. Baldin
ezpadot negar egiten = Ezpadot negar egiten.

Esketan: Eskatzen.

Atarik: Atatik.


Itantzen: Itanduten.

Gesto: Gaizto?

(1) Olaetxearen dotinari artuta.

larramenditarren
giroko
idazleak





LARRAMENDITARREN GIROA

«Orai ba dirudi euskarak ahalke dela, arrotz dela, eztela jendartean ausart, entregu, bithore eta ez trebe; zeren, are bere errikoen artean ere ezpaitakite batzuek nola eskiriba, eta ez nola irakur.

Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, frantsez, edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak» (1).

Euskaldunak eurak dauke errua eta ez euskerak. Eta, orrexegaitik, liburu eder bat idatzi eban Axularrek. Euskal-idazleak ondo ezagutzen dabe liburu ori. «Gero» da. Eta euskal-literatura guztiko libururik onenatarikoa da. «Una de las pocas obras maestras, originales, que ha producido la literatura vasca» (2).

Axular Naparroan jaio zan, 1556-garren urtean, Urdazubiko «Axular» baserri-etxean. Jatorrizko bere izenabizenak oneixek izan ziran: Dagerre eta Azpilkueta Pedro. Abade egin ondoren, Saran (Lapurdin) bizi izan zan,

(1) Pedro de Axular, «Gero». 7spirituales Españoles. Juan Flors, editor. Barcelona, 1964. Itzaurrean.

(2) L. Villasante, «Historia de la Literatura vasca». 81-garren orrialdean.

bertako erretore, il arte (1644). Eta antxe idatzi eban lapurdieraz bere «Gero» ospetsua (3).

Arrezkero, Axularren inguruan ibilli da lapurdierazko euskal-literatura; lapurdierazkoa, batez bere; beste euskalkietako literatura bere, gitxi asko, aren inguruan ibilli da-ta.

«Euskaldunen Ciceronen izenaz izentaurik eta aitaturik ibilli da beti Axular; bada Aita Larramendi euskaldun guztien Maixuak diñolez «bere euskerea da ederra, nastugabea, uts-garbia, ta ugaria» (4).

Baiña Bidasoz emendiko literatura sortuarazo ta bultzatu dauana ez da Axular izan. Aita Añibarrok goratu dauan «Aita Larramendi euskaldun guztien Maixua» izan da emengo bizkortzaillea; Bidasoz emendiko euskal-zale-tasuna biztu dauan sua. Aita Larramendi izan da giro barri baten sortzaillea.

«Bidasoz andiko gure anaiak eunki luze bat zeramaten gure izkuntza lantzen eta emengoak oraindik esnatzeke zirauten. Emengo euskal-pizkundeari Aita Larramendik eman zion asiera. Baiñan etzan izan, beste aldean bezala, berezko izkuntza maitasunak edo erlijio egiak erri izkeran erakusteko leiak eragindako gogo soilla, ego-aldetik gure izkuntza eraso ta iraindu bearrez asi ziranean, biotz minberatuaren piztualdia baizik» (5).

Aita Larramendi jesuitea izan zan; andoaindarra. 1690-ean jaio zan eta 1766-an il, Loiolan. Gizon jakituna eta zorrotza, burrukalari gartsua bere bai (eztabaida zaletasun onek eroan eban, eroan bere, okerreko bidera).

Juan de Mariana (1536-1623), Gregorio Mayans y Siscar, eta beste jakintsu batzuek Euskalerritari ta euskerari buruz esandako «astakeriak» irartzartu eban Aita Larramendi. Eta berealaxe jagi zan (adoretsu ta umoretsu jagi bere) ezertarako balio ez eban izkuntza basati ta itxusi bat zala esaten ebenen kontra. Eta jo ta su ibilli zan lanean, gure «izkuntza eder, guri ta gozoa» goratu gurarik. Eta ekin eta ekin, euskeraren apolojia bat egin eban.

(3) Azkenengoz argitaratu dan «Gero», euskeraz eta erderaz argitaratu da, sarrera luze ta eder bategaz. Lenengo notan izentau doguna da ta sarrerea ta erderatzea Aita Villasantek egiñak dira.

(4) Aita Añibarro, «Geroko gero». «Gero» bizkaieratua. Itzaurrean. Ikusi: R.I.E.V., 14, 1923.

(5) Yon Etxaide, «Amasei seme Euskalerriko». Itzaropena. 119-garren orrialdean.



Orixe dira bere idazlan arrigarriak; Euskearen apolojia bat. Leenengo ta bein, «El imposible vencido. Arte de la Lengua vascongada», egin eban; euskal-gramatika da, ta ona ta sakona da. Gero, «Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín» egin eban, euskeraren edertasunak erakusteko itzaurre luze bategaz; iztegi andia da, baiña badaezpadakoa, berak asmauriko berba-askogaz orniduta dago-ta.

Goragarria da Aita Larramendi, Euskalerraren alde zer edo zer egiten egiñalak egin ebazalako. Goragarria da euskal-giro barri bat sortu ta ainbat euskaldun jakitun euskeraz bultzatu zitualako.

«Bizi dan artean erriaren maitale bat, bizi dan artean euskera-zale bat, bizi dan artean euskaldun benetako bat, ezta aztuko A. Larramendiren izena; A. Larramendiren izena izango da maitatua eta bedeinkatua» (6).

Baiña, bere begien aurrean beti erdeldunak ebazala lan egin ebalako, penagarria bere ba da Aita Larramendi. Izan bere, alperreko lan asko egin eban. «Erderaz jarduki zuena euskeraz jardukitzen alegin balu..., euskerak indar aundiagoa artuko zuen berbada» (7).

Penagarriena, berak sortu eban apolojismu giroa da, larramenditarren giroa.

(6) Agirre Txomin. Euskalzale, 1898.

(7) Orixe. «Euskal literaturaren atze edo edesti laburra. 1927.

«Euskera gora, euskera bera, euskera alako edo olako, gure iraintzaleen buruzki. Eliz-literatura lekutzen badugu, gainerako guzia ortan ari dela dirudi. Neurtitzetan, rebistaetan, eta nonnai, ez da beste kezkarik...

Literatura mordo onen illunbea edo itzala beintzat au da: Alor edo landa medarregia artu du idazgaitako. Euskal-biziera, oiturak, ez dire bear bezain gogoan artu. Gaizki esaleen burrukapean beti ari izan gerala ematen du, ta beraz, euskera an, euskera emen, Euskalerrria andik, Euskalerrria emendik» (8).

Euskera gora ta euskera beera (Larramendik legez, erderaz askok), ametsez eta arinkeriz beteko teoria barrj asko argitaratu ziran: Euskera Paradisuan Jaungoikoak Adaneri erakutsitako izkuntza zala, edo Babelgo naaste aretatik urtena, Tubalek ekarritakoa...; euskera zala izkuntzarik ederrrena, gozoena, lojikuena, filosofikuena...; eta abar eta abar, albait ariñen surtara botateko abarrak geienak.

Ilrakurri, adibidez, Astarloa Paulo, Durangoko abade jakitunaren idazlanak (9). Zer? «Astarloakin, Larramendin kardoa lora biurtu zan; baiñan polenik bako lorea, lora antzu» (10).

Euskera goratzeko ta indartzeko biderik onena euskeraz egitea da, euskerazko lan ederrak egitea. Orduan, euskera ta bere edertasunak munduratu bearrik ez da izango; mundua bera etorriko da Euskalerrira, euskerazko edertasun orrein billa.

Orixe egin eben larramenditarren giroko idazle batzuk: euskerazko lanak egin. Eta orduantxe sortu zan gure bizkaierazko libururik ederrenetako bat: Peru Abarka.

Ikusi daiguzan, bada, larramenditarren giroko bizkaierazko idazleak.

(8) Orixe. «Euskal-literaturaren atze edo edesti labürra».

(9) «Apología de la lengua vascongada»; «Discursos filosóficos sobre la primitiva lengua...»; «Plan de lenguas o Gramática vascongada en el dialecto vizcaíno».

(10) San Martin Juan. Mogel. Itxaropena.

MOGEL JUAN ANTONIO

1745-1804

Nor zan

Markiñako mediku baten semea izan zan Mogel Juan Antonio. Bere aitaren aldeko aurretikoak erriojatarrak izan ziran.

Jaio Eibarren jaio zan, bere aita ango mediku izan zala. Baiña amaika urtetik asita, gaiñerako urterik geienak, Markiñan edo Markiña aldean emon ebazan gure Mogelek.

Bere aita ezeze, bere aitaita be medikua izan zan. Berak, ostera, abadetzarako bidea artu eban.

Abade noz egin zan ez dakigu. Baiña 1770-garren urtean, beñik-bein, Markiñan bertan dago abade. Gero, andik bost urtera, Etxebarriako San Andresera doa. Eta antxe amairu urte egin ondoren, Markiñara dator barriri eta Xemeingo parrokoa izango da amasei urtean, il arte (1).

(1) On-ona izan ei zan:

«On bat bear dozu,
santu lakoa...?
Or dago Mogel Jauna,
bana-banakoa».

(Azkue Eusebio)

Frantziako Matxinadatik iges eginda beragana etorri ziran abadeai eta beartsuai lagunduten emon ebazan bere diruak-eta, goian zerua ta bean lurra il zan.

Gaixo bat ikustera joan zanean, aren gaixoa naastu jakon berari bere eta atatik il zan.

Gorengo maillakoa etzan izan baiña, bere denporako izkuntzalari nagusien artean egoan (2).

Euskal-iberismuaren aldekoa zan. Bere ustez, «euskerea zan antxiñako España guztiko berbeetea. Euskereak ez dauka, ezagututen direan beste berbeetakaz alkartasunik. Euskereak daukaz txito antxiñakoa dalako usain ta siñisgarri asko ta gauza askotan» (3).

Apartekoa izan zan Mogel izkuntzalari legez. Orduko beste askoren aldean zuurra, zentzunduna ta apala izan zan. «Bakotxak gorde bear dau bere tokia, ta ez agertu eragin, soñeko edo aoz, eztana. Ez dozu iñoz entzun esakera asko esangurako au: Maria bitxigiña, sua da ogigiña? Eta beste oneek: Zulo bakotxari laakoa; aziak berea kirtena, ez dau gizonak izan bear urtena?» (4).

«Ez dozu uste izan bear Bizkaiti kanpora ez dagoala gauza onik; arrotz ta erbestekoak makal, baldan, baldres, motz, oker, zital, asto ta dongaak direala. Errikoiegia danak begiitsuak eukiko ditu; beintzat bai erdi geundu ta leusotuak» (5).

Baiña izkuntzalari legez baiño euskal-idazle legez dogu, batez bere, apartekoa. Ontan, bai, ba da, benetan, bana-banakoa. Eta onexegaitik egin da egin bere ospetsu.

«Basarteko Ikastetxe Nagusian» ikasi eban euskera Mogelek; baserritarrak izan ziran gure Maisuaren maisuak; baserritarrak izan ziran berak irakurri ebazan «liburu biziak».

Zergaitik joan zan «Basartera» euskera ikasten? Berak erantzungo deusku:

(2) Artu-emon andiak izan zituan aldi aretako izkuntzalariakaz, batez bere, Humboldttegaz. Beronen laguna eta lankidea bere izan zan. Eta Humboldteri Mogelek emon eutson beronek Markiñako Mugartegiren liburutegian aurkitutako «Leloren kanta».

(3) Peru Abarka. Editorial Itxaropena. 174-garren orrialdean.

(4) Ibidem. 35-garren orrialdean.

(5) Ibidem. 155-garren orrialdean.

«Bati baño geiagori entzun deusat, baserritarretan dagoala euskera garbia; Gaztelan izan gareanok ta uri barruetakoak erdera askogaz nastetan dogula euskerea» (6).

«Ez dozu entzuten, zelan gure baserritar ta beste nekazari askok diarden berbeetan, labandu ta ezetan katigatu baga? Baña zoaz praile, abade ta beste andiki askogana: Zelango estura ta larritasunak kontu luzetxu bat esan bear bada!» (7).

«Emendi aurrera artuko dot ardura andi bat, baserritar ta beste nekezale erdera bagakoetati euskerea ondo baño obeto ikasteko» (8).

Ondo baiño obeto ikasi eban ikasi bere Mogeleg. Bai ba! Erria, baserria da euskera bizi ta jatorraren iturri eder bat-eta.

«Euskera aberastu nai duenak, dijoala baserririk-baserri, erriz-erri ta euskalkirik-euskalki; or arkituko ditugu euskeraren mamia, bizkortasuna, itz ezezagun ta gaiñerakoak» (9).

Liburuetako iturritik bere edan eban ura Mogeleg. «Liburu euskera garbikoak irakasten dabee ondoen zelan jokatu izen ta berboetan» (10). «Erosiko ditut, topau al daidazan, basko ta kiputzeko liburuak bere, euskera guzti-guztietakoa aituteko» (11).

Olantxe, erri ta liburuen iturriko ura edanaz, egin zan Mogel euskal-idazle jator ta euskal-idazle on guztien jarraibide. Bera dogu gure bizkaierazko euskal-literaturaren zimendua; bera dogu, ametsezko Euskalerrian barik, egiazko Euskalerrian bizi izan zan Maisu ona, garbikeri bako garbizalea, sakona, zabala, umoretsua.

(6) Peru Abarka, 68-garren orrialdean.

(7) Diálogo entre dos amigos eclesiásticos, el P. Fr. Pedro de Urdia y D. Juan de Zandía. (Durangon 1881-an argitaratutako Peru Abarkaren azkenaldian).

(8) Peru Abarka, 175-garren orrialdean.

(9) San Martin Juan. «Mogel», Itxaropena, 1959, 32-garren orrialdean.

(10) Diálogo entre dos amigos eclesiásticos...

(11) Peru Abarka, 175-garren orrialdean.



Christinaubaren
Eracuspina

edo

Doctrina Christianica

Cenian aguertu, ta adierazoten dirian
astiro itaune, ta eranzunacas Cristi
naubaterezaquerara eldu ezquero
sinistu, escatu, equin, ta artu
biar ditubanac.

Ateraten dau arguitara Vizcaico Eus
caldumentzat gruzat onen ganian ondu-
en artubac, ta aguertuba izan dirian
liburubetarie

Dⁿ Juan Antonio Moguel ta
Urquizaac Marquinaco Urico. Curiaac

Idazlanak

Asko idatzi eban Mogelek, bai bizkaieraz, bai gipuzkoeraz, eta baita erderaz bere. Ikusi:

«Konfesio ta Komunioko Sakramentuen gañean Erakasketak». Gipuzkoeraz eginda dago.

«Konfesino ona edo zeinbat gauzak lagundu bear deutseen Konfesi-noari ondo egiña izateko». Bizkaieraz.

«Kristinauaren jakinbidea». Asteteren dotriñea bizkaieratuta.

«El Catequista vascongado — Kristau Erakasle euskalduna». Argitaratu barik dago liburu au. Esku-idatzia Bilboko Diputaziñoko Liburutegian dago. 388 orri ditu.

«Kristinauaren erakuspene edo Doctrina christiana, zeñian agertu ta adierazoten dirian astiro, itaune ta erantzunakaz, kristinauaren ezaguerara eldu ezkeru sinistu, eskatu, egin ta artu biar dituanak...» Argitaratu barik au bere. Derioko Abade-ikastetxean dago esku-idatzia. 441 orri ditu.

«Ipuñak» (12)

«Pascalen Gogamenak». «Euskalzale» aldizkarian argitaratu ebazan Azkuek, 1899-an.

«Peru Abarka. El doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte o diálogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan». Idatzi eta larogei urte garrenean argitaratu zan.

«Versiones vascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos o demostración práctica de la pureza, fecundidad y elocuencia del idioma Bascuence contra las preocupaciones de

(12) Ikusi: Milla olerki eder, 253-garren orrialdean.

varios escritores extraños y contra algunos vascongados, que solo tienen una noticia superficial del idioma patrio».

«Nomenclatura de las voces guipuzcoanas, sus correspondientes vizcaínas y castellanas, para que se puedan entender ambos dialectos».

«La Historia y Geografía de España ilustradas por el idioma vascuence». «Euskera» aldizkarian argitaratu ziran zati batzuk (1925 eta 1937).

«Cartas y disertaciones de Don Juan Antonio de Mogel sobre la lengua vascongada». Madrillen argitaratu zan, 1854-garren urtean; «Memorial Histórico Español», VII-garren tomoan.

Iztegi andi bat bere egin ei eban; baiña galdu edo egin da, antza.

Idazlan guzti orreitatik ederrena ta goragarriena «Peru Abarka» da.

Itz-lauzko alkar-izketa luze bat dogu Peru Abarka. Eta antxe agertzen da, bizi-bizirik, amazortzigarren gizaldiko euskal-biziera; antxe ikusten doguz aldi aretako euskaldunen fedea, oiturak, lanak, ipuiñak, bertsoak, esae-rak eta abar. Baita erremienta, tresna, abere, landara ta egaztien izenak bere.

«Bizkaian ez ezik, Euskalerrian argitara den libururik ederrenetakoa da Peru Abarka». (13).

Euskal-literaturako pitxi eder bat da, leenengo euskal poema, euskal-zale guztiak irakurri bear leukeen liburu egokia, onuratsua ta atsegingarria.

Ba ditu izan akats batzuk euskera aldetik, joskeran batez bere (14). Baiña aurrengo doanak uts batzuk egitea, ez da mire egiteko gauzea. Gaiñera, Mogelen euskerea orain berreun urteko euskerea da. Eta, beste alde batetik, dakian baiño mordoilloago idazten dau, irakurleak obeto ulertu dagian:

(13) «Orixe», «Euskal-literaturaren atze edo edesti laburra», Euskal-Esnalea, 1927.

(14) Bera bere konturatu zan: «Así Axular como el P. Cardaveraz ponen el verbo al último de la oración, a no venir con relativo, y será bien se haga así, pues sale más natural... Esta falta me dijo que cometió el inmortal D. Juan Antonio de Mogel» (Añibarro).

«Esaten dabee, gitxien esan bear leukeen askok, euskerea baldresa, traskilla ta soñeko zantarduna dala, ezin iñók apaindu leikiala. Nik gura baneu apaindu, bere etxe ta utxaan daukazan bitxi ta jantzi ederrakaz, apainduagoak urtengo leuke erdera askok baño; baño ezagutuko ez leukee etxekotzat, dongaro jantzita beti ikusi dañenak. Orregaitino, ez dot jantziko jaiegunetako soñekoakaz, esan gura dot, ez dodala irakatsiko noraño elduten dan bere ugaritasuna berbeetan» (15).

Ba ditu, bada, akats batzuk gure Maisuak bere (nok ez?). Baiña, alan eta guzti bere, Maisua Maisu. Eta berak darabilen euskerea, erri-erriaren euskera ugari landua ta apaindua da. Jakiña; «Basarteko» ikasleak errikoia izan bear (16).

Ez gaitazan ibilli, bada, «zaietan ziogi, urunetan ero. Zai apur bat galdu ez dedin bildurrez, ta urun ederra galduarren ardurarik ez» (17). Eta goazan, goazan urunetan gure Mogel andi ta aberatsaren errotara.

Lora eder batzuk

Errefranak:

- «Bakotxak jazten dau al daben alkandorea, ta nik neurea»
- «Iñorenaz jazten dana, bildur da billostu ez degien»
- «Erroiaren arrautzeak usakumerik ez»
- «Otsoak otsoari gatxik ez, ta lapurrari lapurrak laztan»
- «Ardao gozoak lau begi ta oñik ez»
- «Astoaren arrantzea, min bagea»
- «Zu beti ero; otz ez dana bero»
- «Maria gurea goruetan, bear ez dan orduetan»
- «Auzoko beiak erroa luze»

(15) «Konfesino ona», itzaurrean.

(16) Errikoiegia bere bai. Orregaitik erabilten ditu: Mendija, darua, betia, buruba ta abar.

(17) «Konfesino ona», 21-garren orrialdean.

«Otsein barriak galbaiaz ura, zaarrari edarriaz bere lekuri emon
ez gura»

«Goiz gorri, laster euri»

«Arrats gorri, goizean eguzki»

«Aldats gorea, aldats berea»

«Ara bertan ezer ez, azaak bai koiperik ez»

«Guzurra esan neban mendian, neu baño leenago zan errian»

«Egia, askoren erregarria»

«Barriketa asko, gauza on gitxi» (18).

Ipuin bat:

Atso ezaiña

Atso azal tximur begi gorria,
bizartsu baltza eta sur andia,
argal, makur, erren, larogei urtekoa
eta aoan agin bakoa.

Bestetik, barriz, zan piztaz betea
ta zuri eukana ulea;
betseiñetan zirudian katua,
bizarretan sagua.

Ezin zantar ezaiñago izanik,
eztau entzun nai alan danik.

Diño: «Zer da au? Betor espillua
ikusteko neure burua».

Ikusten dau, bada, zuzen egia.
Espillu guzurtia!

Diño: «Emon jat barre egiteko
eta ez neu nazana esateko;
dago espillu au txarto egiñik.

(18) Peru Abarkatik artuta.

Guzur uts! Ene matralla zuria
non dok? Non azal leun garbia?
Ik gau baltz egiten deustak eguna;
eguzki argia, illuna;
bela baltza, eperra;
ezainduten dok ederra.

Neskatxi gazteak dozak zartuten,
gorputz lirañak makurtuten;
ausiko aut, ausi, ostikopean;
ez aut eukiko, ez, etxean».

Bakotxa bizi dau bere zoroak,
orixe dirausku atsoak.
Ez dogu ezautu gura burua,
ez entzun egia diñonik,
ez siñistu berba onik,
eta ausi nai da espillua» (19).

Linuaren kulturea (20)

Maisu Juan: Zer da lino-ezpateta ori?

Peru: Nik esango deutsudaz gauzak sustrai ta ondo ondotik. Ereiten dogu lina-azia lur ondo giau ta azaro onekoan. Lurrak bear dau giro ona, ez ibilli senean ta abespaluan ta noz-nai erein. Lino mueta bi dagoz: Bata deritxo agorra ta besteari lina-berrea; a ugariagoa, au obeagoa ta lasterragoa. Eldu dedinean, atera bear da eskuz, ez ebagi igitaiaz; aterata, egiten dira eskutak, ta onek lotu. Gero dator garrameetea. Garramauta, gabikotu bear da, ta gabiko eginak sartuten dira uretan, samurtu ditezen ta bota daien loitasuna. Ur geldituan iminten badira gabikoak, ezta esatekoa zein atsitua geratuten dan ura. Ondo samurtu direanean, eroaten

(19) Aita Zabalaren ipuiñen artean argitaratutakoa. Ikusi: Milla Olerki Eder, 253-garren orrialden.

(20) Ikusi emen datozan itz ezezaunak Azkueren Itzegian.



dira zelai batera, ta an zabaldu ta banaturik, liortu bear dabe. Liortu ta ostera gabikotuten dira. Gabiko oneek daroez trimin-trimin egitera erruki baga zur-mallu edo mazuagaz. Beso sendoak bear dira malluaz banatuteko ta, bitartean, andrakume batek darabil gabikoa birak emoten. Arazo neka-garri onen ondoren astotuten ditue astosapinean; emen samurtuten da tint bedar gogor au. Gero daroe txarrantxetara ganak aterateko. Onelan arkituko dabe ezpatariak gaur. Ezpata oiñean edo ondoan iminten dabe lino astozapindua, ta esesten deutsee zurezpateaz; triska-triska eginda, nozean bein esku ta belauzagaz samurtuten dabe igortziak emonaz, ta gero isten ditue otzaran kukuztuta.

M. J.: Zer geiago egiten deutsee?

P.: Kukuzturik dagozan lino giauak, daroez barriro txarrantxara, ta an erbatzak joakoz, ta geratuten da batetik kirru garbia, bestetik amulua, ta amulua onek daukaz perreztupea ta gana. Onek iruteko bear dira goruburuan apaindu ta ardatzean batu, aria eginaz batera. Eztira onetan amaituten lan guztiak. Ariak bear dau matasatu itxorozkian. Itxorozkitik atera ta daroez matasak austietara ur gori ta egur-autsean. Sartuten ditue gero lisiba arratzean ta emen garbituten dira asko. Lisibatuta, sartuten ditue kako edo ageetan ta iruntz edo euritan zuritu ditezan, zabalduen dira bedar ganean.

M. J.: Ez dira onenbestegaz amaituten lanak?

P.: Ez, Maisu Juan; ari zuritua ta matasatua sartuten dabe ariltegian. Emen dira lan barriak ari eteten jakenean edo aria katigatu ta naastuten danean. Neke gogorren bidez egiten dira arillak euntegira eroateko. Zeinbat lor emoten ez deutse andrakumeak euren buruai? Baiña ez dira buruaste ta lorrik txikarrenak, eunla gaisoarentzat geratuten direanak, ta guztiz, ari eten-erraza badaroake. Gogait egingo ezpazendu, ikusi eragingo neuskezuz eunla batek bear dituan tramankulu, tresna ta erremientak euna eioteko.

M. J.: Gogait egin nik, Peru? Ez, ez; ikastea da irabaztea ta jakitun urtetea.



P.: Nok esan lei, ikusi baga, zeinbat neke ta arazo artu bear direan azi ereitetik alkandora bat jantzi artean? Amaitu dagianean eunleak bere zeregin gogaikarri ta nekatsua, sartuten da joala edo jostuna lan barrietan. Onek bear ditu artaziak, orratza, aria ta, ikuste argalekoa bada, be-taurreko ondo datorkozanak, ta alkandora dontsua josita bere, barriro bear dau bogada edo lisabara, samurrago ta zurituago geratu dedin. Agaitik esaten da: Linuaren atsakabeak, amaigabeak» (21).

Jazoera bat

«Ez da oraindino egun asko eldu nintzala abade gazte baten etxera. Aurkitu neban uleai tiraka, ostikoka, zinoala erderaz: «Quién me ha metido en este empeño?» Ikusi nenduaneko jaso jakon biotza, ta esaeustan: «Aita Pedro neurea, ordu onean dator». Esan neutsan, neure agurrak eginda: «Zegaitik ori D. Kalisto?» (alan eban izena). «Enkargau jat —zinoan— san Pedro geure Elezako patrioiaren sermoa; etorriko da jente asko, ta emen nabil erderatik euskerara traduzidu ezinda». Onlan berba egiten eban euskaldun eder onek. Erakutsi eustan bere bearraren zati bat, ta asten zan onelan: «Enpeñu andia, por zierto, neure auditorio noblea, neure predikazinoaren prinzipioan predikau bearra, zeruetako giltzak Jesukristok konfiau eutsazan santu andi baten ganean. Ditzosoa ni, zuei gusto emon al baneizu. Nok igualau eban S. Pedroen fedea? Zein santuk esperanza andia-goa?...» Etzenduke sinistuko zelango erdera mordoilloak egozan iminita, ez euskaldunak, ez erdaldunak aitu eikezanak. Eta illa betean egon zan buru austen, ta oraindino ez eban bearraren erdirik egin. Esan eustan zuzendu nengiola. Erantzun neutsan errazago zala zimentutik etxe barri bat jasoten, etxe okertu, obendu ta abe erdi-ustelduen artean, zur barri ta orma barriak egitea baiño. Esan neutsan erre egiala bere sermoe erdi-egiña, ta lenengotik gura nebala bear egin. Irakurri neban berak aurrean eukan liburua, ta geiago jaramon baga, asi nintzan neure bearrean. Etzan neure eskua geratuten, eragozpen baga joian lumea, iminten gogora etortana, ta ordu bete igaro baiño leenago neukan bear geiago eginda abade gazte ak

(21) Peru Abarka, 126-garren orrialdean.

il osoan baiño, ta guztia euskera garbi baten. Ezin sinistu eban ekusana, ta alango baten esan eustan: zelan ain erraz bear egiten neban. «D. Kalisto, —nirautsan— igongo neuke biar goizean elezako irakastegira, lumarik leenaz artu baga, ta euskerearen aldetik ez neuke eragozpenik eukiko ordu betean jarduteko. Itxi egiozu erderatik euskerara biurtu gureari; neurdin gauza garbirik egingo ez dozu. Entzun egiezuz nekazariai euren esakuneak, ikasi egizu euskerea eurak ganik; egin zaite euskera irakurten, ta urte bete barru urtengo dozu euskaldun» (22).

Esakerak:

«Ez oi naz sartu ardantegietan nora ezean, premiñaz ta ezin bestez baiño».

«Jakin baneu lenengoti Barberu txar bat baiño etziniala, ez nintzan Jaunka zugaz egongo».

«Ainbeste soiñeko bitxidunez, eta ori astegun buru zurian bidez zabiltzala?».

«Eztakie erremuskada, bekoki illun ta mustur astinketarik egiten».

«Ez bildur izan; bakarrik etorri banintz, ez eban zaunka aserre usaiñekorik egingo».

«Zuk uste dozun baiño jakitunagoak dira, nekazari batzuk jakin al daikEEzan gauzetan».

Iztegia:

Bana-banakoa: Apartekoa, berarizkoa.

Txito: Guztiz, oso.

Bitxigiña: Apaintzallea.

Laakoa: Larakoa, zotza, untzea, gur-zotza.

Kirtena: Aza-ondo edo trukutza.

Nekazari: Nekazale, lur-langille, baserritar.

(22) «Peru Abarka». Leenengo argitaldikoa, 197-garren orrialdean.

Diarden: Dabiltzan, ari diran.
Katigatu: Katigatu, trabatu.
Estura: Estutasun, estualdi.
Erakasketak: Erakusketak, irakatsiak.
Itaune: Galdera, pregunta.
Gogamenak: Gogorakizunak, pentsamentuak.
Baldresa: Erropa zaarrez jantzia, itxia.
Traskilla: Apaindubakoa, edertasun bakoa.
Bitxi: Pitxi, edergarri, apaingarri.
Ziogi: Geiegi begiratuta.
Alkandorea: Arkondarea.
Erroia: Arraia, bela nagusia.
Ero: Zoro.
Goruetan: Antxiñako liño-bearrak egiten.
Edarriaz: Ura ekarteko tresnea, pedarragaz.
Erren: Koxoa.
Ezaiña: Zantarra, itxusia, motza.
Betseiñetan: Begi ninietan, begien santuan.
Leun: Gurj, suabe.
Neskatxi: Neskaxa, neskatilla.
Ardantegietan: Tabernetan.
Barberu: Medikua.
Zaunka: Ausika.
Baldan: Baldres.
Arrotz: Erbestetar, kanpotar.
Geundu: Lausotu.
Giau: Landu.
Abespaluan: Ariñeketan, prisaka.
Senean: Itsu-itsuka.
Garramaetea: Garramatik pasau. Liñua garbitzeko erremienta bat zan garrama.
Gabikotu: Txortak egin.
Trimin-trimin: Jo-jo.
Astozapina: Liñua jo ta samurtuteko erremientea.

Tint: Guztiz.

Ezpatari: Liñoa, jote diardenak.

Kukuztu: Txortak egin.

Erbatzak: Laztasunak.

Perreztupea: Liñu txarra.

Neurdin: Ba, bada.

AÑIBARRO PEDRO ANTONIO

1748-1830

Nor zan

Mogelen adiskide andi ta bearlagun izan zan Añibarro Pedro Antonio. Ara zer dirauskun Mogelek:

«Gura dabenak sinistu Bizkaiko euskereak ez deusala ezer zor gipuzenai, iraurri begi liburu onek baiño leenago urtengo daben neure adiskide andi ta gauza onetan neure bearlagun legez egiten dan Aita Frai Pedro Añibarro, Zarauzko Kolejio A. San Frantziskoko Ordean Misionariak, bizkaitarrentzat atera daben liburu txikar, baiña urre guztiak baiño geiago balio dabena. Ediroko dau «Esku-liburu» onetan Bizkaiko euskeran ederto adierazo leitezala esan bear diran gauzak, berba nekezaleen aoetan dabilzanakaz. Bizkai barru-barruko semea da bera ta bere euskera garbi ta ederrak ezagutu eragingo dau nunnai ikasi leiteala ondo berba egiten, burua zerbait nekatu gura bada. Alperren soloak beti egongo dira bedar txarrez beteak. Bizkaitar guztiak erosi bear leukee liburutxu esan dogun au» (1).

Eretxi zuzena ta gogoangarria Mogelena. Izan bere, Mogelegaz batera, gorengo maillako euskal-idazlea dogu Añibarro. Mogel da zimendua; Añibarro, zimendu orretan orma lodi ta sendoa egiteko arri, are ta karea.

(1) «Konfesino ona», itzaurrean.

Billaroko Arkatza baserri-etxean jaio zan Añibarro. Eta Bilboko frantziskotarren komentuan sartu zan, amabost urte ingurugaz.

Meza barria emon ondoren, Arantzázuko komentuan egon zan irakasle. Gero, Aita Nagusi izan zan Friasko (Burgos) komentuan. Eta, azkenez, 42 urte zituzala, Zarauzko Misiolarien komentura etorri zan eta, arrezkero, antxe bizi izan zan, il arte.

Zarauzko komentua Misiolari-Aztetxe bat izan zan; misiolari euskaldunak gertuteko sortu zan, kristiñau euskaldunak bere, euren izkuntzan Jaungoikoaren Berbea entzun eien (2).

Misiolari-Aztetxe orretako Bikarioa ta kronika-idazlaria izan zan Aita Añibarro. Eta Frantzesak Gipuzkoaz jabetu ziranean (1794) eta geroago Askatasun-gerratean izandako goraberak jakiteko, gauza interesgarri asko idatzi ebazan Zarauzko Aztetxeko kronikan. Gipuzkoa, Bizkaia eta Naparroko erri euskaldun guztien izenak bere ipiñi ebazan Aita Añibarrok kronika orretan, misiolariñentzako. Eta aldi aretan euskeraren mugak noraiño elduten ziran jakiteko, garrantzi andikoa da zerrenda ori.

Aita Añibarroren bizitzarik geiena bakartadeko bizitza izan zan; bizitza ixilla, latza, beartsua ta lanari lotua. Baiña, misiolari bateri egokionez, erririk-erri bere sarri ibilli zan, misiñoiak emoten. Eta ez Bizkaian bakarririk; Bidasoz emendiko Euskalerrri osoan ibilli zan. Eta, orrexegaitik, bildurrez dago, bere bizkaiera ez dala, bearbada, beti guztiz jatorra izango-ta...

(2) «Erromako Aita Santu Inozentio amaikagarrenak (1676-1689) emandako Bulden indarrez eraiki ziran Espainiko toki askotan Misiolari-aztetxeak (Colegios de Misioneros Apostólicos). Etxe auek eskola edo mintegi batzuk bezala ziran, mixiotako praille trebea ukerakoak azi ta ateratzeko.

1746-garren urtean, Kantauriko Probintziak Zarauzko komentu au izendatu zun Aita Santuaren agindu ura betetzeko...

Misiolari-aztetxeok ba zituzten beren arau jakiñak edo lege bereziak. Biziera latza zeramaten, ixiltasunik aundienean, eta bere egikizuna bete al izateko, maiz izaten zituzten elkarrekiko solasaldi eta erakusadiak, Moral eta Aszetika gaiezaz. Zarauzko etxe au, Euskalerrian lan egiteko sortua zanez, etzan bere xede onezaz aaztu; orregatik, beste iñongoak baiño leenago, praile euskaldunak nai izaten zitun» (Aita Villasante. «Eusko Gogoa», 1956).

«Euskeran egin dot alegiña Bizkaikoari jarraitzeko; baiña zelan Kolejio onetakoak ain laster gabiltzan Bizkaian, zein Gipuzkoan, Araban ta Nafarroako berba egikune ta itzkuntzetan, utsen batzuk idoroko dozuz, ta orduan ito egizuz ixillik...» (3).

Misiolaritzan aberastu ta jatortu eban bere euskera Aita Añibarrok. Misiño aldietan entzuten eta artuten ebazan, erriaren iturritik, berba jatorrak, esaera egokiak, aditz-jokaerak eta abar. Gero, bakarrean, komentuko egonaldi luzeetan albaindu ta josten ebazan.

Eta, olantxe, misiolari ospetsu ta gorengo maillako euskal-idazle egin zan.

Banakak dira Aita Añibarrok aiña lan egindakoak euskaldunen eta euskeraren alde. Egiñalak egin ebazan «ez bakarrik arimen onerako, baita apaindu, azi, gorde eragin, edertu ta zabaltzeko euskerea ta laguntzeko euskaldun ikasle barriai» (4).

Gizon fiña, arduratsua ta zeatza, orixe izan zan Aita Añibarro. Bere idazlan mordoaz urretik aztertu ezkeru, arrituta geratzen da bat. Zenbat eta zenbat lan eder! Baiña zertarako? Argitaratu barik dagoz geienak-eta...!

Zati au amaitzeko, asieran Mogelek esana esatera noa. «Aita Añibarroren euskera garbi ta ederrak ezagutu eragingo dau nunnai ikasi leitea-la ondo berba egiten, burua zerbait nekatu gura bada».

Idazlanak

Langille asperbagea izan genduan Aita Añibarro. Eta lan-gose orren frutu, 17 liburu itxi euskuzan. Ona emen ederrenak:

«Esku-liburua eta berean eguneango kristiñau zeregiñak». Auxe dogu Añibarroren idazlanetan ezagunena, bizkaiera ezagutzeko liburu klasikua. Lau-bost bidar argitaratua izan da. Orain agortuta dago, zoritxarrez.

(3) «Geroko gero», itzaurrean.

(4) Ibidem.

«Misionari euskalduna, kristiñau-dotriña ta sermoiak Bizkai-errietan irakasten». Leenengo ataltxu bat bakarrik argitaratu zan 1897-garren urtean: Gurutze santearen, Aitagure ta Abemarien ganeko erakusaldiak». Liburu andi bi dira, argi, garbi ta txukun eskuz idatziak, inprentara eroateko prest-prest itxiak. Arantzazuko frantziskotarren komentuko artxibuan dagoz.

«Lau Ebanjelioak batera alkaturik». Lamyk egindako alkartzearen itzulpena. Ona emen leenengoz Ebanjelioa bizkaieraz..., baiña oraindiño argitaratu barik. Zarauzko frantziskotarren komentuan dago lan eder ori, moldera eroateko gertu.

«Geroko gero, bizkaieraz». Axularren «gero» bizkaieratuta. R.I.E.V. aldizkarian argitaratu ziran, zatika, 42 kapitulu.

«Lora-sorta espirituala ta propositu santuak, bizitza barri bat egiteko». Aita Palacios, Zarauzko misiolari ospetsuak erderaz egindako «Ramillete espiritual» eta «Propósitos» euskeratuta. Bi aldiz argitaraua: Tolosa, 1803; Durango, 1901.

«Nekea arindurik. Munduko krutze, neke, penak gozotu, laburtu ta arinduteko gogarte santuak». 15 gogarte. Argitaratu barik.

«San Iñazoren Gogo-jardunak». Argitaratu barik eta esku-idatzia bere galdu egin da, urrean.

«Voces vascongadas diferenciales de Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra... para uso y alivio de párrocos y predicadores vascongados». Oraintsu argitaratu dau Aita Villasantek. Larramendikeri bako iztegi jatorra da; erri-erritik jasoak dira berbarik geienak.

«Gramática vascongada». Zarauzko kronikan beste izen onegaž agiri da: «La colección de conjugaciones regulares e irregulares del vascuence en sus tres dialectos». Liburu interesgarria. Argitaratu barik au bere.

Idazlan mordoia egin eban, bai, benetan, Aita Añibarrok.

Erlejiño-gaiak darabilz geienetan; eta, sarri askotan, gogaikarriak dira (gaurko irakurleentzat, batez bere), eriotzea, pekatua, illobietako arrak eta

inpernua gogoratuazoten dabilkulako bein eta barriro. Bere aldiko semea dogu onetan Aita Añibarro, kristiñautasunaren alderdi bateri larregi begiratzea izan zan aldi aretako gatxa-ta.

Baiña, alan eta guzti bere, an or emen, gauza jakingarri asko erakusten deuskuz aldi aretako Euskalerrria ta euskaldunak ezagutzeko.

Euskera aldetik, erri-euskera landua ta orraztua darabil. Eta erdiko bidetik doala diñosku:

«Kontuzko alegin ardurazko ta begiramentuaz ibilli naz ez ifinteko Doctrina estuegiak, ez zabalegiak. Baita euskera bere izan eztidin entero goratua, ez txito bee nastu prestueza. Emen doian euskera guztia neuk entzuna da Bizkaiko errietan non edo non; eta euskaldun oitu on garbi bategu guztia adituko dau» (5).

Erderatik edo latiñetik zer edo zer artzen dauanean, euskeratu bakarrik ezeze, euskaldundu bere egiten dau «zerren euskereak eta beste berbakuntzak euren esaera ta berba egikune baanak, bakarrak, ta berezkoak dituez» (6). Begira, adibidez:

«Ezkondu baño len, kontu zer egiten den».

«Non zure dirua dan, zure biotza bere an».

«Obrak dira amore, ez berba onen kolore; esatea da erraz, egitea garraz».

«Santu-santaren artean, orma lodi bat bitartean».

Bardin antzeko otsa daben berbak alkartzen bere zalea da Aita Añibarro:

«Jauste ta auste»; «jatekoa ta jaztekoa»; «azi ta ezi»; osasuna ta ondasuna»; «sortu ta sartu» eta abar.

(5) «Misionari euskalduna...», itzaurrean.

(6) «Geroko gero...», itzaurrea.

Azkenez, eurenez jokutzen diran aditzetan (aditz-sintetikoan) aberatsa dogu.

Neurribako ondasuntegi bat da Aita Añibarro gure euskera sustrai-sustraitik ezagutu ta ikasi gura dauanarentzat.

Akatsak? Ba ditu batzuk, joskeran batez bere. Eta, gaiñera, bere lanak errezago ulertu eitezan, esangura bardiñeko edo antzeko berbak metatu egiten ditu eta, jakiña, lana astundu egiten dau:

«Zenbat geldituko ez litekez mututurik, aoa zabalik, txitik egin bage ta zer erantzun eztakiela».

«Gauza guztietan daukan jauntasuna, jabetasuna, poderioa, aala, eskubidea ta agintaritza».

Gaurko irakurleak arintasun eta bizkortasun geiago nai dau eta, orregegaitik, astuntasun nekegarri bat aurkitzen dau Aita Añibarroren idazlanetan.

Lora eder batzuk

Errefranak:

«Gure katuak buztana luze; berak legez besteak uste».

«Gizon ordiaren etxean, axea franku goxean».

«Gau sartua, guztia nastua».

«Ondo eginaren pagua, ate-osteko palua».

«Eztago eriotza aberatsik, ez ezkontza pobrerik».

«Bein oker egiñik ezkontza, da betiko errakuntza».

Gurasoa:

«Zer ziñean zu txikitan? Zeinbat sufrikizun emon ez zeuntsan zeure gurasoari? Zeinbat bider galdu ez eban bere loa zuri lo eragiteko, zu ixilduteko, zuri bularra emoteko? Zeinbat bider gogaitu eragin ez zeuntsan zeure negarrakaz, tema, maña ta okerkeriakaz? Zeinbat burukomin, estura, susto la larritasun ez eban igaro zure gurasoak zu maitetu, azi, jan-

tzi, janaritu ta gizon egiteko? Zeinbat neke, izardi, lan-bear, joan-etorri, gose-egarri, otz-bero, ta biotz-min igaro eztituz zure guraso tristeak, zurretzat dotea irabazteko, zuri eskolak emoteko, zu orain zagozan estadu, ofizio ta oin onean ifinteko? Nok irabaziak eta emonak dira orain daukuzuzan etxe, lur, tresna, oe ta ondasunok? Au guzti au, bada, gogoraturik, zelan erakusten ezteutsazu gurasoari lotsa, errespeto, maitetasun geiago? Alan erantzuten deütseezu onenbeste esker ta mesede artuai? (7).

«Esakerak:

«Ze lotsari gogorrean ikusi zenduan zeure burua arako bilos-bilosik, narru gorrian, mundu bete lagunen aurrean itxi zinduezanean!».

«Lenengo egunetan eta ezteguoko ogiak dirauan artean, dirau bakeak; gero dira kontuak».

«Gomute zaitte etzariala zeu bere eguzkiaren alaba, ez zeruko aingeru garbia, ez jenio orren onekoa eta zeure zeerak dozuzala».

«Ilteagaz bat-batean agertuko da ene arimea Jaungoikoaren aurrera, bere bizi guztiko kontu zeatza emoten».

«Bauka bere zera».

Iztegia:

Ediroko: Idoroko, aurkituko, topauko.

Gogarte: Meditaziño.

Gogo-jardunak: Ejerzizioak.

Begiramentuaz: Arduraz, kontuz.

Eztidin: Ez dedin, ez daiten.

Entero: Oso, guztiz.

Prestueza: Zantarra, mordoilloa.

Txito: Txit, guztiz, oso.

Den: Don, dozun (emakumeen arteko itano).

Ordiaren: Mozkortiaren.

Dirauan: Irauten dauan.

Gomute: Gomuta.

(7) «Misionari euskalduna...», I, 312-garren orrialdean.

ASTARLOA PEDRO

1751-1821

Nor zan

Astarloa Paulo apolojista entzutetsuaren anaia izan zan Astarloa Pedro.

Durangon jaio zan. Baiña au bere, Mogelen antzera, Markiñan azia dogu. «Markiñakoa da nire euskerea, antxe azi nintzalako» (1).

Frantziskotarra izan zan. Eta etzan edozein izan, itxurea. Bere liburuen leenengo orrialdean agertsen danez, «Lektore Jubiladu, Busgosko Probintziako Aita eta Kantabriako Defnidorea» izan zan. Kantabriako Probintzial izateraño bere eldu zan azkenengo urteetan.

Jakituna ta jainkozale gartsua izan genduan; bere erria maite-maite izan eban gizon zintzoa.

Orrexegaitik egin zan euskal-idazle bere, euskaldun fededun izan zalako. Bere kristau-fede biziak eta bere erriaganako maitasunak egin eben euskal-idazle.

Sermolari legez erririk-erri ibillia zan.

(1) «Urteko domeka guztietarako berbaldi ikasbidekoak...». Leenengo Liburuaren itzaurrean. Bere ama markiñarra zan-eta, bearbada, osabeen etxean edo egongo zan.

«Bizkaiko erri askotan predikadu dot...» (2).

Eta Bizkaitik zear ibilli ondoren, utsune andi bat ikusi eban; eta utsune ori betetan alegindu zan.

«Trentoko Batzar edo Kontzilioaren guraririk andiena izan zan, berak irakatsiriko fede edo siñiskerea gizon guztien ezauerara eldu eta guztiak egiazat eukitea. Uste izan eban ez egoala onetarako modu oberik irakasbide edo Katezismo bat konpondutea baño, nun azaldu edo esplikadurik ifini zeitezan, berak irakatsi eban eta Kristiñauak jakin bear dabeen irakasbide guztia. Eta alan agindu eban egin zeitekeala irakasbide au eta artu eikiela Obispo jaun guztiak ardurea, errietako itzkuntza edo berba moduetara itzuli edo biurtuteko. Erromako Aita Santuak bete eben Batzarren gogoa; batu zirean gizon zur eta jakitunak eta konpondu eben jakinbide au. Geroko Aita Santuak alegin andiak egin dituez itzkune edo berba modu guztiak euki daien irakasbide au. Obispo jaun askok, eta beste gizon jakitunak, artu dabe euren ganean lan au; eta alan dakigu erreinu, probintzia eta obispadu guztiak daukela euren itzkuntza edo berba egiten daben moduan. Euskeraz bakarrik ezta iñoz agertu. Arriturik nengoan, igarri al baga, nundik etorri zatekian utsune ain andi au. Nekuzan alde batetik, Trentoko Batzarrak aginduten ebala esakune edo berba modu guztietara itzuli edo biurtu zeiteala, eta auxe beraugaitik Kalahorrako Obispo jaun askok gura izan ebela euskeraz ifini zedin. Nekian bestetik, arima-zain eta beste gizon jakitun asko bizi izan zireala bizkaitar euskaldunen artean au egin leienak. Orregaitik, ezin iñundik bere igarri al neban, nundik etorri zatekian ez iñok artu gura izana beragan lan au.

Ikusirik zenbat on ekarri leizan euskeraz ifiniriko Irakasbideak, atsekabe andi bat emoten eustan Trentoko Batzarren guraria geure errietan bete baga egoteak. Sarri eta sarri emon eustan neuk lan au egiteko go-goak; baño jakiteak enintzala duin onetarako, neure ezjakite, neure sortasun eta neure astuntasunagaitik, atzeratuten ninduan. Denpora luzean

(2) Ibidem.

egon nintzan zer egin jakin baga; baña azkenez, altsuago edo poderosoago izan zan liburu euskerazko onek ekarri al leikezan mesedeen guraria, neure duineztañunen ezauerea baño; eta alan azartu nintzan euskerazko lan aur artuten...» (3).

Irakatsi ederra emoten deutsee euskaldunai Aita Astarloak. Irakatsi ederra eleiz-gizonai, batez bere.

Ondo gogoratu eta bete eban Aita Astarloak beiñola San Paulok esana: Erri bakotxari berari dagokionez (4).

Idazlanak

Liburu bi idatzi ebazan Aita Astarloak. Izen-buru bardiña dabe biak:

«Urteko domeka guztietarako Berbaldi ikasbidekoak, zeintzuetan azalduten dan Erromako Katezismoa. Eurretan aurkituko dabe arima-zain euskaldunak, euren elextar edo feligresai predikadu bear deutesen ikasbidea; baita bere kristiñau euskaldunak zer jakin eta egin bear dabeen».

Berrogetamairu berbaldi dira guztiz eta Dogma ta Morala azaltzen ditu. Eta gai sakonak eta ulergaitxak ulertuteko moduan azaltzen egiñalak egiten ditu. Eta orrexegaitik argia da. Begira:

«Jaungoikoa da betikoa, betirauna edo eternoa, eztalako iñoz izaten asi eta eztalako iñoz il, amaitu edo akabaduko. Eztago beretzat ez iragorik, ez etortekorik; iragoak eta etorriko direanak, guztiak daukaz aurrean. Ezta beretzat denporarik iragoten, ezta iñoz zaartu, ez zaartuko bere. Ezta orain zarrago mundua egin ebanean baño, ez orduan gazteago orain dan baño. Beti beti dago sen baten» (5).

Gaiak adibide bizi, errez eta politakaz jazten bere ondo daki, baserritarrak obeto ulertu deioen.

(3) Ibidem.

(4) Ikusi: 1 Kor., 14-garren kapitulua.

(5) Leenengo liburua, 34-garren orrialdean.

Erri ta baserri, nekazari ta etxeoandra, neska ta mutil ta umeen bizimoduan izaten diran okerbide ta gaiztakeriak ondo, zorrotz eta garbi azaltzen ditu.

Aldi aretako siñiskeriak bere ainbat erakusten deuskuz Aita Astarloak. Begira:

«Batzuk uste dabe itxuski edo ginarrria ate ostean ifini ezkeru, ezin an sorginik sartu leitekiala. Beste batzuk gatza maian jausten bada, kañubita edo kutxiloa aoaz gora geratuten bada, edo ogia bear dan moduan edo azal azpikoagaz gora ifinten bada, gatxen bat datorrela etxera. Ele-xako kanpaiak zoli ots egiten badau, erri atan laster norbait ilgo dala. Martitzen eta barikua, zori deungako egunak direala; egun oneetan egiten dan gauza andi edo nagusik ezin ondo urten leikiala. Gexoa dagoan etxean katuak miauka edo txakurra zaunkaka badagoz, laster il bear dabela; umeai askonarren erpea edo onelako beste gauzaren batzuk ifintea, begizkoz egin eztaiuen» (6).

Eta zelakoa da Aita Astarloaren euskera?

Ondo daki euskeraz eta etorri andikoa da. Bere euskera erreza ta ugaria da.

Baiña euskera erreza ta ugaria izan arren, landubako euskerea da-ta, augaitik, naste-borraste bat da bere ortografia.

Gaiñera «edozale» amurratua da. Gauzak al danik argien erakutsi bearraren erakutsi bearrez, euskerazko berba baten ondoan erderazkoa ipinten dau, sarri askotan, «edo» bat bienbitartean sartuta. Esatebaterako: «Azaldu edo espliketan»; «berbaldi edo platikak»; «ilkor edo mortal» eta abar. Eta, jakiña, ainbeste «edo» gogaikarri egiten dira (7).

(6) Bigarren liburua, 41-garren orrialdean.

(7) Beti «edoka» dabiltzanen sermolariai buruz, begira zelako parodia barregarria idatzi eban Azkuek bere. «Jesusen Biotzaren illa» liburuaren itzaurrean:

«Berbaldi edo «platika» onetako agerkera edo «manifestaziñoak» kondaira edo «historietan» argitaratu edo «publikata» ezpalegoz, azarkuntza edo «atrebimentu» andia dala

Erdal-kutsua bere ba dabe Astarloaren idazlanak. Baiña au aldi are-tako idazleen akatsa da (8).

Esanak esan, ona emen, amaitzeko, Astarloaren beraren eretxia:

«Euskereari begiratuten bajaka, uste dot edozein Bizkaiko erritan aitu-ko dala... Bizkaiko erri askotan predikadu dot euskeraz, eta guztietan esan deuste ondo eta ondo aitu dabeela esan dodana» (9).

Lora eder batzuk

Mozkorra zelan artzen dan:

«Kontu egizu topetan zaitudazala tabernara zoazala. Itanduko beneu-

erabagi edo «erresolbiduko» zeunkee, neure eliztar edo «feligres» maiteak, nik ain begi-rune edo «kortesia» gitxigaz, ain zeetazun edo «menudenzia» askogaz, aldi edo «epoca» atako jazoera edo «suzéso» agiri edo «publikoak» zueri gaur azaldu edo «espliketea»...

Zer esango leukee orrek, iñoz Bilbora etorrita entzun baleie onelango gauzarik?: «La aurora o el «egun-senti» mostró su risueña faz o «irribarrezko arpegi» al poco tiempo de haberse metido aquellas alimañas o «pataris» en sus cubiles o «abias».

Nor elitzake purrustadaka asi ta kanpora nairik egongo?

(8) «Eztiegu egundaiño gure idazle zaar oiei merezi duten aiñako ezagutza, eskerron ta jaso izango. Ordurarte euskera errian bizi zan, bai, eta erriak nonnai sartu oi dituan ipui, esaera, kanta ta abar, ba ziran gure artean ere, dudik gabe; baiña Gorostiaga Jaunak tajuz esan duanez, «una lengua no es verdaderamente un instrumento de civilización, mientras no posea una prosa literaria».

Idazleen bearrean zegon, bada, gure euskera. Idazleek eraman oi dute izkuntza bere umotasunera. Gauza goratuak aisa ta egoki adierazteko trebetasun ta antze ori, berek ematen baitiote izkuntzari. Zorionean, bada, etorri zitzaizkigun orain idazleok, eta saiaketa gogoangarria egin zuten gure euskera lantzeko. Lan zailla ta neketsua gaiñera, bide urratzera zetoztelako, lendanik gorritu gabeko lur-lantzeari ekin ziotelako.

Idazleek beti ta nonnai izan oi dira jende ikasia, eskolatua eta Euskalerriko jende ikasiak —arteana euskerazko libururik ezpaitzegoan— erderazkoetara jotzen zuan bere gogoaren landu-bearra betetzeko. Beraz, jende ikasi ori erdal-kutsuturik zegon osotoro, erderazko liburu ta eruedetan aziak baitzeuden denak. Eta, jakiña, erdal eruedetan azita-kook, euskeraz idaztera jarri ziranean, erdal eredu oien kutsua asko edo gitxi adierazten dute, ori naita naiezkoa baita.

Erdal kutsu ori dala-ta, etzaie beti gure idazle zaarroi merezi duten estimua gorde izan. Erdal joskera edo tajua dutela, erderakada asko sartzan dituztela, erdal kutsua alde orotatik dariotela eta eztakit nik zeinbat akats egotzi zaizkien. Eztut nik esango akats oetatik anitz egiazkoak eztiranik, baiña guztiarekin ere, idazleok ezin esan alako mesede egin diote euskerari, eta ba degu eurengandik zer-ikasirik asko. Euskeraren una ta uriña edoski ta beretu nai dunarentzat, ezin utziak dira» (Villasante, «Eusko Gogoa», 1956).

(9) Leenengo liburuaren itzaurrean.

tsu nora zoazan, bertatik erantzungo zeusket: «Jauna, gaur jaieguna da; aste guztian egon naz bearrean eta alan noa tabernara, kuartilutxu bat ezarri, berbaldi bat egin lagun eta adiskideakaz, eta gaberako etxera». Orra zure gogoa, ona eta errazoezkoa. Sartzen zara tabernan, ateraten dozu kuartilu bat, topetan dozu adiskide bat, emoten deutzazu zeure eskutik trago bat. Besteak, zu baño gitxiago ez izatearren, ateraten dau beste kuartilu bat, emoten deutzazu trago bat bere eskurik. Zuk, ikusirik besteak egin dabena, eztozu gitxiago izan gura eta ateraten dozu beste bat eta emoten deutzazu trago bat. Trago bat doa, trago bat dator; kuartilu bat doa, kuartilu bat dator. Onetan, batuten dira beste adiskide batzuk, eta denpora emotearren asten zara jokoan. Berotuten zara joko eta ardaoagaz; ardaoa doa, eta ardaoa dator; jokoa doa, eta jokoa dator. Ez-takizu ez zer edaten dozun, ez ze ordu dan. Urteten dozu tabernarik gaber dian (goxaldian ezpalitz). Artuten dozu etxerako bidea estropezuka, oñak loka, burua arin, bideak kabidu ezin zaituzala. Elduten zara etxera eta orra infernua. Emazteak berbatxu bat badagi, guztia da deadarra, demoniñoa, diabrua, berba astuna eta agirakia. Biaramonean, barriz, burua astun, gorputza nagi eta bearrerako alper. Orra zetan geratu dan kuartilutxu bat edan eta etxera denporaz joateko gogoa...» (10).

Esakerak:

- «Barriren barri kentzen deutse onrria proximuari».
- «Emon eutsen ondotxu edaten eta arako berorik egoanean...».
- «Umeak bearren bearren dituezan gauzetarako...».
- «Zelakoak esan deutzadazan; entzun bear baditu entzun ditu!».
- «Euren amesa bere ezta besterik nundik nora ardaoa edango dabeen».
- «Kristiñau zara, ez zeurez, ez zeure aleginez, ez zeure indarrez...».

Iztegia:

Zatekian: Zitekean, eitekean.
Nekuzan: Ikusten nebazan.

(10) Bigarren liburua, 125-garren orrialdean.

Duin: Kapas.
Iragoten: Igaroten.
Iragoa: Igaroa, lena.
Sen baten: Beti bardin.
Itxuski: Eskobea.
Ginarra: Eskobea.
Ots: Zaratea.
Zori: Suberte.
Bajaka: Bajako.
Agirakia: Asarrea.

MADARIAGA BARTOLOME

1768-1835

Nor zan

«Markiñako euskerea esaten jakona, gipuzkoarrenaz nastauta egon arren, garbia, lotsazkoa ta ederto oguzia edo ebagia beti izan da. Bizkaian Markiña aldekoa ta Gipuzkoan Tolosa aldekoa dira entzuterik geien daukenak. Markiñakoa bestearen aldean sendoa da, errotsua, mendi mutilla lakoxe azkarra. Tolosakoa biguna, udabarriko aizea langoxe ots eztiduna, eguzki epeletan ta sutondoan azi edo iñuturiko umea legezko azal-zuria. Markiñakoa arra da, Tolosakoa emea; ta mutil zarra ta neska zarra izateko jaiok ezpalitzaz, bien ezkontzatic sorturiko seiña edo aurra, munduan ez dagon lakoxe berbeta edo izketea izango litzake» (1).

«Bizkaian Markiña aldekoa...». Euskera jator eta ederraren iturria da Markiña aldea. Eta, zorionez, euskal-idazle askoren sorlekua bere izan da.

Markiña aldeko erri baten, Etxebarrian, jaio zan Madariaga Bartolome bere.

Mutil kozkorra zala, Markiñako karmeldarren komentura joan zan. Eta Lazkanon, Panplonan eta Tudelan egin ebazan abade-ikasketak.

(1) Azkue R. M.

Meza barria emon ondoren, oraindiño gaztea zala, sermolari izateko izentau eben bere nagusiak. Eta or doa gure «Aita Prai Bartolome Santa Teresa» Euskalerrian zear, kristiñau-fedea sendotu ta zabaltzen, euskaldunak ezagutu ta onbideratzen.

Eta entzute andiko sermolari egiten da; erririk geienetan ezagutzen dabe Aita Bartolome.

Eta erririk-erri sermoagiñen diardula, abadeak euskal-liburu barik dagozala konturatzen da ta liburu bat idatziteko asmoa artzen dau.

«Ikusirik, irakurlea, zareana zareala, ez daukazula zeure euskeran pulpitan esateko zer irakurririk, entero gitxi baiño, gogoratu jatan kristiñauaren ERAKUTSIKO lau zatiak pulpitudi esateko edo prediketako ikasikizunetan imini bear nituala. Adiskide askok aurreratu nabe sail oni ekitera. Esaten eben txito asmo ona zala. Eta onera jakinekoa euskal-errietako Kura jaun ta eleiza gizonentzat» (2).

Arrezkero, sermoagiñen eta idazten diardu Aita Bartolome arduratsua.

Baña, alako baten, frantzesak datoz Markiñara. Izan bere, España ta Frantziaren arteko Askatasun-gerratean gagoz.

Frantzesak bota egiten dabez komentutik ango fraile guztiak. Eta aurrean darabillez. Eta, batez bere, Aita Bartolomeri iñon direanak egiten deutsez. Esku-lotu ta Bilbora daroe, eta juizio antzerako bat egin ondoren, bere jaioterrira dakarre ta parrokuaren menpean izten dabe, sermoiak egitea ta konfesetea galazota (3).

Orrexegaitik, andik urteetara bere, gogoan ditu frantzesak. «Nor oian sartu da irago direan urteetan, prantzesen bildurrak ikara eragin bagarik? Nok ames egin dau beste gauzarik? Nor geratu da negargarri bagarik» (4).

(2) «Jaungoikoaren amar aginduetako lenengo bosteen ikasikizunak, itzaurrean.

(3) Berak diñonez, ondo eta pozik egon ei zan parrokuaren menpean.

(4) Jaungoikoaren amar aginduetako azkeneko bosteen ikasikizunak, 53-garren orialden.

Baiña egunak joan, egunak etorri, estu ta larri ibilli ondoren, gerra-tea bere amaitu zan. Eta 1813-an, Markiñako komentura joan zan barriro Aita Bartolome.

Leenengotan, bakarrik egon zan. Gero, beste fraile-lagun batzuk bere etorri jakozan. Eta, leenengo leenengo, komentua garbitu ta konpondu egin eben.

1818-garren urtean, Aita Bartolome egin eben komentuko Nagusi.

Gerorantza bere, bein baiño geiagotan izan zan Nagusi. Eta ainbeste ta ainbeste sermoi ta idazlan eder egin ondoren, Burgos aldean il zan gure Aita Bartolome odolgarri gartsua.

Gizon jatorra ta gogorra izan zan. Borborka ura darion iturria dirudin etorri oneko sermolari ospetsua; euskal-idazle sakon, argi ta jatorra.

Idazlanak

«Kristiñautzako siniskizunak, egikizunak, eskakizunak ta artukizunak dira eleiza gizonen lelengo erakuskizunak ta kristinauen ikasikizunak. Au izan da nire lana» (5).

«Ikasikizunak» iru liburutan argitaratu ziran:

«Jaungoikoaren amar agindueetako lelengo bosteen Ikasikizunak». 1816-garren urtean.

«Jaungoikoaren amar agindueetako lelengo bosteen Ikasikizunak». 1817-garren urtean.

«Eleizako zazpi Sakramentuen Ikasikizunak». 1819-an.

Beste ikasikizun batzuk bere idatzita eukazan. Ara zer diñon Ikasikizunetako leenengo liburuaren itzaurrean: «Au aintzat artuten badozu, irakurlaak, laster aterako da bigarren zatia. Baita aren ondorik Sakramen-

(5) Ikasikizunak, leenengo liburuaren itzaurrean.

tuak, Kredoan ta Aitagurea bere. Baita gero (zeruak lagunduten badeust) Jesukristoren ta Ama Birjiniaren graziako jazoan ondrarako, Santuen ondo esanerako ta arimeen oitura onerako sermoiak bere. Oneen guztion bearrik gaxena eginda daukat neure moduan». Baiña galdu edo egin dira, antza, esku-idatziak.

Beste liburu ikusgarri bat bere idatzi eban:

«Euskal-errietako olgeeta ta dantzeen neurrizko gatz ospindua».

Bana-banako liburu zoragarri orretan, amazortzigarren gizaldiko jolasak erakusten deuskuz Aita Bartolomek: Erromeria, dantza, bigira, saraok eta abar.

Argi ta gordin erakusten deuskuz erakutsi bere, eta jolas orrean are-rio agertzen jaku.

Erderaz bere idatzi eban zerbait (6).

Orreixek dira Aita Bartolomeren idazlanak. Aztertu daigun, bada, orain, bere euskera.

Oso aberatsa ta indartsua da; euskera ederra ta erreza.

Batzutan, ostera, gogor egiten jaku aren euskera. Zergaitik? Berak darabilen aditz-jokoagaitik. Izan bere, aditz-laguntzallea antxiñako erara darabil, au da, «zu» plurala izan zaneko aditz-laguntzalleak «zuek»'eri ezarrita. Ara, adibidez:

«**Zeuek** Jaungoikoaren berbeagaz janaria **emoten deitsazu** Jesukristoren ardi-altra oni; **zeuek erakusten deitsazu** Jaungoikoari, lagunari ta norberari zor deitsana; **zeuek alderatuten dozu** otso deungeetati; **zeuek osatuten dozu...** (7).

«I» eta «zu» bakarrik erabilli izan ei dira antxiñatean. Eta «zu» gaurko «zuek» zan. Gero, «zu» singulartu egin zan eta «zuek» sortu zan pluralerako. Eta ortik datorku aditz-jokoetako naastea.

(6) Ikusi: Villasante, «Historia de la Literatura vasca», 231-garren orrialdean.

(7) Ikasikizunak, lenengo liburuaren itzaurrean.

Antxiñako aditz-jokoa erabiltea da, bada, Aita Bartolomeren akatsik andiena.

Erderakadari buruz, ara zer diñoskun berak Ikazikizunetako leenengo liburuaren itzaurrean:

«Esan batzuk imini ditut gogo bagarik, geure euskerako berbeeta nau-si, maite, zaar, gaztetu, gozo, prestu, ugarira, geure erruz, erbesteti eto-riak. Euskerea berez aberatsa da. Bagenki ondo! Geuk, eleiza gizonok berba askotan naastau ta ezaindu dogu euskerea. Geuri entzunda dakiez baserrietakoak: Jaungoiko Omnipotentia, Poderosoa, Birjina klementisi-mea, miserikordiosea, mandamentuak, absölbizinoia, dolorea, errestitusi-noia..., ta beste onako berba euskal gaiztoko asko. Erdera ez dakien eus-kaldunak, euren etxeetan ta artu-emoneetan bear daben guztia esaten dabee euskera garbian. Kristiñautzako ikasian dira euskaldun gaiztoak. Ez da au euskerearen errua, ezbada geurea. Ta ain daukeez ia artuak erdeera edo latin berba batzuk eze, eurakin ez bada, aituten ez dabee ondo do-trinia edo kristiñautzako erakutsia. Onen bildurra arren, imini ditut er-beste berba batzuk Ikasikizunetan, bada kristiñautzako erakutsian zuzen aituten emotea leenago da berbetan erakustea baino».

Dana dala, antxiñako aditz-joko ta erderakada ta guzti bere, Bizkaiko euskal-idazlerik onenetakoa dogu Aita Bartolome.

«Fray Bartolome fue un magnífico orador, tonante y fulgurante a ratos, expositor transparente siempre. Son suyas algunas de las mejores páginas de prosa vizcaína; su léxico, no muy purista, es de una extraor-dinaria riqueza y variedad» (8).

Lora eder batzuk

Jazoera barregarri bat:

«Nai dozu, bada, entzun santu ez zanaren jazo bat, senar ernegau, bake txaarreko askoren lotsagarria? Entzun, bada, Senekari zer jazo jakon:

(8) L. Michelena, «Historia de la Literatura vasca», 112-garren orrialdean.

Ak gizonak eukan emaztea zitala, miin gaiztokoa, burugina ta agindu-naikoa. Ordu gitxi eukazan senarrak etxean, emaztearen jarduna ta esetsi lotsa txarrekoa entzuten ez zituanak.

Ez eutsan Senekak emaztearen miin gaizto askatuari euliaren bruna-deari baino geiago jaamoten.

Senarraren pazientzia eldua gaiti, zitalago, sutsuago ta lotsagaldukoa-go egiten zan emaztea. Ernegau eragin gura euskion ta asarratuta ikusi gura eban bere senarra. Alan emoten eutsan egunero bake txarra senar errubageari.

Bein batean, esetsi eutsan senarrari, iñoz baino errazoe gitxiagogaz ta gana geiagogaz.

Emazte lotsa bagearen jardunaldi andi a iragoteko, pazientzia galdu bagarik, urten eban etxeti Senekak ta geratu zan jarrita bere ate aurrean, emazteari txitik esan bagarik.

Errazoe bagako ekinaren ekinagaz ta jardunaren jardunagaz, sutu ta asarratu ezin ebanean bere senar baketsua, zer egiten dabela deritxazu emazteak? Oepean eukan loi-ontzia artuta, bentanara urtenda, ango loiak jaurtegi eutsazan puriagaz senarrari buruti bera...

Ta zer deritxazu egin ebala Senekak orduan bere emazteagaz? Ezer bere ez. Bere burua ta arpegia garbituten ziarduala, geldi-geldi, esan eban: «Ba nekian ain trumoe andiak euria ekarriko ebana» (9).

Neskak eta neskatillak

«Plazako piestara eroaten dan jantzia, da ainbat ederrena ta edertoen iminia. Ainbat ondoen burutik beatzera apainduta, moduztauta, garbituta, orraztuta; al dagianak,, larrosea, kabelinea, ispligua edo beste bedar usain gozoko bat paparrean edo eskuan dabela joaten dira plaza piestara bai gizonak ta bai mutillak, bai andraak ta bai neskaak.

(9) «Eleizako zazpi sakramentuen ikasikizunak», 374-garren orrialdean.

Dinot neskaak ezkonduako emakumeak gaitik, neskatillaak ez esatearren. Bada neskatillearen izenak, guztiak ondo dakien legez, beragaz dauka errespetua, modestia, onestidatea ta lotsorra izatea. Ta modu atan piestarik piestara ta dantzarik dantza gizon esku artean likinduta dabilzan emakume ezkondu bagakoak ez dauken legez ez lotsarik, ez modestiarik, ez onestidaderik, ezin emon legiue, egiazko errazoian, Neskatillearen izen ondrea, ez bada neskearen izena. Ez jako beliari usoa esaten, ez bada belia» (10).

Esakerak:

«Jaungoikoa bera egoan bakarrik berez beragan ta beste gauzarik ezerbere ez egoan. Jaungoikoak ezerbere ezeti atera zituan bere birtute edo Nai bategaz Zeruak, Lurrak...».

«Kriaturaren errasturik erne, sortu edo jaio ez balitz bere, Jaungoikoa Jaungoiko izango zan beti... Berez da dana Jaungoikoa, ez iñok emonda».

«Jaungoikoak emon deuskuzan doetati nausien bat da errazoia, gizona gizon izatea».

«Nai dot eta ez dot; ondo deritxat ta ez deritxat; egin baneu ta egin ez baneu» da Adanen pekatuak gizonari ekarri eutsan betiko kantia edo illetia».

«Beti ikasten, beti ikasi guraan, ta beti ikasi bearrean da gizonaren bizitzea».

«Atsoak badira, ta endemas seme-alabak an daukeezanak, azeria olloa jaten baino pozagorik dagoz, plaza baztar bateti edo bentana zulo bateti dantzeari begira arrastegi guztian kansau bagarik».

(10) «Euskal errietako olgeeta ta dantzeen neurrizko gatz-ozpindua».

Iztegia:

Onera: Probetxu.

Kura: Parroku, bikario, erretore.

Prestu: Ospetsú, bikain.

Aldra: Talde, pillo.

Alderatu: Apartau.

Burugina: Berekorra, bizigurea.

Esetsi: Baztertu, gitxiagotzat euki.

Jarduna: Barriketea.

Brunadea: Euliak egaz egiten dauan otsa.

Jaurtegi: Jaurti, bota.

Puriagaz: Asarreagaz (erderazko furia).

Endemas: Batez bere.

Arrastegi: Arrasti, arratsalde.

Illetea: Arrenkura, kezka.

Bakio
BERMEO
 Mundaka Elantxobe
 Ea
 Ibarrangelua
 Plentzia
 Sopelana
URDULIZ
 Berango Maruri
 Larrauri Busturia
LEKEITIO
 Ispazter Amoroto
 Ereño **ONDARROA**
 Berriatua
 Getxo Lejona
MUNGIA
 Arrieta
 Errigoitia
 Portugalete Barakaldo Lujua
 Gamiz Fika
 Erandio Derio Fruniz
 Zamudio Morgia
 Sondika Lezama
 Arteaga
 Deusto Begoña Larrabetzu
GERNIKA
 Aulestia
 Munitibar
MARKINA
 Etxebarria
 Abando Basauri Muxika
 Arratzu
 Ajangiz Bolibar
 Etxebarria
GALDAKANO
 Gorozika Ibaruri
 Barinaga
 Ermua
 Etxano Garai
 Berriz Mallabia
AMOREBIETA
 Bedia Lemona Zaldibar
DURANGO
 Abadiano
 Izurtza
 Mañaria
 Apatamonasterio
CEBERIO
 Arrankudiaga
 Arrigorriaga
 Miraballes
ELORRIO
 Axpe Busturia
 Axpe Arrazola
DIMA
 Igorre Arteaga
 Billaro
 Zeanuri
OTXANDIANO
 Ubidea
 Orozko



Bizkaian XIX-garren gizaldiaren asieran
 euskeraz berba egiten eben erriak.

ZABALA JUAN MATEO

1777-1840

Nor zan

Bilbotarra izan zan Zabala Juan Mateo. Bere aita Bakiokoa eta bere ama Billarokoa izan ebazan.

Zeiñetan ez dakigu, baiña frantziskotarren komentu baten sartu zan amabost urte ingurugaz.

Ikasketak Gaztela aldean egin ebazan. Eta, jakiña, urteetan euskera-rik entzun ez egin barik egon zanez, sermoiak egiteko ta konfesetako ta... sortuta eta nagituta egoan Euskalerrira etorri zanean.

Baiña Astarloaren «Apología de la lengua vascongada» irakurri eban eta orduantxe euskaltzaletu zan.

Urte batzuk Bilbon emon ebazan Filosofia irakasten (1804-1815). Urte oneitan agertu ziran frantsesak bere (Askatasun-gerratea) eta Galizia aldera iges egin eban Aita Zabalak.

Gero, 1815-garren urtean, Zarauzko Misiolari-Aztetxera joan zan. Eta, aurrerantzean, antxe Zarauzko komentuan bizi izan zan il arte.

Misiñoiak emoten bere sarri ibilli zan, baiña Bizkai aldean bakarrik. Eta, Aita Añibarroren antzera, ibiltaldi orreitan batu ebazan euskera ondo ikasteko ta bere idazlanak egiteko materialak.

Birritan izan zan komentuko Aita Nagusi bere. Eta bigarrenez Aita Nagusi zala, bere bizitzako azkenengo urteetan, estu ta larri ibilli zan.

Izan bere, leenengo karlistadako gerrate negargarrian gagoz (1833-1840) eta estu darabillez fraileak.

Ara zer diñon Aita Zabalak, il aurretxoan berak idatzitako karta baten:

«Yo he sido conducido dos veces a Guetaria entre bayonetas, y tenido allí en clase de preso con centinela de vista, por estar este pueblo (Zarauz) insolvente en sus contribuciones; otras dos, por medio de oficio, y tratado con menos rigor por otros motivos» (1).

Idazlanak

«Ni beti egon naz eta oraindiokarren bere nago, argitaratu bear ez tala ondo ta alde guztietara ondo eginda eztagoan liburu (rik). Baita nik bakarririk ta iñok lagunduko ezteustala, Artea ta Berbatoki bi egiteko? Baita, barriz, nok erosteko eskribiduko dira Berbatoki zarrak? Euskerea dabil saki eginik guztien ostikopean, iñok bere ikusi gura ez tabela eta euskaldunak eurak erbestetu ta aaztu gura leukela. Antxiñako ipuiñeko leoi zarrari legez, batak emoten deutso adarkadea, besteak ostikadea, besteak aginkadea. Nor(k) bada, erosteko dira liburu orreek? Nor(k) irakurteko...?»

Zer? burua galanto ausi liburuak egin eziñik, urtu, orreek argitara aterateko, or ogetamar edo berrogei milla errial, ta gero saguak, zedenak ta autsak jateko? Ezkagoz orren zoroak; eztakit nik zetarako naukan Jaungoikoak, baia orain beintzat ez tarabilt olango amesik» (2).

Aita Añibarroren Idazlanakaz zer pasau zan ikusita edo, muker dago Aita Zabala euskerazko liburuak idazteko. Eta Ulibarririk diñotsonean gramatika bat eta iztegi bi egiteko eta Forua euskeratzeko, ezetza emoten deutso.

(1) Villasante, «Historia de la Literatura vasca», 237-garren orrialdean.

(2) Aita Zabalak Ulibarri Jose Poulori bialdutako karta batetik artua.

Baiña, alan eta guzti bere, idazlan asko egin ebazan. Batzuk lan sakonak dira ta ondo ta zeaztasunez egiñak.

Ona emen bere idazlanak:

«El verbo regular vascongado». Bizkaierazko euskal-aditzaren azalpena. Zutanozko ta itanozko era biak noz egokiro erabilli daitekezan bere adierazoten deusku. Lan sakona ta zeatza da; Aita Zabalaren lanik ederreña. Bere bizitzarik geienez ibilli zan ibilli bere lan eder au egiten. 1848-garren urtean argitaratu zan.

«Noticias de las obras vascongadas que han salido a la luz después de las que cuenta el P. Larramendi». Berrogetamabi libururen zerrenda ta liburu bakotxaren eretxia dakar. Kritiku, zorrotza ta zentzunduna da Aita Zabala.

«103 conjugaciones del presente perfecto de indicativo o muestra de los 206 presentes de indicativo que da al vascuence don Pablo Pedro de Astarloa».

«Colección de voces y frases vascongadas oídas en las misiones de Vizcaya».

«Correcciones a la obra «Urteko domekak», del P. Astarloa».

«Fábulas en dialecto vizcaíno». Gaxoaldi baten egindako lana. Ogeitairu ipuin dira guztiz, beste izkuntza batzuetatik euskeratuta geienak. Itz neurtuz eginda dagoz. Euskera asko ta ondo daki Aita Zabalak, baiña gatz falta jako. «Zabalaren ipuiñak gar eta ardura andiz irakurri nituan; baiña, tamalez, gatzontzian gatz gitxitxu idoro neban» (3).

Lora eder batzuk

Madrilgo itsu barri-zabaltzaillak:

**Zan une baten gerra tint itzal bat
españarrakaz frantzesen artean;**

(3) Eguzkitza, «Lenengo euskal-egunetako itzaldia»; 14-garren orrialdean.

ta ilten eben gizon makiña bat
alkartutean.

Izan zan, bada, geure malpekadu,
Irun aldean atake eskergea;
biok il asko, baita asko galdu,
batak bestea.

Madrilgo kale, plaza, bazterretan
ebiltzan gero bertakoitsuak,
paperak saltzen eta zabaletan
geuk eginduak.

Deadarrez, bada, eta turrunt zarrai
ots eragiñik, ziñoenitsuak:
«Bai, espaiñiarrak deutsez frantziarrai
eio buruak.

Bagillearen ogeigarrenean,
or Irunetik zertxubait arago,
bitzuok ekin eutsen; geu ginean
izan geiago.

Lau milla gizon lurrean etxunik
gelditu jakez; eta bost millari
oratu deutse gureak, eta arturik,
onantz ekarri».

Bertan egoan gizon azartuak
dirautso: «Itsu, eta guretarik
zeinbat il dozak? ta zeinbat artuak?
arren esagik».

Erantzun eutsan geureitsu orrek:
«Ori Madrilen ez dok esan bear;
Pariskoitsuak ebatziko joek
artez nai zear».

* * *

Zerbait egiten gaituezan berbak
or darabilguz beti gora-bera;
barriz, txikitzen gaituen besteak
ez bein atera» (4).

Esakerak:

«Iñox iñox buruak emon deust egin bearko neunkeala».
«Geienak, eta an an urrean guztiak».
«Ai, ango orroiak ta desgarrtoa!
«Ango burruka-auskak ta apurtzea alkar!».
«Beren-berengi neskak damuaz
ez eban, ez, asko bear
antxe egiteko txorienagaz
taska-taska, negar-negar».
«Egin-alak ta ezin-egiñak emon ezker».
«Besteren batek ataratzen badituz, ondo; atsegin artuko dot. Al dabe-
nak dagiala».

Iztegia:

Artea: Gramatika.

Berbatoki: Iztegi.

Saki: Urratu, zauri.

Pere: Bere.

Galanto: Galanki, ganoraz.

Zedenak: Pipi, sitsa, arrak...

Tint: Oso, guztiz.

Malpekadu: ?

Eskerga: Andia, oso andia.

(4) «Milla Olerki Eder», 269-garren orrialdean.

Turrunt: Turuta.

Azartua: Atrebidua.

Esagik: Esaik, esan egik.

Desgarrioa: Urratuak.

Auskak: Erriertak, burrukak.

Beren-berengi: Beren-beregi, berariz.

Taska-taska: Negar-otsa.

MOGEL JUAN JOSE

1781-1849

Nor zan

Ona emen, beste Mogel bat: Mogel Juan Jose.

Mogeldarrak iru izan ziran euskal-idazleak: Juan Antonio («Peru Abar-ka» egin ebana) eta beronen loba bi: Juan Jose ta Bixenta (1).

Juan Jose Deban jaio zan (2). Eta bere osabearen antzera, abade egin zan.

Abadetzarako leenengo ikastaldiak bere osabeagaz egin ebazan. Gero, Oñatiko Ikastetxe Nagusian amaitu.

Bere abadetzako urterik geienak Markiñako Xemeinen emon zituan, berrogei urte inguruan izan zan ango parrokoa-ta.

Leenengo karlistadako gerratean, Bizkaiko diputadua izan zan eta, orrexegaitik, gerratea amaitu zanean erbesteratu egin eben.

Abade ona ta jakintsua eta euskalzale sutsua izan zan. Eta Aita Bar-

(1) Bixenta da leenengo euskal-idazlea, emakumeen artean. «Ipui onak» deritxon liburua idatzi eban gipuzkoeraz.

(2) Batzuk Plaentxian jaio zala bere esaten dabe.

tolomeren antzera, argi ta garbi erakusten deuskuz aldi aretako euskera-
ren atzerabideak zeintzuk ziran. Ara:

«Euskerearen zaletasun ta eraaspen puska bat daukeenak negar egi-
ten dabee gaurko egunean ikusirik erri gitxi batzuetan bakarrik aurkituten
dala berbeeta eder, ta munduko jakitun guztiak zurtu bear dituan au, bere
billostasun ta soiltasun garbi, argi ta miragarrian. Beste erri askotan, ez
dago belarririk entzutëko zelako erdera mordolloakaz ezainduten dabeen
euskal berbeta. Parkatu daideela Bizkaiko Kura jaun askok, bada eurei
ezarten deutset onetan erri andia. Erdera, latin ta beste berbeeta asko
ikasten ditue txito ondo ta garbiro, ta neke gitxi bat artu ez gaitik dagoz
atzeratuak euskeraan. Alan gero euren sermoi ta berbakuntzeetan erakus-
ten ditue esakune erdaldunduak. Eskoletan erdereä ikasteko leloak bere
ez dau onetan kalterik gitxien ekarri. Euskerea nastau ta erderarik ikasi
ez; au da eskolako umeetan beti ikusi dodana» (3).

Idazlanak

«Zaletuten bagara ondo euskerara, erro zabalak botako ditu bazter
guztietara, ta orduan urtengo dabee liburu barri euskerearen lora ta onda-
sunez beteak» (4).

Esan ta egin, iru liburuk urten eben Juan Joseren lumatik:

«Baserritar nekezaleentzako eskolea». Alkar-izketa baten bitartez, eus-
kal-familia on baten bizitza azaltzen deusku. Euskal-folklore ta euskera al-
detik, balio andiko liburua da. Baiña, gai äldetik, ameskeriz beterik dago,
eta aldi aretako beste idazle askoren antzera, Juan Josek bere, lur onta-
ko edertasunak ta poztasunak aintzat artu barik, geroko bizitza bakarrik
dauka, sarri askotan, bere begien aurrean. Euskal-familia on orren baserri-
-etxeak komentua dirudi.

(3) «Baserritar nekezaleentzako eskolea», itzaurrean.

(4) Idem.

«Eguneroko lan on ta erreguak Meza Santua ondo entzuteko; konfesino eta komunioia bear dan legez egiteko prestaera ta zuzenbideak».

«Maiatz illerako berba-aldiak». Gipuzkoeraz bere egin eban au.

Sarri askotan gai aldetik aspergarria izan arren, euskal-idazle ona dogu Mogel Juan Jose. Bere euskera jatorra, aberatsa ta erreza da, bere aldikoen akatsakaz.

«Osabea ala lobeia, ez dakigu zein dan ohea», esan oi da. Baiña emen ba dakigu zein dan ohea: Osabea. Dana dala, «zer ikusi, a ikasi» eta «zelangoa osabea, alango lobeia».

Lora eder batzuk

Jazoera gogoragarri bat:

«Juan Kontxeak ezkondu eban seme bat, eukan guztia emonda, ta etsigi zan beragana. Baña laster ezagutu eban, semearen leenagoko berbak onak zirala, eukana atera artekoak.

Ez eukanean zer emon, guztia zan astuntasuna ta desprezioa.

Negar egiten eban gau eta egun, egin eban tontakeria ezer baga gel-ditutean, ta eskarmentuak emon eutsan ondo izateko argitasuna.

Adiskide bati eskatu eutsan diru pillo bat, egun batzuetarako, ta eura-kaz bere gelara sartuta, asi zan kontetan ta ots eragiten, entzungo zan moduan.

Semea ta erreña asi ziran, sentiuta zelata, ta poztu ziran ikusirik zenbat diru kontauta sartu zituan kutxaan.

Urrengo egunean, itandu eutseen norenak zituan ainbeste diru, ta erantzun eutseen:

«Nik seme bat baño geiago ditut ta daukadaz diruak gordeta, ondoen portetan jatanarentzat».

Emendik aurrera, guztia zan aita ondo artutea: Zer gura eban, zer falta jakon...

Il zan; ta bereala pozik joan ziran kutxara semea ta erreña; edegi eben ta ez ebeen beste gauzarik topau, ezpada makilla trosko bat ta paper bat esaten ebana: «Nik, Juan Kontxea, azkeneengo testamentu onetan aginduten dot kutxa onetan dagoan makilla onegaz galantak emoteko, bere buruagaz aaztu ta daben guztia semeei emoten deutseen guraso eroari» (5).

Esakerak:

«Ikusiko dituzu agura makar, inoz ezetako abilidadarik ez dabeenak, edan samartu ezkeru, kontetan amesezko egitada ta parrasteria guztiak. O ardaoa!».

«Gabeko beluak ekarriko dau goiz berandua ta salto ta dantzeak biamonerako alper usaiña».

«Ai ene! Zer da neure ariman igaroten dana?».

«Ara emen arako zure seme galdua».

«Nik esaten deusudazan gauzaak ez dira zuen bildur nazalako, ezpada jakin daizun munduko barri».

Iztegia:

Eraspen: Zaletasun, deboziño.

Puzka: Pizka, apur.

Soiltasun: Garbitasun.

Lelo: Oitura, usadio.

Etsigi: Makurtu, joan.

Erreña: Errena.

Zelata: Zarata, otsa.

Kutxa: Kaxa, gordeleku.

Trosko: Landu bakoa.

Galantak emon: Ederrak emon, astindu.

Makar: Erkin, argal.

Edan samartu: Askotxu edan.

Parrasteria: Arrokeri, panparreri.

(5) «Baserritar nekezaleentzako eskolea», 251-garren orrialdean.

URIARTE JOSE ANTONIO

1812 - 1869

Nor zan

«Jaunak bakarrik daki
noztik norakoa
Bizkaian izan al dan
euskal-zortzikoa.
Ez daigun iñoz aztu
berbeta gozoa,
geure azabetatik
etorritakoa» (1).

Jaunak bakarrik daki zenbat eta zenbat ordu emon ebazan gure Aita Uriartek euskera lanetan, «gure asabetatik etorritako berbeta gozoa» ikasten, landuten eta idazten. Orretantxe emon ebazan, emon bere, bizitzako urterik geienak. Osasuna bere orretantxe galdu eban (2).

Arrigorriagan jaio zan Uriarte Jose Antonio. Eta Bermioko frantziskotarren komentuan sartu zan 1829-garren urtean. Arabako Erriojan, Labas-

(1) «Mariaren illa...», 126-garren orrialdean.

(2) Il baño urte bete leenago, gaixorik egoala, auxe diñotso Otaegi Kludiori, eskutitz baten: «Todos me dicen que mis males provienen de haber trabajado demasiado en el vascuence». Ikusi: «Historia de la Literatura vasca», Villasante, 262.

tidan, ikasi eban Filosofia eta Bilbora etorri zan Teolojia ikastera 1833-garren urtean. Baiña leenengo karlistadako gerratea sortu zan eta erri-agintariak urtenarazo egin eutseen fraile guztiai euren komentuetatik eta alde egin eban nunbaitera Uriartek. Zortzi-bereratzi komentu geratu ziran zarratu barik-eta, alakoen batera joango zan Teolojia amaitzera. Dana dala, 1836-garren urtean egin zan mezako, Azpeitin. Eta sermolari ta konfesore izateko izentau eben 1839-garren urtean, Mondragoen egin zan fraile-batzar nagusian.

Baiña, barriro bere, ara ta ona igeska ibilli bearra izan eban. Izan bere, Eleizearen ondasunak sal-erosgai egiten dira (Desamortización de Mendizabal) eta zabalik geratu diran komentu banakak bere zarratu, ta fraileok aurrean darabillez. Aita Uriarteren adiskide izan zan Azkue Eusebiok esan ebanez:

«Areriotasuna, geure gizaldian,
dago fraileentzako, Europa guztian» (3).

Estualdi orretan, 1840-garren urtean, Markiñara alde egin eban Aita Uriartek. Eta antxe bizi izan zan urte batzuetan eta bein baiño sarriago ibilli zan misioiak emoten. Orduantxe argitaratu ebazan bere leenengo idazlanak bere, Andra Mariari kantatzeko zortziko politakaz apaindurik:

«Ama eder garbia,
ara gure asmoa,
zuri eskinitoko
maiatza osoa.
Zeruak argi-argi,
zelaiak bedarrez,
sasi-mendiak loraz,
jaokuz diadarrez.

Il guztien artean
ez dauka bardiñik,
txoritxuak ezagun
abiak egiñik,
soñu kantuan dabiltz
poza erakusten,
egunagaz batera
gu iratzartuten» (4).

(3) «Parnasorako bidea», 281-garren orrialdean.

(4) «Mariaren illa...», 125-garren orrialdean.

Bein baten, 1856-garren urtean, Bilboko San Nikolaseko eleizan sermoe bat egiten egoala, antxe bertan egoan berari entzuten izkuntzalari ta euskalzale jakitun ta ospetsu bat: Bonaparte Luis Luziano, Napoleonen lo-bea. Lan batzuk egiteko laguntasuna eskatu eutsan onek Aita Uriarteri eta, arrezkero, lagun andiak izan ziran eta asko lagundu eutson Aita Uriarterek Bonaparteri.

Markiñatik Bermioko komentura joan zan 1859-garren urtean. Eta bederatzi urte Bermeon egin ondoren, Zarauzko komentura joan zan, eta antxe il zan.

Idazlanak

Aita Uriarteren idazlanik geienak itzulpenak dira.

«Mariaren illa edo maiatzeko illa». Maiatzeko lorak egiteko liburua; gure parroketan sarri erabillia.

«Jesus Sakramentaduari eta Ama donzella Mariari bisitak, illaren egun guztietarako, San Alfonso Ligoriok iminiak, erderazkotik eukerara biurtuak Fray Jose Antonio de Uriarte, Aita San Franziskoren misionariak. Geitu jakoz ondo konfesetako ta komulgetako erregu ta eskariak, Mezea entzuteko, Jesus sakramentaduaren bederatzi urruna beste gauza on batzukaz».

«Maria Jaungoikoaren Amak bere biotz guztiz santu eta garbiko kofradian sarturik dagozanai, eta kristiñau guztiai emoten irakatsi ta konsejuak D. Kosme Damian de Laraudo, Bilboko abade jaun, orain aita jesuiteak erderaz iminiak Fray Jose Antonio de Uriarte Bermioko uriko kolegioko misionariak uri onetako euskerara biurtuak...».

«La doctrina cristiana traducida al vascuence, dialecto vizcaíno, variedades de Marquina, Bermeo, Arratia, Centro y Ochandiano».

«Fábulas en vizcaíno». Manterolaren Kantutegian argitaratu ziran.

«Poesía vascongada». Argitaratu barik dagoan lorategi bat. Bermeoko komentuan dago.

«Biblia edo Testamentu zar eta berria, Aita Fray Jose Antonio de Uriartek latiñeko Vulgatatik lenbiziko aldiz Gipuzkoakao euskarara itzulia. Luis Luziano Bonaparte prinzipeak eta don Jose Antonio de Azpiazu gipuzkatarrak lagundurik». Auxe da Aita Uriarteri bere bizia laburtu eutson lan ikaragarri ta ikusgarria. Argitaratu barik oraindiño (leenengo iru zatiak izan ezik).

Beste idazlan asko bere egin ebazan. Baiña naikoa dira izentau doguzan orreik, Aita Uriartek garratz lan egin ebala jakiteko. Beargin itzala, benetan!

Erri bakotxari berari dagokionez idatzi gurarik lokalistaegia da, batzutan, Aita Uriarte; baiña bere euskera argia ta garbia da geienetan.

Lora eder batzuk

Neskatilla esne-saltzalea:

«Neskatilla bat uri batera joian
esnea eroiala bere pitxarrean,
ondotxu saldu ta aberastuteko,
eta egun onak gero igaroteko.
«Salduko dot —diño— esnea,
egingo dot irabazi ezin ohea,
eun bat arrautza ditut erosiko
eta onek laster iminiko
olloen lumapean,
eun bat txitatxu egin dagizan.
Salduko ditut gero ollazkoak,
ollandak biurtuko dira olloak,
arrautzak oneetatik,
ta askora igongo dot gitxitatik.
Au poza! Urte biren epean
diru asko izango dot aldean.
Zorionekoa onelan ni!
Erosiko ditut bei eder bi

jaioko jataz gero txalak,
egingo dira bigak ta zekorrak,
bigaiakaz beiak,
eta zekorrak asita idiak.
Esnea, barriz, izango dot ugari;
esango deusat otsein neskatileari
karutxo saldu dagiala
ta gona barri bat egingo deusadala.
Idiak ditudaz Iodituko,
zezin-geitzat, gero, salduko;
eta, azkenean,
diru gorri asko nere etxean».
Asmo onekaz zororik joian,
aberastutea ebalatzen gogoan,
onelan itsuturik,
balego legez diruz josirik.
Gogorazino oneetan aztu
nun eban bere esnea sartu;
labandu ta jotzen dau beia.
Agur pitxar ta agur esnea!
Negarrak darraiko pozari,
ezerezak aberats usteari,
eta neskatilla errukarria
gelditzen da galdurik guztia.

* * *

Ipuin onek zer deusku esaten?
Neskatilla eroak zer erakusten?
Ondo jakin nai dozu?
Belarri biakaz entzun egizu:
«Darabiltenak ondasun makala
pitxar auskor ta argaletan,

ezer baga, esku utsetan,
geldituko dira bereala» (5).

Esakerak:

«Bere odol guztia dabilko itxaso aserratu bateko olatuen gisan, batera eta bestera, eta ezin barruan egonik, urteten deutsa kanpora, bustiten deutsaz bere soñekoak eta jausten da lurrera tantaka-tantaka».

«Ez az ia-ia guztiz aztu nigaz?».

«Bere eziña, barriz, ez zan besterik ez gurea baño, geienean oi dan legez».

«Bada noiz artean egon bearko dot? Jaungoikoa Jaungoiko dan artean, beti, beti, betiko iraunean».

«Aita geratuten da seme baga, semeak aita baga, senar-emazteak bizi-alargun eginik».

«Geien geienaz daukazuz gogo ta asmuak konfesetako Pazkoetan edo jai andiren baten. Beraz, salbauko bazara, il bearko dozu Pazkoetan edo jai andiren baten».

Iztegia:

Asabetatik: Antxiñakoetatik, gurasoetatik.

Eskiniteko: Ezkeintzeko.

Jaokuz: Dagokuz.

Il: Ille.

Urruna: Urrena.

Epean: Plazuan, barruan, denporan.

Bigak, bigaiak: Bigantxak, beintxak.

Otsein: Krieda.

Darraiko: Jarraitzen deutso.

Gisan: Erara, antzera, modura.

(5) «Fábulas en vizcaíno». Ikusi: Milla Olerki Eder, Aita Onaindia, 273-garren orri-aldean.

AZKUE EUSEBIO MARIA

1813-1873

Nor zan

«Erato, musa ederra,
arren betatuizuz
onek bertso bigunok
graziaz eta suz,
irakurri deiezan
poeta euskaldunak,
frantzez, napar ta giputz
ta neure lagunak» (1).

Esan ta egin. Graziaz eta suz beterik egin ebazan bertsoak Azkue Eusebiok, euskaldunok irakurri daiguzan.

Erri-gizon eta erri-olerkari izan genduan au, Lekeition jaio zan eta bertan il bere. Bere aita zamudiotarra zan eta urte askotan bertako medikua izanikoa; bere ama lekeitiarra.

Zamudion bizi izan zan ume-umetatik, mutil bardingoa egin arte. Gero,

(1) «Parnasorako bidea», 301-garren orrialdean.

Latiña ta Filosofia ikasi ebazan Bilboko frantziskotarrakaz (2). Eta, onetan, leenengo karlistadako gerratea sortu zan.

«Asi zan ordu txarrean erritar utsen artean; erbestekoak euren asmōak eukezan gu sututeko, ta erria zapalduteko.	Amaika orduko euskaldun neuk nebazanek ezagun, gazte zintzoak ta errubakoak, gurasoentzat galdu dira! Ta erriak...? Zorren azpira» (3)
---	---

Karlisten alderdiko gudamutil izan zan Eusebid. Gerratea amaitu zanean, Ferrolera joan zan Nautika ikastera. Eta ikasten eta itxasoan urte batzuk eginda gero, Nautika-irakasle izan zan, Bermion, Mundakan eta, azkenez, 1861-etik asita aurrerantzean, Lekeition.

Bi bider ezkondu zan eta amabi seme alaba izan ebazan, eta oneitariko bat Resurrección María ospetsua izan zan.

Aita Uriarteren lagun andia zan eta zortziko batek arentzat egiña dirudi.

«Nai dozula, frai Jose,
zortziko barria?
Beste oin bat iminita
or daukazu erdia;
bost oin daukadaz laster,
onegaz dira sei;
eta orain zortziko
osorik neurtu lei» (4).

Azkue Eusebio, euren denporako olerkaririk onena dala diño Aita Uriartek.

(2) - Frailegeia izan ete zan, ba?

(3) «Parnasorako bidea», 194-garren orrialdean.

(4) «Parnasorako bidea», 185-garren orrialdean. Lope de Vegaren, «Un soneto me manda hacer Violante»-ren antzera eginda dago zortziko ori.

Idazlanak

Olerki-txorta asko itxi ebazan Azkue Eusebiok. Bermioko ta Zarauzko frantziskotarren komentuan dagoz eskuidatzirik.

Euskal-mitolojiari buruz bere egin ei eban poema bat: «Euskadia».

Bere semeak, gure Azkue andiak, argitaratu ebazan, 1896-garren urtean, aren olerki mordo bat, «Parnasorako bidea» izentzat ezarririk.

Azkue Eusebio erri-gizon eta erri-olerkari izan zala esan dogu asieran. Izan bere, bertsolari eskolatua baiño geitxoago da; baiña olerkari jatorra izateko bere zer bat falta jako.

Gai errikoiak darabilz geienetan. Eta bizitzako gorabera ta jazoerak, gizonen eta emakumeen egitada onak eta txarrak, negargarriak eta barre-garriak, ipuiñak eta kantak, polito baten erakusten deuskuz. Onexegaitik, oso aberatsa dogu folklore aldetik. Ikusi, esate baterako: «Gazteen bazarrak»; «Ezkontzak baserrian»; «Baserritarren erromeria»; Arrantzaleen kantea»; eta abar.

Mitoloji-gaiak bere ba darabilz. Ikusi, esate baterako: «Apolo eta Musak».

Bertsolarien antzera, eztenkada, zirikada, bizkortasun eta gatzez egosten ditu bere bertsoak. Adibidez:

«Ixilik dirudie
kadera bikoak;
berbaz asten badira
lau kaderoak» (5).

«Andrea da barautan
berba gurea;
baiña ordirik badago,
ituxurea» (6).

(5) «Parnasorako bidea», 55-garren orrialdean.

(6) Ibidem, 107-garren orrialdean.

Sarri askotan, esakera zorrotzez, irudi biziz ta erriaren filosofiaz apaindurik esaten deuskuz esatekoak:

«Ondo jan, bardin edan,
eta gauza ederrak,
bearrik egin barik,
dituez alperrak.
Zintzoak jaten dabe
bedar ta lastoa,
zintzoa beti izan da
alperren astoa» (7).

Euskerra jatorra ta atsegingarria darabil geienetan (8). Eta ba ditu onek bere, alako zer batzuk joskera ta olerki mueta aldetik.

Irakurgarriak dira gure erri-olerkari onen idazlanok. Eta berak egin eban legez, geuk bere zerbait egin daigun, beiñola biotz-minduta berak esan ebana geuk bere barriro esan ez daigun:

«Eztau Kliok ikasi
iñoz bere euskara;
istoria bakoak
euskaldunak gara.
Zenbat gauza andi armetan
emen egin dira!
Ta lumak busti barik!
Ta Klio begira» (9).

Lora eder batzuk

Gizonkeria ta gizontasuna:

**«Aintxinatar bat okerra,
lagunik bako gizona,**

(7) Idem, 109-garren orrialdean.

(8) Zamudio aldekoa ta Mundaka aldekoa naastauta.

(9) Idem, 300-garren orrialdean.

eta itsu zaar bat ezkerra,
batzar askotan egona
eta lagunentzat ona.
Batu zirean bein biak
ardantegi oskol batean;
an, gauza askoren gañean,
guzurrak asko ta egiak
iribiaten zirean.

—«Neure aintxiñako guztiak,
—ziñoan gizon zatarrak—,
zirean odol garbiak,
gudan agintari andiak,
bakean gizon bakarrak.»
Bere mosua izurturik
itsua egon zan entzuten
eta esan eban suturik:
—«Eztogu euki guk itsurik,
baiña nik eztot ikusten» (10).

Maitetasun andia

«Biotz bakar bat daukat,
ta milla banituz,
millak, neure maitea,
emongo neuzkezuz.
Eutsi, millak langoa,
bat, maite neurea,
eta, neurean ordeztu,
ekazu zeurea.

Gloria da amoreta,
eldu bada berez;
mundua amoreagaz

da zerua legez.
Jesus gizonagaitik
mundura jatzi zan
gizonen ondo naiak
kurtzean il eban.

Eztaukat biotzean,
maitea, lekurik;
zuk daukazu bakarrik
gutziz beteturik,
eta neuk bere nai dot
zeurea guztia;

(10) Ibidem, 52-garren orrialdean.

ezpada zetako dot
munduko bizia?

Aduak egon arren
geure aserre beti,
etzaitue kenduko
neure biotzeti(k).
Alper amaituko ezta
eguno aldia,
luzeago izango da
dodan onetsia.

Ezin jakin zinaike
neure naibagea
etzaitudazanean
ikusten, maitea.
Eztaukat nik orduan
jateko gogorik,
ez neure begietan
egoten da lorik.

Zu barik ezteust ezek
gogoa betetan,
orduan gogamenak

eztagoz ezetan.

Bakar-bakarrik nago
zeu barik munduan,
Afrikako ondarretan
leola moduan.

Kentzen deustazuz niri
alak arimarik;
zelan biziko naiz ni
munduan zu barik?
Zu zara neure egunen
eguzki bakarra
ta gaua argituteko
illargi bearra.

Ilten banaiz, maitea,
bizi zareala,
uste dot Jaungoikoak
itxiko deustala
zeure bornuan beti
munduan ibiltan,
bada ezata iñoiz gogoa
maiteantzat ilten» (11).

Esakerak:

«Neure ama, atso tximurra, sorgin-landarea».

«Istar-urkulu jarri zan txarri gaiñean».

«Alperrak ezpalira lekuan-lekuan».

«Munduko surren surrik surren».

«Buru zoro direan
andra-neskatillak,
orpo-ondorik daroez

(11) «Paruasorako bidea», 59-garren orrialdean.

gizon ta mutillak».
«Nai ju ju, nai ja, ja,
medikuen esana
bete egin bear da».

Iztegia:

Erato: Mitolojiako olerki-musa.

Arren: Mesedez.

Kadera: Anka.

Ituxurea: Itoiña.

Klio: Isteria edo kondairaren musa.

Oskol: Txiki.

Iribiaten: Irabiatzen.

Gudan: Gerran.

Izurturik: Tximurturik.

ITURZAETA ANDRES

1838-1912

Nor zan

Otxandion jaio zan Iturzaeta Andres. Eta abadea izan zan. Otxandion bertan emon zituan bere bizitzako urterik geienak.

Gure literaturan ezezaguna da. Baiña idazlan asko egin ebazan. Eta ariñeketa baten baiño ez bada bere, ezagutu daiguzan bere idazlanak, lau liburu andi egin dituan gizona ez da baztatu bearrekoa-ta.

Idazlanak

Iturzaetak idatzi ebazan lau liburuak oneixek dira:

«Urtearen domeka guztiñetarako (sic) berbaldiak». Liburu bi dira. Berbaldi batzuk gipuzkoeraz dagoz. Aita Unzueta, sermolari famauaren sermoi batzuk bere agiri dira, liburu bakotxarén azkenaldian.

«Esaldiak, santuen eta eskutapen miragarrikoen gañean eta gazte-
txoak lenengo konfesionera prestatako argibideak».

«Aita Gaspar Asteteren ikasbide kristiñaukorraren azalduera laburrak».

Gai aldetik astuna da Iturzaeta gaurko irakurleentzat, antxiñako sermolarien usaiña dabelako bere idazlanak.

«Guk gure amaren bularragaz batera irunsi genduan euskerazko izke-
ta gozo ta ederrean» (1) argitaratu gura ditu bere liburuak. Baiña, itzulpe-
nak diralako edo, erdera usaiña darioe, an-or-emen.

Dana dala, euskera asko daki Iturzaetak. Eta teoloji-gaiak erabilli bear
diranean, laguntasun ona dira bere liburuak.

Lora eder batzuk

Damua:

—«Zetan dezbardinduten dira damu osoa eta damu ez ain osoa edo
bildurrezkoa?»

—Euren eragintzalletan eta egitadetan.

—Zelan dezbardinduten dira euren eragintzalletan?

—Maitasuna edo amodioa dalako damu osoaren eragintzalea eta
damu ez ain osoarena edo bildurrezkoarena dalako bildurra.

—Azaldu eta argitu al zinaike ori irudi edo jazoera bategaz?

—Bai: Aita batek bialduten dituz bere seme bi ardiak zainduten. Eu-
rak ardura gitxigaz dagozan une baten, otsoak eroaten dituz ardi batzuk.
Anaia biak emoten deutse negarrari. Batak diño: «Nire errukarria. Zelango
kastigu gogorra emongo deuskun aitag!» Onek eukan damu bildurrezkoa
edo ez ain osoa, kastiguaren bildurretik sortu eta jaioten zalako. Besteak
esan eban: «Ni ez nau minduten aitaren kastiguak, ezpada guk geure aita-
ri emongo deusagun atsekabeak». Onek eukan damu osoa edo maiteta-
sunekoa, bere aitari eutsan amodiotik sortu eta jaioten zalako» (2).

Esakerak:

«Zein da Jaungoikoaren izatea? Bere berez izatea, izatez izatea...»

(1) «Aita Gaspar Asteteren... azalduera laburrak», itzaurrean.

(2) «Aita Gaspar Asteteren... azalduera laburrak», 140-garren orrialdean.

«Baña, Jauna, egiñak egin, damaturik nago».

«Izango dira arako nagolorarik nagolorara bakarrik konfesetan direanak?».

«Egin egizue alegin guztia zeuen seme-alaba ta mendekoai al dozuen besteko azierarik onena emoteko».

«Zelan mututuko ezta nire min motel ta ezetako eza?»

Iztegia:

Esaldiak: Berbaldiak.


Eskutapen: Misterio.

Zinaike: Zeinke, ziñei.

Une: Momentu.

Mendekoai: Menpekoai.

Aziera: Edukaziño.



ARRESE BEITIA FELIPE
1841-1906

Euskaldun jayo nuntian,
Euskalduna azi,
Euskara utiik amak
Eurtan irakatsi;
Euskara maite maite
Zabilte neugar beti,
Euskara ill' erkeru
Er dot gura bizi,
Donostian Urtiaren 29. an 1881. an
Felipe Arrese ta Beitia.

Nor zan

«Agur illun bat egin deuskue
guraso zarren legiak;
umezurtz batzuk gelditu gara,
billosik foru bagiak.
Izan bagiña eurak legetxe
euskerearen zaliak,
oso ta garbi gordeko ziran
oitura ain miragarriak» (1).

Azkenengo karlistada gerratea amaitu ondoren, 1876-garren urtean, ordurako bere naiko murriztuta eukazan lege zaar ta eskubideak kendu egin eutsoezan Euskalerrriari. Eta, jakiña, etzan begi onez ikusi beeratze ta murrizte ori ta biotz-minduta gelditu zirean euskaldun zintzo asko. Eta euskal-zaletasun barri ta bizi bat erne zan Euskalerrrian; eta, aieneka ta negarrez, gal-zorian egoan «gure Ama euskera» salbatzeko ta indartzeko, idazlan asko egin ziran.

«Bizkaia, Gipuzkoa ta gure Araba,
eta Naparroagaz lau anai gara;
beste aldeko irugaz batzen gareala,
zazpirok bear dogu gaur salbau Euskara» (2).

Olerki-sariketak bere asko egin ziran, orduantxe. Elizondon egin zan leenengoa, 1879-an. Eta leenengo saria Arrese Beitia Feliperi emon jakon. Saritutako olerkia auxe izan zan: «Ama euskerearen azken agurrak» (3).

Felipe Otxandion jaio zan. Eta amairu urtegaz, Bitoriara joan zan, dibujetan eta santugintzan ikastera. Gero, etxera etorri ta bere aita arotzaren ondoan ekin eutsan lanean.

(1) «Olerkiak», 18-garren orrialdean. Aita Onaindiak argitaratua.

(2) Idem, 82-garren orrialdean.

(3) Ordutik onakoa dogu erromantiku negartien «Ama euskeraren» leloa.

Irudigille ona ta ospetsua izan zan. Ar-or-emen, ainbat irudi ta santu dagoz (zurezkoak eta arrizkoak) Euskalerriko eleizatan, Felipe santugiñak egindakoak.

Ogetamar urte inguru ebazala, Aramaioko neskatilla bategaz ezkondu zan, Anjelagaz.

«Bera izan zan neu legez arte eder zalea,
bera liburu asko ebana irakurten;
nire lumeak eskribietan ebazan letrak,
berak zituzan borrau ta asko obetuten» (4).

Sei seme-alaba izan ebezan; lau gazterik il jakeezan. Otxandion bizi izan ziran bitizta guztian, azkenengo karlistada gerratean izan ezik.

Etxezalea izan zan Felipe.

«O, ene baserriko bakartadetxoa!
zu zaitut neure poz ta atsegin osoa,
nire adimenaren eskola andia,
arimako onaren leku egokia...» (5).

Etxezalea izan zan eta maite-maite ebazan bere emaztea ta seme-alabak. Ara zer diñon bere alaba Maria Pilartxo il zanean:

«Lora eder bat atzo zan eta gaur da zimela,
atzo zan nire poza ta gaur jat naigabea;
atzo zan nire etxe au agaz udabarria,
gaur bera baga au jat negu baltz illunpea» (6).

Eta bere Anjela biotz-biotzekoa il zanean zer? Estu ta larri, atseka bez beterik, eziñegonez dago gure Feliperen biotz andia.

«Sabel au daukat, laba bat legez, gori-goritan,
garrak kanpora urten nai eta ezin urten;
ok egiten deust eztarrian ta, larriak legez,
suzko boladak asi bearko dot botaten.

(4) «Olerkiak», 168-garren orrialdean.

(5) Idem, 93-garren orrialdean.

(6) Idem, 161-garren orrialdean.

Urten zaiteze nire agotik suzko erreka,
urten zaiteze, estuen-estuz, ez nadin il;
urten zaiteze, kolkoan zuek zaituedala,
ito gura ta ito eziñik, ai, gaur nabil» (7).

Elizondon leenengo saria irabazteak adoretu eban Arrese Beitia, are-xek bizitu eutson olerki garra. Eta ibilli ta ibilli, ikasi ta idatzi, geitu ta sendogotu egin jakon olerki-etorria ta, olantxe, olerkari famaua egin zan. Aldi aretan egin ziran olerki-sariketaetan, sarri be sarri izan zan saritua.

Idazlanak

Aita Onaindiak argitaratu ebazan, Euskaltzaindiaren ardurapean, Arrese Beitiaren olerkirik geienak, «Olerkiak» deritxon liburu eder baten.

Bederatzi zatitan banatuta dagoz olerkiak: 1) Kantu errikoiak; 2) Lirika kantuak; 3) Gora kantuak; 4) Amalaukoak; 5) Eleiz-kantak; 6) Alegiak; 7) Ipuiñak; 8) Irakurgaiak eta 9) Erderatik euskeratuak

«Eder-zale bazara, emen ito zeinke egarri ori. Euskerazale bazara, emen ikasi zeinke nai-beste», diño Aita Onaindiak itzaurrean. Eta esan ta izan, olantxe da.

Arrese ta Beitiaren adimen zorrotzak, irudimen biziak eta biotz andiak, era askotara ta ederkiro erakusten deusku edertasuna: Izadiaren edertasun zoragarri ta itzalgarria; biotz-barruko edertasun pozgarri ta kantaria; naibagearen edertasun samingarri ta negargarria; umorearen edertasun barregarri ta nasaigarria..., edertasun atsegingarria.

Ederto erakusten deusku edertasuna, ta euskera ederrean. Euskera aldetik bere ba dogu zer-ikasi gure euskal-idazle onen idazlanetan. Euskera erreza ta aberatsa darabil.

Ots-itx zalea dogu:

«Errotak klan-klan, taun-taunka olak,
eta pil-pil iturriak»

Gauza baten anditasuna edo betetasuna adierazoteko era barriak asmatzen bere ba daki:

(7) Idem, 166-garren orrialdean.

«Poztu gindekez, pozez gaiñezka;
pozen pozetan bere egon,
pozik pozaren poz andiagaz»

Errian entzundako esaerakaz bere, bein baiño sarriagotan, apaintzen ditu bere olerkiak:

«Iñoren ardurea pago adarrean
dagoala esan zan nozbait nonbaitean»

«Ez da esaera bat antxiña aterea,
pobrearen oiñean beti arantzea?»

Adibide ta irudiak bere eundaka darabilz; ta zelakoak gaiñera!

Bai gai aldetik, bai euskera aldetik, euskal-idazle ona dogu Arrese Beitia.

Olerkari legez punterengoa izateko zer bat falta jako ta erri-olerkari usain apur bat daukee bere olerki askok; betegarri askogaz eginda bere ba dagoz beste batzuk (8).

Ederrak eder eta akatsak akats, goazan euskaldun zintzo onen edertasunak ikustera, ikusgarriak dira-ta, negarrez ta barreka, benetan eta olergetan, gure erriaren gorputza ta gogo-biotzak erakusten deuskuzalako eta geure erria ezagutzea, geure burua ezagutzea dalako.

(8) «Ezaguna da gure artean Arrese Beitia, eta eztu aurkespen bearrik: zenbait bertso beintzat, gutxi bederen, buruz dakizkigu geienok. Biotz sutu aren garra ezta oraindik illaundu: bizi-bizirik daude txingarrak orrialde otz auetan.

Gaur, urteen joanak oztu gaituelako edo, ezin genitzake Arreseren olerkiak ikus orduko euskaltzaleen, eta batez ere Canpionen, begiz. Ezta Arrese munduari erakutsi nai zioten poesi-mirari arrigarria. Biotzondoa ba du, izkuntza aberatza ere bai; egiazko lirikoa osatzen duen zera, ordea, euskeraz geroztik agertu den zer berezi ori, falta zaio.

Egia esan, poesiarako baiño retorikarako ixuri geiago zuen. Ezta ikusi besterik zein olerkari euskeratu zituen: Herrera, Valbuena, Caro, Quintana, Zorrilla. Gogokoago zuen, beretarrago nonbaitik, esate baterako, «Canción por la victoria de Lepanto» edo «La tempestad»-en itz-jario ta deada-arata, Fray Luis edo Becquer-en kantu ixillagoa baiño.

Esandakoak eztu beeratzen ez gutxiesten. Retorika jatorra du, goitarra, biotz bero batek indartua. Eta euskera eder, sendo eta ugarian mintzatzen da beti.

Izkuntzaren aldetik ba dugu, beraz, zer ikasi Arresegan, eta beste batetik ere bai. Bertso orietan dauzkagu bilduak garai artako gogoeta, kezka, asmo eta burrukak, euskaltzale gartsu batek ikusiak eta adieraziak». (Mixelena Luis. «Olerkiak» liburuari egiñiko kritikan. Egan, 1957, 117-garren orrialdean).



Lora eder batzuk

Gernikako arbola:

«Anboto dakust triste, bai, triste,
negarrez Oiz-mendia,
euskaldun goiak danak diñoste
ilten da zarra guztia;
il zan il Lelo, il Lekobide,
il zan, il zan Jaun Zuria,
il ziran gure gizon andiak,
ia il Euskal-erria;
alan ezpada esan daiala
arbola orrek egia.

Aretx maitea, esan egizu
euskeraz berba egiñik,
iñoz aurkitu ete dan lur au
taju onetan geixorik;
autortu zaite zeu bere egon
bazara orren sikurik,
bazara egon iñoz orrelan
ezkurrik emon eziñik,
urte askogaz ukatu eta
basengoz legez zarturik?

Autortu zaite, lotsa bagarik,
arbola entzutetsua,
autortu zaite, etzara zu zeu
aretx danetan santua?
esan egizu zeure gloria
zelan jarri dan gautua,
nondik ta nora gaur zu zagozan
orrenbestean galdua,
iñoz ez izan baziña legez
arbola Gernikakua» (9).

(9) «Olerkiak», 67-garren orrialdean.

Udako gau oskarbi bat

Zeruak zabaltzen dau
gabeko estalkia,
izarrezko lorakaz
ornidu ta josia;
erregiña bat legez,
burdian illargia
doa uts urdiñean,
zidar urrez jantzia;
ederra ete daukan
ikusteko arpegia,
billatu nairik dabil
ibai sail bat geldia.

Firi-firitxo dator
aize ziri-miria,
zizpuru bigunakaz
esnatzera orria;
eta lorea pozik,
andia zein txikia,
dago atsegiñetan
edanaz intz ezta,
egunak deutsalako
emoten egarria.
eguzkiaz sartzean
izpi zorrotz gorria.

Naiz-ta goizetan izan
barritsu bat andia,
abian dago lotan
gaututean txoria;
urtenda bere etxetik,
barriz, ontz itxusia,
uluka ta uluka
dabil errondaria,
eta entzun orduko
aren zantzo zolia,
sasipean izartzen
da arin ipurtargia.

Mendiko txarkotxoa
ain da murmularia,
gabetan ak dirudi
jende pillo andia;
eta erretxiñolak,
baldin iratzarria
badago ta badauka
kantetako aldia,
itxita epeltxorik
lo egoan abia,
alegeretu oi dau
ingurumai guztia.

Ederra da, benetan,
zeruan illargia,
ederra, duda бага,
izarren arpegia;
ez da bere tristea
ontzen ulu zolia,
naibagegarri bere ez

ipurtargi txikia;
erretxiñola, azkenez,
kantuz bada asia,
miragarritzat daukat
udan gau osgarbia...» (10).

Esakerak:

«Guzurra ta abarra asmaurik zelanbait,
eragiñik sarritan auzokoai gogait».

«Nondik arrano dozu orain sarra-sarra
dirua, gastetako non-nai firri-farra?»

«Zelan Jaungoiko zaitu Fortuna orrek jo?
Ez ete da sekula gugana elduko?»

«Ondo pentsau bagarik dranga-dranga edan,
bero andi bategaz zelan eiten neban,
Sagardoak ninduan Mozkorraz ezkondu».

«Zeinbat gazte eder bere dakusguz
arrotu eta jagirik,
dirudiela jaungoikotxoak».

«Ur me garbitan arraña bada beti ibilten,
eguzkiaren izpi zorrotzak ikuturik,
zoro-zororik dabela jolas asko egiten».

Iztegia:

Adimena: Ulermena, entendimentua.

Ok egin: Barruak gorantza egin, okadak egin.

Boladak: Zuurunbak.

Nadin: Naiten.

Gindekez: Geintekez.

(10) Idem, 595-garren orrialdean.

Estalkia: Kapea.
Ornidu: Bete.
Ibai: Erreka (ibai sail geldia = remanso).
Esnatu: Ixartu, jagi.
Irutz: Iruntz.
Izpi: Erraiñu.
Ontz: Gabontz, gautxori, mozolo.
Erretxiñola: Urretxindorra.
Alegeretu: Alegretu, poztu, alaitu.
Ingurumai: Ingurumari, ingurua.
Illargia: Iretargia.
Osgarbia: Argi ta garbia.
Zelanbait: Zelan edo alan.
Dakuskuz: Ikusten doguz.

aranatarren
giroko
idazleak





ARANATARREN GIROA

Len esanda daukagunez, azkenengo karlistada gerratea amaitu ondoren, gure Foruak kendu edo moztu egin euskuezan. Berealaxe, kezka barri bat, ardura barri bat, zaletasun barri bat sortu zan euskaldunen biotzetan: Foruak galdu doguzan ezkerro, euskera, beintzat, ez daigula galdu.

Olerki-sariketak eta euskal-jaiak atondu ziran; ainbat euskal-liburu zaar eta barri argitaratu ziran...

Alako baten, bilbotar bat, Arana Goiri Sabin (1865-1903) agertzen da; sutsu agertu bere. Eta bultzakada barri ta indartsu bat emoten deutse euskal-idazle guztiai eta giro barri bat sortzen da: Aranatarren giroa.

Euskera gaixoa salbau gura dau Aranak bere. Eta, leenengo ta bein, jo ta ke diardu ikasten eta idazten; lenengotan, ikasten, «euskaldun barria» da-ta; gero, idatzen, erderaz, batez bere. Eta ibilli ta ibilli, idazlan mordoia egiten ditu: «Etimologías euskéricas» (1887); «Gramática elemental del euskera bizcaíno» (1888); «Pliegos euskeralógicos» (1892); Bizkaitarra» asterokoa (1893-1895); «Tratado etimológico de los apellidos euskéricos» (1895); «Lecciones de ortografía del euskera bizcaíno (1896); «Umiaren lenengo aizkidia» (1897); «Baserritarra» asterokoa (1897); «Lenengo Egutegi Bizkaitarra» (1898); «Euzkadi» aldizkaria (1901); «Josu-Kistoren Nekaustia, Matai Deunaren araura»; «Olerkiak» eta abar.

Euskera garbitu, apaindu, landu ta gorengo mailla batera jaso gura dau Aranak; berba baten esateko, euskera barriztau egin nai dau. Asmo ederra, benetan!

Baiña okerreko bidea artzen dau. Erriaren eta idazle zaarren iturriak ez ei dau ur ona emoten eta irugarren iturri barri bat egiten asten da



Arana, bere lojikearen laboratorioan (1). Eta ekin eta ekin, egin egiten dau euskera barri ta garbiaren iturri ori.

Arana gazterik ilten da. Baiña, ordurako askok edan dabe ura iturri barritik. Eta ez dabe beste urik nai.

Ordurarte egin dan guztia txartzat daukee aranatarrak. Eta ortografia, iztegia, aditza, joscerea ta abar, goitik bera barriztazen dabe euskera. Baiña zertarako? «Zeruetako edo aingeruen euskerea amesetan ibilten ikasi ta lurreko au ezagutu ta ikasteko zaletasunik, ez gogorik ez izatea; iñok (edo gitxik baiño) ulertu eziñezko euskeraž, liburu eta idazlanak egin eta onetara irakurlerik asko uxatu ta zalegetzea... Benetan, euskereak burua jasoteko dituan eragozpenai lagun egiteko ezin zitekean gaur bide oberik artu» (2).

(1) Eta aldi aretako razionalismu giroan.

(2) Altube Seber, «III Congeso de Estudios Vascos», Guernica, 1922.

Uts andi bi egin ebezan Aranak eta, batez bere, aranatarrak: Erriaren eta idazle zaarren iturria bertanbera itxi, eta irugarren iturri edo dana dalako bat egin, ur gogora darion laboratoriko iturri barria, garbikeriz zikinduta dagoan «euskera barriaren» iturria, beste iturri biak baiño iturri obeago bat aurkitu gurarik sorturiko ametsezko iturri kaltegarria.

«Euskera garbia edo bapez» zaleak, euskaldunen artean aspaldion sartzen ari diran kezka atzerakari orregaz, euskerearen bizitzeari berari, uste-uste barik, kalterik aundiena ez ete deutse, gero, egiten!...

Gauza jakia ta agiria dogu: Idatz-izkerek alegin guztia egin bear dau erri-izkerekaz bardinduten, bestela, erri-izkerea aurrera doa bere bidean, ardura barik, bestea atzetik joakon edo ez jaramonik egin barik. Idatz-izkerek, eztau ezetariko indarrik, erri-izkerea bereganatzeko, beronen ondo-ondoan, beronen epeltasunpean burua makurtuta jarri ezik. Erri-izkerearen ta idatz-izkerearen batasuna lortzeko, beronek egin bear dau alegin, erri-izkerea berekoa, aurrelari itsua da-ta» (3).

Erriaren iturria bear-bearrezkoa dogu. Baita idazle zaarren iturria bere.

«Lehen egin izan dena egiña dago, naiz gaizki egiña iduritu guri; lehen esana esana dago, oker esana dagoela baderitzagu ere. Ez gaitezen beti, ainbeste aldiz egin dugunez, uts-utsetik abia: lur landuan, naiz eta erdizka eta exkax landuan, aisago ereingo digu erein bear dugun azi berria» (4).

«Etzaie beti gure idazle zaarroi merezi duten estimua gorde izan. Erdal-joskera edo tajua dutela, erderakada asko saritzen dituztela, eta eztaikit nik zeinbat akats egotzi zaizkien. Eztut nik esango akats oetatik anitz egizkoak eztiranik, baiña guztiarekin ere, idazleok ezin esan alako mesede egin diote euskerari, eta ba degu eurengandik zer ikasirik asko. Euskerearen una ta uriña edoski ta beretu nai dunarentzat, ezin utziak dira» (5).

Arana ta aranatarren utsak eta geiegikeriak, penagarriak izan arren,

(3) Altube Seber, «Euskera», 1919-1922.

(4) Mitxelena Luis, Olerkiak, Bernat Dechepare, itzaurrean.

(5) Villaşante Luis, «Eusko-Gogoa», 1956 gako. ILBELTZA-OTSAILLA.

gogo onez egiñikoak dira. Eta kaltegarri bakarrik ezeze, mesedegarri bere izan dira, euskalzaletasun eta euskerazaletasun barri ta bizi bat sortu eben-eta. «Arana gabe edo Aranaz leku ari izanak eta ari direnak ba dituzu, baino aren aldekoak naiz aitzikoak, naiz bitartekoak, naiz Arana-kuak, ua dute eragile nola edo ala» (6).

Utsak uts, bultzakada itzala emon eutson Aranak gure euskal-literatu-reari, igongura andi bat emon eutson, euskera gorengo maillara jasoteko gogo bizi bat. «De Arana-Goiri más que de nadie procede en último término el mayor empuje y ambición de los escritores posteriores» (7).

«El ha aportado sobre todo una fuerza. Una fuerza que se siente realmente presente y que ha sacudido hondamente la conciencia del país, impulsando a los vascos al trabajo por el cultivo y vida del viejo idioma. Fuerza que influye aún en los que no comparten las ideas políticas y lingüísticas de Sabino, fuerza que se siente operante aun en los que le combaten» (8).

Orrexegaitik (aranatarrak izan edo ez izan) euskal-idazle asko sortu ziran aranatarren giroan. Eta lan asko be asko egin zan aldi aretan: Liburu barri ta zaar mordoa argitaratu ziran; eguneroko ta aldizkariak sortu bere bai: «Euzkadi», «R.I.E.V.», «Ibaizabal», «Euskal-Esnalea», «Euskera», «Euskalzale», «Zeruko Argia», «EKIN», «Karmengo Argia», «Jesusen Biotzaren Deia»... ta abar. Orduantxe jaio zan Euskaltzaindia bere.

Goazan, bada, aranatarren giroko idazleak ezagutzera.

(7) Mitxelena Luis, «Historia de la Literatura vasca». Madrid, 1960.

(8) Villasante Luis, Historia de la Literatura vasca», 290-garren orrialdean.

(6) Orixe, «Euskal-literaturaren edesti edo atze laburra».

ETXEITA JOSE MANUEL

1842-1915

Nor zan

«Banator ni bere, landubako arri txatxar onegaz euskerearen alde eragiten dagoan jauregira, neure alegiña egitera; nator guztiz indarga, egingo dodana baiño egin gura neukeana geiago dala; al dana egiñaz egituten da egipidea (1).

Apal agertu zan, baiña lan asko egin eban Etxeita Jose Manuelek.

Mundakan jaio zan. Eta Bilbon egin ebazan Nautika-ikasketak. Gero, itxasoan urte askotan ibilli ondoren, barkuko kapitana izateraiño bere eldu zan.

Baiña etzan itxasoa austen beti ibilli. Legorrean bere urte asko emon ebazan.

Manilan (Filipinasen) bizi izan zan amasei urtean. Eta entzute oneko ta andiko gizon egin zan uri orretan. Eta ango alkate egin eben.

Azkenez, zaartzaroan, bere jaioterrira biurtu zan eta txalet eder bat egin, ta ikasten ta idazten ekin eutsan il arte.

(1) «Josetxo», itzaurrean.

Idazlanak

Iru liburu idatzi ebazan Etxeitak:

«Josetxo». Nobela bat da. Erromantiku usaiña dario, baiña erreza eta polita da. Auxe da Etxeitaren lanik luzeena.

«Jaioterri maitea». «Josetxo»-ren antzeko nobelea.

«Au, ori ta bestea». Olerki txorta bat.

Aldi aretako aldizkarietarako bere, ainbat idazlan egin ebazan, «Euskal Esnalea» aldizkarirako, batez bere:

Truebaren kontu ta teatro-lan batzuk euskeratu bere egin ebazan.

Etxeitak darabilzan gaiak eta euskera errikoiak dira ta ulerterrezak.

Urte asko kanpoan egin ditulako edo, erderaren joskerea darabil, noizik-bein. Garbikeri txipristin batzuk bere agiri dira bere idazlanetan.

Aspaldion baztartuta euki dogun euskal-idazle zintzo ta jakitun onen idazlanak irakurgarriak dira, euskeraz irakurten asten diranentzako, batez bere.

Lora eder batzuk

Eztabaidak

Illebeta inguru igaro zan Simon eta Matilde ezkondu zirala. Simoni etxaguntza ederra emon eutsen gurasoak, eta Matildek diru pillo galanta jaso eban eskontsari. Gizadi guztiak uste eban ezkonbarriok guztiz maite zirala ta bizi-izate zorioneko iraunkorra izango ebela.

Adiskideak ziralako, jai egun baten joan nintxaken agerraldi bat egi-tera; ta atarira eldu orduko, entzun neban, aserre antzera, ziñoela:

—Ollazkoa ez.

—Ollandea ez.

Atarira eldu nintzanean, an egozan ezkonbarriok eta atsotxo bat, Matilderen ama, arrautza eder bat eskuan ebala. Abegi amultzua egin eusten irurak eta atsotxuak jarraitu eban esaten:

—Onek gazte zoro biok aserre dira gaur. Simonek diño, arrautza onetan sortuko dan txitea ollazkoa izango dala, ta emazteak dirautso ollandea izango dala. Gogait eragin deuste eztabaida onegaz gelatik atarira etorri diranik arrezkero. Ollandea izatea nai genduke ollalokeari ipinteko ta emen gagoz zer egin eztagigula.

Simon: Ezta bear betaurrerik arrautza orrek ollazkoa dakarrela ezautzeko.

Matilde: Ollazkoa ez, ollandea baño.

Atsotxoa: Lengo arlorra zoaze ostera be. Ipiñi daiogun arrautza au ollalokeari ta baketu zaitezze.

Simon: Urte asko daroadaz nik ollalokai arrautzak ipinten eta ondo ezautzen dodaz arrautzok.

Matilde: Bai zera! Eztakizu ezautzen; arrautza orrek ollandea dakar, zuk nai ta nai ez.

Simon: Ollazkoa.

Matilde: Ollandea.

Simon: Ezkondu orduko esan eusten niri guztiz mukerra ziñala ta egia ziñoen esan eustenak.

Matilde: Zu baizen mukerra? Ez orixe, orretan irabazten deustazu.

Atsotxoa: Arriturik eta neketurik nauke zuen eztabaidak; zuen zorionak lur jo dau. A errukarriak! Uste dot eztabaidaka izango dala zuen bi-zialdi guztia. Matilde, ene alabea, zu zara senarraren esanari makurtu bear zareana olako autuetan eta aserre aidi guztietan.

Matilde: Bai, ama; ba dakit makurtu bear nazala, emaztea nazalako;

ta makurtzen naz; baiña arrautza orrek dakarren egaztia ollandea izango da» (2).

Esakerak:

«Euri zein aterri, otz nai bero, illun zein argi, errimeak izaten ziran egunero egiten ebezan lanak».

«Nik oztasuna? Esatea be! Zugaz nai edozeiñegaz, berez naz olakoxe otza».

«Gerotxoago ekatxak belarriak erakutsi ebazanean izan zirean estutasunak, arin-ariñak, artegak eta bildurrak, ainbat ariñen etxeratzeko».

«Illundu zan zerua alde atatik eta ezagun zan taju arek ekatxa gañera ekarrena. Baita etorri be, gogor gero!

«Alper izango dozu
negar egitea;
ederrak artukozuz,
bai, neure maitea».

Iztegia:

Eregi: Egin (construir).

Egitu: Jadetsi, lortu.

Egipidea: Eginbearra, egikizuna.

Etxaguntza: Propiedade.

Ezkontsari: Dote.

Gizadi: Jente.

Agerraldi: Bisita.

Atari: Atai, etarte, portalea.

Amultzua: Txeratsua, abegi onez.

Betaurrerik: Betaurrekorik, antiojurik.

Mukerra: Temosoa.

Autu: Gai, konberzaziño, jardun.

Ekatxak: Denporalak.

Taju: Itxura, jas.

(2) «Euskal Esnalea», 1912, 173-garren orrialdean.



AGIRRE TXOMIN
1864-1920

Nor zan

Mogelen zimenduan, Añibarro ta gaiñerako idazleen materialakaz egindako bizkaierazko euskal-literatutearen etxea Agirre Txomin da. Etxe eder galanta, benetan! Beste leku askotako batzuen parean kaskarra izan arren, mundu guztiari erakusteko modukoa.

«Errekarte ta mendi egal zoko batean dindilizka dagoan» Ondarroan jaio zan Agirre Txomin. Eta antxe bizi izan zan mutil koskondua egin arte. Antxe ikusi ta ikasi zituzan gero bere idazlan ugari, apain ta bizietan itxi euskuzan itxastarren gorabera arrigarriak.

«Zenbat bidar zure ondoan
umetxu nintzanean,
zeinbat bidar, itxaso,
egin ete dot ames!
Zeinbat bidar ibilli naz
ondartzeta bigunean
egin narik etxetuak
desegiteko berez!
Zeinbat bidar goietatik
txori-aldrak ikustean
egaka aruntz ta onuntz,
eta neuk egotik ez,
pentsau dot Jaunak zergaitik,
gizona egin zanean,
emon ez eutsan egorik,
izan ezkeroin errez!

Zeinbat bidar, neu bakarrik
jarririk aitzen gaiñean,
ikusi dot aitzia bera
dana zuritzen bitsez,
ta olatuaren indarrak
berunzkoan, aitz tartean,
daroazala arriak
biraka nai ta nai ez,
geratzen zirala batzuk
arri andien azpian,
beraren laguntasuna
eskatzen balebe lez!
Zeinbat bidar, zeinbat bidar
aitzetan ta ondarrean,
joan jataz ordu onak
laguntxuakin barrez!» (1).

Amazazpi-amazortzi urtegar, bere aitari arotz-bearretan laguntzen asita egoala, Bilbora joan zan; joan zan edo, obeto esanda, eroan eben. Txomiñen mendu ona ta buru argia ikusirik, Bilboko arzipreste zan Iburguengoitia Mariano jaunak eroan eban bere etxera, bere laguntzaille izan eitean. Eta abade jainkozale aren ondoan, abade izateko gogoia erne zan Txomiñen biotzean.

Iburguengoitiagar beragar egin ebazan latin-ikasketak. Eta ogei urteko zala, 1884-garren urtean, Bitoriako Abade-ikastetxe barrira joan zan.

Iru urte egin ebazan Bitorian. Antxe ezagutu eban Azkue. Arrezkero lagun andiak izan ziran beti.

Abadegeitzako azkenengo urtea kanpoan egin eban, gaixokia zalako edo, bearbada.

Ogetalau urte egin barri ebazala mezakotu zan, 1888-ko Maiatzaren 26-an, eta Urkiolan emon eban bere Meza barria.

(1) «Ondarrak», 146-garren orrialdean.

«Jaungoikoak jarri zuan Bizkaian Urkiolako mendia, Arabaren ondoan, Gipuzkoatik urre samar, ta mendi orren gaiñean ipiñi zuten euskaldun siñistetsuak Antonio Donearen elizetxea, zorion guztien itxaropenerako» (2).

Meza barria emon eta, berealaxe, Karrantza aldera bialtzen dabe abade barria. Baiña ille batzuk bakarrik egin ebazan Karrantza aldean, bada karmeldar mojak Zumaian dauken ikastetxera bialdu eben, ango kapillautza egiteko. Eta antxe bizi izan zan, arrezkerø, il arte.

Agirrereren bizitza oso baketsua, gorabera ta jazoera latzik bakoa izan zan. Izan bere, urterik geienak mojatxoek komentuan sartuta, bakartadean eta ixiltasunean, emon ebazan, fraile baten antzera. Egon erriagaz bere sarritan egoten zan, jakiña; baiña ordurik geienak ikasten ta idatzen emoten ebazan.

Eleizgizon zintzo ta euskaldun jatorra izan genduan, euskaldun fededuna, abade euskalduna. «Euskalduna nazan aldetik euskaldundu; kristiñaua nazan aldetik kristiñautu». Auxe izan zan bere jokabidea.

Maite-maite ebazan Euskalerrria ta euskaldunak. Ta orrexegaitik diño: «Egin, gizon zintzo ta errimeak, egin ondo, al dozuen giñoan zuen Sorterriari; ipiñi bere alde zuen biotza, zuen adimena ta besoa; igaro zuen bizitza guztia ainbeste maite dozuen Lurra ostendu ta gorde naian; estanda egin eta urkatu, bere izena izenik maitegarriena legez begiratuia izan dedin erbestekoen artean; baiña ez erritarren aldetik sari on bat itxaron...» (3).

Esker onari edo txarrari begiratu barik, ama on batek bere umeak maite dituan legez maite ebazan Euskalerrria ta euskaldunak. Eta fin, maitasunez eta arduraz jokatu eban beti.

Eusko Ikaskuntzak (Sociedad de Estudios Vascos) bere leenengo batzarra egiten dau Oñatin, 1918-garren urtean, eta batzar orretan artzen da

(2) «Garoa», 155-garren orrialdean.

(3) «Añemendiko Lorea», leenengo tomoa, 164-garren orrialdean.

Euskaltzaindia, Euskal-Akademia, sortzeko erabagia. Emen izan genduan Agirre bere, batzarkide legez; bera izan zan, gaiñera, euskera sailleko taldearen zuzendari, buru ta lokarri. Eta Euskaltzaindiaren asiera-asieratik, euskaltzain izateko aukeratu eben.

Andik lasterrera il zan, eta aren azkenengo berbea «Ama» izan ei zan. Ama, orixe izan genduan gure Agirre Txomin, ama on ta arduratsu bat euskaldunontzako..

Gitxi be gitxi izan dira Agirre lakoak: Euskaldun ona, kristiñau benetakoa, abade zintzoa, idazle jakituna, jatorra ta bikaiña, langille fiña, gizon argia, zorrotza, umoretsua... Zer geiago? Ez dakit; baiña iñor bada goragarria euskal-idazleen artean, Agirre da bat,-duda barik.

Asieran esan dogunez, berau dogu bizkaierazko euskal-literaturearen etxe eder galanta. Eta, orrexegaitik, beiñola berak penaz beterik esana ezin esan guk: «Euskerea, aberatsa dan legez da ederra ta egokia, ta obe-toago edo txartotxoago, guztiz antxiñetatik dabil gizonen aoan; baiña liburuen orrietan oraindano atzo goizekoa da ta izkiratzalleen lumeak ikutu, palagu, txera ta leunketa gitxi egin deutsa gaur artean» (4).

«Gaur artean...». Arrezkero ez. Izan bere, Agirreren lumeak ikutu, palagu, txera ta leunketa asko egin deutsa euskerari. Eta zenbat eta zenbat lan eder egin ebazan!

Geugandu ta geuretu daigun, bada, gure Txomin argi eta onaren jorkabidea ta esan daigun beragaz batera: «Eztot nik Euskalerra alde batera itxiko egundaiño. Narioian tokira narioiala patuak edo Jaungoikoak, euskalduna eroango nau, euskaldun biziko naz toki guztietan. Neugaz joango dira erririk-erri Euskalerra, bere izkerea ta bere ekanduak; euskera erakutsiko dot nonnai, neure erritarren lege zaarra adierazoko dot, al dotan giñoan. Nire gomutea, nire adimena, nie biotza, nire izakerea, euskaldunarenak izango dira beti; ta edozein lekutik, nire begiradarik gozoena neure mendientzat izango da, ta nire arrenik bero, sutsu ta one-

(4) «Kresala», itzaurrean.

na euskaldunentzat eta euskeraz egiña. Euskaldun izakerearen zabaltzaille izan gura neuke nabillen tokian nabillela» (5).

Idazlanak

Zorionez, Agirreren idazlanik geienak dagoz argitaratuta (eta bein baiño sarriagotan gaiñera), bai aldizkarietan, bai liburuetan. Berak egindako sermoe mordo bat dago oraindiño argitaratzeko.

Ikusi daiguzan, bada, banan-banan bere idazlanak.

«Auñemendiko Lorea». Auxe da Agirreren leenengo idazlan luze ta ederra. Nobela bat da, kondairazko nobela bat. Frantzia aldeko Euskalerrian zazpigarren gizaldirantza bizi izan zan Riktrudis santearen bizitza artu dau oiñarritzat, eta aldi aretako Euskalerrria ta euskaldunak erakutsi gura deuskuz Txomiñek, erri-jakintza ta irudimena lagun artuta.

«Auñemendiko Lorea»-ren gaia auxe da: Amando Gotzain santuak, euskaldunak kristiñautzen diardu. Riktrudis da bere ikasleetariko bat. Osinbeltzko Portun fedebakoak ezkondu gura dau neska orregaz. Baiña Riktrudis erbestetar bategaz ezkonduen da, Adabaldo frantzesagaz. Eta Portun asarre bizian jarten da, ta Euskalerrriaren ondatzalle batzuk dirala diño, euskaldun kristiñau guztiak. Burruka ikaragarria sortzen da euskaldunen eta frantzesen artean. Portunek Adabaldo il egiten dau. Baiña, alan eta guzti bere, Riktrudisek parkatu egiten deutso, eta kristiñau izateko bidean jarten dau Portun gaiztoa.

Bai gai aldetik, bai euskera aldetik, ondo josita dago. Aranakeririk ez darabil, baiña larramendikeri batzuk bai, ostera.

«Kresala». «Bizkaiko euskeran eta itxasaldeko ekandu edo oiturak gogoan ditudala, ipuintxu bat esaten edo lan urri ezkeltxu bat egiten asten naz, irakurlea...

(5) «Auñemendiko Lorea», II-garren tomoa, 66-garren orrialdean.

Ara emen nire KRESALA. Ikusi egizue gura dozuena. Bertan agertuko diran gizon eta emakumeak ez dira neure irudimenak asmau dituanak; oso itsua ezpanago ta amesetan ezpariabil, bizi-biziak dira, Arranondoko sardiñak legez; neuk ikusi ditut Arranondon eta edonok edozein itxaserrian ikusi daikez. Euren alkarren arteko jarduna be guztiz da egiazkoa, gatz garau andiak kenduko deusedaz baiña» (6).

«Lan urri ezkeltxu bat...», diño Agirrek. Baiña olako lan ezkeltxu asko bagenduz gure bizkaierazko literaturan! Izan bere, Kresala dogu bizkaitarron euskal-libururik onenetako bat, onena ez bada.

Agirre bera jaiotako ta bizi izan zan itxas-egaleko kresal sundaz asetuta dago nobela eder au. Eta bizi-bizi agertzen dira bertan, «Arranondoko sardiñak legez», itxas-erriak, itxas-erritarrak, arrantzaleen bizimodu gogorra.

Anjel ta Mañasiren ezkongai-aldiko artu-emonak ta goraberak dira nobela onen gaia. Mañasi Anjelegaz maiteminduta dago. Baiña Antonigaz ezkontzera doala entzuten dau, ta oso biotz-minduta dabil. Anjelek, ostera, naiz ta bere gurasoak Antonigaz ezkontzeko bideak atonduten ibilli, bein-bein ez dauka ezkontzeko asmorik. Bienbitartean, Mañasik alde egiten dau Bilbora, bere naibageak apur bat arinduteko. Orduan, Jose Antonio indianoak ezkondu gura dau Mañasigaz... Azkenean, gorabera andiak izan ondoren, Mañasi Anjelegaz ezkontzen da.

Gai ori Arranondoko (Ondarroako) bizimoduari josita dago. Eta egoiki josita egon bere.

Indarra, bizitasuna, gatza, jatortasuna dario Kresalari. Eta ez deusa bere denporako erderazko nobelari bere zorrik. Bai nobela legez, bai izkuntzaren aldetik, gorengo maillako idazlana dogu; bana-banakoa, apartekoa.

«Garoa». «Garoa naiz, Kresalaren anai gaztea; baño menditarra, Gipuzkoako izkeraz jantzia...» (7). Kresalan itxastarren bizikera kontau

(6) Kresalaren itzaurrean.

(7) Garoaren itzaurrean.

deusku Agirrek; Garoan, menditarrena ta baserritarrena kontatzen deusku. Nobela oso ederra au bere, gorengo maillakoa gipuzkoerazko euskal-literaturan.

«Ni ta ni». Auxe da Agirrek azken orduan esku artean erabillen gipuzkoerazko nobelea, Erdi-Aroko oiñaztarren eta ganboatarren eztabaidak eta burrukak oiñarritzat arturik. Baiña amaitu barik itxi euskun (8).

Beste idazlan laburrago batzuk bere idatzi zituan:

«Aita Larramendiren bizitzaren berri labur bat».

«Joan-etorri bat Erromara».

«Iziarko Amaren kondaira laburtxoa».

«Anton Betosko».

Olerkiak eta ipuiñak bere, mordoia idatzi ebazan, bai bizkaieraz, bai gipuzkoeraz (9).

Erderaz bere argitaratu zituan lan txiki batzuk, bere-bereak eta itzulpenak.

Agirrerren iru idazlan nagusiak (Auiñemendiko Lorea, Kresala ta Garoak) erderazko iru liburu dakarskuez gogora: Navarro Villosladaren «Amaya o los vascos en el siglo VIII», eta Peredaren «Sotileza» ta «Peñias arriba». Baliteke erderazko liburu oneik, bereak asmatzeko bidea emotea Agirrerri. Baiña, dana dala, orrek ez dau ezer esan nai gure Agirrerren nobela orreïn jatortasunaren kontra.

Mogelek amazortzigarren gizaldiko Euskalerrria ta euskaldunak erakuñsi euskuzan. Agirrek emeretzigarren gizañdikoak erakusten deuskuz. Eta azalez eta mamiñez, gai aldetik eta euskera aldetik, maisuen Maisua dogu Agirre. Iturri ederra etnologia ta folklore aldetik, amaibako ondasun-tegi bat gure euskera ta gure erria ezagutzeko, gure erriaren lengo gizañdiko oitura ta bizimoduaren barri jakiteko.

(8) «Euskal-Esnalea» aldizkarian argitaratu ziran ataltxo bi.

(9) Ikusi: «Ondarrak», Aita Onaindiak Agirrerren idazlanakaz egindako lorategi ederra.

Gaiñera, irakatsi eder ta sakonak emoten deuskuz, noizpeinka. Ona emen bat:

«Bakotxak bere erriari izan bear deutsan maitetasuna era bitakoa dala deitxot nik. Norbere buruarentzat daukagun maitetasun itsu, arro ta okerretik dator bata: Gure biotzean berez, txiki-txikitatik, zelan eztakigula sortu oi da; asten da geugaz batera, guztiz neurri barik, eta eztau gure biotzetan beste maitetasunentzat tokirik izten; dana bear dau beretzat, bereari bakarrik deitzo andia, ona, zindoa, zuzena, ederra, egiazkoa; bes-teen gauza guztiak, erkin, makal, zirtzil, motel, txiro, doillor ta guzurrez-koak; norberarena izan ezik, etxekoen gauzea izango da zelanbaitekoa, edo norbere erritarrena geienez; baiña erritik kanpora, urruingarria eztan gauzarik eztago; ta ortik etorri oi dira ikuñi-eziñak, gorrotoak, itsumenak, Jaunaren legea austeak, lagun urkoen kalteak eta arima askoren onda-mendiak.

Bigarren erako erri-maitetasuna ezta olangoa, zerren daukan Jauna-ren anaitasunezko lege biguna bere zuzentzaille ta artizartzat. Norbere gauzeari obeto gura izan arren, urrena dalako, obeto ezagututen dogula-ko, edo biotzak alan aginduten deuskulako, geiegikeriak kenduten deu-tsaz biotzari, ta adimenari itsutasunak; bes-teen egokitasuna ta doaiñak ezagutu ta autortzen ditu, eztau iñor urruinduten, eta Jaungoikoaren ize-nean edozein maitetuten dau.

Zuk olan gura deutzazu Euskalerrari: Erri guztien gaiñetik dozu mai-te, zeurea dalako ta erririk onenentzat daukazulako. Maite eikezu aurre-rantzean bere, maitegarria da-ta; baiña emoiozu edonun bakotxari be-rea...» (10).

Jakituriz beteriko gogorakizun laburrak bere sarri ta egokiro sartzen ditu bere idazlanetan. Ara batzuk, adibidez:

«Gizon bakotxak bere arrotasuna dau, etxadi ta erri bakotxak berea. Ni esaten da al dan guztian; ni ezin danean **geu**, Arranondo ezin danean Bizkaia».

(10) «Auñemendio Lorea», bigarren tomoa, 70-garren orrialdean.

«Atsekabearen lagunik onena errukizko ixiltasuna da».

«Euskaldunak onean onak, txarrean okerrenak».

Umöre aldetik bere oso jatorra dogu Agirre. Kresala ta Garoa irakurtean, sarri sortzen da gure arpegian irribarre gozo ta atsegingarri bat. Ona emen, adibidez, «Auñemendiko Lorea»-tik artutako umore tanta bi:

—«Zelan dago, Lope, ugazaba?

—Il da.

—Il? Ain laster? Zer izan dau, bada?

—Ptxe... Il bearra. Ego aizeak baiño urte geiago eukan-eta...».

—«A! Sabelontzi astoa! Gizonak, edanzalea izan arren, ito egin bear al jok ba ardaotan?

—Esakera bat da ori, Jauna; baiña beste toki baten itotekotan, ohea da ardaotan itotea».

Len bere esan dogu baiña, euskera aldetik, oso aberatsa dogu Agirre. Aberatsa iztegian, aditzean, joskeran, deskriziñoetan, alkar-izketetan eta esakeretan.

Ba ditu, noizik-bein, alako garbikeri ta larramendikeri batzuk, baiña ainbeste aberastasun, edertasun, jatortasun ta zeaztasunaren ondoan uskeritxo batzuk dira.

Orregaitik, bada, bear-bearrezkoa dogu bere bizitza ta idazlanak aztertu ondoren, lora txorta eder bat ikustea.

Ikusi ta ikasi.

Lora eder batzuk

Ama

«Ama! Ze izen bigun, gozo ta samurra dan amaren izena!

Zein gogoz, zein erraz, zein berez urteten deuskun izen eder onek gure aotik!

Ama!, deituten dau umetxu bildurriak bere estualdi guztietan. Ama!, gazteak bere poztasunezko ordu dontsuetan. Ama!, gizonak eta emakumeak, nai legorreko nekean, nai itxasoko baga ta arrisku artean dabilzala. Ama!, jaiotzatik laster. Ama!, eriotzako ordu larrian, sortu garean adimendun guztiok. Ama!, beti.

Zergaitik? Zerren gizon danok, iñok erakutsi baga, jatorriz dakigulako ama dala izaterik on, samur ta errukitsuena.

Amaren biotzean ipiñi dauz Jaungoikoak biguntasunik andienak, gozotasunik eztienak, samurtasunik samurrenak eta amaibageko errukitasunik pozgarrizkoenak.

Ama guztiak dira, bada, negarrezko ibar onetan larritasunen erdian dabilzan gizon gizagaixoai errubagako atsegín onak emoteko jaió direan izateak.

Errukarria amarik eztaukan gizona (11).

Ezizenak

«Ezizen geiegi ipinten dotala uste badau irakurleak, jakin daiala lenen-
gotik, Arranondon eztagoala ezizenik eztaukan etxadi bat bakarra.

Andiak eta txikiak, aberatsak eta landerrak, guztiak dauke eurentxua.

Jatorriz erritarrak diran etxadiak, ezizen ori antxiñetatik daroe, ta etxadiko danak ezizen bategaz ezagutuak izaten dira. Aitari Talotxu esaten badeutsie, semea Talotxuren semea da, andrea Talotxuren andrea, alabea Talotxuren alabea; geiago bearrik eztago. Iñoiz bateo arrian abadeak ipiñiriko izena ondo esaten bajako norbaiti, gurasoen ezizena izango da izengoitia. Talotxuren semeari ezarritako izena Joane bada, Joane Talotxu esangojako.

(11) «Euskalzale», 1899, 98-garren orrialdean.

Kanpoko errietatik Arranondora datorren etxadiak an dauka bere izen-gaiztoa ogetalau ordu barru, ta eztau geiago beragandik kenduko. Zeñek ipiñi deutsa? Iñok eztau ori garbiro jakiten. Edo mutiko batek etorribarriaren semeari ikastetxean, edo arrantzale batek senarrari elizpean, edo emakume batek emazteari enparantzan. Zergaitik? Edozer gauzagaitik. Edo lodi eder guria, edo argal me zatarra dalako, apaindua edo prakazarduna, azkarra edo baratxa, argitsua edo argibagea, olango edo alango irabazbidekoa, orko edo ango baserri edo uritik etorritakoa. Mutiltxuari deitu badeutsie lenengo Prakazar, etxadiko buruari Prakazarren aita esango jako; andreari esan badeutsie Moñoker, Moñokerren senarra. Lenengo ezizena ezarri jakonak emoten deutsa gero etxadi guztiari.

Arranondokoen belarriak ain dagoz onetara egiñak eze, batzuk, euren benetako izena zelan dan be eztakie; norbait ezagutu dot bere aitarena gogoratu eziñik; aitaitarena gitxik jakiten dau.

Ba dakit albistari-zabaltzallea ibilli dala iñoiz eskutitz bat zeñentzakoa zan ezin argitaraturik. Sr. D. Julian Irigorri eukan estalkian, eta Julian Irigorri zein zan ezekian iñok. Atso-agure guztiai itandu jakuen, eta atso-agurreak etzala, esan eben, erritarra izango. Azkenean, apaiz nagusiari esker, agertu zan eskutitzaren jabea. Zein izango ta Saguzarra deituten jakon gizontxu bat zan.

—«Orixe be bada ipuiña —esan ei eban orduan Artoberok—, Saguzarrari Don Julian asmau ei deutsie» (12).

Kitolis

«Gabon aurrettoa zan. Ba gagoz, ba gagoz illunabarrean, potin txiki baten lau laguntxu, berdeletan, Orioko aurrean. Bakarrik gelditu giñanean a, berandu be ba zala-ta, otz be ba egoala-ta, arrain pizka bat be ba geukala-ta... asi giñan etxeruntz. Terralttoa egoan, legorretik datorren aizea. Jaso genduan triketa, ta ba getozan kezka barik, atzekoak eskuak besa-

(12) «Kresala», 31-garren orrialdean.

pean berotuten zituan bitartean, eskota tosta bati lotuta genkarrela... ta, alako baten, bras, joten gaitu aize bunbada gogor batek, eta, dsauust, danok itxasora, txalopa barruko arrain, otzara, soka ta tresna guztiakaz batera ta nastean. Alan be, urten genduan urazpitik, or batak ta emen besteak, danok otzak ikaraz; inguratu giñan, igarian, popaz gora egoan txalopara, ta itandu geuntsan alkarr: «Gizonak, zer izanda au?». Baiña iñok erantzun bearrik ezegoan, guztiok genkian-eta. Ardurabagekeritxo bat, ustekida geiegia. Zeiñi, baiña, otuko jakon alangorik, itxasoa bare-bare baegoan?...

Egundo alango negargarririk iñok eztau ikusi. Gure artean etzan iñor, eta antxe egon beariko genduan ur gaiñean, goizerarte. Goizerarte! Ta oraindiño, geienez be, etziran seirak izango!... Otzak eta bildurak dardaraka geunkazan, ta amabi, amairu edo amalau orduan egon bear alantxe! Ta, gaiñera, goizean iñor etorriko jakun ez jakin!... «Ea, mutillak —esan euskun atzekoak, gu pitin bat azkortuteagaitik—, eskeiñi daiogun Antigua-ko Amari, danok ortozik eta erramuak lepoan ditugula bere elizatzora joatea, emendik onean urteten badogu, ta asi gaitean orain errosarioa esaten...».

Ipiñi neban neuk Ikomes (Nikomedes), neure amabi urteko seme ederra, killa gaiñean auzpez, ta asi giñan arrenetan... Jaungoikoak ba daki guk zenbat arren genduan. Errosarioaz ostein, zeruko done guztiai Aita gurea ta Agur Maria ta milla biotzeko eskari luze ta labor egin geuntsezan, alde batera ta bestera geure gorputz minberatua biratuteko utsu-netxu batzuk artuaz. Onetan gengoza, amarrak aldean, aizeak ekarren indarrean ta txalopearen zabunetan igarri genduan itxasoak irakin bear ebala ta gure urrean ebillela eriotzea. Illun egoan; belarrietara etorkigun aizearen txistuari destañazkoa neritxon; Getariako ta Zumaiako itxas-argiak agiri ziran lurrean, eta niri illen argiak iruditu jatazan. Geu gengoza ilten osasun guztiagaz!...

«Ze ordu ete da?» —itandu euskun Matxin zarrak, eriotzondoko soñuagaz— «Amarretatik amaiketara»— esan geuntsan. Eta berak, oraindiño belarrietan daukantan esateko erarik illunenagaz: «Zein luzea dan gaba! —jarraitu eban— zein luzea! Nik ezin neike iraun, laster amaitu bear dot, eta zuek ikusten badozue gurekorik...». Ez eban geiagi esateko astirik



izan, bada olatuaren bultzada batek kendu euskun aibotik. Orratiño, eka-
rri genduan atzera ta esondu geuntsan oratu eiola gogor karelari; baiña
ezertarako ez eukan adorerik, eta aotik bitsa eriola, «damu dot, Jauna,
damu dot, Jauna», esanaz, an joan zan ondora...

Itxasoa geroago ta andiagoa etorren, olatuak geroago ta indartsua-
goak, geroago ta mekotuagoak gengoan gu. Neke gitxiagoko egoera bat
billatu naian, ain laster ipinten genduan gorputzaren astuntasuna esku
baten gaiñean, ain laster bestearenean, orain igoten genduan killa gaiñe-
ra, orain karelara jatsi, gaiñean ezin egonda... Gau luzea zala esan eban
Matxinek. Bai, ondo luzea! Ta zer ete da betikotasuna, samiñetan egon
ezkero?...

Neure semetxua, neure lkomestxu, otzikara andiak artu eban, eta ne-
gar muxinga, inkesaka ta zotiñez, «aita», bai, «aita» asi jatan deiezka ta
deiezka. Axe errukigarritasuna! Aitak ezin ezer egin bere seme kutuna-
ren alde, biotzeko negar gorria baiño besterik; aitak ezin goiza ta lagun-
tasuna erakarri, bere bizitzea emonda be...

Etsi genduan; ez giñan luzarorako. Jo genduzan beste baga batek bu-
rutik bera, kendu euskun txalopea esku artetik, eta aldebanatu giñan iru-
rok barriro. Urpetik azalera urten nebanean, asi nintzan igarian semearen
billa. Ez neuncan neuk orduantxe indar askorik eta arrokeri andirik bez!
Idoro neban semea, ta txaloparaño eroan be bai, ta esan neutsan txalo-
peari gogotik eutsi eiola; baiña alperrik. «Ezin, aita —ziñoan— ezin!».
Artu neban, orduan, neure bularraren ondora, potiñaren eta neure gorpu-
tzaren bitartean ipiñi neban, eta bere soiñari ta potiñari alegiñakaz eldu-
ten gelditu nintzan... Ixilik gengoan danok, bildurgarrizko ixiltasunean.
«lkomestxu —deitu neutsan andik apur batera— lkomestxu, ondo zagoz?
«...Ez eustan ezer erantzun. Zelan, ba, ilda egoan-eta!»

Negar malko lodia erion Kitolisi, bere arrigarrizko jazoerea mailla
onetaraño eldu jakonean, eta entzuten egozanak be ez eben urriñean ne-
garra.

«Nik eztakit ze ordu inguru izango zan —jarraitu eban —beste olatu
batek txalopea ta semea besartetik kendu eustazanean, eztakit zelan ora-
tu neutsan, ostera be, txalopeari, eztakit zelan egon nintzan goizeko

zazpi ta erdietan Getariko potin batek artu genduzan arteraiño. Azkene-
rako, sena ta konorta galdu jakuzan, taket batzuk giñan atzekoa ta ni, zo-
raturik gengoan, zer egiten genduan ez genkiala eutsiten geuntsan txa-
lopeari, lapeak atxari baiño gogorrago, atzamarretatik odola eriogula...

Gaixorik egon nintzan gero ia illebetean, eta sendatu nintzanerako...
itxasora barriro» (13).

Esakerak:

«Txalopea gelditu zan zuzendari baga ta et, et, et... Aitearen egin
orduko, azpikoaz gora egoan, ta gu, azaldu giñeanok, igarian zer edo zeri
eldu nairik».

«Eta zer eutsan, gero, berari Anjelegaitik? Ezer bere ez; baiña... ori-
xe dago ba».

«Eztozu txarra galdu. Gaur kantau dan lango Magnificatik...! Gure
Gaiarrek egin ditu garrasiak!»

«Etxebizitza be eztaukie makala orreik. Egingo neuke erri guztian
beste lauk ohea euki ezetz».

«Ara, Jauna, nik berorri bai, bai, pozik atan be; baiña orixe dago
ba, lagunakaz be ondo euki bear da-ta, orixe dago ba!»

«A ze jatorrizko zalduna bera! A ze jakintsua!»

«Eta deadar, garrasi ta txillioak egiten, orretantxe ziran, ba, eurak
mutillak ...edo emakumeak!»

«Izurdeak azpitik gora ta kaiuak goitik bera, dsist eta dsaust, sartu-
ten dira arrain pilloaren erdian, janalak jaten eta iruntsialak iruntsiten».

—«Nik esan neutsun dana bart, eta gaiñera nire ori ezta neure ba-
rruko zer bat baiño besterik.


—«Eta zeure barruko zerori zegaitik agertu ez atzo artean. Eta atzo,
estu-estu izan ezpaziña, etzenduan zuk txit bat egingo».

(13) «Kresala», 95-garren orrialdean.

Iztegia:

Biraka: Bueltaka.
Urre: Ur.
Estanda egin: Lertu, errementau.
Izkiratzallea: Idazlea, eskritorea.
Palagu: Txera, igurtzi, laztan.
Leunketa: Lixutzea, landutea, suabetutea.
Patuak: Alanbearrak, destinuak.
Arrena: Otoitza, eskaria.
Auñemendi: Pirineo-mendiak.
Ezkeltxu: Begi-bakar, errebiro.
Deitxot: Deritxot, deritxat.
Deitzo: Deritxo.
Zindoa: Sanoa, sendoa.
Erkin: Txiki, txatxar, kaskar.
Zirtzil: Sorki, pildrin, dandar, zirdin.
Doillar: Zital, gaizto, txar.
Zelanbaitekoa: Zeozelangoa.
Urruingarria: Iguingarria, arbuiagarria.
Zerren: -ta, -lako (porque), bada.
Artizartzat: Goizeko izartzat, biderakusletzat.
Doaiñak: Doeak.
Etxadi: Baserri-etxe, auzotegi, familia.
Landerrak: Txiroak, beartsuak, pobreak.
Enparantzan: Plazan.
Albistari: Notiziak, barriak emoten dituna.
Eskutitz: Karta.
Estalkian: Sobrean.
Apaiz: Abade.
Potin: Txalopa.
Triketa: Trinketa, txalupa bateko aurre-oiala.
Eskota: Txalupetako kordel edo soka bat.
Tosta: Txalupako jarlekua.

Igarian: Uger.
Ustekida: Konfiantza.
Otu: Burura etorri, gogoratu.
Biratu: Bueltatu.
Zabunetan: Kulunka.
Bare-bare: Geldi-geldi.
Pitin bat: Apur bat, pizka bat.
Azkortu: Adoretu, animau.
Done: Santu.
Destaña: Muker, begi-zear.
Esondu: Kontsejua emon.
Idoro: Aurkitu, topau.
Izurde: Itxas-urde, itxas-txarri, arraiña.
Kaiuak: Gabiotak.



**AZKUE
RESURRECCION MARIA
1864-1951**

Nor zan

Nor nor dan, Mariñasi,
ezautuko dona:
emonetatik zugatza,
egiñetatik gizona (1).

Nork batu, aztertu ta labur-labur azaldu gure Azkue andiak egindako lan guztiak? Liburu baten bere...!

Azkuek egin eban lan mordoak urretik ikusi ta aztertu ezkerre, arrituta gelditzen da bat. Eta itaun au jatorko berealaxe bere ezpanetara: Gizon batek egin ete ditu onak lan guztiok?

(1) «Ipuiñak», 150-garren orrialdean.

Izan bere, beste inork egin ete dau ainbeste lan Euskalerraren alde, izkuntza ta jakintza aldetik?

Lekeition jaio zan. Eusebio erri-olerkariaren bigarren ezkontzako semea izan genduan.

Bigarren karlistada gerratean, Bilbora alde egin bear izan eban. Eta Bilbon bertan egin eban batxillerra.

Gero, abade izateko gogoia etorri jakon eta Bitoriako Abade-Ikaste-txera joan zan. Antxe egon zan teolojiararte.

Ordurako euskaltzaletuta egoan. «Gaztetxo nintzan (ogei urte or-or bai-nituen) Seminarioko ikastarondoko opor-egunetan, astiune batzuetan beintzat, erriaren agotik ipuin ta irakurgai bat edo beste ikasten ari nintzanean...» (2).

Bitoriatik Salamankara joan zan eta Teolojiako maisu (Doktor) egin zan 1888-garren urtean. Eta, andik lasterrera, Bizkaiko Diputaziñoak sortu eban euskal-katedrarako maisu izentau eben. «Bizkaiko Aldundiak, Bilbo-ko Institutoan euskerazko irakaskuntza sortu nairik, batzaldi bat iragarri zuen, irakasle izan nai zutenak berak egindako zerbait erakutsi zezatela eskatuz» (3). Azkue, Arana-Goiri Unamuno, Iza, Madina ta Alberdi izan ziran nor-geiagoka egin ebenak. Azkenean, Azkueri emon eutsen katedrea (4).

Urte orretan emon eban Meza barria bere Azkuek. Baiña etzan egundo inongo parrokitan egon. Euskalerrri osoa izan zan aren parrokia. Eta Euskalerrri osotik zear ibilli zan, Euskalerrria, euskaldunak eta euskera ondo ezagutzeko, Euskalerrriaren jakintza batzeko ta banatzeko, Euskalerrria gora jasoteko.

Euskalki guztiak ezeze, beste izkuntza batzuk bere ikasi ebazan.

(2) «Euskalerrriaren jakintza», leenengo tomoaren itzaurrean.

(3) Idem.

(4) Ori zala-ta, sortu ziran eztabaida ta asarreak ikusteko, irakurri: «Historia de la Literatura vasca», Villasante, 285 eta 342-garren orrialdeetan.

Musika-ikasketak bere egin ebazan. Leenengoak, Bilbon egin zituan; gero, Bruselaren (Beljikan), eta, azkenez, Kolonian (Alemanian). 1909-garren urtean amaitu ebazan.

Euskaltzaindia sortu zanean, euskaltzain-buru egin eben, eta, arrezkero, bere bizitza guztian izan zan Euskaltzaindiaren Buru.

Españaiko Erdal-Akademiako batzarkide bere izan zan, 1927-garren urtean asita (5).

Bilbon il zan (6).

Ikasi, irakatsi, batu, idatzi, argitaratu..., orixe izan zan gure Azkue andiaren bizitza; lanari ekin eta ekin: «EKIN ETA JARRAI». Eta, jakiña, lan asko egin bear derrior: Izkuntzalari lanak, musikolari lanak, erri-jakintzalari lanak, irakasle lanak, idazle lanak, argitaratze lanak... Zenbat eta zela-koak! Kementsua izan zan, benetan!

«Odol-gorri izateak ba ditu odol-zurbillak eztaukan alde bat edo bestetxo, alderantziak geiago. Odol-gorri geranok, lanean asteko, zaiñetan darabilgu baikortasuna; odol-zurbillak geienak izan oi dira ezkor. Odol-gorri geranok iraunkorrago izan oi gera geron asmoetan, lanean sendoago... (7).

«Ezagutzen nabenaik baikortzat (optimistatzat) nauke. Lanean etentzaka diarduenak baikor ezpadira, nor besterik izan daiteke? Nagiak, alpe-rrak, baikor izateko eskubiderik eztauke. Ezkor izatea dagokio «eguna beio, gaua betor» bizi danari. Bai, baikortzat nauke» (8).

Odol-gorri baikorra izan genduan Azkue. Eta orregaitik edo, iraunko-

(5) «Además de a la Real Academia Española, perteneció a la Sociedad lingüística de París y a la Academia de Ciencias de San Petersburgo» («Azkue lexicógrafo, folklorista y gramático», Bilbao, 1966, pág. 11).

(6) Bilboko Nerbion ibaira jausi zan, eta andik lasterrera il zan. Nik ez nekian, orduan, Azkue nor zan; baiña antxe egon nintzan, Teatro Arriaga ondoan erdi-itota atara ebenean.

(7) «Itzaldiak», 1923, 71-garren orrialdean.

(8) «Lenengo Euskal-egunetako itzaldiak», 130-garren orrialdean.

rra izan zan bere asmoetan (berekorra eta asarrekorra bere bai), eta sendoa bere lanetan.

Odol-gorri baikorra izan genduan. «Gure Erri maite au, ez-urteko sagarraren antzera, arrak jota dago», diño. Baiña ez da negarrez eta aieneka asten, asko ta asko legez. Arrak kendu ta sagarraren aziak ereiten diardu, sagar-landara barri indartsu ta emonkorrak erne daitezana. Jarraibide ederra euskaldun negartiontzat!

Odol-gorri baikorra izan genduan, erraldoi odolgorri baikorra, Euskal-erriaren alde bere bizia emon eban erraldoi ezilkorra.

«Gizon andiak, euren buruentzat ilda askozaz geroago bere, iñorenzatzat zelanbait bizi izaten dira. Augaitik edozein Iztegitan berbatxu bat dauke eurentzat egiña: Ezilkorrak» (9).

Idazlanak

Asieran esan dógunez, gauza zailla be zailla dogu gure Azkue andia-
ren lan guztiak batu, aztertu ta labur-labur azaltzea. Baiña, dana dala, aitatu daiguzan, beintzat, bere lanik onenak eta zerbait esan bere egin daigun eurai buruz.

Leenengo ta bein, ona emen bere bost lan nagusiak:

«Euskal Izkindea. Gramática eúskara» Bilbao (1891). Euskeraz eta erderaz egiña. Antxiñako euskera zaarra dala uste dauan euskera barri bat darabil emen Azkuek, laboratoriko euskera bat. Berak bere Iztegi ederra-
ren itzaurrean diñonez, «gaztetako pekatua» da liburu au. Dana dala, euskera ikasteko edo irakasteko gramatika euskeraz egitea, jokabide txalogarria da. Gaiñera, ba ditu gauza ikasgarriak bere.

«Diccionario Vasco-Español-Francés». Tours (Francia (1905-1906). Azkueren lanik ederrenetarikoa, ederrena ez bada. Idazle zaarren eta erriaren iturrira jo, ta amabost urtean alean ibilli ondoren egindako Iztegi ja-

(9) «Ipuiñak», 208-garren orrialdean.

torra. Bear-bearrezko liburua gaur bere euskalidazleentzat. «Euskera onaren iturri» (10). «Ongi egin dan lanak askotarako balio du, egilleak uste duen baiño geiagotarako. Orrexegaitik edozein kastatako jendeak Azkuegana jo bear du egungo egunean ere, bere egarria berdintzeko. Orrera doaz euskal-idazleak itzez ornitzera, orrera izkuntzalariak euskal-itzen jatorria eta historia aztertzer. Or jakin dugu anitzek antziñako aberastasan gutxietsien berri, or ditugu guztiok gure izkuntzaren batasunerako oiñarriak...» (11).

«Morfología vasca». Bilbao, 1923. Liburutzar ikaragaria da. Konsulta-liburu ederra eskoladunentzat. Amaika gauza jakingarri aurkituko ditue bertan euskal-idazleak.

«Euskalerrriaren jakintza. Literatura popular del país vasco». Madrid, 1935, 1942, 1943, 1947. Euskeraz eta erderaz egiña. Lau liburu anditan argitaratu zan. Euskalerrri osoan batutako ipuin, oitura, siñiskeri, atsotitz, esakera ta abar itxi deuskuz Azkuek liburu oneitan. Ondasuntegi bat dira etnologia aldetik.

«Cancionero popular vasco». Barcelona, 1922. Euskal-kanta zaar mordoa. Lan arrigarria auxe bere. Berau bakarrik egin baleu bere oso txalagarria izango zan Azkue.

Orreixek dira Azkueren lanik ederrenak. Naiko ta lar gizon bat ospetsu egiteko. Baiña aitatu daiguzan ak egindako beste lan batzuk bere. Ara:

«Bein da betiko». Bilbao, 1893. Irakurgaiak.

«Vizcaitik Bizkaira». Bilbao, 1895. «Eguzkia nora». Zarzuelak.

«Método práctico para aprender el euskera vizcaíno y guipuzcoano». Bilbao, 1896.

(10) Orixe, «Euskal literaturaren atze edo edesti laburra.

(11) Mitxelena Luis, «Zeruko Argia», 1964. Mitxelenaren eskuetan itxi dau, orain, Euskaltzaindiak, Iztegi andi ori aztertu, osotu ta barriro argitaratzeko prest ipintea.

«Proyecto de ortografía». Bilbao, 1896.

«El eúskara o vascuence en 120 lecciones». Bilbao, 1897.

«Txirristadak». Bilbao, 1898. «Euskalzale» aldizkarian agertutako lan batzuk batuta egiña.

«Jesusen Biotzaren illa». Bilbao, 1901.

«Ortzuri» eta «Urlo», 1910 eta 1912. Operak.

«Prontuario de la lengua vasca». Bilbao, 1918.

«Diccionario de bolsillo vasco-español y español-vasco. 1918.

«Argi galdua», 1919. «Gipuzkoera osotuan» egindako nobela bat.

«Ipuiñak». Bilbao, 1969. «Euskalzale» aldizkarian argitaratutako ipuin mordoak.

«Latsibi». Oraindiño argitaratu barik dagoan nobela bat. Ez dago txar-to eginda; baiña astun samarra da.

Berak zuzendu ta argitaratzen eban «Euskalzale» aldizkarian bere amaika artikulu idatzi zituan. Baita «Ibaizabal» aldizkarian bere. Eta Euskaltzaindiaren «Euskera» aldizkarian zenbat? Liburu lodi ta sakon bi egiteko lain.

Bere azkenengo idazlana auxe izan zan: «El vascuence y varias lenguas cultas. Estudio comparativo». Bilboko «Publicaciones de la Junta de Cultura de Vizcaya»-k argitaratu eban, 1949-garren urtean.

Lan guzti orreik eta geiago egin ebazan gure erraldoi odolgorriak. Baiña gatozan gure lan oneri dagokion arira. Euskal-idazle legez, zelangoa genduan Azkue? Ona, gazte eldua izan zan urteetan, bizkaieraz idatzi ebazan idazlanetan. Leenengotan eta gazte eldua izan ondoren, gitxiegi edo geiegi ekialako, etzan punterengo idazlea izan.

Bizkaierazko bere idazlanik jatorrenak «Bein da betiko», «Jesusen biotzaren illa», «Txirristadak», «Vizcaitik Bizkaira», «Latsibi» eta «Ipuiñak» dira. Orreitan itxi euskuzan Azkuek gure bizkaierazko literatura pi-

txirik ederrenetarikoak; orreitan darabillen euskerea erreza, ugaria, bizia, errikoia da; berba baten, jatorra. Izan bear, erriaren eta idazle zaarren iturritik ura edan ezkerok!

Alan eta guzti bere, ba ditu «berekeri» batzuk gure Azkue andiak. Pitzizalegia bere bada eta «batzuetan, ekian guztia erakutsi bearraren erakutsi bearrez, bere lanak naturaltasun apur bat galdu egiten dabe...» (12).

Lora eder batzuk

Errefranak

«Munduan nai dabenak luzaroan bizi, olloakaz, oera, txoriakaz jagi».

«Ezkonduta arte larri, ezkonduta gero barregarri».

«Anega erdiko zorroak anegarik ezin artu».

«Arran min bakoa ugerrak jan» edo «arran min bakoa sasia us-teldu».

«Gitxiegia ta larregia, beti kaltegarria».

«Nagiaren urak tenple bi: Batean otzegi, bestean beroegi».

«Olgeteak benetea ekarten dau».

«Urruneko intxaurrak amalau, bertara joan ezkerok lau».

«Zeurea egin artean mantso ta mantso; zeurea egin ezkerok, zantzo ta zantzo».

«Zorri il biztua baiño pizti txarragorik eztago».

«Arre, danak egin eztaiskuen barre».

«San Antonio, San Antonio», txarria gaixo danean; eztau iñok esaten odolostea jaten danean».

«Zoroak egin, eroak egin, egiña egin».

«Zorra, lorra».

Zaldizkorik ez ta oiñezkorik nai ez».

(12) Etxeragusia Karmelo, «Euskal Idazleen Lorategia», 194-garren orrialdean.

«Orratzak baiño ariak luzeago izan bear dau».
«Oker batek gauza oker asko».
«Ezer ez ta zarata, iñor ez ta geriza».
«Daukanak, dauko; eztaukanak, baleuko».
«Igez igezkoa ta aurtan aurtengoa, nekez ezkonduko da ganorabakoa».

Izen ona

«Bein, Sua ta Ura ta Izen ona alkarregaz joiazan. Banatu ta galduteko bildur zirean, ta otu jaken galdu ezkeru zelan alkar aurkituko ete eben jakitea. Suak esan eban:

—Zuek aurkituko nozue kea darien toki guztietan.

Urak esan eban:

—Ni, toki zingiratsuetan aurkituko nozue.

Eta biak batera Izen onari itandu eutsen:

—I, adiskidea, nun aurkitu al izango augu?

—Ni —erantzun eutsen Izen onak—, bein galdu ezkeru, galduta nago betiko, enau iñok aurkitu al izaten» (13).

Gogorakizun bat:

«Gaiztagiñen bat katigutegian nai urkamendian ildakoan, seme-alabarik itxi badau, onei alegin guztiaz estalduten jake aren bizikerea. Euskalerrriaren bizikerea gure begietatik ain arduraz gordeten dauskuenean, bati otu leio urkamendian ildako gaizkiñen bat izan ete dan. Eztabe esaten beronen legeak eredugarriak direala? Zergaitik, bada, gure lege-gizonai etxakez erakusten, erbesteko legekuntzak irakasten jakezan ezkeru? Eztabe esaten euskaldunen ekandu zaarrak erri baten sendo ta zindotasuna azaldu ten dabela? Zergaitik, bada, antxiñako erriak zelan bizi zirean irakasten dan orduan, gure leenagoko ekanduai liburu zaarren autsetan ito eragiten jake?

(13) «Ipuñak», 53-garren orrialdean.

Unibersidadeetan erromar, greziar, indiar, arabiarren berbetak, zelan edo alan, adierazoten dira. Eta euskera ez al da izkera orrek baizen zaarra, mamintsua, ugaria, sakona, apaiña ta ikasgarria?» (14).

Esakerak:

«Bideak betean etozan gizon eta emakume aldra andiak».
«Sermolariari ez eutsan Peruk ain ain ain zera eritxi».
«Neuk orreri eskua emon? Baita zera be!».
«Erregetxurik txuenak buru jaso leike Diruaren aurrean».
«Egundo olakorik! Nun batu dozak ardi orrek?».
«Gau aren luzea!»
«Nire begiak eztautso gatzik egin»,
«Nik emon? Ezta...».
Joan eta joan eta joan, aurrera beti».
«Amesetan izan ezik barrerik egiten ez ekiana».
«Iketan baiño lauago berba egingo eutsan».

Iztegia:

Geriza: Gerizpea
Zingiratsu: Ur-leku, urgune
Katigutegi: Presondegi.
Iketan: Itano.

(14) «Ipuñak», 210-garren orrialdean.



“KIRIKIÑO”
BUSTINTZA EBARISTO
1866-1929

Nor zan

Kirikiño. Ona emen heste idazle bikain ta ospetsu bat. Nork ez dau ezagutzen Kirikiño? Nork irakurri edo entzun ez ditu arek idatziriko ipuin barregarriak? Euskaldun zaarrak, beiñik-bein, geienak ezagutzen dabe Kirikiño. Izan bere, nor izan da arek legez ain gozo ta sakon erriari biotzean ikutu deutsona? Eta zergaitik? Errikoia, egokia, atsegingarria izan zalako. Orrexegaitik, orrexegaitik izan zan euskaldunentzat ain begiko ta gogoko (1).

(1) «El solo atrajo a las letras euskéricas más lectores que todos los autores de la otra dirección (purista) juntos» (Altube Seber).

Maiñarin jaio zan Buztintza Ebaristo. Baiña mutikoa zala, Almansara (Albazetera) aldatu ziran bere familiako guztiak. Leendik bere an eukazan Ebaristok anai bat abade ta arreba bat ezkonduta.

Almansan egin eban batxillerra. Eta amazapi urtegaz, Madrillera joan zan, injenieru karrera egiteko asmotan. Baiña, asmoak asmo, karre-
ra ori itxi, ta fisiku-matematiku jakintzetan lortu eban lizentzi-gradua. Gero, Almansan eta Siguenzan (Guadalajaran) egin zituan urte batzuk irakasle. Baiña berari lagundutera Bilbora etorteko deia egin eutsan Azkuek; eta, erri-miñak eraginda, Bilbora etorri zan bizitera, 1899-garren urte inguruan. Arrezkero, berton bizi izan zan il aurretxorarte.

Bilboratu zanean, berealaxe sartu zan euskal-literaturearen biztuera-
giro barrian eta Azkueren laguntzallerik onenatariko izan zan, bai aren
Iztegi nagusia atonduten, bai «Euskalzale» aldizkarirako lanak egiten.
«Mañari» izan zan, aldi aretan, bere ezizena.

«Ibaizabal» aldizkariaren zuzendaria bere izan zan urte bian (1902-
1903). Eta bere idazlanak «Bloa» izenordeagaz izenpetuten zituan.

«Euzkadi» egunerokoaren euskerazko zatia bere berak egin eban
1913-tik asita, amasei urtean. Eta orduantxe egin eban guztiz entzute an-
diko bere izenorde «Kirikiño».

Baiña gure idazle ospetsu onek egin eban lanik andienetako bat (ixi-
leko lan txalogarria) euskera irakasten egin eban, Bizkaiko Diputaziñoak
jarritako ikastolan. Gogo andia bear da orretarako eta bene-benetan maite
izan bear da norberaren erria ta norberaren erriko berbetea. Ondo be
ondo bete eban Kirikiñok beiñola berak esana: «Noberen erria ta nobe-
ren erriko berbetea ta noberen erriko lege ta gauza guztiak, Jainkoaren
kontrakoak izan ezik, bere gurasoak eta bere anaiak legez maite izan bear
dauz gizonak, zintzoa izateko» (2).

Euskaltzaindia sortu-barri egoalarik, gorabera ta asarrealditxo ba-

(2) «Abarrak», 205-garren orrialdean.

tzuk izan ebazan Euskaltzaindiko batzukaz. Eta ez eban euskaltzain izaterik gura izan. Dana dala, izenez euskaltzain izan ez arren, izan bai izan zan bere egitadeetan.

Il baiño ille batzuk lenago, bere jaioterrira joan zan bizitera. Eta bertan il zan (3).

Kirikiño dogu gure bizkaierazko euskal-literaturearen gatza, umorea; berau dogu gure euskaldun izatearen alderdi barregarria erakutsi deuskuna, gure erriaren zuurtasuna ta zorrotasuna agertu deuskuna, erritik bertatik artuta (4).

Berak diñonez: «Arazo astunak erabilli oi dabezan gizon guztiak egiten dabena da, noz-edo bein olgeta batzuk egin, arazoak alde batera utzita, eta ori egiñaz, atsedean (deskantsu) aundia artzen dabe.

Guk be gaur orixe egin bear dogu, olgeta batzuk esan, ta barre batzuk egin. Barre egitea osagarria da, barrerik egiten eztauna galdua dok» (5).

Euskaldunen umorea da Kirikiño; umore jatorra euskera ederrez jantzita.

Idazlanak

«Abarrak». 1918-an argitaratua.

«Bigarrenko Abarrak». 1930-ean argitaratua.

Liburu biak baten argitaratu dira oraintsu. Aita Onaindiak argitaratu ditu eta Kirikiñoaren beste idazlan batzuk bere erantzi deutzoz.

Zer dira «Abarrak»? Egilleak berak erantzungo deusku:

(3) Buztintza Basili, bere lobeagaz ezkontuta egon zan (1909). Ez eben seme-alabarik izan.

(4) San Martin Juanek eta Bilbao Felixek egin dabez, arrezkero, Kirikiñoaren antzerako lan eder batzuk. Ikusi: «Zirikadak» eta «Eztenkadak», eta «Ipuin-barreka».

(5) «Abarrak», itzaurrean.

«Ona emen abarrak deitu dautsedan irakurgaitxu oneik».

Egurgiñan sartu naz ni gure euskera ederraren oianean. Bertan ain ugari dagozan zugatz enbor-lodidunak eta euren besanga ta adar andiak ebagi ta gertau ta ekartea izango zan nire atsegiñik andiena; baiña ezin; orretarako bearrak dira, ba, beso ta aizkora andi zorrotza. Nire besoa ta aizkorea, barriz, bata makala ta bestea zorbatzik bakoa dira.

Lan ori eziñik, zerbait orraitino egin gura ta, egur meiari, abarrari ekin deusot, eta besarkada auxe gertau ta ekarri dot. Aal izan dodana.

Egur me au be zetarako edo atarako bai-da. Su andia egiteko, egur lodia izetuteko, leenengo abarrari ezarten jako sua, ta onegaz ari gero.

Irakurgaitxu oneik be gogo askotan sortu leie euskeraz irakurteko zaletasuna. Txikiak, meiak, arin-ariñak, errazak, barru gitxidunak, geienak barre batzuk eragitekoak izanik, euskeraz irakurten bape zalea eztanak onakoxeak atsegiñez artu leiz, ta eurok, abarrak lez, bere gogoan sua biztu...

Irakurgaitxu oneik geienak jasorikoak dira; batzuk antxiñakoak, nik neure aitari entzunak, eta berak bere aititari; beste batzuk neuk batu dodaz or-emen, neure aldian; beste batzuek neuk asmauta be bai-dira, guztitara» (6).

Orra or, bada, Kirikiñok berak argi-argi esanda Abarrak zer diran eta zertarako diran.

«Abarrak» dira bere idazlanik onenak, eta geien irakurri diranak bere bai.

Beste idazlan asko bere egin zituan eta bere denporako eguneroko ta aldizkarietan agertu ziran geienak.

Teatro-saillean bere zerbait egin eban: «Anton Berakatz», bere ipuin bat («Azeriari azeri») eratuta. Euskeratu bere egin ebazan erderazko anzerki batzuk; baita gipuzkoerazkoak bizkaieratu bere.

(6) «Abarrak», itzaurrean.

Erriarentzat aIn atsegingarriak izateko bere idazlanak zer egin ete eban Kirikiñok, gure euskal-idazle ta periodista jatorrak? Jokabide eder bi artu.

Alde batetik, gai «txikiak, meiak, arin-ariñak, errazak, barru gitxidunak, geienak barre batzuk eragitekoak» artu zituan. Eta, bestetik, euskaldunak erabillen euskera erabilli, bere aldiko erriaren euskera, apur bat garbituta, jantzita ta orraztuta: «Euskera zeatzaren zalea bazara, urrean sarri musturra okertuko dozu irakurgaitxu oneitan aurkituko dozuzan erderatiko itz ugariak ikusita; baiña gogoratu eikezu eurok eztirala idatzi eun urte geroagoko euskaldunentzako, ezta gaur euskera zeatz-zeatza ta erdel-antz apur bat daben itz bakoa jakin ta erabilli oi daben euskaldun banakarentzako bakarrik be. Ez; eurok idatzi dira gaurko euskaldun geienak dakien euskeraz, geienak irakurri ta ulertu al dagien euskeraz» (7).

Orrexegaitik, Kirikiñok darabillen euskerea erreza, jatorra, ederra ta atsegingarria da. Au da au euskera! Zelako alkar-izketa bizi ta jatorrak darabilzan! Zelan dakian bere lanak gatz-ozpiñez gozatzen!

Alan da guzti be, bere aldiko semea izan zan Kirikiño bere. Eta garbikeri batzuk agiri dira bere idazlanetan. Baiña uskeriak dira bere lan ederraren barruan.

Sarri-sarri aztertu ta irakurri bearrekoak dira Kirikiñoaren lanak. Irakasle ona be ona dogu euskera ondo ikasteko. Bera dogu gure jarraibide euskeraz ondo idazten ikasteko bere, bere idazkera jatorra geugandu ta geuretuteko.

«Gaurko euskaldunak eurak direan legez artu bear dira, ta ez ibilli etxean beorraren billa. Itxi daiguzan, orain bein-beiñean, berba zaarrak, iñok ezaututen eztabezanak eta berba barri asmauak, eta jarraitu daiogun geure euskera nastutxuagaz, eta esan daigun: Naita anka barik egon, bizi daitela Simon» (8).

(7) «Abarrak», itzaurrean.

(8) Ibaizabal aldizkarian, 1902. iraila, 3-a.

Jarraibide ederra ta zuzena, benetan! Izan bere, konturatu ordua dogu:

«Ezin danean egin gauza bat nai dan lez,
egin bearra dala ondoen aal dan lez» (9).

Lora eder batzuk

Prakelle ta Motraillo

«Prakerre, txakur esarri bat baiño andiagoa etzan; gorputzez argala, samaz luzea, arpegiz estua, sudurra luze ta makotua, begiak txikiak eta barru-barruan sartuak, bizarra meatza, ta burua txikitxua. Bizkorra zan bera, dantzari nekegabea, barritsu andia, itz utsa; pirri nausienetaikoa, leku guztietan lenengoa beti izan gura izaten eban, eztabaida danetan orioaren antzera, berak igon bear iñok baiño gorago, ta onetarako bere indarrak laguntzen ez eutsonez, gibel gaizto ta demontretakoa zan, eta badaezpadakoan, aizto luze bat gerrikoan erabilten eban.

Motroillo, barriz, erraldoe andi ta zabala zan; burutzar ikusgarria eban, ule-zapa baltz sarratu bategaz estalduta, kokotetik asi ta begien ururreraño; bepuruak, matrailak, sudurra, ezpanak, andi ta trauskillak eban, sutegiren baten mallukadaka egiñak irudiela. Bizarra be sarratua, buruko ulea lez; azala, baltz gorrizkea, begirada itzala, abotsa lodi ta astuna. Oso indartsua zan; itzak, gitxi ta neurtuta lez jaurtiten ebazan; matrakan nekez asten zan, baiña bein asi ezketiño, itz asko egin baiño lenago, bere besoetako gabi astunak erabilten ebazan eta orduan bildurgarria zan» (10).

Gaztela-mutillak

«Gaur Kastilla ta kastillanua esaten dabe euskaldunak. Leenago ez; leenago Gastela ta gastelarra esaten eben. Orduan aurrez entzun oi zi-

(9) Abarrak, 258-garren orrialdean.

(10) Abarrak, 140-garren orrialdean.

ran onetariko esaerak: Gastelara joan da, Gastelatik dator, Gastela-maatsa, Gastela-astoak (gorputz andiko asto ederrak), Gastelako zelaia, eta abar.

«Gastela-mutillak» esan ezkeru uste izan lei leenengo entzueran, Gastelako mutillak ete diran; baiña ez, izen ori ebenak etziran gastelarrak, euskaldunak ziran, gure baserrietatik Gastelara lanera joaten ziran mutil gazteak Gipuzkoatik eta Bizkaitik.

Ezta bape ikaratzekoa izen ori emotea Euskalerriko mutillai. Aldi aretan bertan, indianuak deitzen jaken Amerikan izanda gero errira etorten ziranai, batez be katanarrua gizen samar baekarren, antziña Amerikari Indias deitzen eutsoelako. Geroago, ta gaur be bai, amerikauak deitzen jake, emengo semeak izan arren. Neuk bein ikusia da Burgosko geltokian, trenetik jatsi ziran batzui esaten: «Ya vienen los bilbaínos»; «bilbaíno» areek burgostarrak ziran, eta Bilbon bizi ziralako bakarrik «bilbaínos» deitzen eutseen euren errialdean.

Olantxe ba, Gastela-aldetik lanean ebiltzen mutil euskaldunai euren errietakoak «Gastela-mutillak» deitzen eutseen.

Gastela-mutilla euskotar eredu agiri-agirikoa zan, orain aspaldi galdu dana. Banan barik, aldraka joaten ziran aruntz, eta aldraka etorri be. An aldi bat lanean egiten eben, iru-lau illabete, sei-zortzi illabete, gitxik urtebete, ta aurrezturiko diruagaz etxera, gurasoekana, biurtzen ziran. Ikustekoa izaten ei zan areen etorrerea, kitarra ta pandero ta txilibitu jotzen eta abestuten, sartzen ziran erri guztietan usubillua ta zaratea, poza ta alaitasuna baiño besterik ez eroiela. Gero, etxean, aldikada bat egon ondoren, geienak barrero lanera joaten ziran. Areek joan-etorri egiten eben; Gastelan ibilli arren euren sendiaren, euren erriaren lokarria ez eben ebagiten, lokarri ori bizi ta sendo eukiten eben, eta lokarri orrek ekarten zituanoz noz edo bein euren erri ta etxera.

Mutil azkarrak izaten ziran, jan ta edan ondo egiten zaleak eta euren etxeetan baiño obeto jaten ebelako, mardo ta indartsuak ziran.

Lanean ez eben nekerik erakusten, lanerako beti gogotsu aurkitzen ziran, indarra ugari eben; orregaitik, laneko ugazabak oso maite izaten zi-

tuezan eta naiñun beti ta erraz lana billatzen eben. Emendik aldra areek andik eskatuta jotzen ziran, zelako lana ta zenbateko alogera irabaziko eben berbapetuta.

Gutziz alaiak izaten ziran, bai da, osasunez bete-beterik egozan-ta; indar-jokoetan azkarrak, arro samarrak, zerbait burrukari ta zoroak, gaztetasunak ez dau parkatzen ba-ta.

Orduko aldi areetan, gure baserrietako mutil gaztetxuak, orain Ameriketara joateko gogo biziagaz egoten diran lez, Gastelara noz joan al izango ziran erretan egoten ziran; jakiña, euren erritxueta, euren auzoan, Gastela-mutillak ikusten zituezan, mutil jasekoak, partikaretan dirua ebelatzen, Gastelako euren jazoerak alairo kontetan; eta arekek lakoxeak izateko gurari bizia sortzen zan mutil gaztetxo areen gogoetan.

Eta zelako lana egiten eben mutil areek? Amazortzigarren eunki edo gizaldiaren azken aldera ta emeretzigarrenaren leenengo 30 urteetan, orain eun urte ingurura arte, euren lana upagintza izaten zan Erriogan eta Aragonen. Bai gizonak, aldi aretan, Bizkaiko baserrietatik (eta nik uste Gipuzkoatik be bai, errialde bietan oiturak eta bizikerea bardin samarrak beti izan diralako), Bizkaiko baserrietatik, batez be Aulestia, Gizaburua-ga, Amoroto, Ibarri, eta Txorierritik mutil talde andiak joaten ziran Erriogara ta Aragonera maats-batze ta ardao-egite aldia baiño leentxuago, iraillean, upa barriak egiten eta zaarrak konpontzen, eta an egoten ziran lan orretan Gabon aurretiko arte; orduan etorten ziran euren etxeetara, kitarra ta pandero ta txilibitu jotzen, eupadaka ta zantzoka.

Onei, Gastela-mutillak deitzen eutseen arren, izen ori baiño geiago «upagiñak» esaten eutseen.

Gastela-mutil benetakoak geroago izan ziran, karlisten leenengo geroaren ostean, 1840-garren urtetik 1870-garren urtera bitartean. España guztian bitzabalak, burdinbideak eta beste iragi-lan asko egin ziran aldi atean. Orduan, aitaturiko upagiñak baiño askoz geiago zabaldu ziran langille euskaldunak, geienak argin, arotz, errementari ta pioiak, Gastela guztian, Aragoen, Andaluzian, Extremaduran eta abar, Orrexek ziran Gastela-mutil berriak.

Aldi atan jente beartsuak oiñez egiten zituezan euren ibilketak, luzeak izan arren; eta Gastela-mutil areek Espāñako baztar guztietara zabaltzen ziran alantxe, oiñez, ta etorri be bai. Euren erremintak eta aldatzeko soiñekoak olezko kutxetan, sarrail-itsu bategaz itxita, aurreztik bialtzen zituezan Gastelara, mandazaiñen bitartez.

Orduko aldian, salgairik geienak mandoz erabilten ziran batetik bestera, burdiz eroateko bitzabal gitxi egoalako; ta mandoakaz ebiltzan gizonak mandazaiña eben izena; ta euren bitartez, urrin-urriñeko urietara bialtzen ziran gauzak. Adibidez: Durangon mutil batzuk emoten eutseezan mandazaiñai iru edo lau kutxa, esanik eroateko Zaragozara ta onelako edo orrelako ostatuan izteko; mandazain areek joaten ziran Durangotik Haro-raño, eta an beste mandazain batzui emoten eutseezan mutillen kutxak, eta areek eroaten zituezan Tudela edo Tarazonaraño, eta an, beste mandazain batzuen eskuetan izten zituezan kutxak, eta azkenengo areek eroaten zituezan Zaragozako ostaturaño. Ostatu-jabeak artzen zituan eta gilzpean ipiñi, mutillak eldu arte; orduan, kutxa ganeko markak zeintzuk ziran eskatu ta gero emoten eutsezan. Orretaraxe bialtzen ziran gauzak orduan, eta etziran galtzen..., ez ei ziran galtzen.

Gastela-mutillak eroan eben Euskalerrriaren ospe edo entzutea alde guztietara; Euskalerrri zati bat ziran, or emen ebillana. Euren erdera mordoilloz, euren zintzotasunaz, euren alaitasunaz, eltzen ziran lekuetako jendearen gogoa irabazten eben, eta orregaitik, pozik artuak, ondo ikusiak izaten ziran... (11).

Jazoera bat

«Bein, Burgos probintziako uri baten, Durango inguruko mutil aldra bat ebillen zubi barri bat iragiten; orain eztakigu zegaitik bertako alkateak etzituen mutillok maite; beti asarreka erabilten ebazan. Domeka arratsalde baten, erriko plaza zabalaren erdian egozan mutillak barriketan; euren ondora urreratu zan txakur eder; alkatearena zala esan eban batek,

(11) «Abarrak», 167-garren orrialdean.

eta au entzunik, Abadiñoko Asensio Sagastasoloak, arrikada andi bat emonda bialdu eban txakurra txilioka.

Laster etorri jaken erriko aguazilla, esaten alkatearen aginduz guztiak erriko etxera joateko. Joan ziran, ba, eta alkateak itzaldi garratza egin eutsen, gogor eskaturik esateko nok jo eban txakurra. Erantzun eutsoen eurak ez ekiela, txilioak entzun zituezala, baiña ez ebela ikusi nok arria jaurti eban, eurek ez egozala txakurra zaintzen, eurei ez eutsela ardurarik bape txakurragaitik, eta bakean izteko eurei txakur kontu areekaz, txakurrari batenbatek emondako arrikadea gorabera munduak ez ebala irakurrik egingo-ta.

Alkatea, mutillak bildurtzearren, euren izen-abizenak artzen asi zan eta papelean ipinten. Orretan ebilzala, txandea eldu jakon Asensiori, ta alkateak itandu eutson:

—¿Cómo te llamas?

—Asensio.

—¿El primer apellido?

—Txakurra.

—¿Y el segundo?

—Jodabena.

—Asensio Txakurra Jodabena.

—Sí, señor, eso.

Au entzunik, barre purrustadaka asi ziran lagunak, eta alkateak zarra-parra andia atara eban.

—¡De mí no se ríe dengún nació en el mundo! Yo sus aseguru que sabré quién de usotros ha apedreao al perro, aunque no lo queráis decir, y llevará su merecido. ¡Lo he de saber!

—¡Ya temos dicho a usted, tanta copla!— esan eban Asensiok urteieran eta guztiak barre zantzoka urten eben bape bildur barik» (12).

(12) «Abarrak», 168-garren orrialdean.



Esakerak:

«Iru guda mutil, katakumak baiño olgetariago ta zoroago».

«Aitearen eta Semearen...! Ondiño olakorik!»

«Ain berandu etorrita gero bazterrak endredetan?»

«Arroaren arroaz praketan be artu ezinda».

«Baiña? Baiña-dunakaz zenbat berba gitxiago egin, oba».

«Emen aspaldiko Txomin».

«Mutiko ederrak dira euskaldunak neke apurtxu bat artuteko euren erri ta berbeteari jagokozan arazoetan! Gizon nagiagorik eta itxiagorik!»

«Ernegau eragingo zeuskio santu bati be».

«Biribildu eban gero taketa lakoxe zigarro lodi ta gogor bat».

«Bai, jente asko dago emen diruagaitik euren burua, euren guraso euren Erri ta Jaungoiko laztana bera be, Judasek legez, salduko leukezakinak: San Ogerleko baiño beste santurik ezagutzen eztabenak».

Iztegia:

- Oiana:** Berezia.
Enbor: Arbola baten gerria.
Besanga: Adar, errama.
Zorbatza: Filo.
Abarrak: Erramak, kimak.
Makotua: Biurtua, okertua.
Aizto: Kutxilloa.
Erraldoe: Gizontzarra.
Abotsa: Boza.
Gabi: Antxiñako oletako mallu nagusia.
Iragiten: Egiten.
Izen-abizenak: Izen-apelliduak, deiturak.
Usubillua: Berbaroa, berbotsa.
Naiñun: Edonon, nunnai.
Upagintza: Barrikak egitea.
Bitzabalak: Bide zabalak, kaminoak.

BASABE KANDIDO

1867-1928

Nor zan

Lekeitiarra izan genduan Basabe Kandido.

Mutil koskondua zala, Bitoriako Abade-Ikastetxera joan zan, abade egitekotan. Eta antxe egon zan Filosofia amaitu arte. Gero, jesuita izatea pentsau eban eta Loiolako jesuitetara joan zan.

Teolojia ikasketak Salamankan egin ebazan. Eta, gero, bai Filosofian, bai Teolojian, Maisu (Doktor) egin zan.

Bere bizitzarik geiena, ejerzizioak edo misiñoak emoten igaro eban, Bizkaian, batez bere.

«Jesusen Biotzaren Deia» aldizkaria, 1919-an, sortu ebenen artean, Aita Kandido izan zan buru ta eragillea.

Euskalzale sutsua izan zan eta «Euskalerra maitearentzat» lan asko egin eban, bai sermolari legez, bai euskalidazle legez.

Idazlanak

Aita Kandidok itxi deuskuzan liburuak oneixek dira:

«Andra Mariaren ezkutua».

«San Inazioaren ejertziuak. Ondo konfesau ta komulgauteko irakaski-zunak».

«Eleiz-liburutxua».

«San Inazioaren ejertzioetako gogarteak».

Lan ederra Aita Kandidorena, San Inazioaren Ejerzizioak euskeratu ta azaldutea!

Lan ederra ta euskera argi ta ederrean, gaiñera. Euskera ona darabil Aita Kandidok, geienetan. Gai sakona eta euskera ona.

Ba ditu arako garbikeri batzuk (bereak ala argitaratzalleanak?); ba ditu erderakada ta aditz-joko oker batzuk bere...; baiña, akats txiki orreik kendu ezkeru, maisu egokia dogu.

«Zaletu zaite, ba, euskalduna, irakurtera; onenatarikoa zarean lez, bearren diran gauzetan jakitunena izan zaitez» (1).

Lora eder batzuk

Konfesiñoko jazoerak

«Misiñoetan, eta asti gitxi dagonean, ondo da konfesoerak itandutea; ostein, norberak esamiñan zer aurkitu daben, axe esatea da onena.

Egoten dira batzuk, konfesoerak itanduten ezpadeutse, pekatuak ixillik, pozik izten dabezanak.

Artzain batek, emazteak lagunduta, ostu eban bildots bat. Konfesoerak ze ofizio eukan esan eutsanean, dirautso:

—Ostu dozu ardirik?

—Ez, Jauna —artzaiñak.

Urten eleizatik eta aurkiturik bere emaztea:

(1) «San Inazioaren Ejertziuak», 266-garren orrialdean.

(2) Idem, 49-garren orrialdean.

—Maripa! —dirautso— ezkaituna gaur makaletik librau!

—Zer ba?

—Ezteust itandu, ba, konfesoreak ardirik ostu ete dodan! Lengoan ostu genduan bildotsagaitik itandu baleust!» (2).

«Andra bateri konfesoreak:

—Ondo konponduten zara zeure senarragaz?

—Ai, Jauna! Nire senarra baiño txarragorik eztago.

—Baiña, nor da oin konfesetan dana, zeu ala zeure senarra?

Eldu zan bein gizon bat konfesetara, ta konfesoreari:

—Jauna, emon beist absoluziñoa.

—Esaizuz, ba, pekatuak.

—Ara, ointxe konfesau dan emakumea da neure emaztea; berak esango eutsazan nire pekatuak neuk baizen ondo ta zeatz» (3).

Esakerak:

«Ze ondra ta ondra oste!».

«Zorionekoa zer nai ta axe daukana da».

«Gauza guztietan, ba, ikusi bear dot Jaungoikoa, ta Jaungoikoagan gauza guztiak; diranak Beragan eta Bera diranetan maitetzeko.

«Beti egon ziran zure gorputz arimak argia baiño garbiago ta aizeak eztarabilen ur azala baiño baketsuago».

«Zelan, barbarako, gordeten dira ain garbi gazterik asko?».

(3) Ibidem, 55-garren orrialdean.

«Jaungoikoa da, ba, nire Aita. Au poza! Orduan, berez, bere izatearen indarrez, aitak semea lez, maite nau».

Iztegia:

Maripa: Maipa.

Ezkaituna: Ez gaituna, ez gozena (ez gara, esan nai dau, andrazkoai iketan egiten jakenean).

EGUZKITZA JUAN BAUTISTA 1875-1939

Nor zan

«Gure erri maite oni bere siñesmen eta ekandu onetan iraunazoteko, lenen eta aurrenengo Goiko Jaunaren laguntza da; baiña orren urrengo, eguzkiaren azpian daukagun laguntzarik onena, geure euskerea da; lagun-tzarik, onena, Euskalerriaren gogoa, bere izakera berezia, bere barreneko arpegia darakusan ispillua, geure asabakandik datorkigun euskera zaar au da. Izkuntza aldatzea, erriaren gogoa aldatzea da; baiña gogoa aldatzeak, aurreragoko siñeste, ekandu ta izakeraren aldatzea beragaz daroa; augaitik, Euskalerrian, bere siñeskintza ta ekanduai eutsiteko, bere gogoari, gogo orren mendu ta izakera bereziari eutsi bear dautsegu; baiña oni eutsiteko, euskerea galdu ez dedin, lan egin bear dogu. Gizon eta erri bakoitzak izkuntzaren bidez bere barreneko bizia agertu ta azaldu daroa: augaitik, edozein errirentzat ogasunik bereena, bere mendu ta izakeraren agerpenik garbiena bere izkuntza da: Euskalerrarentzat, euskerea» (1).

Orra or, oraintxe ezagutzera goazan gure idazle Eguzkitza Juan Bautistaren eretxi sakon bat, bere asmo nagusia ta jokabidea.

Euskaldun, fededun eta jakitun izan zan Eguzkitza. Eta, euskeraz, bere

(1) Lenengo euskal-egunetako itzaldiak, 127-garren orrialdean.

fedea ta jakituria euskaldunen buru-biotzetan ereiten alegindu zan, bere bizitza guztian, «orain arte lez, aurrerantzean be, euskerea geure siñestearen lagun eta jagola izan dakigun» (2).

Lemoan jaio zan Eguzkitza. Il bere bertan egin zan.

Abadea izan zan. Eta leenengo abade-ikasketak Zornotzan (Amorebietan) egin zituan. Gero, Bitoriara joan zan eta ango Abade-ikastetxean egin ebazan Filosofia ta Teolojia.

1899-garren urtean egin zan abade. Eta Lekeition emon zituan bere bizitzako urterik geienak. Ango Latin-ikastetxeko irakasle izan zan.

Abade-alkarte bat sortu zan 1912-garren urtean; «Jaungoiko-Zale Bazkuna». Kristiñau-Ikasbide lanak egiteko sortu zan eta lan asko egin eban kristiñau-ikasbide, liburu, aldizkari ta abar argitaratuaz. Ba, Alkarte orrek argitaratzen eban aldizkaria atonduten ebenen artekoa egin eben Eguzkitza.

Euskaltzaindikoa bere izan zan, 1919-garren urtetik asita, au da, Euskaltzaindia sortu zanetik eta aurrera.

Bere denporan oso entzute andikoa izan zan. «Gai zailletan eta argi euskeraz au baino obeki mintzatu denik ez dakit ote den Euskalerrian» (3).

Idazlanak

Gizon fiña izan zan Eguzkitza, eta idazlan asko egin ebazan eta sakonak. Sustraira, unera, sakonera joten dau beti. Eta, augaitik, gai sakonak eta zailak darabilz geienetan: Teoloji-gaiak, Filosofi-gaiak, euskera-gaiak... Jakintza arloan diardu, euskaldunak eta euskera jakintza maillaratu gurarik. Eta jakiña, eskoladun irakurleak bakarrik ulertu daikeez ondo aren idazlanak. Ikusi daiguzan, bada, zeintzuk direan:

«Garbitokiko arimaen illa». Sarda y Salvanyren liburua euskeratuta.

«Andra Mariaren Loretako illa». Gure eleizatan, maiatzeko illean, sarri

(2) Idem, 128-garren orrialdean.

(3) Orixe, «Euskal literaturaren atze edo edesti laburra».

irakurri izan dan liburu sakona; sakonegia erriarentzat. Andra Mariaren birtuteen azalpen bat da.

«Gizarte-Auzia. Ugazaba ta langille arteko gorabeark». Sozialismua, komunismua, sindikalismua ta abar zirala ta etzirala sortu zan gizarte-auzia azaltzen dauan liburua. Idazlan txalogarria, euskeraz gitxi erabilli diran gaiak darabilzalako. Gaiñera, aldi aretako gizarte ta politika giroa ikusteko bere zerbait balio dau.

«Argi Donea». Gipuzkoaerazko Aita Baltzolarena bizkaieratuta. Auxe bai dala oraintsurarte gure parroketan sarri be sarri erabilli izan dan eleiz-liburu mamintsua!

«Kristiñau-ikasbidea». Guk gaztetan ikasi genduana. Teologia guztiaren laburpena.

Gaiñerako lanak aldizkarietan argitaratu ziran: «Jaungoiko-Zale»; «Ekin»; «Euskera» (euskerari buruz egindako ainbat idazlan sakon eta eder); «R.I.E.V.» eta abar.

Bere sermoe mordo bat dago oraindiño argiratu barik.

Bere denporako irakurleak, batez bere abadeak, zeruraño goratu eben Eguzkitza. «Sakona, egokia, mamintsua da Eguzkitza; euskera erreza, gozoa ta erritara darabil», esaten eben.

Guri, ostera, gogor samar egiten jakuz aren idazlanak. Euskeraz gai sakonak irakurten oitu barik gagozalako? Urteotan jakintza arloan egin diran aurrerapideak Eguzkitzaren lanak atzean itxi dabezalako? Ez dot uste orregaitik bakarrik danik, bada gai sakonak erabilli egin bear dira euskeraz bere, eta (bigarren itaunari erantzuteko) idazle bakotxa bere aldiratuta irakurri bear da.

Zergaitik egiten jaku, bada, gogor eta astun samar?

«Maixu batek lez idazten dau beti Eguzkitzak: Argi, otz, zuzen, kon-

tuz... Bear bada, astunegitxua egiten jaku, luzarora, bere idazkerea, itzen garbitasunari ta gramatikako legeai lotuegia edo dalako» (4).

Bizkortasuna, arintasuna, falta jako, sarri askotan, gure Eguzkitza jakitunari. Esatekoa argi ta garbi, neurtuta ta zeatz esan gurarik, lotu eta gogortu egiten dau euskerea. Gaiñera, erdel-usaiña daben berbak alboratu egiten ditu, ta, orrek bere, illundu ta moteldu egiten dauz bere idazlanak.

Baiña, alan eta guzti bere, zer-ikasi asko dogu beragan, bai gai aldetik, bai euskera aldetik.

Akatsak, kentzeko erakusten dira, Jandarea obeto azi daiten, ez landara ederra ebagi ta sasira jaurtiteko.

Lora eder batzuk

Gizonaren eskubideak

«Gizasemeok adimen edo errazoiaren, buruko argiaren, jabe gara, ta, ain zuzen be, beste abere guztiakandik, geure buruko argi orrek bereizten gaitu. Gizona adimendun, errazoedun, aberea da-ta, bere burua lauñoekoen maillara eratsi nai ezpadau, bere egikizun guztietan buruko argi orrek diñoatsanez ibilli bear dau. Ziñez, gizona gizartean biziteko egiña da, bere izatearen aierkunde ta premiñak gizartera daroe-ta; baiña gizona gizartean osoago izateko sartzen da, ta ez motz eta marketsago izateko. gizon bako-txak, gizartetik barik, bere izatetik datorkiozan eskubide ta zuzenak daukaz, ta eskubide ta zuzenok obeto zaintzearren, eskubide orrei sendoroago eustearren, orrexegaitik doa gizona gizarteko bizitzara.

Zuzena zer dan Jaungoikoaren legeak eta geure buruko argiak diño-skue:

«Zeuri beste iñok egitea nai etzeunkanik, besteri ez egiozu egin, eta besteak zuri egitea nai zeunken ona, zuk be aei egiezu».

Gure egite guztien arau izan bear daben egi biok, geure barrenean ira-

(1) Etxenagusia Karmelo, «Euskal Idazleen Lorategia», 231-garren orrialdean.

rrita daroaguz. Jaungoikoaren legea be gure biotzetan irarrita dago, ta griña txarrak buruko argia illundu ezik, Jaunaren legeko agintza guztiak eta bakotxa geure izateari dagokiozala, argiro ikusten dogu.

Gizon bakotxaren eginbear, eskubide ta zuzenok bere izatetik datorz; erro ta sustraitzat gizatasuna bera dauke-ta; Estadia baiño lenagokoak dira, eta lenagokoak diralako, Estaduaren gaiñetik dagoz. Bakotxari berea, orixe da zuzenbidea; baiña bakotxari berea emoteko, gizonari bereak dituan eskubide ta zuzenok ezautu ta emon bear jakoz» (5).

Esakerak:

«Barriketaldi onek ez gatzik ez berakatzik ez dau euki-ta».

«Kristiñau-ikasbideko liburuxua be eztakien babalasto askok, erlejiño-ko gauzetan euren buruak maixu andi egiten dabez; Salomonek baiño geiago dakiela uste izaten dabe, ta guzur ta abar, barriketa utsean diardue. Iñon diran tentelkeriak esaten dabez».

«Marxen esakun eta eretxi okerrok txartzat emon dabez. Bai bear be!»

—«Ez ete da, ba, egia?»

—«Egia ete dan, ba!»

«Ori gizartekeria izango ete litzake? Urrik emon bez!»

«Bildu edo batu ditudan gai pizka oneik, bear dan lez atondu, orraztu, ertza atera ta ondo apaindu, irudiz edertu ta euskera eztiz gozotu al baneiz, gaitz erdi izango litzake; baiña... ortxe dago, ba, untzea!»

(5) «Gizarte-auzia», 96-garren orrialdean.

Iztegia:

Ekandu: Oitura.
Berezia: Beren-beregikoa, apartekoa.
Darakusan: Erakusten dauan.
Ogasuna: Ondasuna, aberastasuna.
Agerpena: Ezaugarri, señaie.
Jagola: Zaintzen dauna, zaindaria.
Gizasemea: Gizona.
Abere: Animali.
Bereiztu: Banandu, d'istingidu.
Ziñez: Egi-egiaz, bene-benetan.
Marketsago: Utseginkorrigo, txarrago.
Aierkunde: Jokera.
Sendoroago: Sendoago, gogorrigo.
Arau: Lege, jarraibide.
Irarrita: Sartuta, idatzita.
Gizatasuna: Gizonaren izatea.
Babalasto: Kirten, astokillo.
Tentelkeriak: Kirtenkeriak, ganorabakokeriak.
Gizartekeria: Sozialismua.
Ertza: Egala.

idazlanak

«Lana egin daigun
txit-xiti,
ta zertu daigun
firi-firi».

ZAMARRIPA PAULO

1877-1950

«Gora begira». Olerki txorta bat.

«Zamarripa-eta»: «Kili-kili eta «Firi-firi»-ren liburu turak antzekoak.
Nor zan
len aldizkarietan edo egunerokotan agertutako idazlan estatistiko gendak
koak iz. Jauriñak jasoerak eguneroko doraberetxoak, paragarriketarik eta
«Zamarripa zelango idazlea da?». Auxe itandu neutsan, bein baten,
abade bateri. Eta ara zer erantzun eustan: «Zamarripa?... «Firi-Firi», «Kili-
-Kili»... txibizkeriak, «gauzatxuak», dira Zamarriparen idazlanik geienak;
txirrimirriak».

Ordurik ona, Zamarripa erdi-baztarta euki dot. Baiña, orain, bere
idazlanak irakurri ta aztertu ondoren, ez dot uste ainbeste destaina artu
bearrekoa danik. Txibizkeriak txibizkeri, idazlan ederrak bere egin ebazan.

Laredon jaio zan Zamarripa Paulo; baiña Sondikan bizi izan zan ume-
txotatik asita, bere gurasoak sondikarrak ziran-ta.

Mutikoa zala, abade joan zan Bitoriara. Eta abade eginda gero, Ber-
mion, Gatikan eta Sondikan emon ebazan bere bizitzako urterik geienak.

Euskalzale gartsua ta idazle ugaria izan genduan.

Asko lagundu eutson Azkueri bere bai «Euskalzale» aldizkarirako la-
nak egiten, bai Iztegi andia atonduten. «Txitxuk, eztaki Azkuen iztegi ede-
rrean dagozan Txorierriko barbarik geienak, edo erdiak inguru beintzat,
neuk emonak direanik» (1).

Maite-maite izan eban Txorierriren altzoan, Sondikan, il zan.

(1) «Zaparradak-ta» 12-garren orrialdean.

Idazlanak

«Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu daigun
firi-firi».

Langille nekegabea izan zan-eta, txiri-txiri, lan asko egin eban Zamarripak. Ona emen, onenétariko batzuk:

«Gora begira». Olerki txorta bat.

«Zaparradk-eta»; «Kili-kili eta «Firi-firi». Iru liburu, irurak antzekoak, len aldizkarietan edo egunerokoetan agertutako idazlan atalakaz eginda-koak (2). Ipuñak, jazoerak, eguneroko goraberatxoak, barregarrikeriak eta abar. Gai ariñak, errezak darabilz beñi Zamarripak liburu oneitan. Kirikiñoren antzera egin gura ebazan bere idazlanak, baiña etzan Kirikiñoren maillaraiño eldu.

«Gramática vasca». Erdera gogor eta zatarrean egindako lan sakona ta ederra. Ondo landua. Zazpi bider argitaratu da.

«Vocabulario vasco-castellano y castellano-vasco». Gramatikeagaz batera erabilteko egiña. Iztegi laburra, baiña jatorra da.

«Conjugaciones guipuzcoanas».

«Manual del vascófilo». Bana-banako liburu eder irakurgarria; berebizi-zikoa, eukerearen joskera, esakerak, erderakadak, ortografia ta abar eza-gutzeko. Barrero albait ariñen, argitaratu bearreko liburu.

Txibizkeriak, «gauzatxuak» bakarrik ez ditu egin Zamarripak. Batez bere, azkenengo liburu orreik irakurri ezkeru, ezin esan txirrimirri utsa danik.

Egia da izan, euskeraz egindako lanak ez dira mamintsuak. Gai alde-

(2) «La Gaceta del Norte», Bilboko erderazko egunerokoan argitaratutako idazlanak dira geien bat, euskeraz bere agertzen zan, aldi aretan, zatitxo bat-eta.

tik eta umore aldetik bere urri samarrak dira. Kirikiñoren etorria, irudimena ta gatza falta jako Zamarripari.

Eta euskera aldetik? Onetan, bai, ba dogu maisu goragarria.

«Euskera erreza, ulerterreza,
arin ulertutekoa,
nai dau erriak, ta ondo da eitea
erriak nai daun lakoa.
Euskera garbi ta erreza eitea
lan gatxa dana ba'kigu;
baiña ein bear da, euskerean alde
gauza onik eingo badogu» (3).

Zamarripak darabillen euskerea jatorra, garbia ta erreza da. Zamarripak darabillen euskera, euskera da, erritarkeri batzuk kendu ezker.

Bere aldiko garbizalekeri-giroan bizi izan arren, garbikeribako garbiza-lea dogu Txorierriko idazle au. Mire egiteko gauzea, benetan!

Idazle zaarren eta erriaren iturritik edan dau ura (4). Eta, jakiña, orre-xegaitik da ain jatorra bere euskerea.

Alkar-izketak, esakerak eta abar ondo josten ditu. Zenbat aberastasun euskera aldetik!

Txibizkeriak txibizkeri, Zamarripa langoak gitxi, nai badozu euskera ikasi.

Lora eder batzuk

Bai, bai, bai:

«Nik eztakit zegaitik, baiña gizon, mutil eta mutiko lodi totolo guz-tien ezizena Bartolo da emen Txorierri aldean.

(3) «Zaparradak-eta», 179-garren orrialdean.

(4) Txorierri inguruko euskera, batez bere, ondo ezagutzen dau.

Ete da Bartolo ta totolo ots' bardin samarrekoak direalako?
Baleiteke, baiña ziur esateko eztaigu. Ziur edo ziur antzean dakiguna da, gure aitala-amanen aldian, Bilboko Tribull' inguruan bizi zala denda-txu bategaz Bartolo ezizengo gizon bat eta lodia zala bera, oso lodia.

Bartolo onek, loditasunak berak emonda edo, beti «bai» esateko ga-txa ei eukan.

Bere gatx onen barr'ekien askok, ainbat alegin egiten eutsien ezetz erasoteko, gauza bategaitik batel' batera esanekoa, besteak bertatixe bes-tera esanda, ta ainbat beratara; baiña danak alperrik.

Ez egoan areri ezetz erasoko eutsanik.

Eguraldiagaitik, esate baterako, txarra dala esan eragin eta beingoan ona dala esaten eutsanari, ba ekian zelan erantzun ezetzik esan barik. Mu-tilla zan bera orretan!

—Bartolo, eguraldi txarra gaur e?

—Bai, eguraldi txarra daukagu. Aizea be otza ta.

Bartolo, eguraldi ederra.

—Bai, bai, eguraldi ederra da au, olangoa bear dauanarentzat.

Ez egoan Bartolori ezetz esan eragiteko modurik.

Ezetz erasoteko asmotan, bat baiño geiago joan jakon bere dendara diru txarragaz be, baiña ezetzik entzun barik urten bear izaten eben.

«Au ezta ona» ez eban esango Bartolok ezegaitik be.

—Au diru du txarra dozu, andratxua.

—Ezta ona, ba, Bartolo?

—Ona bai, zetarako esan bear ze.

—Ona bada ba.

—Bai, ona da, bai (Emazteari). Atsoa, ekarrizuz suetetik untze bat eta mallua.

—Bartolo, zer egiten dozu nire diruaz?

—Auxe: Atean josi. Atean josteko da ona-ta.

—Niri ori diru ori atzera emon bear deustazu.

—Bai, bai, emongo jatzu, agiñakaz ataraten badozu.

Txorierriko jente guztien ao-miñean ebillen Bartolon «bai» beti esateko ekandua.

Gizon eta andra, mutil ta neskatilla, zaar ta gazte, danak eukazan ikaratuta zelan beti «bai» esan eikean, «ez» iñoz be esan barik.

«Bai» batera, ta «bai» bestera; beti «bai».

—Andia dok, gero, gizon orren kontua! «Ez» be ezin esan ba, bein edo bein? —iñarduen esaten txorierritarrak euren bigiretan.

—Neuk erasoko neuskio arin ezetz Bartolo edo Baikolo orreri —azartu zan esaten olango bigira baten, Lezama aldetik tellagintza batera ezarle etorririko mutil sur luze arpegi zorrotz bat.

—Ezetz erason? —diñotsie bigirako guztiak.

—Baietz! Zenbat gura dozue jokatu?

—Danontzako afaria —urten eutsan agure gogaldi oneko batek.

—Ondo dago.

Ta geiagoko barik, Bartolonerako urten eban Lezamar bizkorrak, bigirako lagun bat lagun artuta.

Arin joian bidean, arin, posturea irabazteko pozak kiñatuten ebala.

Bildur bat eroian bakarrik: Domekea be ba zan-ta, egongo ete zan. Bartolo ori, etxean barik, Bilbo barruko kafetxeren baten.

—Etxean bajauk, etxagok bildurrik —ziñotsan lagunari bidean— Posturea irabazita jauk, etxean topetan bajuk...

—Bartolo, emen gatoz ba...

—Bai, bai.

—Onek lagun onek uste-uste bako oker-eterri bat izan dau-ta...

—Bai, bai; gizonari jazoten jakoz olangoak.

—Orain, ba, zure adiskide be ba naz-ta, berau be adiskide ontzat daukot-eta, emendatuko bazendu...

—Bai, bai, ondo pentsaua. Karatxe! Bai, bai.

—Eun dukat bear dituz ba-ta..., emongo bazeuskioz mesede andia...

—Bai, bai, emongo neuskioz, bai, bai, emoteko moduan baneunkaz; bai, bai, bai, bai. Bai ortan! Baite-ta! Bai, bai, bai» (5).

Esakerak:

«Eiei esan zetatik zetara asarratu leitekezan gizonak».

«Esan baneuntsien esan neuntsien! Jan enindueneanbien artean!»

«Olango zer barik esan eutsan».

Aitearen ta Semearen...! Au da mutillaren okerra!»

«Ara, Patxi, atan orretan gaua egin jaku, ta gero...»

—«Ogerleko bat emongo ei deustazu...

—Baita zera be!»

«Manu, andia da zu Perugaz ibiltea».

(5) «Zaparradak-eta», 24-garren orrialdean.

Iztegia:

Daun: Dauan.

Totolo: Potolo, loditua.

Suetea: Eskatza.

Iñarduen: Esaten eben.

Bigira: Batzarra, tertulia.

Gogaldi: Umore.

Ziñotsan: Esaten eutsan.

Emendatu: Atondu, konpondu.

ALTUBE SEBER

1877-1963

Nor zan

«Ezta denpora asko Altube eta Lertxundi Seber Euskaltzain eta Euskalari aundiak itxi gaituala. Itxi gaitu, baiña gure eskuetan gelditzen da bere lana. Maisuaren irakaskintzak liburuetan eta aldizkarietako lanetan daukaguz.

Il baiño lentxoago, illabete bat inguru aurretik, ezagutu neban Gernikan... Bizitza guztian be etxat aztuko a egun zoragarria. Zenbat eta zenbat gauza ikasi nebazan egun batean bakarrik! Eta onuntza nentorrela, Gipuzkoa onetara, nere kautan esaten neban: «Gaztetan ezagutu baneu maisu aundi au!» Baiña bera joan bajaku be, emen gelditzen jaku bere bearra. Emen gelditzen jaku bere irakaskintza» (1).

Gure Maisu andia izan dogu, benetan, izan bere, Altube. «Gidari seguru bat, ao betezko maisu ona, irizpide zuur zúzenen emale» (2).

Jaiotzez gipuzkoarra izan genduan, Mondragoekoa; baiña bere bizitarik geiena Gernikan emon eban, Gernikako arma-fabrika bateko buru izan zan-eta (1915-1936).

(1) Alzola Nikolas, Egan 1963, 194-garren orrialdean.

(2) Villasante Luis, Euskera 1963-64, 313-garren orrialdean.

Jakiñzale amorratua izan arren, etzan iñongo Unibersidadeetan ibilli. Beste euskaldun eta euskalzale askoren antzera, bere kontura egin eba-zan ikasketak. Bere kontura, baiña biozkeri, maisukeri ta buru-gogorkeri barik, bere aldiko izkuntzalarien irakatsi sakonai jarraituaz (3).

Ekiñaren ekiñez, izkuntzalarien ikasle zintzoa, euskaldunen irakasle biurtu zan. Eta berak garbitu zituan idazle zaarren mordoillokeriak; berak idegi zituan aranatarren garbikeri-giro itoko ateak; berak erakutsi eusku-zan euskeraren batasunerako eta bizitzarako bideak...

Idazlanak

Euskal-idazleen artean sartu dogu Altube. Eta ba da izan bere. Baiña etzan punterengoa izan idazle legez. Idazleen biderakusle izan zan, batez bere. Onetan bai izan zan punterengoa.

Idazlan sakonak eta astunak dira Altuberrenak. Jakiña: jakitun batek jakitunentzat egiñak dira-ta.

Ona emen gogoangarrienak:

«Euskaltzain sarrera-itzaldia. Izkuntz jakintzia ta euskeraren bizitza». «Euskera», 1920.

«Erderatiko itzak, itz barriak eta aintxiña-itzak». «Euskera», 1920.

«Euskal-itz barriak». San Sebastián, 1923 (Tercer Congreso de Estudios Vascos).

«Modismos euskéricos». «Euskera», 1925.

«Erderismos». «Euskera», 1929; Bermeo, 1930.

«El acento vasco». Bermeo, 1932.

(3) «Frantses izkuntza ikasi eta Linguistikako frantses liburuak eskuratzen zituan, oetatik euskeraren onerako atera zitezkean erakutsi edo argibideak xurgatu naiez... Berak ikusten zuan emengo euskalari, euskaltzale ta idazle geienak gramatikolari zaarren uste okerrez zeukatela burua moldatua eta ortik eldu zirela ainbeste gaitz eta makur gure euskal baratzer» (Villasante).

«Observaciones al «Tratado de Morfología Vasca» de R. M. de Azkue». «Euskera», 1934; Bermeo, 1934.

«La vida del euskera». «Euskera», 1934.

Beste idazlan batzuk bere egin ebazan, bai euskeraz, bai erderaz, eta baita frantsezez bere.

Or izentau doguzan idazlan orreik zein baiño zein ederragoak dira gai aldetik eta, naiz ta Altuberen denporatik ona aurrerapide andiak egin Linguistika arloan, bear-bearrezkoak dira euskera lanetan diarduenentzako, bizkaitarrentzako, batez bere. Euskalherri osoko euskaldunai begiratu ta, zorrotzegia, estuegia da Altube, joskera arazoetan, batez bere.

Idazle legez, len bere esan dogu, etzan punterengoa izan. Gogor egi ten jaku aren euskera. Jakintza-gaiak darabizalako? Baliteke; baiña ez orregaitik bakarrik. Berez bere gogorra ta astuna da, zeatzegi idazten daualako. Koipea, gozotasuna falta jako.

Gaiñera, euskaldun geienok dogun gaisoa eban Altubek bere: Garbikeria. Bai; beste batzuen garbikeri-gaixoa osatzen alegindu zan, baiña berari bere nastau egin jakon gaixo ori.

Lora eder batzuk

Izkerea

«Izkerea gauza bizia bezelakotzat artzekoa dogu.

Argizerizko santuari edo giza-irudi batèri egin leio, emen zatitxu bat kendu, an imini; gorago arraiatxu bat egin, beerago azpilduratxu bat atara zintzel, formoi, ezten edo beste edozetariko erreminta edonun eta edozela ezarririk. Baiña izkerak etxakuz orrelakoak; azur, mamin eta azala, odol eta izardia dabeen benetako bizikien antzeko baiño.

Baldin geure izkera au, ba, sendatu ta indartu nai badogu, egualdiak zugatz, ortukari ta beste landaraki orori bezela emon giñeio laguntzea; landarakia eguzki-euriak onuratu oi dabe, izkerea ekiñaren berotasun eta

beti agoan erabilliaren bustitasunak. Orixeko dogu guk ere bide bakarra, asko ta askori nekez burura sartzen bajaku ere: Atara aixetara geure izkera maite au, erabilli beti ta beti, edonun eta edonorekin, emon orretaraxe bizia ta indarra, eta orduan errez izango dogu bear dan neurritz garbitu ta txukuntzea, alboko bedar txar ta gauza eztiranak kenduz. Beste asmokeri ta barrikerizko bideok, alperriko ta kaltegarri baiño eztira» (4).

Esakerak:

«Ba nengoan ba...!»

«Zelakoa da, gero, berau!»

«Esanak esanda be alperrik»

«Arek etorri ez egin deusku»

«Egunean baiño egunean txarrago»

«Zu be ba zara ba!»

«Geurea dala geurea ori bere ezta asko andiago».

Iztegia:

Bezelakotzat: legez, lakotzat.

Txukundu: Edertu, apaindu.

Izkerea: Izkuntza, berbetea.

(4) Tercer Congreso de Estudios Vascos de 1922; San Sebastián 1923, 79-garren orrialdean.



ENBEITA KEPA
1878-1942

Nor zan

Ikasi daigun erdera, prantzez,
naiz ingelesan elia;
ikaste ori ontzat daukagu,
baiña lenengo geuria.
Izkuntza danak gurgarri dira,
autortu nai dot egia;
geuretzat, baiña, gurgarriena
euskera maitagarria» (1).

(1) «Enbeita oleskaria», 90-garren orrialdean.

Esan ta egin, ondo ikasi eban euskera Enbeita Kepak. Eta Euskalerrri guztirik ibilli zan, euskera ederrez jantziriko bertsoakaz, euskaldunen gogo-biotzak bizkortzen eta adoretzen.

Izan bere, Bizkaian izan doguzan bertsolarietarik onena izan genduan. Etxaun, Zuberoan; Alkain, Lapurdin; Xenpelar, Gipuzkoan; eta Enbeita, Bizkaian.

Bertsolari ona be ona izan zan gure «Urretxindorra». Baiña bertsolaria bakarrik ez; idazlea bere izan zan, eta orrexegaitik jarri dogu euskal-idazleen artean.

Muxikan jaio zan, Usparitxa baserrian. Eta antxe igaro eban bere bizitza guztia baserri lanetan eta otzaragiñan (otzaragillea izan zan-eta).

Ogetalau urteko zala ezkondu zan eta zazpi seme alaba izan ebazan.

«Biotz andi baten jabe genduan, eta bizitzako une oroz biotz orreri astiñaldi ederrak eñonik, txinpart urtika bizi izan zan: suterrautsa, biztu ezkerro, millaka txiñarretan lertzen. Orrelaxe aren biotza be. Eta txinar orreik olerkiak doguz, bertsoak doguz. Eta, oraindik be, aren biotzak bizi-bizi dardar dagi itxi euskuzan olerki orrein bitartez; bere garaian, millaka ta millaka biotz, zauskada sakonez ta esan nai eztiz, arroturik itxi ebazan lez, gaurkoonak be, eurok irakurri ta auznartuz, adierazpen kemen-tsuz ta gozotasun jarioz samur atsegintzen dauskuz...» (2).

Idazlanak

Irureun ta berrogeitamar bertso-lan inguru itxi dauskuz Enbeitak.

Batzuk aldizkarietan argitaratu ziran.

Beste batzuk liburu baten:

«Enbeita oleskaria». Zarautz, 1965. Aita Onaindiak batutako bertso-txorta.

(2) «Enbeita oleskaria», itzaurrean.

Bertsolari legez punterengoa izan zan. Baiña bertsolaritzan eldu zan maillaraiño etzan eldu olerkaritzan. Ezta urrik emon bere!

«Izan bere, bertsolariak ba du alako zer bat, eskolatuen artean izaten ez danik. Ez ezin izan leitekealako, izan oi ez dalako baizik. Eta bildur izatekoa da, bertsolari jatorrak eskolatzen asteen, olako zer ori galteza. Arriskua dago.

Zer da, ordea, zer ori? Bertsolarien zer berezi ori? Ez da errez esaten. Gatza? Bizitasuna? Azkartasuna? Zorroztasuna? Nik al dakit? Jatoritasuna, bertsolaritasuna. Dana dala, letradun poetak, gutxitan, oso gutxitan izan oi duten zerbait. Eta bertsolari bati ori kendu ezker, poeta bat geiago izan dezakegu, baiñan baita bertsolari bat gutxiago ere» (3).

Bertsolarien zer berezi ori ba eban Enbeitak, baiña olerkarien beste zer berezia ez. Alan eta gutzi bere, ba ditu, noizpeinka, alako olerki eder batzuk.

Euskera aldetik, erri-erriko euskera erreza ta jatorra darabil, bere aldiko garbikeri batzukaz «apainduta». Aldian aldiko.

Lora eder batzuk

Garaille

**«Ipar-aizeak ego-alderantz
bartzertu ditu odei lodiak;
mendi ertzetik urrezko brintzak
agertzen deuskuz euzki-argiak;
zoragarriro, apain jantzirik,
ibar-zelaiak, baso-mendiak;
Izadiaren edertasunaz
geldurik dodaz biotz-begiak.**

(3) Lekuona Manuel, «Basarriren bertso sorta» liburuaren itzaurrean.

Basetxetxuak edur irudiz,
teillatuetan uso zuriak;
ardi ta bildots eta abar larran...
abiagiñen bizkor txoriak;
goi-beietako eresi gozoz,
alaiki zar ta gazte guriak;
bakotxa beren lanetan, zintzo,
zorun-itxaroz, dabiltz guztiak.

Itxaso zabal, zelai oztiñan
itxas-txoriak dabiltz igesi;
ara-onaka, noizpeinka egaz;
lan eta jolas... pozaz dirudi;
eurak dakie, ondo jakin be,
nundik nora ta zelan ibilli;
onein zorunak bekaitz zitala
sortuten dautse... itxas uiñari.

Iñoren onik ikus-eziñak
senetik urten eragin dautse;
zelaiak montor biurtzeraiño
danak baturik naste-borraste;
aurrean artzen daben guztia
jo ta lertuko dabela uste...
arropuzturik ibilli arren,
nok lortu, baiña, uste daben beste?

Esker-eskuma, txori zintzoen
ganera dator gorroto bitsa;
txoriak, baiña, egoak dabez,
uiñai uts emon, egaz gorantza;
uiñak amorru-abiadeaz
jo dabenean aurreko aitzia

lertu dira-ta... txoriak, barriz,
garaille dabiltz igeri, dantza» (4)

Esakerak

«Aurten bauku gariten!»
«Olerkitxu bat egin nai dautsot egi-egia dalako»
«Ganera, barriz, zetan esan bez,
maite bakotxak bereak»
«Ene seme gaiztotxuak,
aita jagok ona,
zein bear egin dozuen
jakin daunik ona!
Baztarren lotsagarriok,
or basorik-baso,
sasi-eskola eginda
ibilli zare atzo»
«Orain gaiagozak onak,
ene anai Pakun!
A zelako txibit-otsa
atarako dauskun!»

Iztegia:

Elia: Ele, izkuntza.

Zorun: Zorion.

Oztiña: Urdiña, azula.

Igesi: Igeska.

Bekaitz: Inbidi.

Uiña: Olatua.

Lertu: Desegin, errementau.

(4) «Enbeita oleskaria», 139-garren orrialdean.

URIARTE MARTIN

1879-1960

Nor zan

«Burua argi, samea garbi, zer-esan ugari, bularra indartsu beti, edo-
noz prediketako iñoz be ez nagi, nainora joateko beti zoli, Bizkaiko pulpi-
tuak, Aita Martin, ba dakie zure barri» (1).

Gure sermolari karmeldar entzutetsu au Zeanuriko semea zan.

Larran (Amorebietan) eta Alesbesen (Naparroako Villafrankan) egin
ebazan fraile-ikasketak. Eta ogetalau urtegaz mezadun izan ondoren, frai-
legeien irakasle izan zan.

«Karmengo Argia» illerokoaren zuzendari bere izan zan aldi baten.

«Martiaritu» erabilten eban izenordez bere idazlanetan.

Idazlanak

Gauza jakingarri asko idatzi ebazan Aita Martinek. Baiña bere idazla-
nik ederrenak «Egi biribillak» eta «Baserri gaiak» dira.

«Karmengo Argian» argitaratu ziran.

(1) «Karmengo Amaren Egutegia», 1954, 62-garren orrialdean.

«Egi biribillak» errefran antzeko jakituri tantakadak dira, asko berak asmaurikoak eta asko beste izkuntza batzuetatik itzulitakoak. Ez dakit zenbat diran guztiz; baiña liburu eder bat egiteko beste bai.

«Baserri gaiak», baserri-lanetarako ikasbide tantakadak doguz, eta mordoak dira oneik bere.

Euskera erreza darabil geienetan Aita Martinek, erritarkeri eta garbikeri batzuk kendu ezkeru.

Lora eder batzuk

Egi biribillak

«Gizona ta txakurra ixilik, kontuz igaro olakoen ondotik».

«Astoakaz ibilli, ta arrantzaka berez ikasi».

«Egingo dot, beti diñoanari, ez siñistu larregi».

«Neu ondo ta besteak or-konpon, olangoa ez kristiñau, ez gizon».

«Nai gari, nai galtzu, emon ezkeru ixilik artu».

«Ildiak beti bardin abestu, «mu» asi ta «mu» amaitu».

«Ardaoa ta txaloak, alkarren antzekoak; gitxik adoretu, larregik mozkortu».

«Barriketa luzea, ezta izango guztia egia».

«Batera ezin egin guk, putz eta zurrut».

Baserri-gaiak

«Baserrian bizi diranak, egualdia igarteko gironeurri edo barometro merkeak etxe inguruan eta basoan daukez, abere ta egaztietan zerbait oartu ezkeru.

Txakurrak lozorroan lelotuta lez gelditu oi dira euria laster danean.

Katua, atzaparra belarri osterera eroanda, gitarra joteko plantak egiten badabil, egualdi okerra dator.

Oilloak zorriketan ba diardue, odei-lañoak goirik bera zeozer bota gura dabe.

Astoak, belarriak astindurik, arrantza luzeagoak egiten badabez, soloko bedarrak batu, buztiko ezpadira.

Erleak, bizkor eta arin, erletegira egapetuten ikusten badozuz, euria edo ekaitza laster elduko da.

Txoriak lumak garbituten eta elaiak lur inguruan dabiltzanean, ordu jixi barru zaparrada on bat izango da.»

Esakerak

«Abendua etxeratu ezker, negu baltz zekenaren bustarriean aurkituten gara. Neguak geien baten emoten dauskuna auxe izaten da: Edurra ta izotza, gau luzea ta egun motza, kolkoan gosea ta oiñetan otza».

«Abustuak urrengorarte esan ezker, udaldiari laster entzungo jako: Gureak egin jok».

«Orreik eztoguz kaletar askoren antzeko «nunzebarri».

IBARGUTXI JUAN GURUTZ

1883-1969

Nor zan

«Lenengo ta bein, abadetzan, apaizgoan, jardun izan dot nik, bai emen, bai atzerrian. Txolarteetan ekin izan dautsot idazteari» (1).

Bizkaiaren mugan, Ubidean, jaio zan Ibargutxi Juan Gurutz abadea.

Abadetzako ikastaldiak Bitorian egin zituan. Eta, gero, Cestafe, Marin, Eskoriatza, Badarán de Logroño, Eibarren eta Basaurin egon zan abade.

Idazle ugaria dogu abade on eta jakitun au, Jaungoikoaren Itza euskeraz zabaltzen ainbat lan ixil eta neketsu egiñikoa. «Txolarteetan ekin izan dautsot idazteari», diñosku berak; baiña bitarteok ondo aprobetxau ebazan, antza.

Idazlanak

Idazlan sakonak, benetan, Ibargutxirenak! Izan bere, bere aldiko Teologia guztia euskeratu eban. Begira:

«Edesti Deuna» (1936).

(1) «Siniskaiak», itzaurrean.

«Jaungoikoaren Legeko Aginduak» (1936, 1953). Bi aldiz argitaratua.

«Geroko bizitza» (1954).

«Otoia» (1955).

«Siñiskaiak» (1958).

Gaiñera, argitaratu barik gelditu da bere liburu bat: «Mezadia: Urte guziko mezak» (2).

«Nik asmautako gauzarik ez dau ezertxo bere azalben oneitan. Eleiz-irakasleak irakatsi izan dabenetik artuta dagoz.

Irakurgai bat edo beste zail samar egingo jatzuz, ausaz. Ez gure izketari errurik ezarri. Berez dituzu sakonak eta, beraz, gure ezaguera edo adimenarentzat, ulergaitz.

Alik eta argien eta garbien idazteko alegin egin dot. Itz barri gitxi dituzu» (3).

Ibargutxik darabilzan gaiak zail samarrak dira, bai. Baiña euskera aldetik bere (berak alan uste izan ez arren) zail samarrak dira.

Euskera ondo ta sakon daki; baiña (bere aldiko semea dogu au bere-ta) beti berba garbiak erabili gureak kalte andia egiten deutse bere idazlanen argitasun eta gozotasunari.

Beste euskalkietatik artzen dauz itz asko. Aranatarak asmaurikoak bere ainbat artzen ditu. Gaiñera, euskera zaar zalea da. Eta, jakiña, orrek astunagotu egiten ditu bere gai astunak.

Dana dala, ondasuntegi bat dira Ibargutxiren liburuak.

(2) Orixeren «Urte guziko Meza-besperak» bizkaieratuta.

(3) «Geroko bizitza», itzaurrean.

Lora eder batzuk

Zorion irritsa

«Zorion billa gabiltz gizon oro.

Atsegiña, zoriona deritxon zerbaitek erreta daukoz gure biotzak.

Atsegin griña ori bere barrenean somau ez daroan gizonik ez da. Batzuk, erreago, nabarmenago, sumiñago; beste norbaitzuk, motelago, epe-lago, baretsuago; baiña, gitxi geiago, guztiok dogu biotza gexo, guztiok gara biotz-min.

Zorion billa, zorion amesetz gabiltz; ez, arean, bide batez. Batzuk, zorioneko izatekotan, zintzo izan oi dira; beste batzuk, oker ta gaizto, zorionerako bide laburragoa ori dalakoan. Batzuk gerrazale, beste batzuk bakezale, baiña bitzuok zoriona dabe egite ta jardueraren buru.

Gure gogoak ezin legike ezertxo bere egin zorion amesetz izan ezik. Burua urkatzen daben gixaxoak eurak bere, zoriontsu izango diralakoan dagie gaiztakeri izugarri ori.

Naiz onak, naiz txarrak dirala, gure egintza guztiak zorion egarria dabe gorengo eragille ta elburu.

Gizartean ez da, ordea, zoriontsurik. Agintari ta menpeko, aberats ta beartsu, ugazaba ta langille, jakitun ta ezjakin, sendo ta aul, len izan diranak eta orain diranak, aldi ta alde oro, gizonak artega dakuskuz; zoriona nai ta zorionik ezin jaritxi. Ta gizartea landuago, aurreratuago, asma-kizun barriak ugariago ta zorion egarri ori sumiñago, ta zoriona urriñago.

Menpekoak agintaritzan, beartsuak aberaskizunetan, langilleak ugazabatzen, tentelak jakituri ta zurtasunean, gexo ta aulak osasun eta sendotasunean datzala zoriona uste dabe. Ta, ortik, gizonetan alkarren arteko gorroto ta burrukak. Arako basamortuan, egarriz itoten dagozan bideztiak, ur bizidun iturria agertutakoan, alkar bultzaka ta joka, zein lenago iturrira eldu ta egarria asetako dranga-dranga, edan ta edan daragoioen legez, ala-

koxe amorrur, alkar joka, alkar ilten, etzun doiaz gizonak emengo ondasu-
netara.

Baiña zer? Aseta jaikiten al dira? Zoriontsu ete dira? Ez, bein. Eda-
nago ta egarriago. Sukarrez barrua legortuta, kedartuta, daukan gexoak,
iturriko ur garbiz ames dagi; baiña ur ori edanago ta bere pautsak lego-
rrago ta erreago geratzen dira.

Etxalde ornitua, jantzi bigunak, janari gozo ta ugaria, edari bizi, atse-
den aldi luze, bero, epel, eguraldi argi... opa legikean guztia emon. Ase
izango al da giza-biotza? Zoriontsu izango ete? Bai zera! Opa alak emon
arren, beste zerbaiten irritsak irrikatuko gaitu. Emon, ba, beste zerbait
ori. Tori zurrutada bat geiago. Baiña... alperrik. Lenaz ez gara, orraitino,
aspertzen. Geure buruari iruzur egiten dautsogula oartzen dogu. Baiña
lena ta oraingoa ez dira bardin-ta, ia emen dagon, ba, gure zoriona... Ta
olantxe doa gure bizitza: iruzurrik-iruzur, eriotz illunpean jausi arteraino.

Zer ete dager, beraz, zorion irrits orrek? Gure oiñazerako bakarrik
sortu ete daroa Jaunak giza-erraietan sustraituta dagon zorion griña ori?

Gizona nozbait zorioneko izan dala ta orain bere izan daitekela ager-
tu daroa griña orrek. Irrits bizi ori ez dau Jaunak guban alperrik sortu.
Zoriontsu izan geintekoz, ez gure alegiñez, Jaunaren erruki ta laguntzaz
baiño» (4).

Esakerak:

—«Nongoa ete zaitugu andra on ori?

—Ni zerukoa nozue».

«Ez izatetik izatera, berez danak, izan danak, ekarri gaitu».

«Gizon artoa beti gixon!»

(4) «Geroko bizitza», 7-garren orrialdean.

«Ni egiña naz. Zu bere bai. Nik ez dot neure burua sortu. Ezta zuk bere. Utsetik erne ete naz, ba? Utsa ez da ezer».

«Orixe bai gauza arrigarria! Ta egia dala kontuizu».

«Zetan esan bere ez, Jauna. Asko be askoz pozago ta alaiago nire barrua garbi ta Jaungoikoagaz adiskide nazanean».

Iztegia:

Atzerri: Erbeste.

Txolartea: Bitartea.

Ausaz: Bearbada.

Irritsa: Guraria, naia.

Arean: Beintzat, ziurki.

Gixaxoak: Gizajoak.

Dagie: Egiten dabe.

Izugarri: Ikaragarri.

Aul: Kaden, makal.

Dakuskuz: Ikusten doguz.

Datzala. Dagoala.

Daragoioen: Diarduen, dabiltzan.

Sukarra: Kalenturea.

Irrikatu: Gura izan.

Tori: Artu, koiu.

Iruzur: Engaño.

Oartzen gara: Konturatzen gara.

Dager: Agertzen dau.

Dagi: Egiten dau.

ETXEBARRIA TORIBIO 1887-1968

Nor zan

«Zuzen ibilli eta
jarraitu onena;
lora eder guztieri
ezti billa eztena;
ta iñon txarra nai gabe
itxain gure azkena» (1).

Orra or, gure euskal-idazle onen jokabide ederra.

Eibarren jaio zan Etxebarria Toribio. Eta erriko eskolara ibilli ondoren, damaskiñazalle ofizioa ikasi eban.

Baiña, ogetasei urteko zala, Aiuntamentuko sekretaritzaren eskribiente sartu zan.

Izan bere, «letretan dan guztia jakin bearrean», asko leiduta ta ikasita egoan ordurako. «Ez zan pasau iñungo eskola nausitik, baiña berezkoa ekarren. Bere buruz ikasi eban dakianik geiena» (2).

(1) «Ibilarixanak», 138-garren orrialdean.

(2) San Martin Juan, «Ibilarixanak», itzaurrean.

Gero, aldi aretako Eibarko sozialismu-giroan, ALFA sortzen eta aurrera ataratzen berak egin eban bearrik geiena, ta bertako zuzendari izan zan amabost urtean. «Bere azierturik aundiena, dudarik barik, armagintza-tik josteko makiñak egitera aldatzea izan zan» (3).

Azkenengo Errepublikarean asieran, CAMPSA-ren ordezkari izateko izentau eban Gobiernuak, eta iru urtean ordezkari izan ondoren, azkenean bertako zuzendari egin eben.

Baiña gerratea sortu zan eta erbesteratu egin zan.

«Eta urteak joan ta etorri,
ta urteak etorri ta joan,
au mundu zabal guztia
ziero ibillita eban;
ta bere kapelapeko
igartutako arpegian,
zeru urdin guztietako
laztanen gozoa zeroian;
bideetako ikuskizunen
ederra begien barruan,
eta ia egun urteko
soñuak belarrietan» (4).

Erbestean euskaltzaletu zan, gizon eldua zala; erbestean alegindu zan

«Norberana ezagutzen
norberana maitaturik,
norberana jarraitzen
ta norberana jasorik» (5).

(3) Ibidem.

(4) «Ibiltarixanak», 308-garren orrialdean.

(5) Ibidem, 163-garren orrialdean.

Eta leidu ta idatzi, bere Eibar kutuna gogoan ebala, lan ederrak egin ebazan.

Idazlanak

Liburu asko irakurri ebazan gure «Ibiltarixak».

«Baiña bat —Biblia Sacra—
nere bizi guztirakoa;
milla urtean baneu be
ezin agortutakoa» (6).

Idatzi bere ainbat liburu idatzi ebazan. Begira:

«Flexiones verbales de Eibar». «Euskera», 1963-64. «Su extraordinaria capacidad de trabajo, su conocimiento de idiomas, así como su sano criterio y orden, han hecho posible que en pocos años su labor sea tan copiosa. Y entre sus trabajos descuella, por el interés que representa el conocimiento de las formas de conjugación eibarresa en su doble aspecto de habla local y contribución al tan deseado atlas lingüístico del vascuence, el metódico estudio de las flexiones verbales de Eibar» (7).

«Lexicón del euskera dialectal de Eibar (Arratetikuen izketia)». «Euskera», 1965-66. Lan ederra ta sakona, benetan, auxe bere, bere emazteak lagunduta egiña. Amar milla berba inguru dira, eta berba bakotxaren ondoan, zelan erabilten dan adierazoteko, folklore, esakerak, istoria atalak eta abar dakarz.

«Ibiltarixanak». Zarauz, 1967. Bost liburu batera. Lenengo liburu biak poema antzera eginda dagoz, itz-neurtuz, Biblia, Eibar ta «Ibiltarixaren» ibilteak oiñarritzat arturik. Irugarren eta laugarren liburuak, «olerki» txortak dira. Eta bostgarrena itzulpen bat da, itz-lauz: «Testamentu Zarreko iru andrakume», «Tobias» eta «Job», eta «Margarita Nafarruako erregiñan ipuin batzuk».

(6) Ibidem, 346-garren orrialdean.

(7) San Martin Juan, «Euskera», 1963, 54-garren orrialdean.

Liburu orretan agertzen da Toribioren fedea, jakituria, izadi-zaletasuna, gatza..., Toribioren gogoa ta biotza.

«Ondakiñak». Argitaratu barik.

«Euskera», «Euzko-Gogoa», «Egan», «Olerti», «Eibar» eta beste aldizkari batzutan bere argitaratu ebazan idazlan batzuk. «Arratetiko bat» erabilten eban batzutan izenordetzat.

Erderaz bere idatzi ebazan bost-sei liburu (8).

Azkue Eusebio ta Arrese Beitiaren antzera, erri-olerkari bat dogu Toribio. Eta Euskalerrria ta euskaldunak (Eibar ta eibartarrak, batez bere) ezagutzeko berebizikoak dira aren liburuak.

Euskera aldetik bere, Azkue ta Arrese Beitiaren girokoa dirudi. Erri-erriko euskera darabil (Eibarkoa), erritarkeri ta guzti; eta itzez, aditez ta esakeraz oso aberatsa da. Eibarko euskera «mordilloaren» kontra berba egiten dabenak ixiltzeko erakutsi ederra.

«Ya verán mis buenos amigos de Eibar, que aunque no he dejado de hacer algún esfuerzo para ahorrar erderismos en el léxico habitual de lo que fue la Casa del Pueblo, los corrillos de la Plaza de Unzaga, las veladas de Lagun-arteá y los cien mentideros de la villa en que se discutía lo divino y lo humano en el viejo habla que hubimos de nuestros padres, no he tratado de hacer agua destilada, un producto químicamente puro que no le va bien a la salud. El agua potable que sirve a la vida, es la que descende de la montaña arrastrando consigo ciertos elementos minerales que arranca a las entrañas de la tierra al pasar por los distintos yacimientos de su recorrido, y que desde el punto de vista de la química le son extraños» (9).

(8) Ikusi: «Ibilarixanak», itzaurrea, eta «Escritores euskéricos», 73-garren orrialdean.

(9) «Ibilarixanak», 237-garren orrialdean.

Lora eder batzuk

Gure klasikuen esakerak

«Ara zer pasatzen dan
oingo gizonekin:
Danok begi ederrak
t'alkar ikusi ezin»

(Maltienpo)

«Gaurko mundu zar onek
badau zer zuzendu;
ba, beargiñan goseak
alperrak gizendu»

(Mitin baten esana)

«Lotsi' zenbat norberak
gitxiago euki,
ainbat geiago al emon
asko daukanari»

(Kaitano)

«Sekulan amaitzerik
maiteen kontuak;
esan, esan t'esanda,
beti esatekoak»

(Bartoloneko armalleak (10))

«Gure» zan Ego

Gure Ego, noizbaiten ziñan ederra!
Zenbat bidar zaitut bururatzen nik,
neskatxa garbi bat bez'la, Bizkaitik
barrez ziñanean zu Eibarrera!

Jainkoak zitun letz ein, ala ziran
mendi-basoetatik orduan zure urak;
pozturik, barritu ibai inguruak
Maltzaaruntz zeroiazun kale-jiran.

Sort'iturrietan bezin zintzoak,
barrez ta saltaka arri artean,
lo, milla osiñetan eiñaz bidean,
aukera izan zeixen zure arraintxoak.

Gazterik orduan zuk zenbat lora
eta zenbat toki eder alboetan,
gutar illena izan zeñ amesetan,
eta etzinda, begiraturik gora!

(10) Ibidem; 185-garren orrialdean.

Txoriak kantari, zure auzoetako
lagun, umeak atar'tzen abian;
fritziren bat noizik bein igarian
gizonon bildur, urrin nai zalako.

Zer keriza-leku zoragarriak,
bai luze etzinda bat an gura bazan
edo irakurri nai zerbait loratzen,
edo maitetsu alkartu gazteak.

Martiñeta, soiñeko pintauakin,
zan, ur-bazterretan arrainzari;
bustanikarea, arririk-arri,
jolas baten ainbeste jatekokin.

Ez ezik zendun uretan arraiña:
eskal, eskaldarro eta sargua;
zidarrezko loiñak eta bargua;
kangreju, aingira eta amorraiña.

Loiñak, azpi-zuri, bris-bristadaka,
eguerdiko ordu bero sargorian;
gorde guran sarguak arri azpian,
t'azalean, eskal-zeia millaka.

Amorraiña, Arkatxpetik zan gora,
bargua, Azitaingo zubitik bera;
kangreju atzekorra, ur korrontera,
aingirak nun-nai, ba eben gorde nora.

Baiña nundira gaur ondasun arek?
nun a zan ederra Naturaleza?
Nun orduango gauzen loitu-eza,
ardura ez badau be oin ortariko ezerk?

Len franko zenduzen ur aberatsak,
auzoak diran'tik asi ta egarritu,
itur-buruetan detsuez artu,
zure urtzu garbiak biurtzek'baltzak.

Ta beste dirugin zazkar batzuk,
naikoa ez zala lapurreta au,
edozenbat ondar detsuez nastau,
ustel usaiña ez deizun falta zuk.

A, gure noizbaiten ibai garbia!
Ikusirik zure ondamendi ori
—ziñanetik zertara zaran etorri—
neugan dot itzuli nere begia.

Ba, neuk be, urteak ditudanetik
geiago umetango garbitasun a!
Ufal aundi askoren larritasuna
igaro da nere biotzan zubipetik!

Baiña nere zorionari eskerrak,
ufal guzti orrek, ez deste onaño,
basoetako bustin gorria baiño,
eta ez antsitutzen diran loikerak!» (11)

Esakerak

«Zer dala barik bota ninduen kalera».

«Aberatsak geiago guran bizi izaten dira».

«Gure, ai, gauza guztiak,
mundu arlote onetan,
beti badaezpadakoak
zori arin baten eskuetan».

«Izatea daben gauza guztiak, aldean, nai ta ez, euren bai ta eza».

«Trumoi dringi-drango zatarren batek ez deion urteko izardi guztia
utseratu».

«Silojismo uts otza».

«Ego-aize epelak

(11) «Ibiltarixanak», 143-garren orrialdean.

zeru garbia orrazten,
ta dantzan bezela orbelak
aize-bietara batzen».

Iztegia:

Ziero: Zeatz, guztiz.

Egun: Eun.

Lotsi': Lotsea.

Bez'la: Bezela, legez.

Atar'tzen: Ataratzen.

Frizti: Pizti.

Martiñeta: Martin-txoria.

Arrainzari: Arrantzale.

Eskal: Eskallua, kaskallua.

Diran'tik: Diranetik.

Detsuez: Deutsuez.

Ufal: Uriola.

Deste: Deuste.

Onaño': Oraindiño.

ARRUZA MIKEL «ARRUGAIN» 1890-1966

Nor zan

—«Txotxo, nungua aiz i?

—Ni emengoa, jauna; bilbotarra.

—Bilbotar ume sosterria izan eta euskeraz dakik?

—Bai, jauna. Gurasoak euskaldunak ditut.

—Nuntarrak dituk, ba?

—Aita, Mungikoa eta ama, Gatikakoa» (1).

Bilbotarra izan zan eta Bilbon bizi izan zan Arruza Mikel.

Bost urte ebazala, aita il jakon; eta Algortako izeko-osabakana, joan zan biziten. Eta amazapi urtegaz etorri zan barrero, bere amaren ondora, umetxotan ikasitako euskera erdi aztuta. Baiña, non eta Bilbon, berealaxe euskalzaletu zan eta ondo ikasi eban euskera. Eta, arrezkero, non edo

(1) Mutikotxoa zala, Arruza Mikelek Azkuegaz izan eban alkar-izketa. Ikusi: Erkiaga Eusebio, «Arrutza ta Egia'tar Mikel», «Olerti», 1967.

an, euskera ikasten eta irakasten ibilli zan: Diputaziñoko ikastolan, Ribera kaleko eskoletan eta bere etxean; bere etxean batez bere (2).

Amakatxu idazlan egin ebazan aldizkarietarako edo egunerokoetarako bere. «Euskaldunak euskaltzaletzea da gure asmo bakar-bakarra» (3).

«Euskaldun leial, zoli, trebea, Arrese Beitia izan zan,
euskeran alde bere biotzaz, bere gogoaz, lan ta lan,
nekatu barik, atsedean baga, illarterako jardunaz;
berau langoak bear gendukez gure Euskalerra maitean» (4).

Arrese Beitiaren antzera, maite-maite izan ebazan Arruzak bere emazte ta seme-alabak; Arrese Beitiaren antzera, «euskeraren alde bere biotzaz, bere gogoaz, lan ta lan, nekatu barik, atsedean baga...» ibilli zan. «Berau langoak bear gendukez gure Euskalerra maitean».

Idazlanak

Bai itz-lauz, bai itz-neurtuz, aldizkarietan eta egunerokoetan argitaratu dira Arruza Mikelen idazlanik geienak: «Euzkadi»-n (1913-33 bitartean), «La Gaceta del Norte»-n (1933-36 eta 1956-58 bitartean), «Argia»-n, «Eguna»-n, «Ekin»-en, «Jesusen Biotzaren Deia» an, «Karmel»-en eta «Oleriti»-n.

Baiña liburu batzuk bere egin ebazan:

«Método práctico para aprender Vascuence». Bilbon, 1925-garren urtean.

«Euskera ikasteko bide erraza». Bilbon, 1933. Euskera Berlitzzen era-
ra ikasteko metodua. Bi aldiz argitaratu zan. Itzaurrea Azkuek egifia da,

(2) «Gogoragarria da ikasleen artean, arako abade ikaslea. Sei illabetean ikasi eban eta, arrezkero, semoiak be, euskeraz egiten ei zituan». (Erkiaga Eusebio, «Oleriti», 1967.)

(3) «Izkuntza tantakadak», «Karmel», 1961.

(4) «Oleriti», 1960.

ta «aspaldiko adiskide» dauan Mikelen gogoia adoretu gurarik-diardu gure erraldoi odol-gorriak: «Ekin, Arruza, zure lan eder orri; ekin alemana bai-zen gaitza ta zala dogun gure izkera zar eder onen ikastea erraztu, li-raindu ta atsegindu arte».

«Etxe-kalte». Bilbon, 1934. «El Judas de casa», Truebaren ipuin lu-zearen itzulpena.

Euskera asko daki Arruzak; baiña «euskaldun barri» usaiña darioe, batzutan, bere idazlanai.

«Ogibideak emon eutsan bere bizitzan naikoa zeregin eta ez eban astirik izan ikasketa sakonak egiteko. Bestalde, ez eutsan Jaungoikoak emon alako doai berezirik, esaterako asmamen zolia, irudimen artoa, idazle-kasta eta abar, arnasa aundiko lanei ekiteko bearrezko direan zerak» (5).

Lora eder batzuk

Mateo indianoaren etorrera

—«Don Jose aitatu dogun ezkeru —egin eban Marik— zer dala-ta ez ete da etorri bera, gaur goizean onantza?»

Gaur Kastro aldetik dalako, bere loba indianoari bidera urteteko as-moz —jardetsi eutsan Martinek.

—Gaur dator, beraz, bere lobeia? Asko poztuten nau orrexek! Ea zure anaiaren barri izaten dogun!

—Jaungoikoak gurako al dau! Izan bere, arritzekoa da, gero, Mejiko-tik idatzi euskunetik ona, ainbeste denporan bere barri barik egotea! A il egingo zan urrean; bizirik balego, ez dago bera guri orrenbeste denporan idatzi barik.

(5) Erkiaga Eusebio, «Olerti», 1967.

—Olan uste dot neuk bere, Martin. Berak guganako daukan maitetasuna ez da iñoiz izan badaezpadako edo guzurrezkoa; ba, atzenengo egin ta bidaldu euskun idazkia ezin izan eitekean argiagoa.

—Bai, a zelango senidea! Txerrenek eroango al dau! —esan eban Batxik.

—Ene Jaungoiko laztana! —egin eban Marik— Zuk daukazu biotza, ene semea!

—Iñoiz bere ez dauku txanpon bakartxo bat bidaldu ta, zer ardua dauku guri bera bizi bada ezpada?

—Ni neu, beintzat, bizirik dagola jakinda, sano poztuko nintzake —erantzun eban Martinek—, naiz ta etxe bete urre euki, ta guri ezertxo bere emon ez.

—Baiña Mateo, Don Josen lobeia, Mejikotik al dator? —itandu eban Jonek.

—Nik ez dakit —jardetsi eutsan amak—, baiña andik ainbatetik izan bear dau, Indietatik eta aberastuta ei dator seguru bere-ta.

—Don Josek olango suertea egiteak sano poztuten nau, on-ona da-ta —egin eban Martinek.

—Iso! —esan eban Batxik— Gaztaiñaditik datozen areik, ez ete dira eurak izango gero? Bai, bai, an dator Don Jose. Erromako otiña aitatu ezkeru...

—Ixilik egon zaitez gaizto ori! —erantzun. eutsan Marik— Ez deutso ba Don Joseri otiña esaten!» (6)

Esakerak:

«Lotsarik ez daukazu, lotsarik?»

(6) «Etxe-kalte», 11-garren orrialdean.

«Komediantekerietan ibilteko alagalakoa izango ziñakez zu gero!»

«Ezin baiña iñondik iñora zuka egiten oitu!»

«Zuzen dago egon bere, aita —esan eben bateratsu lñakik eta Jonek».

«Aiko maikoetan ibilli barik, zirt edo zart egin bear dogu beingo baten, eta arazo astun au bein betiko atondu».

—«Eskerrik asko, Mikel.

—Zer esker ta ze...!»

«Ze berori ta berori ondo!»

Iztegia:

Jardetsi: Erantzun.

Urrean: Antza, aurki, noski.

Txerrenek: Deabruak.

Txanpon: Lauko, diru.

Sano: Ask.

Otiña: Doillorra.

Alagalakoa: Aproposa, apartekoa.

GARRO BENARDO «OTXOLUA»

1891-1960

Nor zan

Ona emen beste idazle jator bat: Garro Benardo, «Otxolua», euskera barru-barrutik ezagutzen eban idazle trebea.

Mundakan jaio zan. Eta eskoleari itxi ondoren, Komerzio karrera egin eban Bilbon.

Gero, emeretzi urtegaz, Arjentinara joan zan eta antxe bizi izan zan zazpi urtean. Euskaldun asko ta alde askotakoak ezagutu zituan an, eta, jakiña, bere euskera aberastu egin eban, «bere» euskera «gure» euskera biurtu jakon.

Bere jaioterrira etorri zan barriro, 1927-garren urtean. Eta ezkondu, ta Mundakan eta Bilbon, bein banan, bizi izan zan arrezkero.

Gizon ona ta alaia izan zan eta euskalzale fiña. Berak esaten eban ez, txikitatik izan zan euskalzalea, ta euskerazko meza-liburuak, bertso-papelak, asterokoak eta abar, oso atsegingarri izaten jakozan. «Batez bere, Añibarroren «Esku-liburua» izan ekidan irakurgai eta irakaslerik atsegiñena» (1).

(1) Villasante, «Historia de la Literatura vasca», 119-garren orrialdean.

Euskalzaletasunak eraginda, ikasi ta ikasi, asko ta ondo ikasi eban, ta euskal-idazlerik jatorrenetarikoa biurtu zan.

Goazan, bada, gure idazle bikain eta apain onen idazlanak aztertzerá.

Idazlanak

Ainbat idazlan egin ebazan Otxoluak, eta «Euzkadi» asterokoan argitaratu ziran geienak. Eta itzulpenak dira geientsuak. Baiña zelango itzulpenak! Ona emen Otxoluaren aparteko zer bat, zera: Euskeratu barik, euskaldundu egiten ditu beste izkuntza batzutako idazlanak.

Euskeratzalle ona izatea ez da gauza erreza. «Uste dan baiño gatxago ta neketsuago da euskerazko biurketak egiteko arazoa. Esan daiela, bestela, jostunak, gurasoen soiñekoakaz seme-alabentzakoak egitea zeinbat neketsuagoa eztaben izaten, dendarik arako eun-miesa oialakaz egitea baiño. Alosak arduraz artu, adabakiak kontuz ezarri, azpildurak zee zee egin, eta aletxe zaarrak jasean estalduarren, soiñeko zaar barriraztua guzur-agiñak eta odei euritsuak baiño bere errezago ezaututen dau begi lausoak eztaukazanak. Liburu euskeratuak, barriak izan arren, beti dauke zaar-antza; baserriko aize artean sortu ta jaio ta aziak izanarren, erdal-urí usaiña etxake joaten. Ezarri bekio oni arazoaren gaiztasuna ta edozein egongo da atzerea biurketan asteko» (2).

Euskeratzalle ona izatea ez da gauza erreza. Baiña Otxolua euskertzalle ona be ona izan genduan, euskeratuten bakarrik barik euskaldunduten ekialako.

Zoritxarrez, sortzailleak baiño euskeratzalleak ugariago izan dira gu-rean, eta, gaiñera, batzuk euskeratzalle txarrak izan dira, euskaldundu barik euskeratu bakarrik egin dabezalako erderazko idazlanak. Berbarako, erderazko «cuánto nos reimos aquel día» euskeratzeko onelan egin gein-

(2) Azkue R. M. «Ipuiñak», 207-garren orrialdean.

ke: Zenbat barre egin genduan egun aretan! Baiña obeto egongo litzake onelan euskeratzea: Barretan egin genduan egun aretan! Auxe da, izan bere, euskaldunduaz euskeratzea.

Orretan maisua dogu Otxolua. Ikusi, adibidez, zelan euskeratzen dituan erderazko errefran ezagun batzuk:

«Entzun, ikusi ta ixi, baketan nai badozu bizi».

«Eztago gorrik gorrakorik, entzun gura eztauana langorik».

«Ulertzalle onari, itz gitxi».

Otxoluaren idazlanik onenak oneixek dira:

«Bertolda eta Bertoldin (Bertoldaren maltzurkeri zurrak eta Bertoldinen txaldankeri barregarriak)». Giulio Cesare Della Croce italiarrak amazpigarren gizaldiaren asieran egindako liburu barregarri ta famau baten itzulpena da.

«Biar Donianera».

«Euskalerriko Abere eta Piztiak». Inglesetik eta erderatik eratuta.

«Abere ipuiñak» eta «Abere dontsuak». Inglesetik euskeratuta.

Lapurderazko Barbierren «Ixtorio-Mixtorio» bizkaieratu eban. Olerki ta kantu-letrak bere ainbat egin ebazan.

Eta, azkenez, Gomáren erderazko «Evangelios concordados» bizkaieratu eban. Baiña argitaratu barik gelditu zan.

Euskeratzalle ona dogu Otxolua, benetan. Ésan dogu len. Baiña joskeran, aditzean eta esakeretan bere, esakeretan, batez bere, maisua dogu. Zenbat eta zenbat esakera eder dituan, eta zelango jatortasuna darioen! Euskereari berari bakarrik dagokiozan esakera errikoi-errikoiak darabilz:

«Jagi adi ortik eta idegi egidak atea, bein edo bein idegiko badok idegi».

«Neuk entzun dautsadan-dautsadana diñotsut nik».

«Barrerik egin barik zeugaz orraitino».

«Ako zaparradea atara dabena andra zoro ergelok, eta ezeri eztala, atan be».

Aditzaren zearreko fleziñoak erabilten bere ondo daki.

Baiña Otxoluak bere ba ditu akatsak: Garbikeria ta erritarkeria. Alde batetik, Aranak edo berak asmauriko ainbat itz darabilz; esate baterako, «bakalduna» ta «bakanderea», «erregea» ta «erregiñea» erabilli bearrean. Bestetik, erri-erriak agomiñen erabilten dauan modura idazten dau; esate baterako, «ixan, dözube, matte», izan, dozue ta maite erabilli bearrean.

Bera bere konturatu zan, gerorantza, uts egin ebana. Eta esaten eban, barriro idatziko baleu beste era batera idatziko leukeala.

Idazlanak

Bertoldaren zurtasuna:

—«Zein da izan leitekean gauzarik laster za ariñena?»

—Oldozmena.

—Zein da ardaorik onena?

—Iñoren etxean edaten dana.

—Zein da iñoiz beteten eztan itxasoa?

—Gizon zekenaren diruzalekeria.

—Gazteagan izan leitekean gauzarik itxusiena zer da?

—Esanekoa ez izatea.

—Salerosleak euki legian gauzarik itxusiena zer da?

—Guzurra.

—Zein da etxean izan leitekean surik andiena?

—Otseñen min gaiztoa.

—Nor da daitekeanik ergelena?

—Bere burua jakintsuenatzat daukana.

—Zeintzuk dira osatu eziñeko gatzak?

—Ergelkeria, biziena ta zorrak.

—Nor da amari miiña erretan dautson arako semea?

—Kandelearen babilla.

—Zelan egingo zeunke galbaian ura ekarteko txiztillik ixuri barik?

—Leitu artean itxaron egingo neuke, ta izotz egiñik ekarriko neuzketzu gero» (1).

—«Zein da egunik luzeena?

—Jan barik egon bear izaten dana.

—Buruko uleak zergaitik zurituten dira bizarra baiño len?

—Bizarra baiño leenago jaiorikoak diralako izaten.

—Itsuak eurak be ezagutzen daben bedarra zein da?

—Azuna» (2).

Bertoldinen txaldankeriak:

«Markolbek semea ain amorraturik eta itxura ain gogorretan etorten ikustean, ba diñotso:

(3) «Bertolda eta Bertoldin», 12-garren orrialdean.

(4) Idem, 41-garrenean.

—Zer jazo jak, ene Bertoldin, orren asarre etorteko?

—Urmaeleko ugarasioak eragin deuste amorr.

—Zergaitik, baiña? Iraiñik edo egin daue ala?

—Eurak jakingo dabe zer egin dausten; bai ondo be.

—Lotan egonda edo, karrakadaka iratzartu ete aue, ba?

—Ori baiño txarrago egin deuste.

—Oskiak lokatzez zikindu?

—Milla bidar txarrago.

—Zer egin al izan daue, ba? Esan, bein edo bein.

—Ez al dausku guri bakaldunak kutxatilla bete dukat emon?

—Bai; eta zer?

—Areik pizti madarikatuak etxataz asi, ba, lau baiño geiagorik eztauskula guri emon! Nik, barriz, artu esku bete dukat eta, zapa, jaurti dautsedaz eurak zenbatu dagiezan ia, ta oindiño eurak «lau'kat errukarri» ta «lau'kat errukarri», zoliago, ara bere. Jaurten dautset, orduan, beste eskukada bat, eta gero beste bat, eta, azkenean, diru guzti guztiak, eta alan ta be eurak oindiño abarrots andiagoz: «Lau dukat errukarri, lau dukat errukarri». Azken-azkenean, ugarasio demoniñoook ain setatsu ta burugogor ikustean, amorruez beterik artu kutxatillea bera ta, draunba, jaurti dautset urmael erdi-erdira. Eurak zenbatu dagiezala, orain, banan-banan, eta ikusi dāgiela zenbat diran bakaldunak guri emoniko dukatak. Etxamon; zenbatuta gero, kutxatilla barruan diruak sartzea baiño eztauke ta leorerra edo karelera atera. Orduan joango najake ni kutxatillearen billa eta diruak barruan dituzala ekarriko dot atzera etxera. Zer diñostazu, ama? Ezteritxazu ondo ala, arei piztiai guzurra iruntsi erazoteko egin dodanari?

—Oi, ene errukarria! —egin eban oiu Markolbek— Ene Markolbe zorigogorrekoa! Au bai dala iñok siñistu be ez egitekoa! Baiña zoro, ergel, tentel, zentzunbako, burubako, alako orrek, ori egingo euan egin? Etxa-

kiat zek geldi erazoten jeustaan be, atzamar tartean, berperton, eu ez iratoteko!» (3).

Esakerak:

«A zan izatekoa!»

«Luze eretxita be ba nago dagoaneko».

«Zer emazte ta emazte ondo!»

«Ak egingo deustaz niri txerak eta labankeriak! Barretan egingo dau, barriz!»

«Berau da au mosolorik asko, ta ez txikia be, gero!»

«Oartu egikezu euliak izan oi daben jokerea; kanpora jaurti arren, atzera etorri dakie egiten».

«Tira, kendu egidazu begien aurretik asto atsitu ori ta zeu be nora edo ara aldendu zakidaz».

«Amesetan be etxatan eguno olako deabrukeririk bururatuko».

«Aren arrantzak, aren alarauak, aren diadarrak, amaseikoak emon bearrean lepoa makillaka birrindu bear eutsela ikusieran!»

«Aitearen! An sartzetik otu be egitea bakandereari!»

«Laster izango da emen andra ori, oiñez dator etorri, baiña arin da-bil ibilli-ta...»

«Bertoldinen poza a ikustean!»

(5) «Bertolda eta Bertoldin», 134-garren orrialdean.

Iztegia:

Maltzurkeri: Azerikeri, amarrukeri.
Txaldankeri: Ganorabakokeri, kirtenkeri.
Oldozmena: Pentsamentua.
Otseiña: Kridua, morroia.
Ergela: Burubako, tentel, gangar.
Biziena: Kantzerra.
Babilla: Pábilo.
Txiztil: Tanta, tantakada, tangada.
Leitu: Izoztu.
Neusketzu: Neuskizu.
Urmael: Ur-osin, pozu.
Oskiak: Oiñetakoak, zapatak.
Lokatzez: Lupetzez, basaz.
Ara bere: Oindiño.
Abarrots: Zarata, zarraparra.
Setatsu: Burugogor, temati, zital.
Zenbatu: Kontau.
Etxamon: Ez jaramon, ez egin kasurik.
Karela: Zubi bateko ormea.
Tentel: Ergel.
Berperton: Ber-bertan, atoan, ementxe.
Iratoteko: Ito eragiteko.

JAUREGI GABRIEL

1895-1945

Nor zan

«Aldi gitxi barru, gure gaztediak erdera baiño euskera obeto irakurri, idatzi ta itz egingo jok...

Gazteak nai izatea baiño eztok bear; eta gaztediak gura jok:

«Laster dator eguna;
sorkaldetik agiri da
argi gozo biguna;
bere aurrean bildurtuta
igesi doa illuna» (1).

Amesak ames izaten dira beti, itxurazkoak izan arren. Eta Jauregi Gabrielen amesak bere, orixe, amesak dira. Baiña bizitzan zer-ikusit andiko zer edo zer egiteko, oster, usteontsu ta ameslari samarra izan bear. Eta, orrexegaitik, gure Jauregi bere, usteontsua ta ameslari samarra izan ez balitz, ez eban ainbeste lan egingo Euskalerrriaren alde.

Karmeldarra izan zan gure euskal-idazle au.

(1) «Pisia», 10-garren orrialdean.

Aramaion jaio zan. Eta Bitoriako karmeldarren komentuan egin eban bere bizitzako urterik geienak, ango frailegeiai Fisika ta Kimika irakasten.

Irakasle sakona, argia ta zeatza izango zan Aita Jauregi, bere idazlanak be sakonak, argiak eta zeatzak dira-ta.

Lan asko egin eban euskal-kulturearen alde, bai argitaratu zituan liburukaz, bai «Karmengo Argia» aldizkarian argitaratu ebazan artikulu mordoagaz.

«Aramaio» erabilten eban izen-ordetzat.

Zornotzan, Larrako komentuan, il zan.

Idazlanak

Aita Jauregiren idazlanik txalogarrienak eta goragarrienak liburu bi dira:

«Pisia». Fisika irakasteko ta ikasteko, texto modura erabilteko liburua.

«Kimia». Pisiaren antzerakoa. Kimika irakasteko ta ikasteko.

Gaiñera, len aitatu dogunez, artikulu mordo argitaratu ebazan «Karmengo Argia» aldizkarian: «Izarren goraberak»; «Iturriak»; «Oñaztarria»; «Erlea»; «Mentuak», «Erri-jakintza»; eta abar.

Garbizale amorratua dogu Aita Jauregi. «Euskaldunei euskeraz idazteko gatzen etorten jakuna auxe dok: Gauza guztiak esateko itz zaarrik ez eukitea eta dagozan guztiak ez jakitea... Nik, esan bear joadazan gauzak esateko, itz barri asko asmau bear izan joadaz» (2).

«Pisia» eta «Kimian», batez bere, erderatiko jakintza-berba teknikuen orde, «euskerazko» berba barri asko asmau ditu Aita Jauregi, aldi are-

(2) «Pisia», 10-garren orrialdean.

tako garbizalekeriak eraginda. Eta, jakiña, orrek asko illundu ta astundu dau bere euskera argi ta ederra. Penagarria, benetan!

«Karmengo Argian» idatziriko artikuluetan ez da, orraitino, orren garbizalea.

Lora eder batzuk

Erlea:

«Erletegiak, or-emen or-emen, ugari dagoz.

Erleak egiten daben ezti gozo-gozoa maite izaten dogu.

Erleen bizitza, oiturak, ardurak, arerioak, gaixotasunak eta beste gauza asko ta asko erleetzaz dakadaz gaur.

Erleuntz bakotxak irutariko erleak .eukiten dauz: Erlamea (erregiña), erlemandoa ta erle-langillea.

Erlamea (erregiña) bera bakarra izaten da, ta sabel-ipurdi luzea ta ego-motza. Erlemandoa aundia jatzu, ego luzeak daukoz eta guztiak eundakak izaten dira. Erle-langillea da txikerrena, ta ogetamar milla inguru daukoz erleuntz bakotxak.

Langilleak eztena dauko; ezten au kakoduna da, ta, norbaiteri sartutakoan, ezin atara izaten dau, ta, bertanbera itxirik, il egiten da.

Erlameak be eztena dauko; baiña ezta kakoduna ta, norbaiteri sartu arren, erraz ataraten dau. Erlameak (erregiñak) beste erlameen bateri bakarrik, bere eztena sartzan dautso.

Erlemandoak eztenik eztau.

Erlameak eta erlemandoak eztabe lanik egiten. Erlameak arrautzak ipinten dauz, eta bere arra erlemandoa da. Erlemando guztiak, udazkenean ilten dira ta udabarrian jαιο.

Erle-langilleak ezta egin eta erlemandoak agora jateko emoten dau-
tsie. Erle-langilleak erlamearen zain bizi oi dira.

Langillea nai erlamea, bost urte bizi dira.

Erlameak arrautzak ipiñi ta ipiñi egiten dauz; beste zeregiñik eztau-
ko. Erlemandoak jan eta jan. Langilleak, lanari sendo ebatu ta lanean zin-
tzo ta aspertu barik jarraitzen dabe.

Erle langille bakotxak, izentauriko zeregiña eukiten dau; erle-langille
bakotxak bere egikizuna eukiten dau: Batzuk erlamearen (erregiñaren) on-
doan, bera zainduz, dabiltz; beste batzuk, atezain; beste batzuk, ezta egi-
teko ura dakarre; beste batzuk, lorearen ateardean, barrukoai egotxoakin
aizea emoten, zoli-zoli, ibiltzen dira; langille batzuk argizai-egilleak jatzuz.

Lorearen auts billa doazan erleak, bitariko autsa badakarre, mota ba-
tekoa anka baten eta bestean bestetarikoa ekarten dabe.

Ezti gozoa urdaillean ekarten dabe. Augaitik, urdail bi daukiez: Bata
jatekoa egosi ta sabelera eroateko, bestea ezta ekarteko.

Erleak euren ugazaba eztabe ezagututen. Erleen ugazabak zelan ibilli
(au da, astiro, pirristada barik) ba daki, ta eztauz uxatuten, ta uxatu ezik,
erleak eztabe ezertxu be egiten.

Erlea erleuntz ondoan uxatu ezker, berebiziko arin, asarratu egiten
da, ta bere eztena sartzeko bizkor erabilten dau. Erleuntzatik urrin dabi-
zenez, uxatu arren, bildurrez, lelotu egiten dira ta eztenik eztabe bein-
goan sartuko. Ondo janda dagozanean be eztenik eztabe sartzan.

Orregaitik, ba, erlekumeak ondo janda gero egazta doazalako, ezta-
be, azkenetan baiño, eztena sartzan.

Pekorotz erreagaz sortzen dan keak lelotu egiten dauz eta nora joan
eztakiela jarri, ta lelotaldi onetan eztenik eztaiek sartzan...» (3).

(3) «Karmengo Argia». 1936, Bagilla, 186-garren orrialdean.

Esakerak:

«Aixola buruan be ba egoan kastillo-torre bat».

«Aguretxo batek, mutikoen lan txar au ikusi ebanean, samea luzaturik, asarrez, iñotsan bati: «Artzen baut artu, artutekoak artuko dozak, ba!».

«Laño baltzak orruaka asten diranean, oñaztarriak lañoetatik lurreraiño, sua ta garra darioela, jausten dira».

«Iñor il barik ezereztu zan oñaztarria».

Iztegia:

Igesi: Iges, alde, anka, ospa.

Garaian: Orduan, denporan.

Ateartean: Eteartean, atarian.

Mota: Klase.

Urdaila: Estamangua.

Pirristada: Urak bizkor, derrepente, urten.

Berebiziko: Aparteko, beren-beregiko.

Ebatu: Oratu, eldu.



BUSTINTZA ERROSA **1899-1953**

Nor zan

Izkuntza bat biziko bada, andrazkoak bear-bearrezkoak doguz, batez bere amak erakusten deusolako bere izkuntza bere seme-alabai. Euskera biziko bada bere, emakume euskaldunak bear-bearrezkoak dira. Eta, oraingo egoerea ikusirik, emakume euskaldunak eta euskalzaleak bear doguz.

Oraiñarte, emakume euskalzale gitxi izan dira; banaka batzuk bakarrik. Bustintza Errosa izan genduan orreitariko bat. Eta euskalzale bakarrik ezeze, euskal-idazle bere izan zan; eta ez edozelangoa, gaiñera.

Kirikiñoren lobeia izan zan. Eta Mañarin jaio ta bizi izan zan. «Mañariko Errose» edo «Mañariko» artu ebazan, orregaitik, bere izen-ordekoztat.

Zelango osabea, alango lobeia, Errosa bere idazle jatorra izan genduan. Eta bere osabearen antzera, ipuin-zalea; erriak ezpan-belarri darabilzan ipuin zaar zalea, batez bere.

Idazlanak

Ez eban libururik egin Bustintza Errosak. Baiña bere idazlan guztiak batu ezkerok, liburu ederra argitaratu leiteke. Ain zuzen bere, amaikatxo lan egin ebazan bere denporako aldizkarietarako. «Jesusen Biotzaren Deia» aldizkarian, batez bere, agertu ziran idazlan mordo bat.

Olerki eta kantu-letrak bere ainbat egin ebazan.

Aberatsak dira bere idazlanak etnologia aldetik.

Euskera erreza, errikoia darabil; noizik-bein, garbikeritxo batzuk ditu.

Lora eder batzuk

Mutilla ta muzkerra:

«Igande goiz baten, Otxintxuetako mutil gaztea, ez mezarik entzun, ez ur onetsirik artu, kistarraren ezetariko bearkunik betetu barik, patxaraz-patxaraz, basora joan zan.

Mutilla, joan eta joan, ba joian bidean; eta aurrera ta aurrera egiñaz, mendi gallurrerantza egiten eban beti. Eta bide zati andia olan igarota, sastrakarte batera eldu zanean, pizti narraz batek ezkerreko oiñean, zart, min-bizi mingarria egin utsola oartu eban. «Ai, ene», andi bat egiñaz, begirutzen dau, ta musker andi batek bere oiñean aoa ezarrita eukola ikusi eban. Estutu zan, larritu zan; eta esku-makilleaz zartada errimeak emoten eutsozan arren, ikararik be ez muskerrak, gogor bertan.

Ori ikusita, mutilla, ara inguruetara begi luzez begiraturik, laguntza

eske deadar haten asi zan. Bere deadar zolietara, bertatik, atsotxu bat agertu zan. Eta atsotxu zaarra, mutillaren oiñean alako musker andia ikusi ebanean, gelduta geratu zan. Eta zur eta lur eginda, bere esku biak buruan ebazararik, mutillari erruki andiz esan eutson:

—A..., mutil; ederra daukok aldean! Gaur igandez mezarik entzun dok?

—Ez, eztot entzun —erantzun eutson mutillak, negar muzkerioz.

—Eta ur bebeinkaturik artu?

—Ezta.

Kistar-bearkunak ez ebazala betetu ikusi ebanean, atsoak barriro be bere esku biak burura jaso ebazan, eta, olan luzarotxoan egonda gero, tamal-tamalez esan eutson:

—Ire galdua, mutil, ori olan badok! Orain, pizti orren aoa ire aragitik aldenduteko, iru erritako elizako kanpaiak amar miñutuen barruan ots-egin bearko joek. Bestela... ire zoritxarraren zoritxarra! Muskerra oiñean dokala, or egon bearko dok betiko.

Itz bildurgarriok entzunikoan, mutillak, garratzago negar egiten eban, amar miñuturen barruan iru erritako kanpaiak jotea gatxa be gatxa izango zala-ta.

Negar asko-asko eginda gero, bere begiak begirakune illunez zuzenduta, atsoari abots illunez itandu eutson:

—Eta... amar miñuturen barruan, iru errietako kanpaiak nok joko dauz?

—Besterik ezean, neuk joko joadaz, mutil —erantzun eutson atsoak errukiz—. Ori egiteko, eure obenakaz damututa agoan ala ez jakin bear, baiña... damu az eztok?

—Bai, damu naz —erantzun eutson mutillak bular-joka.

Orduan atsoa, «ondo jagok» esanda, iru erritara joan zan, eta euretariko eleizetako kanpaiak gogo beroz jo ebazan.

Lenengo erriko kanpaiak, bere otsagaz batean esan eban:

«Txalan, txalan; mezarik entzun eztaualako muskerra oiñean».

Bigarrenekoak, barriz:

«Txilin, txilin; ur bedeinkaturik artu eztaualako, muskerrak min egin».

Irugarrenekoak, ostera:

«Txolon, txolon; txarto egiñaz damutu dalako, ointxe bertan zori on».

Eta, azkenengo kanpai-otsagaz batean, muskerra mutillaren ondotik arrapaladan aldendu zan eta bide zidorretik arin-arinka joanda, sasipe baten sartu zan.

Olan mutilla, muskerraren aotik aske geratu zan, oratuaren ezaugarririk be geratuten etxakolarik» (1).

Esakerak:

«Noizik-bein izanda be, andren esana egitekoa da. Sorgin eta lamiña kontuetan atsoak dozak nagusi bai...»

«Tirok, tirok, itxaron egik apurtxo baten».

«Egingo neuke «bestaldeko mutikoak» dagozala bertan! Onako demoniñorik!»

«Eta olako itzak esanda gero, alako baten, alderrezkan polito polito imiñita egozala aurkitu ebezan».

«I az kokoloa! Ori be esan?»

«Iñon diran zirki-mirkiñak egiñaz».

(1) «Jolazketa», Aita Onaindiak egindako Lorategia, 115-garren orrialdean.

Iztegia:

Onetsia: Bedeinkatua.

Kistar: Kristiñau, kristau.

Bearkunak: Eginbearrak.

Sastrakarte: Sastarrarte.

Errimeak: Sendoak, gogorak.

Geldutu: Arritu.

Muzkerio: Negar-muxinka.

Tamal: Lastimea, penea.

Obena: Pekatua (berez makurtasuna da).

Ezaugarri: Señale.

Alderrezkan: Illadan, bata bestearen ondoren.

Zirki-mirkiñak: Zirkiñak, mogimentuak.

Kokolo: Kaiku, tentel, lelo.

Aske: Libre.

URKIAGA ESTEBAN
«LAUAXETA»
1905-1937



Nor zan

«Poztu, ta biotzak ez euki urduri;
gazte ule baltz gara, ez zar ule zuri.
Biarkoa itxi etorriari,
ta dantzan ta abesten ari.
Bizitza onetan ametsa da oro,
zadorrik, arren, ez egizu nai idoro.
Larrosak tori arantzetan,
alde ona billau gauzetan...» (1).

(1) «Bide barriak», 8-garren orrialdean.

Bizkaierazko olerki-saillean bide barriak egin ebazan Lauaxeta gaztearen jokabidea orixe izan zan. Eta larrosa asko batu ebazan arantzartean, alde on asko aurkitu zituan gauzetan. Eta guri emon deuskuz olerki biurtuta.

Laukinizen jaio zan Urkiaga Esteban, gure «Lauaxeta» (2). Baiña ume-txotatik asita, Mungian bizi izan zan, ona etorri ziran biziten bere gurasoak-eta.

Mutikoa zala, fraile joan gura izan eban, karmeldarren komentu batera. Baiña Lekeitioko osabeak abade egin bear ebala esan eutson, eta or doa gure Estebantxu, zintzo-zintzo, Durangoko jesuitetara. An egotaldi bat egin ondoren, jesuita izateko gogoa etorri jakon. Eta joan bere egin zan, Loiolako jesuitetara. Antxe egon zan, ikasi ta ikasi, ogetak urteatarate. Baiña andik bere urten egin eban eta soldautza egitera joan zan.

Gero, bere gurasoakaz bizi izan zan gerraterarte (3). Eta, gerratean, if egin eben Bitorian, ogetamabi urte zituala. Il aurretxoan, olerki eder au egin eban:

Eguna berantz doa

Oi, Bidazti Deuna, sar zaite neurera,
bertan dozu, bada, maitasun arrera;
bekidat bizitza
zure itza.

Idazki doneak azaldu daidazuz,
euren muin eztiak emon egiztauz;
bel zure mintzoa,
gozoa.

(2) Mungiako abade batek esan eutsan izen-ordetzat «Lauaxeta» artzeko, bizi izan zan etxea bakar-bakarrrik egoalako, lau alderdietatik aizea artzen ebala.

(3) Ikasten jarraitu eban. «Euskadi»-n idazten bere ekin eutsan. Baita mitiñetako itzaldiak egiten bere.

Ta barne guztia berotan dodala
argi biur bekit eriotz itzala;
dana jat atsegin
Zurekin.

Orain sakon dakust zure eriotz ori,
zergaitik daukazun biotz deuna gori» (4).

Gizon ona izan zan Lauaxeta. Eta sakona. «Ludi onen bestaldez loratzen diran landaraen usaiñak, goizalde bakotxak dakarkidaz. Auxe da neure sakona! Besteak entzuten eztaben egal-otsa neure gelara jatort...» (5).

Besteak entzuten eta ikusten ez dabezan gauza asko entzuten eta ikusten ditu, bere begi-belarri zoli, garbi eta zorrotzakaz, olerkariak. Eta Lauaxetak bere, ainbat gauza sakon entzun eta ikusi ditu, bai izadian, bai giza-bizitzan; giza-bizitzan, batez bere.

Giza-bizitzaren misterio sakonera sartu da Lauaxeta.

«Ona emen nago: Gõizean so dagit
sarkalde argira;

arratsean, barriz sorkaldera nago,
izarren begira.

Au geure bizitza, atsedean eziña,
jadetsi eziña!

Ezin batu doguz elburu batean
amets ta egiña» (6).

Baiña fedearen argiagaz sartu da, eta fedearen argitan erakusten

(4) Lauaxetaren arreba batek itxitako esku-idatzitik artua. Ikusgarria da bere azken-naia bere, erderaz egiña. Axe bai izan zala euskaldun eta fededun!

(5) «Arrats-beran», itzaurrean.

(6) «Bide barriak», 120-garren orrialdean.

deusku giza-bizitzaren misterio arrigarria: Betiraun naia, aragi ta gogoaren konpondu eziña, ametsa ta izatearen ezbardintasuna, maitasuna ta gorrotoa, lorak eta arantzak, poza ta naibagea...

Fedearen argiagaz sartu da giza-bizitzaren misterioan. Eta, orrexegaitik, adorea galdu barik, aurrera diardu onbidetik.

«Gorrotok barik, noan maitasun bidez.
Erain zidor orotan ezilkortasuna,
zauri bakotxan leunki mosu bat ixuri,
etsaiaren burura jaurti maitasuna.
Arantzak min-zaituez?
Arrika ez lorai!
Arriskuan ibilli gentzaz, ez urduri;
lakiorik ez jarri iñon oldozkunai.
Egiten dozun ona gerorako dago,
ondo egiñak ezauz oker eroango.
Zalantzan zaran arren, ezilkorra maite,
—zeozer geure baitan ba dogu betikor—.
Gerora adi beti, urduri, oldozkor,
alderik onenera eratzatu zaite» (7).

Gizon ona ta olerkari sakona izan genduan, benetan, Lauaxeta.

Ordurarte etzan sekula iñor eldu aren maillara, bizkaierazko olerkarien artean.

Berak diñosku bere olerki baten: «Pioneer gazte gara». Eta izan bere orixe izan genduan: Pioneer gazte bat, aurrelari bat.

Idazlanak

Lauaxetak egin ebazan idazlanik onenak liburu bitan argitaratu ziran:

(7) «Bide barriak», 130-garren orrialdean.

«Bide barriak». Olerki txorta bat, 42 guztira.

«Arrats-beran». Beste olerki txorta bat, 40 olerki guztira.

Lauaxetak berak egindako erderazko, itzulpenagaz argitaratu ziran.

«Or-an entzun eta ikasi dodazan gogai batzuk neure biotzaren barne-
tik euskeralduta agertu dodaz...

Maitasuna, aberria ta uzkuertza izan dira gairik ugarietak olerkari-
entzat; neuretzako be bardin» (8).

«Neurez, betirarte ixilduko nintzan, barruko ixurpen oneintzat ezpai-
tago azal ederrik. Euskeraz batez be! Erabiliak izan diran izkuntzak bost
jarraibide erakutsi dagizkeguez; baiña ele onen iruleak geu gara...

Elerti-zale nazan onek zearkeri ta pirtxilleritzat daukedaz olerkiok.
Maisialariak esango dabez esatekoak! Baiña ele lander baten seme jaio
nintzan ezkerok, bertso ñimiño oneik be argitara datorz» (9).

Orra or Lauaxetaren eretxia bere liburuari buruz.

Zearkeri ta pirtxilleritzat daukaz bere olerkiak. Baiña, bere biotz-ondo
etorritsuagaz, gorengo maillako bide barriak egin ditu bizkaierazko lite-
raturan, olerki-saillean.

Euskerari buruz, «ele lander baten seme jaio nintzan», diño. Orren
izkuntza urria ete da, ba, euskera? Ez dot uste. Bere aldiko semea izan
genduan Lauaxeta bere. Eta idazle zaarren eta erriaren iturritik ur asko-
tzarik ez eban edango, aurki. Aranatarren iturri barritik bai, ostera.

Orrexegaitik, garbizale amorratua dogu ta berba barri ta aditz-sinte-
tiku asmauak larregi darabilz. Beste euskaldi batzuetatik artutako berba
ta aditz-jokaerak bere, bein baiño sarriagotan darabilz; baiña au olerkari-
ririk geienak egiten dabe.

(8) Idem, azken-oarrean.

(9) «Arrats-beran», itzaurrean.

Dana dala, or daukagu gure Lauaxeta zintzoa ta sakona bere olerki-
-txorta ederragaz.

«Atsegin etxakonak, neure aurka itz eginke, idazti eder bat argitaldu
begi, bide ori dalako gizon argiena. Itz egiteko bidean dagoz, euskeraz
idatzi dabenak, besteak ez; bear egin dabenak, dakilako» (10).

Lora eder batzuk

Zelaian

«Lora billa neskea
larrarantza doa;
bera loretan lore,
lore gorengoa.

Ene maitea,
zelaiko galpidea!
Larratik itun dator,
itun, bai, neskea.

Miñez dozu barrena,
negarrez biotza;
biotz barruan dozu
arantza zorrotza.

Ene gaixoa,
illun dozu gogoa!
Zeure matrail-lorea
zimelduaz doa.

Lore billa neskea
larrarantza doa.
Lora billa joatean
galdu dau gogoa.
Ene maitea,
zelaiko galpidea!
Loretan lore zanak
galdu dau berea» (11).

(10) Bide barriak, azkenengo oarra.

(11) «Arrats-beran», 68-garren orrialdean.

Siñistebakoarena

Igande goiz au landa-gain dager,
egal urdiñak dardarka aidean.
Zugazti, itxartu barri, bai eder!
Kanpai-otsa zein garden aizean.

Gauz orok dauke Jainko betea;
arnas deunak muin dautse ninian.
Oi, latxin zabal orren bakea,
neure otoi au galdu bedi eugan!

Siñismen neure begia zanean
goiz oneik euken argi biguna!
Baiña bein barna lañotu jatan
eta inguruan dodan illuna!

Odei zuri bat —itzal baltzizkaz—
bedar eze-gain bai samur dabil!
Muga leunenak aurkhintzak daukaz
ta artotza an dagō, ez ots, ez ixil.

Barne ta kanpo Jainko aztarrak,
baiña ilda daukot fede dirdaia.
Soil maite dodaz latxin ta lerrak;
itxas urdiñak dauken alaia.

Eta goiz garden onen bakean
barriz ots-dagit, au ots bizia!
«Barne ontan nok senti zeinñian
samin ta poza azan begia!» (12).

Esakerak:

«Betiraun naiez, Jaungoiko gosez nabil»
«Arantzaz josiriko amets ain gozoak!»

(12) «Arrats-beran», 75-garren orrialdean.



«Euki neban, euki antziña,
—a zan eskontsari panpiña—
talle bako etxea.
Euririk etzan egunetan
antxe bai nebala topetan
egizko aterpea»
«Iturri baten txirula-otsak
musker-musker jaukezak artotzak»


Iztegia:

Urduri: Artega, estu, eziñegonez,
Ari: Ibilli, jardun.
Oro: Guztia, dana.
Tori: Artu, koiu.
Billau: Billatu.
Gel: Gelditu.
Arrats-begi: Illunabar, illuntze.
Itzal: Gerizpe.
Azkar: Bizkor, arin.
Bidazti: Bidezko (peregrino).
Deuna: Santua.
Sar: Sartu.
Neurea: Neure barrura.
Arrera: Ondo-etorri, abegi on.
Bekidat: Izan bekit, izan dakidala.
Idazki doneak: Eskritura Santua, Biblia.
Daidazuz: Eidazuz.
Muin: Une.
Bel: Eldu, etorri daitela.
Barne: Barren, barru.
Dakust: Ikusten dot.
Ludi: Mundu.
So dagit: Begiratu egiten dot.

Sarkalde: Eguzkia sartzen dan alderantza.
Sorkalde: Eguzkiak urteten dauan alderantza.
Gentzaz: Bakez.
Lakio: Eragozpen, tranpa.
Oldozkunai: Pentsamentuai.
Zalantzan: Ezbaian, dudan.
Baitan: Geugan, geure artean.
Adi: Begira.
Eratzatu: Biurtu, zuzendu.
Gogai: Idea.
Uzkurtza: Erlejiñoa.
Ixurpen: Etorri, emoi.
Ezpaitago: Ez dago-ta.
Ele: Izkuntza.
Iruleak: Gorulariak.
Elerti: Literatura.
Pirtxilleri: Gauzaeztana.
Maisialariak: Kritiketan mar-mar dabizanak.
Lander: Pobre, txiro.
Ñimiño: Txiki, kaskar.
Eginke: Egin barik.
Idazti: Liburu.
Itun: Triste.
Panpiña: Polita.
Musker-musker: Berde-berde.
Dager: Agertzen da.
Latxin: Zelai zabal.
Lerrak: Piñuak.

gure aldiko
idazleak





GIRO BARRI BAT

Larramenditarren giro ondoren, aranatarren giroa sortu zan. Eta aratarren giro ondoren? Beste giro barri bat (Geroak ipiñi beio izena).

«Garbitasuna bear genduan, garbitasuna baiño balio garaiagorik ezpalego bezela. Menderen mende aotan erabilliak gozoz eta zaporez bete zituena itzak baztertu eta arbuiatu genituen, orien lekuan —zerbait ipintzen genduanean— ez kolorerik ez usairik etzuten berrikeriak ipintzen genituela. Beste edozeiñek egiten zuena bere izkuntzan, egingo genduen guk ere gurean, baiña ez besteak bezela; guk ori berbera egin genezakean anak mozturik, besoak loturik, baita burua txapelarekin batean zoko batean utzurik ere... (1).

Garbitasuna bear genduan, eta irugarren iturria, edo dana dalakoa, sortu zan: ametsezko iturri barria.

Ur garbia, ur «utsa» emoten eban; baiña ur motela, indargea, edateko gauza etzana (2).

(1) Mitxelena Luis. «Asaba zaarren baratza». «Egan» XVII, 121-130.

(2) Begira, adibidez, aita Arriandiagak euskeratutako Ebanjelioaren zati bat:
«Zin-zifñez dirautzube, —esan leutsen Josuk— eleutzuben Moissak emon ortzi-ogija; emon be, nire Atteak damotzube ortzi-ogi egija. Urtziren ogija dozube, ba, ortzittik jatsi eta gixadijari bizmena damotsana».

«Jaunoi: inguk ogi ori beti» —esan leutsaen—.

«Ni nerau nozube bizmen ogija: nigana letorkikedana gose ixango ezta; eta nitzaz zifñetsi daikena, egarri ixango ezta egundo» —esan leutsen eurei Josuk—. «Ikusi nozu-

Garbitasuna ona da; garbikeria ez. Izan bere, garbikeriak estutu, ito, kadendu egiten dau euskera eta ilteko arriskuan jarri.

Arana ta aranatarren barriztate-gogoa ona zan. Ain zuzen bere, barriztau, osatu ta osotu egin bear da euskera, biziko bada. Baiña, «euskera gai-xoak operazio asko dauzka egin bearrak, eta, guziak batean egin ezkeru, il liteke» (3).

Aranatarren giro itotik urteteko leenengo atea Altubek zabaldu eban, 1920-garren urtean Bilbon egin eban itzaldi bateaz. Irakurri daiguzan itzal-di eder orren zati batzuk:

«Aundiak dira, bai, gaur, gure izkera maite onen bizitza gaixotu au osatzeko jarkiten diran eragozpenak. Euskaldunok gure biotzetan asmetan dogun beraganako suzko maitetasun aundiaren berotasun oso-osoa bear dau ez ilteko, Europako izkera zaarrena dogun gure euskera maite onek.

Baiña gure maitetasun ori, ez bedi itsua izan; maitetasun itsuegia, sarri, maite dogun gauzearentzat, laguntasun ordez eragozpen izan oi da-ta, mesederen ordez kalte.

Maitekeri itsu orrek, euskerearen bizitza edo izatetasunaren goitik, beronen edertasuna, zelakotasuna, imini oi deusku sarri; eta zentzunbakokeri orrek, bide okerretik eroan ginaikez...

Maitetasun benetakoak, obe dogula dirausku, geure euskera au, ingel-landatarren izkerea bezela erderatiko itzez burutik eta oiñetara josita, bai-ña osasun sendoz bizirik ikusi, latin izkerea bezela, eder eta txukun baiña ilda aurkitu baiña» (4).

bela ta eztaustazue ziñesten, irautsi dautzuben. Atteak damoskedan guztija neugana datorkiket; eta neugana datorkikedana, eztot nik landara egotziko. Ortzittik, ba, enintxozuben jatsi ni neure gurea egitten, ni igorri nindubanarena egitten baño. Eta auxe dozube ni igorri ninduban Attearen oldia, ukañi leustaniko ezertxorik galdu eztagidala, eta bai azken-egunan ilpiztu dagikedala (Jn VI, 32-39)». («Goizparraik eta Beldubaik egiña». Itxaropena. 1959.)

(3) Orixe. «Urte guziko Meza-Bezperak». Itzaurrean.

(4) «Altubetar Seber, euskaltzain berriak bere sarrerako egunean irakurritako itzal-dia». «Euskera». 1920.

Baiña Altuberi ez jakon jaramon andirik egin. Eta aurrera jarraitu eben euren bidetik arantarrak.

1936-an, gerratea sortu zan. Eta euskera-lanak bertanbera itxi ziran.

Gerratea amaitu ondoren, euskera egiteko ta idazteko bildur andi bat sortu zan euskaldunen biotzetan. Baiña, 1950-garren urte inguruan asita, barrero bere, geldiro-geldiro, euskerazko lanak agertzen asi ziran. Eta, arrezkero, ainbat eta ainbat idazlan argitaratu dira, bai aldizkarietan, bai liburuetan.

Gaztedi barri bat agertu da.

«Gazte gera, gazte,
ta ez gaude konforme...»

Literatura-giro barri bat sortu da; giro barri eta larri bat. Giro barri bat, garbikeriak garbitzen eta euskera batu bat egiten diardugulako; giro larri bat, euskaldunok geroago ta gitxiago garealako.

Giro barri onetan, garbikeriak garbitzen diardugu, garbikeri-mittoa desegiten (5). Izan bere, «lurreko loiez gatzatuak eta mamituak daude lurreko gauzak oro. Euskerak bere garbitasun artan iraun zezakean Paradisuko izkuntza zein; baiña Lur-paradisua utzi genduen ezker —an nonbait, Phison, Gehon, Tigris eta Euphrates ibaien inguruan—, maiztu, zarpildu eta

(5) Ona emen gaurko kantu-letra bat:

«Zergaitik zara zu
mitozale baldresa,
aldrebesa?
Mitoa beti da
ametsaren ametsa,
ezereza.

Euskera garbi ta ederra
nai dozu, euskera utsa:
«bakalduna» ta «txadona»,
«donoki» ta «arkatza».
Garbi, garbi, beti garbi
naiz ta aditu ez itza.
Garbikeri mito motza,
izkuntzen eriotza!
Zergaitik zara zu...

loitu bearrean arkitu da, dirua eta jazkiak bezelaxe. Orrela izango da aurrera ere, biziko baldin bada. Auta dezagun, bada, bein eta betiko zer nai dugun: euskera garbia ala bizia. Eztago beste aukerarik» (6).

Desegin daigun, bai, garbikeri-mittoa. Baiña kontuz ibilli bearra dogu. Bizkortu nai badogu, leenak erakutsi beigu etorkizuna. Ez gaitезan ibilli beti ura pasauta gero presagiñan.

Uts asko, oker-ibilte asko egin dira, zoritxarrez, oraiñarte. Ez gaitезan, bada, orain bere, alde batera larregi joan, lenagoko geiegikeriai beste geiekeri bat gaiñeratu ez deioegun. Euskera bizia, jatorra, darabilgulakoan, euskera ez dan edozelango naaste zikin bat, edozelango mordoillokeri bat erabilli geinke, eta ur garbiegia kaltegarri izan bajaku, ur loiegia bere kaltegarri izan litzakigu.

Desegin daigun garbikeri-mittoa; baiña orren ordeз mordoillokeri-mittoa sortu barik.

Giro barri onetan, euskera batu bat egiten bere ba diardugu. Izan bere, «batasuna lortu gabeko izkuntza, beti motx, lotsagarri eta prestijio gabe gelditzen da. Eta ala gelditzen da, gaiñera, ez konpoken aurrean bakarrik, erritarren artean ere bai. Bateratua ez dagoen izkuntza, nekez sar diteke eskolan eta nekez irakats diteke. Batasuna. egindako izkuntzekin, izkuntza zatikatuak ezin burruka dezake, oien ondoan ezin du bururik ailtxatu» (7).

Bear-bearrezkoa dogu batasuna; premiñazkoa dogu euskera batu bat gure literaturan batez bere, nortasuna, indarra ta sendotasuna izan daian onek.

Egin daigun, bada, euskera batu bat. Baiña kontuz ibilli bearra dogu onetan bere. Ba dakigu oraiñarte zer jazo dan: «Irurogeiren bat urte daramazkigu batasunera bidean, eta ba dirudi, fruituei bagagozkie, batasun ori uxatzen aritu gerala egiñaalean, bai Gipuzkoan, bai Bizkaian, bai orain Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan. Euskalkiak naasi, bai, egin ditugu, Pa-

6) Mitxelena Luis. «Asaba zaarren baratza» Egan, XVII.

7) Villasante Luis, «Jakín», 31-32, 5-garren orrialdean.

saiako ardogilleek kolore bateko edo besteko ixurkariak naasten omen dituzten eran; baiña naastea ezta batzea eta ezta beiñere izango. Ondorea: «euskeraren» legeak dakizkigulakoan, iñor gutxik dakizki gaur bere euskalkiaren legeak; are geiago, eztakigu geienek zein euskalkitan ari geran ere...» (8).

Zuur jokatu bear dogu. Eta erriagaz eta erriarentzat; artifizialkeri ta indarkeri barik. Bestelan, batasuna egiten diardugulakoan, euskalki bat geiago edo «euskeranto» bat egiteko arriskuan gagoz. Eta leen bere naiko naaste dogularik, azkena izango litzake ori.

Zentzunez jokatu daigun. Euskereagaz eta euskerearentzat. «Gu gara izkuntzari makurtu bear gatzazkionak, ez izkuntza guri, gogoak ematen digunean eta gogoak ematen digun bezala» (9).

Orañarteko bizkaiera batuan egin dot, orrexegaitik, liburu au. Eta sortubbarri dagoan batasun giro bizi ta bero onen aurretiko idazlanak bakarrik aztertu dodaz.

Egia esan, bizi diran idazleak liburu onetan sartzeko asmorik ez neban leenengotan. Baiña utsune orregaz liburua osotu barik geldituko zalata, urrengo datorren laburpen ori erantsi neutsan.

Gure aldiko idazle batzuk aranatarren girokoak dira; baiña ildakoak eta bizi diranak banandutearren sartu dodaz gure aldiko idazleen artean.

(8) Mitxelena Luis, «Asaba zaarren baratza».

(9) Mitxelena Luis, «Asaba zaarren baratza».

MANTEROLA GABRIEL

Zeanurin jaioa (1890). Abadea.

Gazterik asi zan abade au euskera landuten, eta onetan diardu gaur bere. Orrexegaitik daki euskera ain ondo.

Euskal-idazle ona da Manterola. Baiña, garbikeri giroan bizi izan da-ta, ba ditu garbikeri batzuk bere idazlanetan, gaztetan egindakoetan, batez bere.

Beste euskal-idazle askoren antzera, izen-orde zalea izan dogu au bere: «Gama», «Mitarga», «Urigoiti» eta abar.

Bai itz-lauz, bai itz-neurtuz, idazle ugaria dogu. Ara bere idazlan batzuk:

«Santuen bizitza laburrak» (1925).

«Ipuintxoak» (1929). Schmidenak euskeratuta.

«Goi-lzpiak» (1921). Olerki txorta.

«Jesukristoren Nekaldia». Itzulpena.

«Gabonetako antzerki jaunkoia». Itzulpena.

Eta abar eta abar, aldizkarietarako artikulua, batez bere. «Ekin»-en, esatebaterako, lau urte t'erdian, iru-lau artikulua idatzi ebazan numeru bakoitzean.

Argitaratu barik bere, ainbat idazlan ditu.

Ona emen, «Redención» aldizkarian agertutako artikulu bat:

Artegatasuna

«Gaurko munduari azalez begiratuta, gauza bat argi agertzen da: Gizonen artegatasuna. Alde ta gizarteko mailla guztietan urduri, arteak artu eziñik dakusguz. Munduaren bide kurutze baten bizi gareala esan geinke. Gizonaren asmakizunak egunetik-egunera andi ta arrigarriagoak dira. Baita gizonaren bearrizanak be. Asmakizunen ondorena, ondasunak ugaritzea, eta, jakiña, ortik bakoitzak al bait aundiarena eskuratzeko gurari ta alegiña.

Ondo dagoanak, obeto nai; naiko dabenak, geiago; txarto dagoana, onaren billa; ugari daukanak, ase eziña: guztiak artega, guztiak mitxeletaren antzera, esku artetik iges egiten dautsen zorionaren billa, eta zorionik ez. Batzuk, bear dabenik ez; beste batzuk, daukenagaz zer egin ez dakiela. Batzuk, urritasunez zoritxarreko; beste batzuk, andi-naiez; eta ok-eginda dagozanak, larregikeriz... Au da gaurko zoritxarra. Guztiak zorionaren billa, eta zorionik ez. Guztiak urduri, artega, noraezean, itsumustuan, bizitza bidean aurrera...

Azaleko artegatasun onek sustrai sakonak ditu gizonaren buru ta biotzean. Lenengo tokia dagokiona —au da, arimako osasuna—, azkenengoan ipinten bada, goiko-bera ibilliko da, eta ori ez da bide zuzena, beraz, ez zorioneko bidea be. Gogoko ez jakon egia aintzat artu ez, eta ondo dator-kion guzurra aintzat artzen dabenak, gizon lez ez dau jakotzen, eta kristiñau lez gitxiago. Gogor egiten jakon eginbearrari baiño, errez errez egiten jakon atsegiñari jarraitzen dautsonak bidetik urten daben trenaren antzera, burua apurtzeko arriskuan dabil. Jaungoikoa ta Bere legea aintzat artzen ez dabenak, edo azalez bakarrik, bere burua egiten dau jaungoiko, ta bere inguruan dagozanak burua makurtzea nai dau, eta lurreko ondasun eta atsegin guztiak beretzat nai ditu... Gizonaren burua, egiak bakarrik asetu daike; gizonaren biotza, ontasunak bakarrik, eta egitik iges egiten daben neurritz, burua lauso izango dau, eta ontasunetik aldentzen dan neurritz, biotza zoritxarreko.

Norberagandik iges egitea ez da gauza erreza. Alan da be, gaur egu-
nean artegatasuna urrindu nai daben askok bide ori artzen dabe. Ainbeste
joan etorri, ainbeste jolas, ainbeste jan-edan eta atsegin billa ibiltea, nor-
beragandik iges egiteko ez ete dira? Baiña barruko, kontzientziako arra,
orregaz ez da ateraten, sakonago sartu baiño. Ori dala-ta, beti geiago naia
ta asetu eziña. Zarata, iskanbilla, jolas eta atsegin artean be, barruko deiak
aurrera jarraitzen dau.

Itz baten, gizonaren buruak egi barik ez dau bakerik, eta ez da griñak
ezi barik gizonaren biotzak. Jaungoikoagandik al denduta iñok eta iñoz be
ez dau zorionik aurkitu, eta gure biotza, Austin deunak diñoan lez, «Jaun-
goikoak egiña da-ta, ez dau bakerik Beragan -atsedendu arte».

LARRAKOETXEA ALEJANDRO «LEGOALDI»

Zeanurin jaio (1892). Karmeldarra. Aita Hipolito.

Ipuin-liburu eder bat argitaratu eban Bilbon, gerra-aurretxoan: «Grimm anaien ipuiñak». Itzulpena da, baiña euskeratzen eta euskaldunduten ondo daki Legoadik. Ederto be ederto darabil Bizkaiko euskerea, bere Arratia-ko usain gozo ta guzti.

Ba ditu izan arako garbikeri batzuk, baiña, alan eta guzti bere, euskera ederra da Legoadiren euskerea.

«Karmendo Argia» aldizkarian bere, aldi baten, ainbat artikulu idatzi zituan.

Donostian argitaratu zan, 1927-garren urtean, Andra Mari jaietan Zeanurin egin eban itzaldi bat, Zeanuriko euskeraz.

Ona emen Grimm anaien ipuin bat:

Zein nagiago

«Nagusi batek iru seme eukazan. Irurak bardin maite ebazan, eta eze-
kian nor izentau bere eriotza osterako Nagusitzarako.

Ilteko garaia eldu jakonean, deitu ebazan oe-aurrera ta dirautse: «Se-
me maiteok, adierazo nai dautsuedan zer bat jaukat barruan oldoztuta:
zuon artean nagiena, axe izango dok nire ostean Nagusi».

Ta erantzun eutsan zarrenak: «Olan Nagusitzea neurea da, ni ba, nagiagoa naz nagiagoa! Oian lo natzanean, begietara tantakaden bat jausi badakit, eztoz kenduten lotan jarraitutearren».

Erantzun eutsan bigarrenak: «Aita, Nagusitzea neurea da, nagiagoa naz ni nagiagoa! Sutondoan berotuten nagoanean, lenago izten dodaz beatzak erretan, bernak atzeratu baiño».

Esan eutsan irugarrenak: «Aita, Nagusitzea neurea da, ni bai ba naz nagia. Urkatu bear banindue eta sokea saman baneunka ta norbaitek sokea ebagiteko aiztoa eskura emongo baleust be, lenago itxiko neunke neure burua urkatuten, eskua sokaraiño jaso baiño».

Aitak, au entzun ebanean, esan eutsan: «Kontxo! I langorik etxagok, mutil; eu izango az Nagusi» (1).

(1) «Grimm anaien ipuiñak», 320-garren orrialdean.

ZIARSOLO MANUEL «ABELETXE»

Bilbon jaioa (1900).

Kirikiñoren jarraitzailea da Abeletxe eta erri-erriaren filosofia umoretsuagaz egosten ditu bere idazlanak.

Aldizkarietan argitaratu ditu bere idazlanak, eta ezagunenak bere «Gazi-Gazak» doguz, astero-astero «Zeruko Argia» aldizkarian agertzen diran artikulua umoretsuak.

Teatro-lanak bere ainbat egin ditu (ekitaldi batekoak geienak): «Jai-aurrekoa»; «Bermioko portuan»; «Sorgiñak Etxaburun»; «Jai arratsalde baten»; «Afal orduan»; «Artzaiñaren ametsa»; «Agur Donibane»; «Goiz otoia»; «Atsoa gaztetu bear dogu»; «Parisera gogo txarrez»; «Saku jantzia»; «Gabon gabonetan»; «Eztegu t'erdi»; «Bertsolari sariketa»; «Katalin errotako»; «Gogozar Berbizkunde goizean»; Eguberri aizeak»; eta abar.

Artu daiguzan, bada, Abeletxeren lora edér bi, bere jakituria ta bere umore ona ikusteko.

AGUR

«Agur, luze aña labur».

Esakun ori egin ebana ez zan izan motela.

Izan be, AGUR, itzez laburra dozu; baiña izatez, esan-guraz, luzea, lu-
zerik bada.

Askok uste dabe, aldetzerakoan, joaterakoan, gaztelarren «adios» adie-
razteko dala bakarrik itz polit eta txukun ori. Ezta orlan. Agur esaterakoan,
gero arte, biar arte, urrengo arte ta abar esaten dogu. Baiña agurra, alde-
tzerakoan ezezik, etortzerakoan be, arrera egiterakoan be, bardin-bardin
erabiltzen da. Esaterako gaur, berton, Bermeon, norbaitek aspaldian ikusi
eztauna ikustean, alaitasunez esan oi dautso: «Agur zeuri!». Erantzuna:
«Agur zeuri be!», izaten da. «Bien venido» ta «Bien hallado» esatea lez.

Beraz, agurrakin izaten da arrerea ta bardin aldekeria.

Agur itz onekin adierazi daikeguz gaztelerazko oneik: «Saludo»,
«Ave», «Salve», «Adios», «Adorar», «Hola» ta abar; azkenik bakoa baita
gure agurra; aundia, biotz ikuitgarria.

Nork eztau ezagutzen kanta au: «Agur Jaunak; jaunak agur, agur
t'erdi?»

«Agur t'erdi» orren zabalerea, luzeerea, eztira errez neurtzekoak. Agu-
rra luze bada «t'erdi» orren esangurea ezta laburra; amairik bakoa da.

Gure artean, edozein jairen azkenean abestuten da, ta ez uste izan
txarto erabilia danik, baiña kanta ori asikerarako egiña da...» (1).

Izkirimiri bat

—I, Pello. Leen D. Peperen olloak ire baratzean sartuta ikusten naioa-
zan zorriketan eta bedar ta azorriak jaten egunero. Baiña aspaldion etxo-
daz ikusten. Zelan uxatu dozak? Zer xistema asmau dok ori lortzeko?

—Xistema erreza, mutil: Gau batez, bedar artean arrautza pilla gorde
naioan. Urrengo goizez, D. Pepe ori gure baratzera begira jarri zanean,
joan nintzoan bedar arte ortara ta banan-banan arrautzok kolkora jaso. San-
to erremedio! Arrezkero eztok azaldu aren oillorik» (2).

(1) «Agur» aldizkaritik artua, Orrilla, 1970.

(2) «Zeruko Argia», Uztaila, 1967, «Gazi-gazak».

ONAINDIA SANTI

Amoroton jaioa (1909). Karmeldarra.

Idazle ugaria; eragile ta argitaratzaille aspertu-eziña. Nok esan zenbat lan egin dauan euskeraren alde, batez bere gerra osteko urte luze illunetan?

Bizkaieraz eta gipuzkoeraz, itz-lauz eta neurtitzez, goi maillako euskerara landu, garbi ta aborrate hat lortu gurean diardu. Izen-orde oneik erabilten ditu: «Igotz», «Otarri» eta «O.».

Bere idazlanik onenak oneixek dira:

«Milla euskal-olerki eder». Euskal-poesiaren antolojjarik andiena.

«Iru poema». Tagoreren iru poema euskeratuta. Bizkaieraz.

«Eguneroko Mezea». Bizkaieraz.

«On-bidea». Santa Teresaren «Camino de perfección» euskeraz, aita Linorekin batean. Bizkaieraz.

«Gure bertsolariak». Gure bertsolari ta bertsolaritasuna ezagutzeko liburu ederra. Bizkaieraz.

«Jolasketa». Eskola-umeentzako kanta, jolas eta ipuin lorategia. Bizkaieraz eta gipuzkoeraz.

«Bergiliren idazlanak osorik». Ibiñagabeitia ta bien artean itzulita. Gipuzkoeraz.

«Danteren Jainko-antzerkia». Danteren «La divina comedia». Gipuzkoeraz.

«Odak». Horaciorenak. Gipuzkoeraz.

«Esoporen ipuiñak». Bizkaieraz.

«Larrea eta karmeldarrak». Bizkaieraz.

«Giza-bizia». Gipuzkoeraz.

Eta abar eta abar.

Ona emen lora eder bi:

Olerkaria

«Olerkaria —goi-argiz biztu-indarturiko gizaki berezia— beti agertu izan da errien aurrean noizean beingo, bakan arriarri legez. Baiña ezta bizi erritik kanpo, gogoz beintzat, erriari ondo korapillotua baiño. Sorterrikoen arnas bizi sakona lez da, arein ames, bizi-nai, biotz-ikara ta asmoak zirt edo zart, oso ausarditsu, lau aizetara iragarriaz.

Asmamenez, goi-argiz ta maitasunez jantzia da; baiña bere olerki-lana ezta iru gai orrein jokoak bakarrik; izan daiteke, ta izan bear dau, bere erriaren barru lokartua esnatu ta indartzeko mezu bat, mandatu bat, erreparri bat daroana be.

Olerkaria beti jaku eder. Bere barru-kemena damosku, bere zentzun ezkutua, izamenaren barru ixilletik jagitako adierazpen gaiñez-gaiñetikoa, metafisikoa. Bere barne-lan biziakaz, munduaren eta bizitzaren gaiñezko egazkadaz, munduan eta bertoko gauzetan beeregi sarturik dabiltzan giza-semeai aparteko mandatua dakartse» (1).

(1) «Olerkaria ta olerkia»; «Oleri», 1969 (I-II).

Olerkia

«Amets bat legez da olerkia. Itz-joku lilluragarria. Egiazko mundua antz-aldatu ta irudizko bat sortu ta eratu oi da. Poesia baten, bada, irudiaren indarrak eroan oi gaitu, gauzak inportantzi ta gora geiagoz jantzi ta eder-baliotsuagoa egiñik.

Ortaz mintzatzen jaku Ortega y Gasset: «Olerkia —diño— itz-joku zoragarri da; gure gogoak, gauza baten, erabilliaren erabilliaz erdi galduta eukon alderdiaz topoz egin ez dagigun, ustekabeko itzulinguru egiñik, betiko gauza orrek dauan iñoiz ikusi bako bizkar aldea begien aurrean ipinten dausku. Gauza txautu ta lizundu ori, izentatze barriak, sorginkiro, bir-sortu ta lengoratu oi da».

Olerkiak, izan be, bere irudikizunez gauzeari izen barria ipiñi ez-ezik, gauza orren guna, mamiña, izana bera be azaldu egin daroa. Ta olerki-mundu orrek, ainbat gauza, guk sarri ikusi ta ikutzen genduzanak, barriro sortuta, jantzi zoragarritz dizditsu, lillurapenik tinkoenean jarten dauskuz. Gauzen mundu barri bat, guk ez genkiana, bizi, indartsu, dardaraz daukagu aurrean; ots, mundu au ta bertoko gauzak, irudimenezko mundu egiñik daukaguz» (2).

(2) Ibidem.

AKESOLO LINO

Diman jaioa (1911). Karmeldarra.

Bai euskeraz eta bai erderaz, ainbat idatzi dau euskal-gauzai buruz. Euskera zaarra ta erri-izkera ondo ezagutzen dauz eta bizkaierazko idazlerik jatorrenetarikoa dogu berau.

Erabili izan ditun izen-orde batzuk «Axmutil», «Nonzebarri», «Basabil», «Amuxalde» «Andoni Zubero» izan dira.

Ara bere idazlan batzuk:

«Agure kezkatia». Cervantes-en «El celoso extremeño». Argitaratu bariarik dago.

«Ipiña ta ipiñatarren barri». Zeanuriko euskeraz, Angoitia Fabianegaz batean.

«On-bidea». Onaindiagaz batean.

«Salmoak». Iratzederren lan ederra bizkaieraz. Barriren barri egiñak dirudie. Bizkaiko euskerarik jatorrenean.

«Euskal-esnale ta euskal-idazle (Yose Paulo Ulibarri, Okendoko semea)».

«Azkue, euskalzale».

Eta abar, aldizkarietan sakabanatuta.

Bere lora eder bi artu daiguzan:

Santa Teresa eta otoitza

«Ezta edozelangoa Ama Teresak otoizlariari eragin gura deutson goruzkoa. Lenengotarik asita, gorengo gaillurrak erakusten deutsoz; bideko nekeari jaramonik egin barik, gogo beroz ta adoretzu aurrera egiteko poza sartu nai leuzkio, goiko iturri bizian edateko egarri gorria sortu.

Egia esan, bide au ezta neke bakoa, batez be asikeran; baiña Jauna bera dogu bidelagun. Lan egin eta izerdia bota bearko da; baiña, ara an, azkenean, iturri bizia, zeruko ur asegarriz gaiñezka. Ur orrek egarri guztiak kendu ta asetzen ditu; munduko su guztiak amatau ta arimearen loi ta uger guztiak garbitzen ditu. Bera da naikoa bideko nekerik gogorrenak ordaindurik izteko. A zori ona ta atsegiña, ur jainkozko ori aoa betean edatera eldu diranena!

Uraren irudi au txitean pitean dator liburu onen erdi ingurutik aurrera; oso atsegingarri izan jakon bere bizi guztian Ama Teresiari. Txikitarik asita, ondo gogoan sarturik eukan arako Samariako andrearen iduria, Kristori ur-eske: «Emoidazu ur orretatik edaten». Zer adierazo nai deusku liburu onetan ur orregaz? Geien baten, otoitzik bikaiñena, Jainkoaren adiskiderik miñenen otoitza, guk geure alegiñez lortu ezin geinkeana, Jainkoak berak bere kutunei emon oi deusena, atsegin eta ondasunik andienak beragaz lagun dakazela. Orduan, ur bizia da, iturritik bertatik arakoa. Beste batzuetan ezta orren goitik datorrena, ez ain garbi; ur egona, iturri-bazterretako zuloxoetan batua ta olakoa. Orduan beeragoko mailletako otoitzari dagokio, beronek ekarten deuskuzan zelanbaiteko atsegin eta ondasunakaz» (1).

(1) «On-bidea», itzaurrean.

Basajaunek

«Inoz entzun ixengo zenduen basajaunen ixen au. Basajaunek zertzuk zirean jakiteko, ixen onek zer esan gure dauen gomutera ekartea baiño eztaukazue. Jaunek nagusie, uzaba edo agintarie esan gure dau, ta basajaunek basoan jaune dana edo aginpidea daukena.

Lenagoko zarrak esaten eudienez, ikeragarritzko gorputze ei eukien, jantzi urdiñek erabilten ei eudiezan, eta euren artean ba ei zirean banaken batzuk bekokien erdien begi bakarra eukienak be. Euren jauntasune, eguzkie sartute urrengo egune zabaldu artekoa ixeten ei eudien. Bitarte orretan basoan aurkituten eudienaren errukie! Baso-lanetan ebizenak ardurez da bildurrez ibili bear eurekaz. Euren jauntasun-orduetan aurkituten eudenari «gaur gabean geugaz ixen beozu», esaten ei eutsien, eta geio gixon orren barririk ez ei zen jakiten.

Legaldin asita Otzandagortararte guztien ei aukien euren aginpidea; ta basorik illunenetati ibilten ei zirean geien baten.

Gixon-okelea janda bixi ete zirean esaten eudien lenagokoak; ba, armol-bitarteak guztiek gixa-azurrez beterik agertuten ei zirean. Augaiti, lanean basora joaten zireanak, eguzkie atzerantza itzultzen zaneke, azkorea ta sakue bizkarrean artute, egun argiz artzen ei eudien atzera bidea.

Orraitio, gaubetan euren beartxoak eiten ba eiekien, goldaketan ei zirean mutilek. Mendi-ganetati bera datozen erreka-arroak euren gauetako goldaketa-aldietan eineko golda-zuloak ei dire. Atx-kastilloko arri nausien azpien eukiten ei eudiezan euren batzarrak, eta batu be ainbat eiten ei zirean bakotxean. Ubideko artzain batek goiz baten Muzurutzgo atx-ganeti begitute, amabireiño ikusi ei zituen Atx-kastilloko arripeti urten, Arraiñetako zubie igaro ta Uguspe-larrati Otzandagortarantza erreskadan joiazala.

Ipiñeburuko Artea-etzeko gixona eguneko lana amaitutearren, illuntze baten berandurarte gelditu ei zen basoan. Basajaun bi ba jatorkoz, «Gaur gaube geugaz egin bear dozu», dirautsiela. Ipiñeburutarrak: «Bai —erantzun eutsien— baie lelengo iruron artean auxe pago au erdibitu daigun». Ziegaz arrakal andie einde ei euken pago ori, ta batak alde bateti eta besteak

besteti arrakalean eskuek sartuten inder eiteko esan ei eutsien. Asi dire, ba, basajaunek olantxe inderka; gure gixonak, barriz, kendu deutso zie pagoari, ta arrakal ori berez estuturik basajaunok eskuek arrakalean kati-gitute eudiezala gelditu zirean. Gixonak orduen, basajaunok an itxite, er-biek baiño arinego, sekuleko aiñinketadea ein ei bere etxeko atea oan goatu arte.

Basajaunok zelan ondatu zireaneko barririk zarrak ezteuskue emon; baie eritxi baten, baso illunek garbituteak basajaunek azkena ekarri oala esan geinke» (2).

(2) «Ipiña ta ipiñatarren barri». 7eanuriko euskeraz eginda dago.

SOLOZABAL PAULINO «EGIEDER»

Etxebarrian jaioa (1912). Abadea.

Iru olerki-liburu idatzi ditu gure «Egieder»-ek:

«Uskeriak». Bilbao, 1961.

«Urre bitza». Bilbao, 1962.

«Gizonetan». Bilbao, 1969.

Ona emen, adibidez, bere lora eder bat:

Olerkari

«Olerkari txit bizkor,
gau odeitsu illunean
oiñestarri ditzikor.

Erriak lo ameskor,
olerkari kantari
goizeko urretxindor.

Gogo motel garaian,
olerkiaren gatzak
min erri-biotzean.

Oi, olerkari sutsu!
zure urre gogoan
maitasunak loratsu» (1).

(1) «Uskeriak», 163-garren orrialdean.

AURRE APRAIZ BALENDIN «AURRAITZ»

Axangizko semea dogu gure olerkari au. 1912-garren urtean jaio zan.

Izen-orde asko erabili izan ditu: «Aurraitz»; «Mendi-Bide»; «Agerreko Balendin» eta «Agerrekoa».

Olerki-liburu bi idatzi ditu: «Gogo-zelaietan» eta «Errimiña». Baiña argitaratu barik dagoz.

Euskal-aldizkaririk geienetan idatzi dau.

Ba ditu alako garbikeritxo batzuk; baiña olerkari gartsu ta etorritsua da, biotz-ondo andikoa.

Ona emen bere olerki eder bat:

Illuntzeko otoitza baserrian

Euzkiak urrea gorde dau arrats-kolkoan;
dana dago bare-bare illuntzeko bakean.
Ixil baten sakonak eres mendi gaiñean;
otsik bako diadarrak samur biotzean.

Iruntzaren laztanean basoak lotara;
izadi-altzoan lokartu ditu eun lora.
Gabari deika lenengo izarren dizdizera;
biotz garbiak amets gozotan ari dira.

Larrin ezean artzain-mutillak samur-samur,
txilibitua joten diardu, zeruak ur.
Ardi otzanak entzuten urrera jakoz zur;
bere eresian galdu da, urdiñak zear, ziur.

Neskatxen maite-kantak noizpeinka guztiz zoli;
maiteminduek ezin entzumenik estali.
Ardi galduak dunboska ibilli ta ibilli,
ezin dira besteekana beingoan itzuli.

Egunaren nekeak suntsitu dira larri;
gau-egun bitartea gogoen laztangarri.
Munduko atsegiñetan gogo-pozak urri;
illuntzeko kadena amets garbien oñarri.

Baseleizako kanpai-otsak garden el dira,
otoitz eske, arruak zear, biotzetara.
Nekeen azkenean eskaritxu bat onura;
berein gogok batera iru «Agur Miren» gora.

Baso, mendi, solo eta landetatik sutsu,
illuntz-otoitza zeruetara doa ixiltzu.
Biotz onen ordain, bake bat berantz gozatsu,
basoetako illuntzen zeru-zundez kutsu.

Illuntzeko otoitzaren bide ezaunge ta leuna!
Ixillaren barruan dabil eres biguna;
gizaseme onen biotzetan entzumena;
munduko soiñuek ez dabe alako ots ona.

Basotar leunak ez daki Beethovenik zanik,
ez or zear dabiltzan eresien barririk;
baiña Ereslari Gurenak urrun batetik
pozten dautso barrua, itxaropenez beterik» (1).

(1) «Milla euskal-olerki eder», 772-garren orrialdean.

MUNiategi SABIN

Gauegiz de Arteagan jaioa (1912).

Olerkari ona, sakona ta ugaria.

Amaika olerki eder argitaratu ditu azkenengo urteotan! «Oleri» aldizkarian geienak.

Bere idazlanik ederrenak oneixek doguz:

«Goi Aize». Bilbao, 1936.

«Ni ez». Unamunoren «El otro». Argitaratu barik.

«Bidean gora». Laister argitaratzekotan. Olerki txorta zoragarria.

Ona emen lora eder bi:

Nire ibillia da...

**«Nire ibillia da
eguneroko
bizi-bearraren
bidezko egite
ta, zalantza...
eguneroko
joanaren**

joate
ta, norberazko
ikuste...
muin zarraren
berritzeko
gogo,
ta, ikara egundua...
egunik egunerako
joatearen
joatezko,
ameskizun
bein ta berriz
berritua» (1):

Kalbarioa

«Danok dakiguna da, bai, dakiguna...
gure bidegite ixil neketsuan
ezin dala, ezin dala itzik egin,
ezin dala ez destaiuz ezer esan.

Erria lozorroan,
lozorroan dakusgu;
erdiak eta geiago
lotan,
erdiak eta geiago...
ai! guk gutxiok ezin,
iñolaz ezin degu,
erdizka besterik
asko,
gauza asko esan.

(1) «Bidean gora».

Eta bidebera,
erroiak ta erroiak
ta ezten gaiztozko sugeak,
ezten zorrotzez;
gorrotozko aunitz etsai
ta piztiak zirika
albo ta saietzez...

O, au bai gauaren gautada illuna,
au bidegite kementsu ta aztuna!
Ai, bazenki bidegite onetan
zenbatzu arantza ta zenbatzu ostopo,
zenbatzu izerdi ta odol ta malko,
zenbatzu irain jasan bear diran,
eguneroko ekiñaldi estuetan!
Bazenki gure odol-tanto,
gure izerdi, malkoetatik,
zenbatzu lili ta larrosa lurrintsu,
bazenki zenbatzu lore sortzen diran!
Bazenki gau illunaren ondorengo
arginabar ta goiz argiak
zein egun jorantsu biurtzen diran!
Bazenki itxaro-egoak,
alegin bizi kutunetan
noraño sustartu, sakontzen,
noraño zabaltzen diran...!
Ai, ori bazenki, bazenki
bizi-emate ori zein ederra dan,
bide-lagun on bat zifñake,
bai, gure Kalbario maitean» (2).

(2) «Bidean gora».

ERKIAGA EUSEBIO

Lekeition jaioa (1912).

«Erkiaga lekeitiarra, poesia baztertu gabe —zorionez— eleberriari ekin zionean, etzitzaigun nolana! asi, aizearekin burruka ari dena bezala, ongi jakiñaren gaiñean baizik. Ederki erakutsi du, izan ere, bidean topa zitzakean éragozpenak menderatzeko tresnez orniturik abiatu zela.

Erkiagaren izkeraz eta idaz-tankeraz esanak daude sarritan esan bear zirenak oro. Nork eztizkio aitortuko agerian daramazkien doai nabarmenak? Iztun ederra da beti, joria eta aberatsa, eta beste guztiaz gaiñetik jatorra. Jatortasun ori, noski, ain egoki darabillen jatorrizko Bizkaiko euskalkiari zor dio, izkuntza zabalago eta osoago baten oiñarri sendoa baizik ezpada ere. Ezpaitu euskalki ori estuegi mugatzen, zenbaitek oi duenez. Orrela mintzatzen delarik, zuzén ari da bere erritarrentzat, eta argi eta errazki gaiñerako euskaldunentzat» (Mitxelena Luis).

Idazlan asko egin ditu gure olerkari ta nobelista onek. Ona emen bere idazlan batzuk:

«Arranegi» (1959); «Araibar zalduna» (1962, gipuzkoeraz) eta «Bate-tik bestera» (1962). Nobelak. Argitaratu barik bere ba ditu beste nobela bi: «Neurria» eta «Aspaldiko Mairret».

«Kanpaien atsekabez», «Euskera», 1960. Teatro-lana.

Olerkiak aldizkarietan argitaratu ditu.

Irakurri daigun bere lora eder bat:

«Izarrak dirdizka ziarduen ozkarbi zabalean, gogoari ziri egiten dau-
tsan ixillezko aotsez, biozari indar eragiten dauksan itzbageko aginduz.
Iparraize eme batek surrumurru egian zumardiko zugatz-ostoean.

Lagun bi joiazan nasan zear, eta erdi illuntasun atan, ezin zeitekean
nortzuk ziran ezagutu.

Arranegiko zabalaren barrenera eldu ziranean, kantoian gora egin
eben, eta gero, eskumaldera. Zaldundegi-etxearen aurrez-aurre gelditu zi-
ran, iturriaren ondoan. Ango argi its, motel eta zurbillak indar andirik ez
eukan-ta, ez zan errez arpegiak ikustea. Ordurako zeatz illundu eban.

Autu luzeren batean ziarduen, antza.

—...éta oraintxe baiño ereti oberik...

—Esangura dozun ori, esan ziñeist —jardetsi eutsan emakumeak.

—Bada, zera... asarre-bide ezpalitz...

—Ez, gauza txarra ez baldin bada.

—Gauza txarrik zelan esan neizu nik zuri... maite zaitudala esango
baneutsu?

—Ori da guzti ori?

—Guztia da, ba? Ala nire esan au uste al dozu egoki-eza dala?

—Ez olakorik, baiña uste-uste bagako zera azaldu daustazu-ta...

Emakumeak, orra ba! onelako gertaeretan beti jokutzen dabe era bar-
diñez. Gizonezkoaren maitetasun-agerkundera, usterik bako azalpena izan
oi da eurentzat, eta arritu ta konkortu antzean lotzen dira, euren inguruan
—argiarenean inguma ta tximirritak bezela— jira ta bira egoak erre bea-
rrean, gizonezkoren bat aspaldi ikusi ta ikusita gero, noiz entzungo da-
gozana entzuten dabenean.

—Bada, leen ezpazentian ere, orain dakizun ezkeru, zer diñostazun
entzun nai neuke.

—Zer esan? Zer esatea nai dozu, ba? Erabatera eta itsumustuan erantzunik ezin emon neizuna jakin bear zenduke.

—Orrezkero, belu eldu nazanentz adiraziko?

—Niri esana, beste zenbat geiagori ere ez ete dautsazu esan?

—Baiña, ez bene-benetan, zuri orain azaldu dautsudan lez.

—Tira, ba, orrelan izan dedilla... baiña, noian etxera, berandu dala-ko, kaleak guztiak ere utsik dagoz-ta.

—Orduan biar gabaz...

—Biarko barri Jaungoikoak daki. Gabon, eta ondo lo egin! —ots ba-ten esanaz, arin-aringa joan zan neskatillea euren atetarantz. Ertzedegian egoan atea, apurtxu bat zabaldu eban eta an sartu zan beingo baten..

Mutillak Arranegi-kalean zear gorantz egin eban, eta kalertzeko ar-gipetik joakeran, burutsi joian gazte bat ezagutu genduan.

Jontxu zan.

Kaleetan ez ebillen ez, lagun andirik. Baiña andik geroetara bere, gabontz, mozolo ta saguzar banakaren batzuk ba ebiltzan ibilli; egorik gabeak, jakiña, ba.

Urrun-samarretik etorren berbaotsa, itz zaparradea, gero ta urreago, gero ta ozenago, eta noizean beingo barre algara gangarrak. Ezpeleta-kalean atso bateri leiora urten eragin eutsen eta itzaldi pipertsu au eraso:

—«Zer dakarre eurok, kankaiilluok alakuok! Nortzuk, eta betikoak! I-txasoko urak guztiak ez aal jakez noiz edo noiz arda biurtuko, alakoren baten naia edanaz asetu eta ito daitezcan! Bestelako bakea izango gendu-ke auzuotan. Lotsagalduko mozkor, ordi, barrua zaragiak berak baiño bere baltzago daukazuenok! Lotsatu be, etzarie egiten-ta, lotsatu be! Zantarre-riari emonda zearo, partilla usaiñik bada! Lanbasok alakuok! Eztautsue

beingoan diruak sakelik erreko! Zoiaze ondarrera, edo Talara, edo kabuko tanborrera!...

Itzaldi luze, zorrotz eta garratzori arnasa baten esanda gero, draska! ertsi eban leio atetxua andra zimelak» (1).

Errota-zuri

Erreka ertzean altza
ertzerago errotea;
inguruetan ederren
errotako alabea.

Marti-zozoa kantatzen
bidez goiko sagastian;
astotxu zaarra samauta
nekezka, aldapa erdian.

Erreka ondoko bolu,
—zuria goitik beeraiño—
gordeta daukan pitxia
eztot ikusi gaurdaño.

Boluxtuko neskatilla,
—larrosa eder dirudi—
ibar osoan ezta iñor,
ai, zeu baizen maitagarri!

Epaila lenen-egunak
—garia aspaldi erne zan—
oraindik ezta lorarik
ezkaratzeko arazan.

Neskatil zoragarria,
—emeretzi udabarri—
ire ibilkera jaiok
aundikiena dirudi.

Txakurrak zaunk etxaurrean,
—aatak errekan igeri—
neskearen ezpanetan
barrea loratu bedi

Errotatxuko alabak
urrezkoa dau biotza;
ai, ederra, nok leikean
entzun zugandik baietza.

Mendi artean ibarra,
errekertzean errota:
bolu aretan euskotar
neska garbi bat gordeta» (2).

(1) «Arranegi», 47-garren orrialdean.

(2) «Milla euskal-olerki eder», 707-garren orrialdean.

ZUBIKARAI AGUSTIN

Ondarroan jaioa (1914).

Olerkari eta teatro-idazle dogu Zubikarai.

Gure euskal-teatroa barrizatzen bizkortzen diardu jo ta ke. Teatro-lan asko egin ditu. Begira:

«Aberriagaz bizi», «Illobearen indarra», eta «Itxas-lapurrak». «Euzkadi»-n argitaratu ziran.

«Itsasertzeko itsu-mutilla». Argitaratu barik.

«Itxasora». «Egan», 1960.

«Seaska inguruan». «Egan», 1957.

«Jaunaren bideetan». «Egan», 1959.

«Iru alaba». «Euskera», 1964.

«Aingira kumak». «Egan», 1969.

«Mendu zaarrak», 1970.

«Mariñelak», «Kresaletan», «Ni naz kapitan piloto», «Zurrukutun», «Loiolako semea», Ederra jazo da zuen errian», «Gizon on ta andre erre?», «Bizi garratza», «Larrunpean», eta abar.

Irakurri daigun bere antzerki bateko lora eder bat:

«(Barrutik abestia entzungo da leun-leun lenengotan, geroago ta indartsuago. MIEL potiña dagon aldera ezkututzen da ta TXANGURRU bodegan sartu. Abeslariak sartu aurretik, bodegatik potiñera ostera bat edo bi egingo ditu tresna batzuk eroaten. Arrantzale taldea sartuko da ne-guan itxasora eroaten dituen jantziakaz, esku batean otzara ta lepotik mundillak dindilizka. Irudirik politena egiteko eran geratuko dira abestia amaitu arte).

Abestia («Nire maitia jeiki ta jeiki»-ren erara):

Arrantzalea, jaiki ta jaiki;
ez al zara loz ase?
Itxas arraiñak txartaka dira
laster ur goian agiri.
Goazen eguna argitu baiño len
agur egiñaz kaiari.
Jaiki arrantzalea,
potiña zure zain beti.
Errikoak ez daki
itxastarraren barririk;
lurra agurtu ta itxasoan
eguzki ta illargi.

TXANGURRU.—Ia, mutillak, gau-lorik naiko egin dozue-ta. Otzarak eta mundillak laga bizkor potiñean.

KAXPAR.—(Potiñera deiez balebil antzera) Artu, Miel, otzara au ta mundillak.

MIEL.—(Barrutik) Morroi barik ezer egiten ez dakizue ala?

KAXPAR.—Ia, ba, agurea emen dabil zazpiki antzera-ta.

(Guztiak, otzarak potiñera eroaten ditue KAXPARREN antzera).

TXANGURRU.—Bear diran guztiak ekarri dozuez?

KAXPAR.—Nik betiko antzera.

BATEK.—Nik beti beste.

BESTEAK.—Nik bardin.

KAXPAR.—Gitxi gora-bera, or ibilliko gara, nunbait. Jaki barik etzan iñor etorriko ta beste guztiak or konpon.

TXANGURRU.—Asi, ba, erramuak ataraten.

(Arrantzale bat bodegan sartu ta banan-banan erramuak ataraten asiko da, guztientzako atara arte. Erramuak artuala antzokian gora-tzen dira mutillak egal batetik besterako erreskadan).

KAXPAR.—Karraspio falta da oraindik.

TXANGURRU.—Arek berak naiko burukomiñik eta atsekaberik ba dau gaur. Semetxua il egin ei jako gaberdian.

(Guztiak, arrituta geratzen dira).

MIEL.—Semetxua il? Atzo illuntzean neuk ikusi neban, ba, geureagaz...

KAXPAR.—Ondo zoritxarreko ta errukarria da bera.

TXANGURRU.—Emen munduan ba ete dago iñor zoritxarreko ez danik? Atsekabe geiago edo gitxiago... baiña beti miña barruan. Nik neuk uste dot mutilzar geratzen diranak bakarrik dakiela zoriona zer dan.

MIEL.—(Asarre) Beti jardun bardiña darabizu. Guk ez dogu miñik orduan?

KAXPAR.—Zuek? Aita ta ama bizi diran artean pizka bat, baiña gero? gauza guztiei or konpon esan ta ibilli nai dozuén erara.

TXANGURRU.—Guk, beintzat, ondo pentsau ezkeru, atsekabe-miña ez da-roagu urrun, oraintxe ere. Oraintxe ere ba goaz, beintzat, gurasoak, kutunak, semetxuak, ondasunak, etxea, erria..., dana lagata, Jaungoikoak gura daben arte ta Berak bakarrik nai daben bideetatik zear. Lotan laga doguzanak, bearbada negarrez itxartuko dira gu geiago ikusi eziñik. Begiratu erriari..., ta ez dakigu azkenengoz agur egiten dautsagun. Ta beti bardin, beti onelaxe, beti joan egin bear, urrun-urrunera joan bear..., ura ta zerua besterik ikusten ez dan urrun-urrunera...

(Arrantzale taldeak, erramuak eskuetan dituezala, «Boga Boga» abesti ezaguna abestuten asiko dira iru edo lau abotsera, andikiro, bulartsu, gogo-gogoz).

(Abestia) Boga, boga,
mariñelak.
Joan bear dogu
urrutira,
bai Indietara.
Ez dot nik ikusiko
zure kai ederra.
Agur, Ondarroako
itxaso bazterra.
Mariñelak,
boga» (1).

(1) «Itxasora». «Egan», 1960, 271-garren orrialdean.

BERRIATUA IMANOL

Elantxoben jaioa (1914). Frantziskotarra.

Aita Arriandiagaren erritar onek beste bide batzuetatik eroan nai dau gure izkuntza idatzia eta Arriandiagaren antzera, au bere; aurrelari bat dogu.

Erri biziagandik ur-ur dabil aita Berriatua. Eta erriko berba bizi-biziak (naiz «garbiak», naiz erderatikoak) nasaitasun osoagaz erabilten ditu.

«Batzuk beste euskera bat gura izango leukee, garbiagoa, bitxiagoa. Baiña orain bizi dan euskerea ez da orrelakoa. Komentzidu gaitazan. Izkuntza baten giarrea mintzabide izan ala ez izanean datza. Nire ustez, euskera biziaren gaiñean egin bear dogu lan. Euskaltzaleen problema nagusia ez da izkuntzearen bitxitasuna, garbitasuna, bere bizitasuna baiño» (1).

Ona emen bere idazlanak:

«Kristiñau katezismoa» (1956).

«Pinotxo»; «Mari Errauskin»; «Edur-zuritu ta zazpi epoak»; «Katua zapatakaz»; «Loakartutako printzesatxua»; «Beraunezko soldadutxua»; «Alizia gauza miragarrien munduan»; «Paitakume itxusia», eta abar. Mun-

(1) «Bermeoko arraintzaleen leksikua», «Euskera», 1963-64, 385-garren orrialdean.



du guztiko ipuiñik ederrenak euskeratuta, oso ederto euskeratuta, ta oso ederto apainduta. Liburutxo mordo ederra ta onuragarria ikastoletarako.

«Bermeoko arraintzaleen leksikua». «Euskera», 1963-64.

Gaiñera «Anaitasuna» aldizkarian argitaratutako itxas-kronika bizi-bizi ta bikaiñak.

Ona emen bere lora eder bat:

Bermeoko arraintzaleak

«Bermeoko arraintzaleak (arrantzaleak, ez arrantzaleak), itxasoan lan egiten dabenak, bi milla ta berreun dira. Euretarike geienak, Bermeon jaiok. Nire ustez, ez dira eunera eltzen kanpotik etorri direan erdaldunak.

Bermeotar arraintzaleak beti egiten dabe eskueraz (eskueraz, ez euskeraz). Barkuetan ez da besterik entzuten. Euren arteko erdaldun banakak ez dira orregaitik keixetan. Ze erremedio! Pozik egoten dira eurakaitik noizik noizera egiten direan erderazko konbertsaziño laburrakaz. Erdaldun batzuk eskueraz ikasten dabe, batez bere mutil gazteak. Mundakako arraintzale asko Bermeoko enbarkaziñoetan dabilta. Mundakarrak, ba dakizue, erdi galdu egin dabe eskuerea; baiña Bermeora datozen arraintzaleak laster ikasten dabe eskueraz ondo egiten Bermeotarren alboan.

Bi milla arraintzale gau ta egun eskueraz egiten. Joan Bermeoko tabernetara, lamerara (alameda), ziñetara, ta ikusiko dozue. Joan, batez bere, arraintzaleen Kofradiara; asistidu Junta Jeneral batera. Antxe ikusiko dozue saloi andi bat, arraintzalez beterik, danak euren profesioño interesak defendidu ta jagoteko listo. Antxe entzungo deutzazue sekretarioari, karreradun bateri, eskueraz berba egiten Bermeoko arraintzaleen problema ekonomiku-sozialen gaiñean.

Baiña ez pentsa, gero, problema orreek txikiak direanik. Bermeoko igazko arraiñak berreun milloi peseta balio izan dau. Espaiña guztian baurako arraintzan Bermeok dauko flotarik andiena. Urtean baiño urtean

barku geiago. egiten diardue Bermeotarrak. Barku andiagoak, ederragoak, modernoagoak. Portuan ez dago ainbeste untzirentzako lekurik. Portu aundiagoa egin bear da. Edur fabrika kapazagoa. Orretarako dirua bear da. Milloi asko. Gobernuari eskatu bear jako. Problema ekonomiku andiak.

Euron gaiñean berba egiten dago sekretarioa. Beti eskueraz. Otsean otsean asten dira berba egiten batzarreko arraintzaleak. Beti eskueraz. Eurak ez dauke edozer gauzaren gaiñean berba egiteko difikultaderik. Eskuerea da euren berbabidea. Bide erreza, naturala, guztiz egokia. Eurak ez dauke leksiku problemarik. Ez deutse bapere ardura euren leksikuaren erroak erbestekoak badira, frutua beti euskualduna da-ta. Euren ustez, euren eskuerea ona da, total ona, biziteko eta gizon modernuak izateko baliu deutsalako.

Orra or eskualdun uri aundi bat. Amalau milla abitanteko uria. Arraintzaleak, euren familiakaz, bederatzi milla edo dira. Beste guztiak, terrestreak. Kanpotar banaka batzuk izan ezik, erritar guztiak eskueraz dakie, askotan —batez bere terrestreak— erderaz egiñarren» (2).

(2) «Bermeoko arraintzaleen leksikua». Bermeoko euskeraz, apur bat orraztuta.

KEREXETA JAIME

Elorrion jaioa (1918). Abadea.

Olerkari legez agertu eban bere burua Kerexetak euskal-literaturaren plazan.

Gerora, olerkiak alde batera itxita, Liburu Santuak eta Meza-liburua euskeratzen ekin deutso. Eta lan bear-bearrezkoa ta txalogarria egin dau.

Bere idazlanik ederrenak oneixek dira:

«Orbelak» (1958). Olerki txorta bat.

«Bitargi» (1960). Bigarren olerki txorta.

«Jesukristo gure Jaunaren Barri Ona (Ebanjelio Alkartuak)» (1960).

«Eguneroko Meza» (1963). Meza-liburua.

«Didaje (Amabi Apostoluen Irakaspena)» (1965).

«Apostoluen egiñak eta idazkiak» (1965).

«Jesukristoren Barri Ona (Lau ebanjelioak)» (1966).

«Salmutegia» (1967).

«Umeen Biblia» (1969).

«Euskerari buruz, barriz —diñosku berak bere «Eguneroko Meza»-ren

itzaurrean— ezin eder egin daikeoet guztiai: batzuek euskera landua dakie, beste batzuek ez; urliak euskera garbia nai dau, berendiak orrenbeste be ez. Ta, zoritxarrez, geienak ez dabe artu iñoiz eskuan euskerazko gramatikarik, eta, beraz, ez dakie esaera bat zuzen ala oker dagoanik. Eskerrak, orraitino, gure erriak bere joskera jatorra galdu ez daualako!

Gaitz, benetan, guztien gogoa betetea! Alan be, bide bakarra artu dot: bai mordoillokeritik, bai garbikeritik alde egiñik, erdiko bidetik joatea. Bestetara ekitea, barriz, gaur euskeraren kontra egitea dala uste dot.

Beste onenbeste diñot itzai buruz be... Gaiñera —linguista guztiak diñoenez— ez dira berbak izkuntzari bizitza emoten dautsenak, joskera jatorra ta gramatika baiño. Gramatika da edozein izkuntzaren arima. Ez, ostera, edozelan asmatutako gramatikarik, erriaren izkera jatorra oiñarrizat daukan gramatika baiño. Eta errian sendo sartuta dagozan itzak —len zuzen sortuak izan ezarren, naiz erderatik etorriarren— edonoiz erabilteko eskubide oso-osoa dago, bai berbetan, bai idaztez».

Ona emen bere olerki eder bi:

Iguriako errotan

«Iguriako errotan,
amairu sorgin gabeen;
Iguriako errotan,
dantza-danzari kantetan.

Areik bai gorputz ariñak,
arpegi argi, oin bizkor!
«Klin, klon, klin ta klan soñuaz
ekiok ik, bolu, gogor».

Aldameneko lerroian
mozolo zarren kurrinkak,
ta Goikoetxe-egalean
ontzearen erantzunak.

Argi-diztirak aidean,
egaka suzko anderak,
Anbototik berantz, gorantz...
Errota ondoko dantzak!

Ambotoko Anderea
batzarre-buru nagusi;
bolu ondoko zelaian
sorgin oztea nabasi.

Sorgin gaba don, itxuraz;
illargi bete; ozkarbi;
izarrak diz-diz; aizea
lotan... Au gau zoragarri!

Iguriako errotan,
eundaka sorgin gabeen;
Iguriako errotan
dantza-dantzari kantetan!» (1)

Kanpai-otsa

Kanpai-otsa torrean:
norbait il da, itxuraz.
Txoriak ixil, mutu,
otsaren durundaz.

Erritarrak, erreguz;
etxandrak, itaunez:
«Nor il da?» Ta guztiak:
«Kaleon, iñor ez».

(1) «Orbelak», 42-garren orrialdean.

—I izan aiz or tiroka? —preguntau zetsen basarritarrak.

—Bai, ta ix-eixa bota juat erbi bat. Bigarrengo tiruan belarri bat kendu jetsat.

—Olan bada, ondo ein detsak. Etxaukan zertan juan iru belarrikin» (4).

(4) «Eztenkadak», 20-garren orrialdean.

Kazariak

«Guzurrak kontatzen dauken famiagaz baintzat, eztago kazarieri ur emotekorik. Ez da Euskalerrikua bakarrik. Kazariak mundu guztian daroie guzurti famia. Bismarcken iritxiz, inoiz ez ei da guzur geiago esaten gerra baten besperan edo kazarako besperan baiño. Eibarren norek eztaki kazari ezaun ari gertautakua? Agiñazpiñeko tabernan kontu-kontari ziar-duan, uste gabian amalau librako erbiak sasi artetik urten da, tiro bateko eskopetia izanarren: «Danba! Danba!», jaurti ei zetsan.

Tiro bateko eskopetiakin «Danba! Danba!» eitxeko, zer ez ete dabe egingo gure kazariak. Baita alanbre gañian ollagorra be. Ta, Eibarko «Diana»-n (2) dianak eta ez dianak.

Eibarren diñuenez, zerbait dakarrenian, da ori ezta sarri izaten, Untzaga plaza erditik pasatzen ei diraz etxeruntz arro-arro jenterik geien dabilen orduan, txakurrak pe buztanari eraiñaz. Barriz, utsik datozenian, geienetan gertatzen jakuen moduan, aiuntamentu ostetik, trenbidetik ziar apal, txakurrak, pe buztana ankapian gorderik lotsiaren-lotsaz. Baiña bixamonian txori txortak kontauko dituez» (3).

Karraspori pasautakua

«Basarri inguru batian ebillen txakurran arrastuari jarraika, ta batera-batera: «Danba! Danba!». Benetan gaiñera, ze, Karraspiok ba eukan tiro biko eskopetia, ta zerbaiti tiratu biar izan zetsan.

Basarriko ataian etxeko gizona euan da, tiro otsa entzun da lasterre-ra, bere aurrekaldetik pasau jakon erbi eder bat, osasun onakin igesik. Karraspion tiñuari anka einda.

Geruago, an agertu zan Karraspio, egarria asetzeko ur eske.

(2) «Diana» dau izena Eibarko eiza ta arrantza alkarte batek.

(3) «Eztenkadak», 16-garren orrialdean.

SAN MARTIN JUAN

Eibarren jaioa (1922).

«Otsalar» erabilten dau izen ordez.

Euskera kultura bideetara eroaten diardun euskal idazle aspergabea dogu San Martin Juan.

Olerkaria eta saio-idazlea da, batez bere.

Liburu bi idatzi ditu bizkaieraz (Eibarko euskeraz): «Zirikadak» (1960) eta «Eztenkadak» (1965). Euskal-umorea darioen liburu atsegingarri bi dira.

Euskera erreza, bizia, erri-errikoa darabil. «Geroago ta ziurrago nago, erririk barik euskera salbatzerik ez dogula. Errianganako lokarriak apurtzea, akademismu utsezko euskera batera jotea litzake, ta akademismu utsa izango litzake euskeraren eriotza. Bizia bai da izkuntza guztien muña ta izate guztia. Izkuntzak, izkuntza bezela ez dau beste zentzunik, bizia baiño» (1).

Leidu, adibidez, urrengo zatiok:

(1) «Zirikadak», itzaurrean.

**Ez dakie nor il dan;
iñor geisorik bai?
Ez egin jaramonik
erriko kanpaiak!**

**Baiña areik, astiro,
din-daun diardue:
eguneko egia
eurak dirautsue.**

**Ekin gogor, kanpaiok;
zabal gure ituna!
Gaur goizeon il baita
biren maitasuna! (2).**

(2) «Bitargi», 26-garren orrialdean.

ALZOLA NIKOLAS

Izurtzan jaioa (1922). Lasailletarra (Eskola Kristiñauetakoa). Erlejiñozko izena: Anai Balendin Berriotxoa.

«Gaurkoz gutxi izango dira Euskalerrian bera lango langillerik kultura arazoetan. Aibat aldizkaritan aibat izenegaz agertzen dira bere emaitza onurakorrak. Bere idazkiok zein aldizkaritan agerrerazten dabezan baiño errezagoa ta obeagoa litzake zeintzuetan argitaratu ez daben aipatzea. Ez dot ezagutzen bere luma sartu ez daben aldizkaririk, naiz erderaz, edo naiz euskeraz. Izan be, iñork bai al daki zenbat izenorderen pean agertzen diran bere lan orreik?...

Gure Nikolas Alzola Gerediaga, Anai Balendin Berriotxoa, N. de Cortazar, Bitañ, Markue, Ozerin-Jauregi, Alzarte, Dolometa, Oxiñondoko Txoria, V. del Parral edo danalakoa, ez da erreza izanez eta izenez mugatzea. Noizbait konturatu zan euskal kulturaren arloan asko egoala egiteko ta gutxi zirala egingo dabienak. Ta bera lezko gizon kezkatia ezin leie arnasarik artu esparru estu batean. Arduraz eta leun aztertu ditu gure kondaira, bibliografia, literatura, biografia laburrak, erri-ipui ta abar, ta ez gutxitan gure artisten lan eta bizitzaretzaz. Olerkari saillean be aspalditik dabil, ta azkenengoz artu daben bidetik (ikus 1966-ko «Egan»-en; Oar laburrak: «Kantuz eta itxaropenez» poema eztsua) kimu barriak emongo deutzaz eusko-olerkaritzaren magalari» (1).

(1) San Martin Juan, «Atalak», Itzaurre irukoitzean.

«Berbaz urri, baiña zer-esantsu. Anai Berriotxo pintatzallea ta dibujogintzari emona be ba da; lumaz esaten dituan gauzak be, esango neuke nik, irudi baten azpian, kuadro baten azpian azalgarri ipinteko egiñak dirudiela. Ortik euren laburtasuna. Pintatzalle batek, margolari batek orixe egiten dau: ikuspegi andia dana oial baten txikitasunera ekarri. Gure idazle onek bardintsu egiten dau: barruko ikuspegiak, andi andika, laburturik emon, euskera errez gozatsu baten.

Idazkerek, estiloak, norbaiten izakerea ta nortasuna agertu ta salatzzen baditu, idazle onen idazkerek beronen arte andia, epea, egoarria agertzen dituela esango neuke. Bere berbai naiñondik darie bake-giroa» (2).

Orain arte, liburu bi argitaratu ditu:

«Cien autores vascos», San Sebastian, 1966.

«Atalak» (Erkiaga, San Martin eta Akesoloren itzaurre irukotx ederrarekin), Zarautz, 1967.

Azkenez, ona emen lora eder bi:

Udagoiena

«Sartu gara Udagoiengan.

Gorritxu dagoz mendiak. Asi dira jausten zugaitzen orriak, oritu ta gero.

Iñoz baiño ederragoak baserrietxeak, kare zuriekin dotoretuta.

Amaitu ziran gari-joteak.

Artoak eldu dira, eta agura zarren antzera buruak makurtuta, artoburuak.

(2) Akesolo Lino, «Atalak», itzaurre ikukotxean.

Asi dira idaebagiteak.

Umeak be asi dira eskolara.

Kanpotarrak, joan dira uri-aundietara.

Emen gelditzen gara gu, gure eginbearrak betetan, ogia eta zerua irabazteko.

Ibarlako erreka ertzetik joan etorri bat egin dogu, arratsaldeko illuntzi inguruan.

Aiako aitz-tontorrek gorrizkatsu ikusten dira, Oiartzun aldetik.

Elaiak argi-ingar arietan dagoz pillotuta, Ego aldera danak batera joateko.

Mutiko bat dator baserri batetik, otzaratxo bat bete sagarrekin.

Mutiko potoloa da.

Udagoienaren irudia dala egiten jata neri» (3).

Kantuz eta itxaropenez

«Neuk be eztakit nik zelan urten eban
arek kantu barri arek
nire ezpan mutuetan

Bertan-bera itxi eutsien
euren olgetiari
auzoko umiek be
nire kantu barria entzuteko

Eta makillia eskuan artuta
zutundu zan bere jesarlekutik

(3) «Atalak», 68-garren orrialdean.

agura zarra be,
nire ingurura
etorteko

negar anpuluak ekazan begietan
eta irribarrea ezpanetan

barrero gaztetu egin ete-jakon ba biotza
nire kantu barria entzunda?

Nundik eta nora etorri ete-zan ba
nire ezpain mutuetara
a misteriozko kantu ez ezaguna?» (4).

(4) «Oar laburrak: Kantuz eta itxaropenez», «Egan», 1966, 32-garren orrialdean.

GANDIAGA BITORIANO

Mendatan jaioa (1928). Frantzizkotarra.

Gai sakonak eta euskera ederra darabil beti euskal-olerkari onek.

Gaurko olerkaririk onenetakoa dogu. «Nekez ager diteke Gandiagaren neurrikorik» (Mitxelena Luis).

Bere idazlanik ederrena «Elorri» liburua da. «Goratasun edo mailla ontako gauzarik eztala egundaiño egin gure izkuntzan esango nuke nik» (Aita Villasante).

Olerki asko argitaratu ditu «Olerti», «Aranzazu» eta «Egan» aldizkarietan bere.

Ikusi daiguzan, bada, bere lora eder batzuk:

Ez egidazu esan

**«Ez egidazu esan
biotzik ez dodanik,
zure maitasuna
alde batera itzirik,**

**komentu latz ontara
etorri nintzalako.
Biotz asko bear da
biotza ukatzeko» (1).**

(1) «Elorri», 179-garren orrialdean.

Zein laister

Zein laister betetzen
garean ez-deusez.
Zein laister ustutzen
garean ain errez.
T'ez-baiez ta urduriz
ta aduz eta alaxez,
jorantsu zein laister,
beti be, ta ain berez.

Eziñen ateetan
betiko eskale,
gurari miñenak
ezin ditut bete.
Usteak zein ustel!...
Aizeteen mirabe,
ames bakoitza jat
lillura ta neke» (2).

Zeurekin noa

Gizon begi-goritu,
gizon jagi-zale,
gizon griñen-katigu,
gizon miñez-bete...
Gizon...

Zeuk legez daukat

arima gartsu bat.
Zeu legez nekatzen naz
muga leun baterantz.

Gorputza, zur ta burdin.
Ariman indarra.
Bien artean, beti,
zerbait, kirri-karra.
Etzan izan koipea
jan gendun sagarra.
Lander doa itxasoan
gure ontzi sorra.

Gizon begi-goritu,
gizon urten-zale,
gizon bakez-gosetu,
gizon katez-bete...
Gizon...

Zeuk legez daukat

arima gartsu bat.
Zeuk legez, naikun biren
soka-tira daukat.

Gorputzak bere gusto
gaiztoak ba ditu.
Zeiñen sendo jakozan
ta zeñen zoratu!
Begi gabe daroe,
arriskuz-arrisku,
engaiñuzko loturaz
bizirot katigu.

(2) «Olerti», 1967, 6-garren orrialdean.

Jaunak geure menpeko
egin eban lurra.
(Baiña ba dogu, nunbait,
zaiñetan mozkorra.)
Gurari illun bateri
makurtuz bizkarra,
jabeak morroiari
zor ez deutsan zorra.

Arima, bere aldiz,
ernegu da bizi.
Ezin da beekoz ase
fiñagoa izaki.
Espiritu ta gorputz
biekin bat naz ni,
bien nai ezbardīnak
nabe gerra-toki.

Gizon, zeuk legez daukat
arima gartsu bat.
Zeuk legez, naikun biren
soka-tira daukat.
Betiko jardun baten
nekea daroat:
Ezagun nau gogaitak.
Etsipen lagun jat.

Gizon begi-goritu,
gizon lertu-zale,
gizon griñen-katigu,
gizon miñez-bete...
Gizon...

Zeuk legez esaten dot
neure zori miña,
negarrez erregutuz
poza ta atsegiña.
Atondu nai daroat
—ai, naia ta eziña!—
zalantza, aize, fedezko
barruko lorriña.

Adimenaren illun,
oroimenen ausle,
borondateko uger,
naikerien aize,
sentiduen engaiñu,
indarraren kalte,
ostutako sagarrak
zenbat bear deunge!

Atsegin baratzean
sagarrak kimetan.
Tentaziñoa orri
orlegi artean.
Ume nintzan goizean
gauzak argi ziran.
Begiotan illuna
gero azaldu zan.

Zeurekin noa

mugako porturantz,
gauzak argi dagozan
erri askaturantz» (3).

Zein gozoa dan

«Zure barririk ez neukanean
—neure Jaun eta Jabea—,
sarri pentsatu neban, zoroki,
zugandik ezkutatzea.

Baiña zugandik nor ezkutatu?
—Orain ba dakit, Jainkoa!—
zugandik iges niñoiatarik,
zeugan nengoan osoa.

Ene, Jaungoiko neurri gabea,
—urbil neurea ta urriña—,
zein gozoa dan zugandik alde
al eziñaren eziña!» (4)

(3) «Elorri», 157-garren orrialdean.

(4) «Elorri», 86-garren orrialdean.

BILBAO FELIX

Morgan jaioa (1932). Frantzizkotarra.

«Zuetza» izen-ordea erabili dau aldizkarietan argitaratu diran bere idazlanetan.

Bere idazlanik ederrena «Ipuin-barreka» liburua da. Liburu atsegingarria, benetan, auxe!

«Nun dago, ba, ipuin oneen balioa? Nere ustez, izkerearen jatortasunean. Izkera arraia, bizkorra, bizi-bizia ta biurri antzekoa dabe. Bizkaiko euskerearen una ta mamiña erakusten deuskuela esango neuke. Alkar-izketean, batez be, zelako bizitasuna, eta zelako esaerak, erriko berbetearen kolore guztiakaz jantziak!

Gaia beste nunundik artu dabenean be, bere modura egosten daki, eta soiñekoa barriztauta urtetan dau bere eskuetatik.

Benetako euskaldun osoaren berbeteak zelako giarra ta mamin gizona daukon jakiteko, liburu gitxi topauko dozu au baiño egokiagorik» (Aita Villasante).

Irakurri daigun, bada, ipuin eder bat:

Ezkontza-auste bat

«Ba zan, ba, matrakea etxe aretan! Mutillak! Auzoko txakur eta katu

guztiak alkarren kontza asita be, eztot uste Lorentzorenean izaten zan baiño zarata aundiagorik atarako leukienik.

Familia izango ebela ugaria? Ez, irakurle. Ez euken semerik bat bera be. Lorentzo ta Toribi zirean guzti onen egille. Senar-emazteok, ezkondu zireanetik, ez dakit bakezko egun bat igaro ebenik. Joseuss! A zan ezdabaida ta errieta egin-bearra! Egunean ordu pare bat igaroko eben, gitxienez, alkarri trapuzar eta zer esan guztiak arpegira botaten. Lorentzok Toribigaitik ganora ta ardura bako alper zar bat zala. Toribik Lorentzori diru-galtzaille, mozkorti galdu bat zala...

Bestaldeko Paulak-eta ba euken konziertu ta musikarik asko joandako urteetan. Ia gogait eginda be ba egozan-ta.

Paula-ta gogaituta, beraz? Geiagotxuago egozan gure matrakalariok. Baten baiño sarriago emon eutsen gogoak bestala biziko zireala bakoitxa bere bidetik, ezkontzea ausita. Nork, baiña, orrenbesterako bularrrik? Etzirean ausartuten. Baiña egunean baiño egunean ezdabaida ta matraka gogorragoak eukezan-ta, azkenean, bai. Nai ta mundu guztiak jakin bear izan, ezkontzea ausi ta bakoitxa bere bidetik joateko burubidea artu eben.

Ta nora joango zirean, ba, ezkontza-austearen billa? Abadearengana, jakiña. Irribarrez artu ebazan Don Pedrok.

—Ezkontzearen austea nai dozue, orduan?

—Bai, Jauna. Ezkondu ginduzan legez, ezkontzea ausiteko almena be ba daukala berorrek entzun dogu-ta.

—Ez zarie zoriontsu alkarren laguntasunean?

—Zoriontsu? Inpernuko demoniñoak geiago jakoz, Jauna.

Ta Lorentzo asi jakon emaztearen «birtuteak» azalduten. Toribi mutik geratu? Bai ondo be! Laster itxiko eban narru gorrian Lorentzo giza-joa, Don Pedrok, berbea artuta, ixildu ezpaebazan:

—Ondo dago, ondo dago, ene semeok: biok dozue arrasoirik naiko. Ondo baiño obeto egin dozue ezkontza ausitera etorteagaz. Eleizpera joanda, an itxaron eidazue apur baten. Laster joango naiatzue.

Don Pedroren berba oneik oso poztu ebezan gure Lorentzo ta Toribi. Alkarregazko askatasuna! Olako zorionik!

Abadeak esan eutsenez, eleizpera joanda, alkarren ondoan belaunikatu zirean, ezkondu zirean egunean lez. Etorri litekean Don Pedro ezkontza-austea egitera.

Etorri be ba etorren, ba; Eleiz-jantzi ederrez eta ospatsu etorri be. Sakristaua ekarran aurretik kurutzeagaz. Alboan mutiltxu bi argi banagaz. Ta berak eskuetan liburu bat, ur bedeinkatu ontzia ta isopua ekarzan.

Eleizpera etorkeran Don Pedro ikusi bazendun, irakurle, zeuk be txapela kendu ezeze, errespetoz belaunak lurrean jarri be egingo zenduzala ziur nago. Baiña eleizpe atan egonda, Don Pedroren burutaziñoak ezagutu bazenduzan, barre-santzoa ugari izango zendualakoan be ba nago.

Ezkontzako sakramentua ausi? Lorentzo ta Toribi, buztarran dagozan idi bi legez, askatu? Bai ondo be; Ezkontzako sakramentua olgeta bat data! Leziño on baten bearra euken areik, ez besterik!

Ta ez ardurarik izan, irakurle. Beingoan artuko eben Don Pedroren eskuetatik.

Sakristaua kurutzeagaz aurrean, ta mutiltxoak ondoan ebazalarik, Goetzain Jaun batek baiño be ospatsuagoki emon eutsan asikerea funtziñoari Don Pedrok: «In nomine Patris, et Filii...». Gero, eleiz-liburua idigita, mar-marozka latinezko zeozer irakurten ebalakoa egin eban, miñutu bi inguruan edo. Otoitzak amaitu ebazanean, berbalditxo bat be egin eutsen orren burubide ona artu ebela-ta zorionak emonaz. Eta orain etorren ezkontza austeko zeremoni edo egin bearrekoa. Eleiz-liburuak ez ekarrela? Neu be orretan nago. Baiña Don Pedrori ez eutsan obeagorik buruak emon. Zer ete zan berau? Eleizpe atan egon baziñan, irakurle!

Don Pedrok busti eban isopua ur bedeinkatu ontzian, eta —ezaitez bildurtu, Lorentzo, ez da ezer: bedeinkaziñotxu bat— kaska! emon eutsan buruan isopuagaz. Gero, barriro isopua ur bedeinkatuan bustita, beste kaskarreko bat Toribiri. Gero, barriro Lorentzori; urrengo Toribiri. Oneri bat, orreri beste bat, geroago eta abiada eta indar aundiagoz, kiski ta kaska,

jo ta ke... Ene mutillak! Zelako bedeinkaziñoak zirean eurok! Burua erdi-bitu bear eutsen-ta.

Ta zer? Don Pedro gelditu? Baita zera be! Bere eginbearrari leña ekion: kiski ta kaska, emonalean...

—Jauna, baiña noiz amaituko dau berorrek ezkontza-auste au?

—Ai, seme-alabatxuok! Min artuten dozue? Ondiño iraungo dau, ba, apurtxo baten.

Ta larregi be ba zala? Neuk be alan uste döt, irakurle. Baiña Don Pedro etzan, antza, gure iritxikoa: kaskarrekoka jarraitu eban, senar-emazteeri negar eragiteragiño ta geiagotxuago be bai.

—Ai ene, ai! Don Pedro: amaitu bei ainbat ariñen funtziñoa. Ai, ai, ai!...

—Min artuten dozue, orduan? Jakin eidazue, ba, enetxuok, jakin, bein betiko: Ezkontza ezin ausi daiteke arik eta biotatik bat il arte.

—Ezkontza austeko biotarik bat il bear? Eleiz-funtziño au orren gogorra bada, oba dogu, Toribi, etxera joanda, ezkondu giñanean agindu genduanez, bakean eta luzaro bizi.

Goazan, Lorentzo, goazan ainbat ariñen!

—Bai, seme-alabatxuok: olan egiten badozue, bizitza onetakoa ta gero inpernua be aldenduko dozue zuekandik. Ta zerua lortu be bai, enetxuok!

Arrezkeroztik, Paula bestaldekoak-eta, ez eben denpora askorik igaro Lorentzoneko matrakak entzuten. Senar emazteok öndo ikasi eben, antza, Don Pedoren leziñoa» (1).

(1) «Ipuin-barreka» 145-garren orrialdean.

ETXENAGUSIA KARMELO

Igorretan (Durangon) jaio zan Etxenagusia (1932). Abadea da.

«Euskaldunok, azalez beintzat, otzak eta biotz gogorrek edo agertzen ei gara sarri askotan; baiña azal orren azpian ez ete daroagu, gero, biotz bigun samur bat eta ez ete gara erromantiku negarti batzuk? Euskera dala-ta, beñipen, zenbat bertso eder, zenbat aiene, negar garratz ta itxaropen gozo gure liburuetan!» (1).

Biotz bigun samur bat dau Etxenagusiak bere. Baiña ez da erromantiku negartia, egite-zale irribarretsua baiño.

Idazlan txalogarriak eta onuragarriak egin ditu gure idazle zeatz eta langille onek. Begira:

«Bizkaierazko elerti (literaturaren) atze edo edesti laburra» (Eskola-barrurako bakarrik). Derioko Seminarioan emoten dituan euskerazko klaseatarako egiña. Argitaratu barik.

«Bizkaiko euskal-idazleen Lorategia». Bilbao, 1957. Multikopiaz egiña.

«Gipuzkoako euskal-idazleen Lorategia». Bilbao, 1967. Multikopiaz egiña au bere.

(1) «Bizkaierazko elerti (literaturaren) atze edo edesti laburra», 7-garren orrialdean.

«Euskal-idazleen Lorategia». Donostia, 1967. Aurreko Lorategi bien laburpen bat. «Bilduma bat dozu liburu au: batetik, neure lantxu bi batu ditudalako emen (urteokaz neure ikasleentzat polikopiaz egindako Antolojia bi, «Euskal-idazleen Lorategia» izenarekin: bata, bizkaierazko prosistena; bestea, gipuzkerazkoena); bestetik, gure prosistarik onenen zatiekin osotutakoa dalako. Danetarikoak dozuz idazleok: zaarrak eta oraintsuagokoak, jokera batekoak eta bestekoak, edo ta bien bitartekoak... Egia esan, ba dago, bai, nun aukeratu! Ta or gabiz, gero, gu zer ori zabaltzen: euskeraz ez dala ezer idatzi! Bear bada, ezin geintekaz asko arrotu inguruko errien aurrean; baiña egundo iñungo eskoletan irakatsi ez deuskuen izkuntza zaar onek orrenbeste idazle sortzea, ez ete da arrigarria? Ni neu baiezkuan nago...

...gure gazteak, burua landu nai badabe, erbesteetako literatura ez eze, geure-geurea dogun euskerazkoa be sakon ezagutu bear leukee; ta ezagutu bere, ez gero edozelan, ur-urretik baiño: au da, idazlerik onenen lanak irakurri ta aztertuz...» (2).

Beste lan eder bat darabil esku artean, azkenengo urteotan: Liturjiako texto ta umetxoentzako dotriña barriak euskeratzea.

Ona emen, adibidez, bere lora eder bat:

Euskerearen antxiñatasuna ta senideak

«Noztikoa ete dogu gure izkuntza?—Zaarra be zaarra danik ez dau gaur iñork ukatzen: «...lengua, que podemos considerar, sin ninguna exageración, como el resto único de un continente lingüístico de extensión desconocida, que fue sumergido por las olas de los invasores de lengua indo-europea, hace ya más de tres mil años... Monumento único para la historia de nuestra Península, y aun de todo el occidente de Europa» (A. Tovar). Auxe da, ba, gaur garbi esan geinkeana: izkuntza indo-europeotarrak baiño leenagokoa dogula, gitxienez be, gure Euskera zaar au; or-

(2) «Euskal-idazleen, Lorategia», itzaurrean.

tik aurreragorik, ezin jakin gauza garbirik... (Paradisuan Jangoikoak Adani erakutsitako izkuntza dala; edo Babelgo naaste aretatik datorrena, Tubalek ekarritakoa, ta olako zerak... zera baiño ez dira: ipuin utsak, edo buru bero baten ameseta gozo ustelak; jakintza zeatz otzaren aurrean, mututu egin bear olako ao beroak...).

Euskerearen senideak.—Munduan, jakiña, izkuntza asko ta asko erabilli izan dira, ta gaur egunean be erabilten dira. Itxura baten ain desbar-diñak izan arren, jakintsuek, gauzak aztertu ta aztertu, izkuntzarik geienen artean alako senitasun batzuk (andiagoak edo txikiagoak, estuagoak edo nasaiagoak) aurkitu dabez... Euskereari, ostera, ezin deutsoe senide eza-gunik aurkitu: or dago berau, beti bakarti, beiñolako Melkisedek aren antzeko edo... Au dala-ta, gaur askok «IZKUNTZA BAKARTIĀ» («lengua isla») deitzen deutsoe» (3).

(3) «Bizkaierazko elerti (literatuaren) atze edo edesti laburra», 2-garren orrialdean.

ETXEBARRIA JUAN ANJEL

«Santurtzeko semea nozu (1934), jaiotzez erdalduna. Euskaldun barria, beraz, euskaltzale zarra baiña.

Oso gazte nintzala, arrazaren abotsa senti neban ene baitan, erraie-tatik deika. Arrezkero, maitasuna dot zirikatzaile, gidari ta elburu. Eus-kalerrri ta euskeraganako maitasuna, alegia...» (1).

Maitasun orrek eraginda, idazlan asko egin dauz Etxebarriak, idazlan txalogarriak. Begira:

«Euskal Iztegi Laburra» (A-I).

«Apuntes de vascuence». Gramatika labur bat.

«Maitale galdua»; «Basoko loreak»; «Lo ta amets»; eta «Ezpata zo-rrotza». Olerki txortatxoak.

«Euskal Idazleak» (I) Mendiburu'tar S.

«Euskal Idazleak» (II) Añibarro'tar A.

«Katalunyako olerkiak»; «Españiko olerkariak euskeraz» (I); «Españi-ko olerkariak euskeraz» (II); «Prantziko olerkariak euskeraz».

(1) «Basoko loreak», itzaurrean.

«Batikano II-garren Batzarraren Agiriak» («Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak»; «Gizarte artu-emonetako bideak»; «Jaungoikoaren Agerpena»; «Kristau Aziera»).

«Giza-bizitza». «Humanae vitae» euskeraz.

«Phedroren alegiak»; «Martialen Ziri-bertsoak»; «Esoporen alegiak»; «Perraulten ipuiñak»; «Kikeroren eskutitzak»...

Eta abar eta abar (2).

Ona emen, bere lora eder bat:

Zure agurra

**«Egun luzeko ekin-bearrak
soiñez ta gogoz aulduta,
ustekabeen zure ondotik
pasa naz, biotz minduta.**

**Zure aurpegi alai-gozoak
biotz-barnea leunkiro
igortzi daust ta indarra emon
bideari jarraitzeko.**

**Nere biziko bakartadean
zure agur samur ori
gogo-ortzean josita daukat
ordu illunen gozagarri» (3).**

(2) «S. Antongo Katekesia»-k argitaratu ditu Etxebarriaren idazlanak, Bilbon.

(3) «Maitale galdua», 7-garren orrialdean.

BILBAO ANTONIO

Morgan jaioa (1937).

Beste euskal-idazle askoren antzera, ainbat izenorde erabili ditu gure olerkari onek bere: «Mintegi», «Atxondo», «Aurrekomendi», «Itxaskirru» eta «Morga».

Olerki liburu bat egin dau; baiña argitaratu barik dago oraindiño. Orain arte argitaratu ditun idazlanak aldizkarietan agertu dira.

Ona emen bere lora eder bat:

Irribarre ta lore

«Maitea, ames daigun batera,
ikuste zoragarri bat ba jatorku
begien aurrera.
Ara, une batean,
bizitzak daukan ederra.
...Musker dago bazterra,
zugaitzak ler-bear.
Pozaren barria ugalduz
loreak apaingar.
...Lotskor eta bikain
kuruntzun-lorea:

birjin baten jantziaren
lotsea dirudi...
Ara non makatza:
ur garbien bitz zuria gorantza...
Sortegun den, maitea,
izate orok barnean daukan
indar ta zoramen...
Izadi oro baitago bestan:
—gaur egubarri—!
ale asko sorturen
laztan bizitzari.

Poztu bitez, maitea, zure begiak,
 Ederra baitogu jauregiz,
 izadi guztia eliz,
 solas gaitez an maitemin!
 ...Larros botoek girri,
 argi-bera larri,
 ler adi lore,
 eguzkide gar guri!
 Ortzipean dator gurgil arrigarri
 izadi mirariaren
 sorkun eta arri.
 Zugaitz orri barriak
 irri, irri, irri,
 zugaitz gainburuak
 eguzkitan igeri...,
 orri aizetuek kili-kili.
 Atsegiña ba da goizeon ugari.
 Txoriak ikas dabe ikas
 ainbat zoragarri;
 txindorra goizerik,
 arat-onat jolas,
 abes bizitzari.
 (Lorak eta bedarra
 sortzen sarri-sarri...)
 Lillura zoramen bat
 intxaurrondo loretan,
 irribarrea dirudie
 alako begi orietan...
 Egazti-piztiak ba dakie
 maitasuna zer dan:
 kukua aristietan,
 lantzarrean txirri-txirri...
 (Bizidun oro sentitzen da
 gaur olerkari...)
 Arnas andi bat dago

alder guztietan...
 Bizitza den, maitea,
 bizi gura andi,
 bedar, zugaitz, sasi,
 solo, lantzar, lorea,
 ta Izadiak Izadi.
 Lantzar onen erdian kerizea,
 keriz eder paregabea...
 Edan bekie, maite, zure begiok,
 keriz onen lillurea,
 begira zaitudanean
 zoratu daitezen neuriok...
 Bestalderantz zu, solondoko
 [sagasti,
 lora-atsegiñetan
 zu zara nagusi.
 Aurrian naukazu,
 zoramenaren arian,
 zu gurtzera urtenda
 arimea begian...
 Sagasti zuri, sagasti geldi!
 Altzo bete lora aidean.
 Nork jarri ete orren lore
 zure amantalean?
 Sagasti zuri, sagasti geldi,
 poz andi baten jautziri,
 milla txibirita alboetan
 dagoz zure adi,
 milla tximelet zure oiñetan...
 Nor zaitugu, sagasti zuri,
 ametsen erditze zoragarri,
 ederraren berpizte?
 Emazte gaia, nonbait, bitxiez
 [jantzita
 senargaiaren adi?

Nor zaitugu, sagasti lore?
Ezkontzara zatozan
Jaunaren mirabe,
ala Jaunartzera datorren
Zorionaren ume?
Nor zaitut Zu, Ederra,
uso zurien algara,

urituren edurrite,
lora andi baten auste,
loraen eurite?
Geldi nai zaitut,
irribarre ta lore,
lora nai zaitut azkengabe,
gurtzen zaitut Eder-une...» (1)

(1) «Euskëra», 1962, 347-garren orrialdean.

GARITAONANDIA GOTZON

Urdulizen jaioa (1936). Abadea.

Gizon fiña ta atsegiña; idazle jatorra ta bizkorra.

Ona emen bere idazlan batzuk:

«Balendin Uriona», Bilbao, 1967. Gure txirrindulari andi ta entzutetsua izan genduanaren bizitza.

«Errien Aurrerakuntza». Gure Aita Santu Paulo VI-garrenak egindako «Populorum progressio» enziklikaren itzulpena.

Ainbat lan egin ditu aldizkarietarako bere.

Irakurri daigun bere lora eder bat.

Gure eskolak

«Edozer ikasteko, izkuntza dogu ikasgaia irakasleagandik ikasleagana daroan zubia. Zer eldu eitekean Balendinegana ta beste orduko ta gaurko euskaldun umeekana, zubirik ez egoala?

Zer ikasi geinke, aitzen ez dogun izkuntza baten?

Gaur be bai baiña, guda osteko egunetan amaika kaskarreko ta atzamar puntoko artu genduan erderarik ez genkialako, beste barik.

Erderarik ez guk, ta gure irakasle zana, geu baiño ezjakiñago geurean, agur; itsua itsu-mutil, biok amil. Ikastolarik Euskalerrian dagoanetik, euskaldun umeon eguneroko ogia auxe izan dogu. Auzo-ikastoletan, ikastola nagusietan, abade-ikastetxeetan, prailleenetan, guztietan.

Edozer irakatsi deuskue, geure etxea izan ezik. Edozein umekondok dakiz ludiko mendi nagusiak, agintariak, errekak, antxiñateko jazoerak; eta Euskalerriko mendiak, jazoerak eta gora-berak iñoz entzun bez. Idazten eta irakurten ikasi bear, eta geuk berbetan erabilten genduan izkuntza, amak bularraz emon euskuna, a ezin erabilli, ez berbetako, ez idazteko, ez irakurteko. Erri zapaldua gurea. Gu landuten -etorri ta geu lantzeko geurea gorrotau bear.

«Errien Aurrerakuntzan» ederto diño Paulo VI-garrenak: «Irakatsiak maitasuna lagun dala, ta indarkeri barik ezpadoaz, bapez artzeko arriskuan gelditzen dira». Zoritxarrez, Eleizearen irakatsiak belutxo etorten dira, ta etorri ta gero be indargearentzat paperetan gelditzen dira.

Zenbat izerdi bota ete eban Balendinek, ikasi ebantxua bereganatze-ko? Ziur nago, askotan esango ebala, oba zala atxurrean ekin, ikasten ibilli baiño» (1).

(1). «Balendin Uriona», 12-garren orrialdean.

itzatzea

1850

Onezkero, ainbat euskal-idazle ezagutu doguz. Bizkaiko guztiak ez, orraitia. Ez.

Ulibarri, Iza, Arriandiaga, Zabala-Arana, Aita Pi, «Maruri'tar Erramun», «Aingeru», Amezaga Bingen, Ibiñagabeitia Andima... eta beste batzuk falta dira ildakoen artean.

Goiria, Altuna Joseba, Larrakoetxea Benito, Oar-Arteta, «Kamifazpi», «Oskillaso», Goikoetxea Iñaki, Zubiaga, Arteaga, Atutxa, Aita Martzel, Aresti Gabriel, Sardui Deunoro, Kepa-txiki, Kintana... eta beste asko falta dira bizi diranen artean.

Liburuak, eta gogoak bere, neurri bat eukiten dau-ta... Parkatu.


Itzatean bere, itzaurrean esandakoa esan bear: Beste erri batzuen parean kaskar geratu arren, ba daukagu zerbait guk bere (eta liburu one-tan agertu dogun «zerbaita», Euskalerrri osoko «zerbaitaren» zatitxo bat baiño ez da).

Aspaldion, zerbait ori ugariagotu ta aberastuteko bidean gabiz. Or dagoz, esatebaterako, liturjia barria, kantu barri mordoa, liburu barriak, ikastolak eta abar.

Artu daigun, bada, zerbait ori errezpetoz, eta geugandu ta geuretu daigun, gero, umetxoai, gazteai, edozeiñi emoteko.

Gaurko umetxoak, gaurko gazteak, zerbait orregaz egingo dira biar-etziko gizon euskaldun eta idazle; zerbait orregaz, gure ortuko lora zaar orreikaz, egingo da biar-etziko lorategi ederra.

Orrexegaitik, beti negarrez ibilli barik, kantuz eta itxaropenez jokatu bear dogu, eta Oxiñondoko Txoriagaz abestu:




Kantu
barri
eta
eder bat
ekarri dau
ortuko
lora
zarrak

Noztik ikasi ete dau
udabarriko kantak
ekarri
eta
kantetan
gure ortuko larrosa gorri mutuak?

Ixildu egin dira
inguruetakoko
labatxori
ta
txoriek
larrosa
gorriaren
kantu
barriak
entzuteko.

Gure etxeko umerik txikiena be
erantzuten asi jako
eta zer ederto
aditu
diran
biak
euren
erdi-kantu
erdi-aize
berbeta
zoli-zolian!»



BIBLIOGRAFIA

- VILLASANTE, Luis: **Historia de la literatura vasca**. Bilbao, 1961.
- MITXELENA, Luis: **Historia de la literatura vasca**. Madrid, 1960.
- «ORIXE»: **Euskal literaturaren atze edo edesti laburra**. «Euskal-esnalea», 1927.
- ETXAIDE, Yon: **Amasei seme Euskalerriko**. Zarauz, 1958.
- ONAINDIA, Santi: **Milla euskal-olerki eder**. Amorebieta, 1954.
- ETXENAGUSIA, Karmelo: **Euskal-idazleen lorategia**. Donostia, 1969.
- ONAINDIA, Santi: **Jolasketa**. Bilbao, 1965.
- CORTAZAR, N. de: **Cien autores vascos**. San Sebastián, 1966.
- SAN MARTIN, Juan: **Escritores euskéricos**. Bilbao, 1968.
- LABAIEN, Antonio María: **Teatro eúskaro** (tomo bi). San Sebastián, 1964.
- LEKUONA, Manuel: **Literatura oral vasca**. San Sebastián, 1964.
- MITXELENA, Luis: **Textos arcaicos vascos**. Madrid, 1964.
- MITXELENA, Luis: **Sobre el pasado de la lengua vasca**. Madrid, 1964.
- Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco**. Auñamendi. San Sebastián, 1969.



NUN ZER

itzaurrea

asierako idazleak

Asierako idazkiak		11
Garibai Esteban	1533-1599	17
1956-garreneko Errefranak		21
Kapanaga Martin	-1661	24
Mikoleta Rafael	1611-	26
Barrutia Pedro	1682-1759	29
Olaetxea Bartolome		35
Basterretxea Agustin	1700-1761	37

larramenditarren giroko idazleak

Larramenditarren giroa		40
Mogel Juan Antonio	1745-1804	44
Añibarro Pedro Antonio	1748-1830	57
Astarloa Pedro	1751-1821	64
Madariaga Bartolome	1768-1835	71
Zabala Juan Mateo	1777-1840	79
Mogel Juan Jose	1781-1849	85
Uriarte Juan Antonio	1812-1879	89
Azkue Eusebio Maria	1813-1873	95
Iturzaeta Andres	1838-1912	102
Arrese Beitia Felipe	1841-1906	105

aranatarren giroko idazleak

Aranatarren giroa		114
Etxeita Jose Manuel	1842-1915	118
Agirre Txomin	1864-1920	122
Azkue Resurreccion Maria	1874-1951	138
Bustinza Ebaristo «Kirikiño»	1866-1929	147
Basabe Kandido	1867-1928	159
Eguzkitza Juan Bautista	1875-1939	163
Zamarripa Paulo	1877-1950	169

Altube Seber	1877-1963	176
Enbeita Kepa	1878-1942	180
Uriarte Martin	1879-1960	185
Ibargutxi Jon Gurutz	1883-1969	188
Etxebarria Toribio	1887-1968	193
Arruza Mikel «Arrugain»	1890-1966	201
Garro Bernardo «Otxolua»	1891-1960	206
Jauregi Gabriel	1895-1945	214
Bustinsa Errosa	1899-1953	219
Urkiaga Esteban «Lauaxeta»	1905-1937	224

gure aldiko idazleak

Giro barri bat	233
Manterola Gabirel	238
Larrakoetxea Alejandro «Legoaldi»	241
Ziarsolo Manuel «Abeletxe»	243
Onaindia Santi	245
Akesolo Lino	248
Solozabal Paulino «Egieder»	252
Aurre Apraiz Balendin «Aurraitz»	253
Muniategi Sabin	255
Erkiaga Eusebio	258
Zubikarai Agustin	262
Berriatua Imanol	266
Kerexeta Jaime	269
San Martin Juan	273
Alzola Nicolas	276
Gandiaga Bitoriano	280
Bilbao Felix	284
Etxenagusia Karmelo	288
Etxebarria Juan Anjel	290
Bilbao Antonio	293
Garitaonaindia Gotzon	296

itzatzea	298
-----------------	-----

BIBLIOGRAFIA	303
---------------------	-----

OLA ZAAR
eta

OLA BARRI

gure

BATASUNAREN

OINARRI

LABAYRU-IRASTEGIA	
BIBLIOTEKA - DERIO	
Sarr	14. x 10 / 88
Gaia.	
Tokia.	